



HERNANI 2018 / 19

Hernani urtekaria
(1992-2017)

HERNANI 2018/19

HERNANI URTEKARIA (1992-2017)

Udal Artxibo Zerbitzua



Hernani 2018/19

Hernani urtekaria (1992-2017)



Udal Artxibo Zerbitzua

25. urtekaria 2018/19

Azala: Hernaniko Udal Artxiboa, Argazki funtsa.

Koordinazioa / Aholkularitza

- Patxi Apezetxea Agirre
- Juan Ignacio Elizondo Camio
- Arantxa Laburu Telleria
- Mikel Ruiz Ortiz
- Inaxio Sanz Zalakain
- Arantzazu Zugasti Arizmendi
- Juan Bautista Biurrarena
- Malores Etxeberria
- Jesús García
- Jesús M. Gómez "Txuso"
- Jon Odriozola
- Garbiñe Tijero
- Arrate Azurmendi

Azala(k):

- Luis Errazki Izagirre
- Félix Rincón
- Angel Azkue Oraien
- Adrian Ferreño
- Ana Altolagirre Sagastiberri
- Eduardo Zapirain Mugika
- Mikel Garayar Garmendia
- Enrike Larrarte Arregi
- Peio González Goello
- Alberto Elozegi
- Víctor Goikoetxea
- Hernaniko Udal Artxiboa
- Jesús M. Gómez "Txuso"
- Xabier Arnaiz
- Marisol Yaben – UTS
- Juantxo Egaña

Diseinu eta maketazioa: **GRAFIKOKI**

Lege-gordailua: SS-403-1993

Artikuluetan azaltzen diren iritzien erantzule idazlea bera da.

Las opiniones expresadas en los artículos son responsabilidad exclusiva de sus autores.

AGURRA

“Hernani” 2018/19 urtekaria duzue eskuartean: 25.a. Ale berezia da, aurreko 24 urtekarietan argitaratutako artikuluen aukeraketa egin eta bilduma osatu baitugu. *“Hernani” (1992-2017)* bilduma honetan jasota daude elkarrizketak, historia, ondarea, oroimena, emakumea eta beste hainbat eta hainbat gairekin lotutako artikulak, guztiak ere gure herria ezagutzeko oso baliagarriak.

“Hernani” urtekaria borondatezko lanetan oinarrituta egin da 25 urteotan; hori dela eta, egile eta kolaboratzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu beren ekarpenengatik, Hernani hobeto ezagutzeko ezinbestekoak izan direlako. Eta aipamen berezia egin nahi diogu Txuso Gomez udal artxiboko arduradunari, urte hauetan guztietan egin duen lan eskerga eta oparoa eskertzeko. Pertsona hauek guztiek ahalbidetu dute argitalpen aberasgarri hau gure eskuetara iristea.

Hernaniko Udala

AURKIBIDEA-INDICE

"Hernani eta hernaniarrak". Julian Ezeiza Landa "Aterpe".	10
Megalitismoa Hernanin, bisitazeko gida. ETNOGINTZA.	11
Hernaniren jatorria. Orreagako guduetatik Nafarroa Garaia 1512ko konkistara. Beñi Agirre.	15
Hernaniko tenentzia nafarra orain dela mila urte. Beñi Agirre Oartzabal.	23
San Joan Bataiatzailea eliza hiri barruan. Jose Luis Aperribai.	26
La iglesia parroquial de San Juan Bautista de Hernani. Juan Miguel Rezola Azpiazu.	31
Las ermitas de Hernani. Antxon Aguirre Sorondo.	38
Zikuñagako Ama Kapera. Jose Luis Aperribai.	41
Zikuñagako Ama, mirariaren zain. Leire Goñi.	46
Hernani visto por viajeros extranjeros de los siglos XV al XVIII. Fermin Leizaola.	52
El puerto marítimo-fluvial de Hernani. Evaristo Gonzalez Arrieta "Matxain".	56
El puerto de Hernani. Antxon Aguirre Sorondo.	61
El molino de Carapote. Javi Castro - Iñaki Sanz Azkue.	64
El puerto fluvial de Carapote, un puerto privado en Hernani. Iñaki Gª de Vicuña Olaizola - Javi Castro Montoya	72
El viaducto de Txingurri Txulo. Rescate de una valiosa y desconocida pieza del patrimonio cultural de Hernani. Imanol Jimenez.	78
Notas sobre la Real Fabrica de Anclas de Fagollaga. Luis Lerchundi Vicente.	82
Destino final de las viviendas y oficinas de labrar anclas de la Real Fabrica de Anclas de Fagollaga. Luis Lerchundi Vicente.	90
"Las Mercedes", fabrica de cemento en Fagollaga, 1903-1909. Luis Lerchundi.	98
Ibilbide bat Hernaniko gotorlekuen historian zehar: Erdi Aroko harresitik Napoleonen garaiko guduetako babesetara. Alfredo Moraza.	105
Hernaniko gotorlekuak (II): Karlistadetako oroitzapenak. Alfredo Moraza Barea.	112
Aita Orolaga / Aita Borrascas: primer hombre del tiempo de Euskadi. Marivi Albizu Echeverria.	121
Norteko trenbidea Hernaniko baratzetik. Urko Apaolaza.	126
Urumea bailara, iragan industrialaren lekukoko. Alfredo Moraza Barea - Beatriz Herreras Moratinos.	131
Hernaniko udaletxea, Joakin Fernandez Ayarragaray hernaniar arkitektoaren obra. Juan Ignacio Elizondo Camio.	139
Retratos de reyes y hombres ilustres en la Casa Consistorial de Hernani. Mikel Lertxundi Galiana.	144

Sucedió en Hernani el 1º de abril de 1918. Felicísima Gómez - Juli Ayerra.	149
Duque de Hernani, un título nobiliario rodeado de polémica. José Mª Martínez Mata.	150
Gerra zibila. 1936ko fusilatzeak. Luix Errazkin - Unai Agirre.	153
Memoria Histórica. Hernani, una referencia. Iñaki Egaña.	155
Florentino Goikoetxea. Un hernaniarra héroe de la lucha contra el nazismo durante la II Guerra Mundial. Juan Carlos Jiménez de Aberasturi.	162
El viaducto de Hernani. Juan Ignacio Elizondo Camio.	168
Orduan eta orain. Begoña Gorospe Pascual.	174
Andrekale. Estitxu Eizagirre - Nekane Idarreta.	179
Ilunpetik argitara. Maialen Apezetxea.	181
Jostunak eta Jostundegiak Hernanin. Eulali Aranburu Urkizu.	188
Empar Pineda, feminista eta Hernaniar Bikaina. Eñaut Agirre.	193
Ur-meheak gainezka egiten duenean... Leire Goñi Iradi.	198
Hace cuatro décadas Hernani tembló con fuerza. José Mari Martínez Mata.	205
Trantsizioa Hernanin. Garoa Gonzalez Fernandino.	210
Entrevista formulada a José Mª Setien, Obispo de San Sebastián. Lujan Ruiz Goñi.	215
Atsolarra, euskal jaiotze errito Ereñotzun. Idurre Lekuona Antzizar.	220
Azeri dantza urteetan zehar. Xabier Iriarte.	223
Luis Telleria: "El azeri le aporta sostenimiento a la Azeri dantza".	
Azerikeriak. Jon Odriozola.	228
Hernaniko Musika Banda, mende eta erdi, urtez urte. Urko Apaolaza.	236
Reforma del monasterio de San Agustin de Hernani. Juan Iganacio Elizondo Camio.	242
Zinkoenea plaza.	250
Chillida-Leku. Espacio mágico. J. Angel Azkue Oraien.	252
Chillida-Leku, jatorrira bueltan. Esti Zeberio.	255
El fuerte de Santa Bárbara, radiografía de un enclave hernaniarra.	
Alfredo Moraza Barea.	260
Hernaniko Ibilbide Sarea - Hernani ezagutuz.	
Mendiriz Mendi - Aranzadi - Hernaniko Udala.	268
Nere Borda, Hernaniko lorategi botanikoa. Iñaki Sanz-Azkue - Anaïs Mitxelena.	274
Mendietako buzoiak Hernanin. Inaxio Sanz Zalakain.	280
Parque Natural de Aiako Harria Parke Naturala. José Angel Torres Saenz.	289
Iturmendiko jentil zuloa. FELIX UGARTE Ugarte Elkartea.	293
Minas de Etxolaberri. Jon Estonba Perez - FELIX UGARTE Elkartea.	295
Aberriaren amets eder galdua. Xabier Lete.	300
Xabier Lete eta Hernani. Joxan Goikoetxea.	303
Garai baten hasiera. 1966an, herrian, sona handia izan zuen kultur ekitaldia ospatu zen Aitor antzokian; Ez Dok Amairuren hitzaurre izan zen jaialdia.	
Jon Odriozola - Joxan Goikoetxea.	310
La sidra en Hernani. Antxon Aguirre Sorondo.	315
La movida de la sidra. Lujan Ruiz Goñi	318
"...nere aitamenak izango dira / beste larogei urtian".	326



1999

HERNANI ETA HERNANIARRAK

**Julian Ezeiza Landa "Aterpe"
(HERNANI 1999)**

1

Hernani izandu da
da nere sor lekua,
eta eskertu nairik
oraintxe nijua:
Artxibuetan daude
egintzak bildua.
Aberastasunik ez
jende onradua,ç
pobre jaiotzea zan
guztien errua.

2

Bi kale besterikan
garai baten etzan,
ala ere jendea ondo
bizitzen zan:
batzuk nekazaritzan,
besteak artzantzan.
Astean lan eginda
jai egunez dantzan,
ondo bizituzeko
geroko esperantzan.

3

Herriak izan ditu
gizon ospetsuak.
Baitare buru argi
eta jakintsuak:
Juan de Urbieta buruz
gudari sutuak,
ta aita Kardaberaz
moduko maixuak
zenbat sortu dituan
Hernani goxuak.

4

Kirol eta kulturaz
dago osatura.
Hainbeste seme jator
bertan da sortuta:
herria maite zuten
ezin leike uka.
Hernanin izen ona
dute goralduta,
gaur oiek entzuteak
poztutzen gaituta.

5

Musikatik asita
futbol ta pilota,
txirrindu ta laixterka,
bola eta toka,
batzuek urte asko
ortan igarota,
gaur egun ainbat joko
aukeran dagota
herriai erakutsi
petxuan maillota.

6

Orkolaga jgarle
Eltzekondo pultsun,
herriari emanak
hamaika poztasun.
Adarraga-Rekondo,
zeñek ez du entzun.
Maldaburu-Andola
ainbat alaitasun.
Da tartian Txirritak
bertsotan bear zun.

7

Ikasketak giñuzen
Viterin lenbizi:
Euskeraz itzegiten
guri galerazi.
Diktaduran mendean
nai giñuzen ezi.
Mezeta juaten giñan
bandera ta guzi,
errezatzen baño len
"kara-sol" ikasi.

8

Orduan izaten zan
ainbat elizkizun:
Don Miguel Mendicute
vicario gendun.
Ondoren Don Karmelok
zer egiña bazun:
herriko luixtar danak
beregana jo zunf
berrogel ta bost urtez
mundua utzi zun.



1992

MEGALITISMOA HERNANIN, BISITATZEKO GIDA

**Etnogintza (Itzulpena: BITEZ)
(HERNANI 1992)**

Hernaniko udal mugapean hobi arkeologikoak zirela adierazten zuen lehen berria 1923 urtekoa da, J.M. Barandiaranek “Onyi-Mandoegi”ko mendilerroko “Antxista, Etzela eta Unamene” inguruetan, udalerriaren hegoaldeko muturrean zenbait egitura megalitiko aurkitu zituenekoa, hain zuzen ere.

Urtetan zehar, historiaurrearen zenbait ikertzaile aritu izan da inguruok arakatzeko emaitza bikainekin, eta argitalpen zientifiko eta zabalkundeko desberdinetan ezagutzera eman diren egitura berri anitz eta ugariak aurkitu izan dituzte.

Gaur egun, Hernaniko udalerriaren muga administratiboen barruan kokatutako Ondare Megalitikoa mota ezberdinetako 24 Monumentuk osatzen dute: 8 Dolmen, 14 Kronletx Pirinear, Zista bat eta Monolito bat, “Igoi-Akola”ko eta “Onyi-Mandoegi”ko mendilerro eta Estazio Megalitikoetan banaturik. Egitura hauek oinarritzko perspektiba eskaintzen dute lurraldearen zati honetan izandako okupazioen maiatasun eta intentsitateari dagokionez, zenbait giza-talderi dagokionez eta Kristo aurreko bigarren milurtekoetik K.a. III. mendera bitarteko kultur etapa desberdinetan zehar.

Ekar dezagun gogora Dolmenak bereziki K.a. 2.000-900 urte bitarteko aldiari dagozkion hilobiak direla eta gehienetan hiru, lau edo harri bloke gehiagok osatutako poligono forma duen itxitura dutela, zenbaitetan estalki moduan jarritako beste bloke batek isten duena, multzo osoa harri koskorrez eta lurrez gainetik estalita, tumulua osatuz.

Ganbara honen barruan, normalki E.-W. (eguzkiaren irteera-sarrera) norabidean ezarrita, hildakoaren gorpuak uzten zuten, bere gauzekin batera. Hilobi hauek behin eta berriz erabiltzen zituzten benetazko panteoiak osatuz.

Gogora dezagun, halaber, Kronletx Pirinearra zirkulu forma duen hilobia dela, lurrian bertikalki sartutako harrizko zenbait bloke osatua, eta barnealdean, lurrazpian, hildakoaren eta berau erretzeko erabilitako materialen errautsak gordetzen zirela, eta K.a. 900garrenetik 300era bitarteko sekuentzia kulturalen barne sartzen dela.

Ondare Kultural garrantzitsu hau ikusi eta gozatu ahal izan dadin, ondoren bi ibilbide deskribatuko ditugu, gure uste apalean Saratsetako Lepoa eta Mulisko Gaina inguruetara joan eta erraz iristeko egokiak bait dira. Bertan aurkitzen diren Dolmena eta Multzo Megalitikoa kanpo arkitekturagatik adierazgarrienak direlako eta ia urte osoan zailtasunik gabe ikus daitezkeelako aukeratu dira.

Eta, bide batez, aipatutako ibilbidetik hurbil dauden beste zenbait elementu deskribatzeko ere aprobeztatu dugu aukera hau, Historia eta Etnografia aldetik interesgarriak bait dira.

Ondare honen ulermenean eta azterketan sakontzeko lagungarri izango den oinarritzko bibliografia ere aipatuko dugu.

Esan behar dugu, bestalde, ibilbide hauek goiz batean presaka ibili gabe egiteko edo arratsalde inguruak eskaintzen dituen beste zenbait aukera ikusten aprobeztatu ahal izateko, inguru hauetara hurbiltzeko bidea kotxez egiteko moduan prestatu dugula.

Eta ibilbideak deskribatzen hasi aurretik esan, lan honetan azaltzen den toponimia Hernaniko Udaltxite Garaia 1:15.000 eskalan laster batean argitaratu emango duen mapan agertzen denarekin bat datorrela.

Salbuespen gisa esan behar dugu Monumentu Megalitikoari argitalpen zientifiko jakin batzutan eman zaizkien izendapenak errespetatu ditugula.

1.- SAGASTIETAKO LEPOKO DOLMENERAKO BIDEA

Saratsetako mendilepoan dago kokaturik, Igorin (Igoi)-Akola bezala ezagutzen den mendilerroaren hego-mendebaldeko muturrean, metro batzu iparralderantz eta Akola baserritik gora.

Hernaniko kaskotik hasita, Goizuetarako errepi-dean zehar, Epeleko jatetxea pasa eta berehala, erre-pidea utzi eta ezkerretara, iturri baten ondoan (ur kaltegarria), Larregi baserri ondotik igaroko den pis-tatik gora joko dugu Akola baserrira iritsi arte.

Larrainetik aurrera pista harri txintxorrezkoa da, baina aise ibiltzekoa, aldi berean.

Badago Akola-ra Epeleko aurrera 2 kilometrota-ra dagoen Ereñotzuko auzotik iristeko modurik eta bertan gabiltzanez aukera ederra dugu errepidetik ezkerretara, auzoan sartu eta bereha-la, aitzinako Txilibita dorretxea ikusteko, puntu erdiko arku eta leihozulo irekietan arku konopialak dituen bere sa-rrean dobelatuarekin.

San Antonioren eliza ondoan, eskuinetara, hormi-goizko pista bat hasten da, aldapa gogorrean Alka-txurain baserri ingurutik gora doana. Hementxe ikus dezakegu, askaren ondoan, leku honetan garai batean zegoen aintzinako mugarri zentrala. Puntu honetatik aurrera pistaren bidea, harri txintxo-rezkoa, erraz egin daiteke Akolaraino.

Akolara, mota askotako zuhaitzek babestutako leku zoragarri honetara iritsi eta behin, ibilgailua baso-bideak ez istearren ertzean utzi eta gora joko dugu, erreferentzi gisa Akola baserria hartuz, Iparral-derantz daukagun lepo gaineraino. Behin gora iritsi garenean, eta Sagastietako Lepoa II izenez ezagutzen den Dolmenaren ondotik pasa eta gero (ezkerretan eta bidea baino beheraxeago, bere proportzioenga-tik eta gainean duen landaretzagatik aurkitzen zai-la dena), aurkituko dugu Sagastietako Lepoa I izenez katalogatutako Dol-menaren egitura zoragarria.




Sagastietako lepoko dolmena

Dolmen ale bikain hau, 1950ean aurkitu eta in-duskatutakoa, Brontze Aroko (K.a. 2.000-900) hilo-bi arkitekturaren adierazgarri nabarienetakoa da. Ganbarak, estaldurak eta tumuloak gure ingu-ruetako leku gutxitan bezala irauten dute, nahiz eta aipatu beharra dagoen tumuloa ebakiz ganbararen aurrean dagoen pasabidea indusketa egin zeneko garaikoa dela.

Lekuaren zabaltasuna, norabide guztietan irekia, eta monumentu ikusgarriaren behaketak, eraiki zene-ko garaietara eraman gaitzake irudimenari aukera ematen badiogu...

Bertatik, mendilerroan zehar Igorinerantz abia gai-tezke Ipar-ekialderako norabidean, Akolako men-dilepoa jeitsi ondoren, beronen muturretan mota bereko bi egituren gerakinak ikus ditzakegularik (planoan adierazten dira), eskuinetik jaisten den pis-tan zehar abiatu garen puntura itzuliko gara. Berriz Akolan gaudela, bertan dagoen jolas-guneko aterpea eta instalazioak erabil ditzakegu.

Erantsitako krokisean, inguruan, sarobearen erdian, ikus daitezkeen mugarri sailaren gutxi gora behe-rako kokapena ere adierazten dugu. Erreferentzia gisa kararrizko mugarriak direla esango dugu, for-ma errektangularrekoak eta metro 1eko altuera ingurukoak, goikaldean marrazki banarekin. Ma-rrazki hauetan zirkulu bat ikus daiteke eremu hauek mugatzen zituzten mugarrien norabide eta kokape-naren adierazle.



Akolako sarobearen mugarri zentrala

2.- MULISKO GAINA-KO MULTZO MEGALITIKOA

Multzo hau ordoki batean dago kokaturik, Oindi (Onyi) mendiaren hego-ekialdeko hegalean.

Hernaniko kaskotik, Portu eta Osinagako (Osiñaga) auzoetatik barrena Loidi baserriaren alboan, Bortoloanea baserri paretik Pardiola baserriraino igotzen den bidea hartu. Puntu honetan kotxea utzi, hemendik aurrerako pista “todo-te-rreno” ibilgai-luek soilik zeharkatzeko modukoa bait da.

Erdiko pistatik gorantz, 500 bat metro ibili ondoren, Argurutzeko inguruetara iritsiko gara, gaur egun pistaren gainean eskuinean kokatutako uralita bil-tegi batzurengatik ezagut daitekeelarik.



Argurutzeko gurutzea

Inguru hauetara iristerakoan, aipatutako biltegiak dauden lursailera igaroko gara, alanbre tartean dagoen pasabidetik; biltegi horietako baten ondoan harkaitz batean landutako gurutze greziar bat dago, eta goraxeago, beste bloke baten parean patriarkal moduko beste gurutze bat, hau ere zorrotza. Leku honi aspalditik deitzen zaio Argurutze, gurutze horiengatik hain zuzen.

Ibilbidearekin jarraituz, Saratsain baserriraino iristen den pista ezkerretan utzi, eta gutxi gora behera beste 2 km. ibili ondoren, zati batzutan oso bide malkorrean gora igoz, Muniskueko lepora iritsiko gara. Mendi-lepora iritsi baino metro gutxi batzuk lehenago txabola baten alboan eta bidearen eskuineko ertzean ur ona darion iturri bat aurkituko dugu.




Mulisko gainako multzo megalitikoak

Bertara iritsi orduko, kararrian landutako enbor piramidal itxurako bloke bat ikusiko dugu; bertan oraindik ere bere gainaldean leku honetan kokatuta zegoen sarobearen erdiko mugarri izaera ematen zioten zirkulua eta bi radioak ikus daitezke.


Lepoa beste alderaino luzetara zeharkatuz, hegoalderantz, Urnieta eta Hernaniko udalerrien arteko muga adierazten duen pago Ierro bateraino iristerakoan eskuinetara igoko gara, Mendebalderantz, Muliskue Gaina inguruetaraino jendeak “Kanposantu Zaharra” deitzen dion lekura, non Burdin Aroko multzo megalitiko ikusgarria da—goen (900-300 K.a.), bertan lau Kronletx Pirinear, ganbara bikoitze-ko zista eta zutarri bat ikus ditzakegu.

1956, 1976 eta 1978 artean aurkitutako eta 1983 eta 1985 artean induskatutako multzoak ez du azalpenik behar nahiko adierazgarria eta gogoetagarria bait da inguruak gordetzen duen mezuan sar gaitzen.

Ibilbide beretik itzul gaitezke, edota ingurua aztertu ondoren, bertako edozein bidexkatatik jetsi, zelaie-tan barrena Pardiola baserriraino iristeko.



Sagastietako Lepoko dolmenarako bidea



Mulisko gainako multzo megalitikora bidea.

ALTUNA J.; MARIEZKURRENA, K.; ARMENDARIZ, A. et al.

1982. Carta Arqueológica de Guipúzcoa. Munibe 34: 1-242 + Cartografía. San Sebastián.

ALTUNA, J.; ARMENDARIZ, A.; BARRIO, L. del et Al
1990. GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKA. I. ME-
GALITOAK. MUNIBE 7. ERANSKINA. SAN SEBASTIAN

APELLANIZ, J.M. (1973)

Corpus de materiales de las Culturas prehistóricas con cerámica de la población de las cavernas del País Vasco Meridional. MUNIBE Suplemento 1. 1.366 San Sebastián.

ATAURI, T.; ELOSEGUI, J.; LABORDE, M. (1951)

Exploración de tres Dólmenes de la estación dolménica de Igoín - Akola (Gipuzkoa). MUNIBE 3. 1-56 San Sebastián.

BARANDIARAN, J. M. de (1926)

Estaciones Megalíticas en Navarra. RIEV 17.358.368. San Sebastián.

BARANDIARAN, J. M. de (1928)

Nueva estación prehistórica en Guipúzcoa. Los Dólmenes de Landarbaso sumario de Eusko-Folklore 8. 15 3-156. Vitoria.

BARANDIARAN, J. M. de (1926)

Catalogue des stations préhistoriques des Pyrénées-Basques (Ikuska 1 24-40. Sare)

BARANDIARAN, J. M. de (1953)

El hombre prehistórico en el País Vasco. Ed. Ekin. Buenos Aires.

BARRIO, L. del (1979)

Nuevos Monumentos megalíticos en Guipúzcoa. MUNIBE 31. 257. 273, San Sebastián.

BARRIO, L. del y UGALDE, Tx. 1980

Nuevos monumentos megalíticos en Guipúzcoa. MUNIBE 32. 343. 378. San Sebastián.

ELOSEGUI, J. (1953)

Catálogo dolménico del País Vasco. Pirineos 9. 229. 378. Zaragoza.

HERNÁNDEZ, J. M.; (1957)

Notas sobre dos posibles restos prehistóricos. MUNIBE 8. 152-155. San Sebastián.

PEÑA BASURTO, L. (1960)

Reconstitución y Catalogación de los cromlechs existentes en Guipúzcoa y sus zonas fron-terizas con Navarra. MUNIBE 12. 89-212. San Sebastián.

PEÑALVER, X. (1987)

Estudio de los Menhires de Euskal Herria. MUNIBE 35. 255. 450. San Sebastián.

PEÑALVER, X. (1987)

Mulisko Gaineko indusketa arkeologikoa. Urnieta - Hernani (Gipuzkoa). MUNIBE 39. 93-120 San Sebastián.



2011

HERNANIREN JATORRIA: ORREAGAKO GUDUETATIK NAFARROA GARAIAREN 1512KO KONKISTARAINO

Beñi Agirre (Hernani Errotzen Elkartea)
(HERNANI 2011)

Artxibategiko dokumentu bat

Luis Murugarren apaiza eta historialariak *Hernani, su historia e instituciones* liburua idatzi eta Caja de Ahorrosaren laguntzaz argitaratu zuen 1970ean, Burgoseko prozesua bere gordinean zegoen urte berrean. Lehenengo atalean honela dio: “*Cuando aparece, pues, Hernani en la Historia, Guipúzcoa estaba unida políticamente a Navarra y eclesiásticamente esta región era disputada por Pamplona y Bayona*”. Franco bizi-bizirik zegoen hartan ez zitzairen ausardiarik falta izan Murugarreni eta Caja de Ahorros Municipal de San Sebastiani Hernani politikoki Nafarroari lotua izan zela idatziz jarri eta publikatzeko. Hala ere, ez dirudi garai hartan inork erreparatu zionik Hernaniren nafartasunaren aipamenari.

Gaur, ordea, historia kontuetan zertxobait jantziago eta gauzak idatziz jartzeko librexeago, garbi esan dezakegu Gipuzkoa ez zegoela Nafarroari lotuta. Bi arazoi nagusi daude hori esateko: bata, garai hartan ez zela existitzen Gipuzkoa; eta bestea, Hernani “*no estaba unida a Navarra*”; hau da, Hernani Nafarroako lurraldea, tenentzia bat, zela. Hernani Nafarroa zen, Zangoza eta Lizarra bezalaxe.

Aipatutako liburuan, ezagutzen ez nuen dokumentu batetik ateratako aipamen harrigarri bat ere bada: *La situación próxima de la villa a la frontera con Gascuña y Navarra le va a obligar constantemente a enviar sus hombres más fuertes a la lucha como fueron cuando Carlomano yntento entrar...*⁽¹⁾. Jatorrizko dokumentua Hernaniko artxiboan aurkitu nuen, artxibozainaren laguntzari esker. Honela dio: “*en el discursso de 900 años de esta parte en ospedar y / agasagar la ynfanteria y caualleria que a estado en ella en las dichas / ocassiones y en las demas que baxan para lo (sic) exercitos de Flandes / y armadas [Reales de] Vuestra Magestad como en su resturacion no sola/mente acudien[do a l]as conquistas sino a la defenssa de que otras / nazione no entrassen a ganar la parte que los christianos pos[e]/yan como fueron quando Carlomano yntento entrar en ella*”.

(1) HUA/AMH/E-4-II-2/3. Documentos referentes al Patronato de la Iglesia Parroquial de Hernani y a las gestiones realizadas por la villa para ser favorecida con la merced del mismo... En los memoriales elevados para apoyar esas pretensiones, se hace relación de los servicios prestados a Su Majestad por la villa en diferentes ocasiones... 1606 1800.

Dokumentua XVII. mendearen azken erdialdekoa da; hortaz, 900 urte atzera eginez gero, Orreagako guduaz ari dela pentsatzeko bide ematen du: 778. eko abuztuaren 15eko bataila hartaz, alegia. Idatziairen testuingurua kontuan hartuta, Espainiako erregeari mesede eske idazten ari zaio, eta, anakronismo ugari izanda ere, dokumentu horrek erakusten du hernaniarrek 778ko Orreagako gudura joan zirelako ustea bazutela XVII. mendean. Dokumentu hau eta Pasai Donibaneko harrizko plakaren testigantza kontuan hartuta, pentsa daiteke Urumea bailarako lur hauetatik joandakoak baskoiekin batera borrokatu zirela Orreagako batailan. Baskoiekin batera? jakina! Hernanikoak ere baskoia baitziren.

Hernani dokumentu idatzi faltsutuetan

Murugarrenek esateko Iruñeko eta Baionako elizak norgehiagoka ari zirela, Arsius Raca Baionako artzapezpikuaren idatziaz baliatuko zen, noski (980koa omen den dokumentua eta XII. mendean faltsifikatua⁽²⁾). Garai horretakoak dira, era berean, Baionako San Leon zaindariaren elezaharra eta Gaskoniako kondeak normandiarrek hartutako lurak berreskuratzea. Gaskoniako kondea Antso Gilen zen, Gartzia Sánchez I.a Nafarroako erregearen zerbitzari eta haren alaba Urrakarekin ezkonduakoa. Hortaz, bai Baiona bai Iruñea Nafar errege-erreginaren gobernupekoak izanda, ez da hain harrigarria hamarrenak edo diezmoak zein elizbarrutik eskuratuko zituen erabakitze liskarra.

Baionako dokumentu horren aurretik ere bada Hernani azaltzen den beste bat: *Los Votos de San Millan* izenarekin Antonio Ubietok aipatzen duena.

Fernán González Gaztelako kondeak egiten duen dohaintza batekoa da. XII. mendearen erdialdean Donemiliagako (San Millan de la Cogolla) monjeek

(2) Arsius Raca, Baionako Artzapezpikua: 980. urtekoa da eta elizbarrutiaren hegoaldeko mugak zerrendatzen ditu, Ibañetatik hurbil dagoen Carlomagnoen gurutzetik hasita, Pirineetatik rago, goi Nafarroako hainbat haran, Bidasoa ibaiaren arroa eta gaur egungo Gipuzkoaren zati bat hartzen dituela: *Omnis vallis que Cirsia dicitur usque ad Karoli crucem, vallis que dicitur Bigur; vallis que Arberua dicitur; vallis que Ursoxia dicitur; Bastan item vallis usque in medium portum de Belath; vallis que dicitur Lerin, terra que dicitur Ermania [Hernani], et Sanctum Sebastianum de Pusicu [Ipuzcoa] usque ad Sanctam Mariam de Aroth, et usque ad Sanctam Trianam [Lizarrate euskaraz eta San Adrián gaztelaniaz]. Dubarat-ek Missel de Bayonne de 1543 agiriaren sarrean, Paue, 1901.*

monasterioa indartze aldera faltsifikatutako dokumentuan, 934koa ei zena, hau diote: *De rivo de Galharraga usque in flumen de Deva, id est tota Vizcaya, et de ipsa Deva, usque ad Sanctum Sebastianum de Hernani id es, tota Ipuzcoa a finibus Alava, usque ad ora maris, quidquid infra est de una quaque alboze singulos boves.*

Nafarroako tenentzia zen Ipuzcoako lurak deskribatzen ditu dokumentu horrek: *et de ipsa Deva, usque ad Sanctum Sebastianum de Hernani.* Deba eta Oria ibaien (*San Sebastian de Hernaniraino*) arteko lur horiek, 1025ean, Olazabalgo San Salvador monasterioren lurak San Joan de la Peñari García Azenariz eta Ipuzcoako doña Gailak egindako dohaintzaren benetako dokumentuan azaltzen dira. Hor ere bi monasterio indartsuen liskarra antzeman daiteke, biak ala biak monasterio nafarrak garai horretan, bai San Millan de la Cogollakoa bai San Joan de la Peñakoa.

Gaztelako kondearen papera zein den argitzeko daukagu, ordea. Fernán González Burgoseko konde Gonzalo Fernándezen semea zen, Gaztelako lehenengo kondetzat hartzen da eta Arabako konde bezala ere sinatzen zuen 931tik aurrera, Nafarroako erregea zen Gartzia Sánchez I.aren arreba-rekin ezkondu ondoren. Geroago, Fernán González hori Nafarroako errege-erreginaren alaba Urraka Gartzesekin ezkonduko zen. Hortaz, errege-erreginaren babesean eta emazte nafarren aldetik zetorkion Ipuzcoako ustezko titulua. Horren froga garbia da Gaztelako konde horren seme eta oinordeko Garcia Fernandezek ez zuela Arabako konde titulurik erabiliko. Nafarroan, karguak ez ziren oinordetzakoak eta Gaztela ez zen erresuma izango 1037.era arte. Iruñeko Erresuma 824an sortu zuten baskoiek eta berehala zabaldu zuten agintea haien lurraldean. Hernani modu fidagarrian aipatzen duen lehenengo dokumentua Antso III.a Nagusia Iruñeko erregeak Leire monasterioari egindako dohaintza batekoa da. Ezagutzen dugun kopia geroago idatzitakoa bada ere, dohaintza 1014ko apirilaren 17an eginda bezala agertzen da. Dohaintza hori 1101ean berretsiko du Aragoi eta Iruñeko Pedro I.a erregeak: ..., *damus et offerimus ipsi Deo, et sanctis praenominatis, et Monasterio Leioresi, ..., et monachis in eo habitantibus in Dei servitio praesentibus ac futuris, in finibus Ernani ad litus maris Monasterium unum, quod dicitur Sancti Sebastiani cum parrochia sua, et illam villam, quam antiqui dicebant, Yzurum...*⁽¹⁾.

Hernani itsasoraino iristen dela dioen esaldiak (in finibus Ernani ad litus maris) ingurune geografiko bati egiten dio erreferentzia.

(1) "... damus et offerimus ipsi Deo, et sanctis praenominatis, et Monasterio Leioresi, et vobis spirituali patri et magistro nostro Dompno Sanctio Episcopo, et monachis in eo habitantibus in Dei servitio praesentibus ac futuris, in finibus Ernani ad litus maris Monasterium unum, quod dicitur Sancti Sebastiani cum parrochia sua, et illam villam, quam antiqui dicebant, Yzurum cum Ecclesiis suis scilicet Beatae Mariae, et Sancti Martyris Vincentii, & (Iruñeko artzapezpikuen katalogoa, Prudencio Sandoval abispaok emana; 1614. urtea) (<http://hedatuz.euskomedia.org/1944/1/26393422.pdf>)

Ez dakigu jende-populazioak non izango zuen justu bizitokia, nonbait bizilagunen kontzentrazioak baldin bazen garai hartan. Hala ere, bi arrazoi badira it-sas bazterrean, egungo Donostian, jendearen bizitoki nagusia ez izateko: bata, itsasertzeko inguru hori urmael, padura, eta zingirak izango zirela, populatu ezinak eta eltxoz betetakoak gainera; eta bestea, itsasotik zetozen erasoan aurrean, bertakoek ez zutela defentsa errazik itsasertzean bertan. Arrazoi horiez guztiez gain, Hernani oraingo toki inguruan izan zitekeela esateko, aldeko arrazoi bat behintzat badago: Urumea ibaian barrena Hernaniraino, oraingo Portu auzoraino, iristen zirela itsasontziak; horrek, babes handia ematen zien biztanleei, baita itsasotik bizi ziren arrantzaleei ere.

Hernani Donostiako Foruan

Hernani bere barruan hartzen duen lurraldeari buruzko hurrengo aipamen garrantzizkoa, berriz, Donostiako Foruan agertzen da ⁽²⁾. 1180 inguruan, Antso VI.a Jakituna errege baskoiek Donostian erresumaren itsas portu nagusia eraiki zuen: *Dono ad populos de Sancto Sebastiano, de Undarabia usque ad Oriam, et de Arrenga usque ad Sanctum Martinum d' Aran totum saltum quod ego habeo intra terminum, et totum quod ibi est sit de realengo.*

Alegia, Donostiako herritarrei ematen diet Undarabiatik (Hondarribitik) Oriaraino (ibaiak egiten du Ipuzcoa eta Hernaniko tenentzien muga) eta Arrengatik (Errenga mendia, Oiartzun eta Lesakako mugan dagoena izan daiteke) Aranorainoko lur eremuen barruan jabegoan dudana eta bertan erregearena den guztia ⁽³⁾.

Hiri Gutun horri esker Iruñeko erresumaren itsas portu garrantzitsuena egin zen Donostia. Jakatik, Iruñetik eta Gasteiztik zetozen artile, ardo eta garia hemendik bidaliko ziren Europara eta horrek aldaketa handia eragingo zuen nafar kostaldean. Baleen arrantza eta Europarekin merkataritza harremanak garapen izugarria izango dute. Gaskoniarrak, Akiti-niako baskoi erromanizatuak, bertan finkatuko dira eta Oria - Bidasako nafar tenentziaren hiri nagusia izango da oraingo Donostia.

Antso VI.a Jakitunak (1150-1194) aldatu zion izena erreinuari, Iruñeko erresuma zena Nafarroako erresuma izango da aurrerantzean. Horren harira edo izendatu zuen euskara nafar guztion hizkuntza: lingua navarrorum. Antso VI.a baskoien errege nafarrek sartuko gara euskaldunok nolabaiteko Estatu-egitura modernoan. Europako beste erresumetan egiten ari ziren bezala, Nafarroan ere, hiriak birpopulatzeko eta ekonomikoki bultzatzeko hiri gutunak ematen hasi ziren. Antso VI.ak eman

(2) Gipuzkoako historia <http://www.ingeba.org/liburua/donostia/43fuero/43fuero.htm>


(3) <http://www.nabarralde.com/dok/agiriak/A103.pdf>

zituen gehienak: Durangori, Tuterari, Gasteizi, Son-
sierrari, Trebiñuri eta beste askori, baita Donostiari
ere. Antso VI.aren seme Antso VII.a Azkarrek Mota
gatzeluaren eraikuntza jarraitu eta harresitu zuen
Donostia.

Hernaniren inbasioa eta konkista

Antso VII.a Azkarrarekin amaitu ziren lurralde
honi buruzko nafar aipamenak. 1200. urtearen au-
rretik, aztarna guztiek Nafar Estatu independen-
tearen ezaugarriak dituzte, ondorengoek, berriz,
Gaztelarren sinadura izango dute. Historialari ge-
hienek, horietan ofizialista diren guztiek, bat-bate-
ko aldaketa horren arrazoiak azaldu gabe kontatzen
digute gure herriaren historia, gu euskaldun eta
nafarrak izatetik gaztelar-espainolak izatera modu
naturalean eta inongo bortxarik gabe pasatu izan
bagina bezala. Zer gertatu zen, bada, 1200. urtearen
inguruan? Zer ezkutatu nahi digute?

Alfontso VIII.a gaztelarraren osteez Gasteiz setia-
tu eta suntsitu egin zuten 1200eko udaberrian.
Gasteiz garai hartan Nafarroaren eta Gaztelaren
arteko mugako nafar-hiri harresitu garrantzitsue-
netakoa zen. Gaztelarrek hiria suntsitu eta handik au-



Nafarroaren konkista, 1060-1620 (NABARLUR). 1200. urtean
Gaztelak Nafarroako erresumako mendebalde konkistatu zuen.
Antso VII.a Azkarra bertan ez zela aprobetxatuz, Gaztelako errege
Alfontso VIII.ak eraso egin zion, nahiz eta erresuma gordeko ziola zin
egina zion. Gasteizek ia urtebete eutsi zion, eta erregeak eskatuta
baino ez zen entregatu. Alfontso VIII.a Gipuzkoan eta Durangalde-
an ere inposatu zen. Trebiñuk bakarrik eutsi zion 4 urtez; Gaztelako
erregeak lurralde hori lortu zuenean Arabatik banandu eta konderri
feudala sortu zuen (Sorauren, Mikel: Historia de Navarra, el Estado
vasco. Pamplona, 2008).

rrera, lehenago Bureba eta Errioxako nafar lurretan
egin zuten bezalaxe, armada indartsua sartu zuten
Araba, Durangaldea, Aitzorrotz, Ipuzcoa eta Herna-
ni-Donostia tenentzietan barrena, Baionaraino.

Erdi Aroko konkisten testuinguruan, hemen gerta-
tutako bortxa, hilketa, lapurreta eta arpilatze ekin-
tza ugari eta herritarren sufrimendua ezabatu nahi
izan dituzte. Inbasio eta konkista ekintza lotsagarri
horri Gipuzkoa eta Gaztelaren arteko borondatezko
bat-egitea deitu izan diote kronista batzuek. Gezur-
ra diote, ordea. Garai hartan ez zegoen Gipuzkoarik,
beraz, ez zegoen gipuzkoarron izenean hitzarmena
sina zezakeen ez agintaririk ez erakunderik. Aginte
bakarra nafar errege-erreginarena eta hauen ize-
nean ziharduten tenenteena zen. Gainera, ez dago
bat-egite edo pacto izan zelako frogarik; ordea, kon-
kista izan zelakoa bai, garaiko dokumentu idatzian
gainera.

Dokumentu hori edonoren esku dago Gipuzkoako
Foru Aldundiak argitaratutako bilduma honetan:
*Colección de Documentos Medievales de las villas
Guipuzcoanas*. Dokumentuaren izena, berriz, hau:
*Traslado del fuero de San Sebastián sacado a peti-
ción del concejo de la villa de Guetaria*. Idoia Arrie-
ta historialariak dokumentu bitxi honen jarraipena
eta ikerketa egin du. Prentsa artikulua batean aipa-
tzen duenez ⁽¹⁾, aurkitutakoa sinestezina iruditu
zaio, izan ere, dokumentua irakurri eta “Hurrengo
pausua Madrilgo Errege Akademian jasota dagoen
agiriarekin konparatzea izan da”. Eta hemen aurki-
tu zuen tranpa. “Azken honen benetako izenburua
hau da: 1202-1332 Guetaria SS. *Parte del Fuero de
S.S. Y en el preambulo se dá por sentada la conquista
de S.S.* eta dokumentuaren ezkerreko aldean ohar
bat: “*ojo conquista de S.S.*” Sinestezina dirudi”. Gauza
asko argitzeko baliagarria izango zaigu dokumentu
hori.

Alfontso VIII.ak Donostia konkistatu egin zuen; be-
raz, Hernaniko tenentzi nafarra konkistatu zuen.
Historialari espainiar eta espainiarzaleek betidanik
jakin izan dute bortizki egindako eraso bidez ken-
du zizkietela lurak Erresuma nafarrari, bai 1054an,
bai 1200ean, bai eta 1512an ere. Historialari ofizia-
lek, berriz, nahiago izan dute hori ezkutuan gorde
eta hitzarmena eta borondatezko bateratzea bezala-
ko asmakizunak kontatu. Historialari ofizialek kon-
tatzen digute inongo gupidarik gabe Nafar errege
batek, 1180an, Donostiari emandako Hiri Gutuna
1203an Gaztelako erregeak zin egin zuela eta kitto!

inongo azalpenik gabe, gezurra esanez, edo historia-
lari batentzat larriagoa dena: gertatutakoa isilduz.
Askok esaten dute, berriz, Hernani XIII. mendearen
erdialdean (1252-1256) fundatu edo sortu zela.

(1) <http://www.nabarralde.com/es/egunekoa/6441-historialari-ek-zkuta-tu-digutena-donostiaren-konkistaren-dokumentua>



Papeles, memoriales y apuntamientos / tocantes a la pretensión que tiene / la villa del Patronato de su Iglesia / Parrochial de San Juan Baptista.

Copia del memorial que se remitió a Ju[an] (1)/ Gorostidi sobre el patronato de Hern[ani] (2)/ y servicios de la villa.

(1) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(2) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

Documentos referentes al Patronato de la Iglesia Parroquial de Hernani y a las gestiones realizadas por la villa para ser favorecida con la merced del mismo, que dieron por resultado le fuese otorgado por el término de doce años. En los memoriales elevados para apoyar esas pretensiones, se hace relación de los servicios prestados a S.M. por la villa en diferentes ocasiones..., 1600-1800 (HUA/AMH/E-4-II-2/3)

Horretarako bi argudio erabiltzen dituzte: bata, Tolosan egindako 1489ko Batzarrean esan zutela Hernaniko ordezkariak Herriko Hiri-Gutuna sute batean erre zela; eta bestea, ziurtatzerik ez badago ere, Gaztelako erregearen lurretan eta Nafarroa Garaiarekin muga, Hernani ere Alfonso X.ak sortua izatea logikoa dela, garai berekoak baitira muga-lerro horretan sortutako Hernani bezalako beste hainbat herri.

Lehenengo argudioan errazkeriaz baztertzen da Hernaniko sute horretan nafarrak ginen garaiko dokumenturik jasota egotea artxiboetan.

Ala gaztelarren dokumentuak bakarrik erre ziren? Nahiko probatua dago eta, Hernani bat bazela hemen errege gaztelar-espainolen konkistaren aurretik. Bigarren argudioan, berriz, leialago litzateke esatea Hondarribitik Logroñoraino zeuden hainbat hiri estrategiko, Gaztelak gotortu eta prestatu zituela 1512ko konkista burutzeko. Haien artean, Hernani.

Artikulu honen hasieran aipatutako dokumentuan, honela kontatzen da 1512ko konkistaren pasarte: “y en particular el año de / 1512 quando entro el exercito de Francia en los reinos de Nauarra y dicha / provincia de Equipuzcoa (sic) acudio con toda su gente a su defenssa por / cuya caussa fue saquea-

da y quemada en dicha ocasión.”. Esaldi motz eta mamitsua da, baina egileak bere burua salatzen du bertan. Gaur egun, mundu guztiak daki, 1512an, Nafarroa Garaia konkistatzera sartu zirenak ez zirela frantsesak izan, gaztelar eta behe-aragoiarrak baizik, espainiarrak finean. Garbi jarri zuen idatziz Gipuzkoatik borrokatzera joan zen jendea espainiarren alde aritu zela eta, esaldia horretan, argi jartzen du zergatik erre zituzten ondoren, Hernani eta inguruko beste herriak: nafar erresumaren kontra aritu zirelako “por cuya causa fue saqueada y quemada”.

Historialari ofizial askok jarraitzen dute gezur beraren gainean gure herriari buruzko kontaketa historikoa egiten: Hernani frantsesek erre zutela? Gipuzkoatik, Hernanitik, Iruñera joan ziren guztiak Espainiaren alde egin zutela? Bai, zera! Ez al zegoen nafar gizon-emakume leialen artean, hernaniarrik? Frantsesak al ziren denak?

Galdera asko dago oraindik argitzeko, baina seguru asko ez dugu denbora luzean galdera horien erantzunik jakingo, agian ez dugu inoiz jakingo, zeren eta espainiarrek lurralde bat konkistatzen zutenean, gustuko ez zituzten dokumentuak erretze zaleak baitziren oso.

En la villa de Hernani que es en la prouincia de Eguipuzco (sic) dice que / ella y sus vecinos tienen hechos muchos y muy particulares seruicios / a Vuestra Magestad y a los señores reyes sus predecesores en defenssa de la yglesia / y de su Real Corona siendo plaza de armas de la dicha prouincia en todas / las ocassiones que se an ofrecido y frontera de Francia y aun de Nauarra / mientras se yncorporo aquella de en esta de Vuestra Magestad y en particular el año de / 1512 quando entro el exercito de Francia en los reinos de Nauarra y dicha / probincia de Eguipuzcoa (sic) acudio con toda su gente a su defenssa por / cuya caussa fue saqueada y quemada en dicha ocasión y en el de / 1559 quando entraron la gente de la probincia y Nauarra en / Francia sirvio con todos sus vecinos asta que se tomaron los puestos / y se hizo la fación. Y el de 1570 queriendo el enemigo tomar a / Fuenterrauia fue el prim[ero que se] ⁽¹⁾ puso al passo en la oposicion, con 300 / hombres con que se le[s sit] ⁽²⁾ iar y el de 1597, que yntento lo / mismo acudio con la misma compañía con otra tanta gente. / Y el de 1618 sirbio con una escuadra para Fuenterrauia y el año / de 1616 en las entregas reales sirvio a Vuestra Magestad con una compañía / de 200 hombres y el de 1625 sirvio por mandado de Vuestra Magestad con una compañía de 150 ynfantes en el passo de Beobia y el de 1633 / acudio al quartel de Yrun con una compañía y el año de 1636 quando / las armas de Vuestra Magestad entraron en Francia fue la compañía de la dicha villa / de de (sic) 200 ynfantes la primera que esguazo el rio Vidasso y ocupo / los puestos y el de 1637 para hacer una correria sirbio con un[a] ⁽³⁾ / compañía de 100 hombres en el mismo año sirbio con ella para ret[...] ⁽⁴⁾ / las armas de Vuestra Magestad que assistian en la provincia de Labort y el [de] ⁽⁵⁾ / 1638 quando el enemigo hizo ynbassion y entro en la prouincia fu[e] ⁽⁶⁾ / la primera que con mas de 200 hombres acudio a su defenssa / y el día 7 de julio huiendo el enemigo ocupado el puesto de As/tigarraga con yntentos de ganar a la dicha villa fue la primera / toda la gente de ella la que esguazo el rio Hurumea y traualso / la escaramussa peleando asta acerle retirar mostrando el balor / que siempre sus hijos y en las demas que se ofrecieren durante / la campaña del socorro de Fuenterrauia en reconocer y tocar / armas peleando los días que se ofrecieren con los quarteles del enemigo / y ocupo los puestos de la colina que el enemigo tenia por horden del / Marques de Mortara por estar agregada a su gente y el día 7 de sep[tiembre] ⁽⁷⁾ // fueron los primeros a quien toco salir en mangas a pelear como lo / hicieron hechandole de sus quarteles y zertificaciones (sic) y el año de / 1639 sirbio a Vuestra Mages-

tad con una compañía y assistio en el quartel / de Yrun y el año de 1643 quando el enemigo yntento quemar / los Pasajes y nabios que hauia en el puerto acudio con 200 hombres / al socorro y que siempre estan con las armas en la mano preveidos / los pocos vecinos que se an quedado por hauer perdido mucha gente / en las dichas ocassiones y reduciendose a pobreza la villa y todos sus / vecinos por hauer echo los dichos serbicios a su costa de 132 años / a esta parte sin los ynnumerables que tiene echos desde la perdi[da] ⁽⁸⁾ / de Espana en el discursso de 900 años de esta parte en ospedar y / agasagar la ynfanteria y caualleria que a estado en ella en las dichas / ocassiones y en las demas que baxan para lo (sic) exercitos de Flandes / y armadas [Reales de] ⁽⁹⁾ Vuestra Magestad como en su resturacion no sola/mente acudien[do a l] ⁽¹⁰⁾ as conquistas sino a la defenssa de que otras / naciones no entrassen a ganar la parte que los christianos pos[e] ⁽¹¹⁾ / yan como fueron quando Carlomano yntento entrar en ella / y el de 1321 quando fue derrotado Don Ponce de Morentain en / la tierra de Beotibas veniendo a ganar la dicha probincia con / exercito de 60.000 hombres ynbiado por el rey Carlos de / Francia y que mas de todos los dichos serbicios fue hijo y vecino / de la dicha villa Juanes de Urbietta, Cauallero de la Real Horden de / Santiago quien prendio al rey Francisco de Francia como lo mani/fiesta el prebillejo que le mando desfachar el Señor Emperador / Carlos 5 ⁽¹²⁾ y refieren todos los auctores, Fray Prudenziio de / Sandobal en su bida folio 729 y por ser el patronazgo de / la yglesia parroquial de la dicha villa de Vuestra Magestad de que hace / merced a perssonas particulares y de pressente le esta echa a Don / Joseph de Ynssausti por su bida y otra quen son dos bidas y por / que la dicha yglessia se alla desmantelada de manera que esta con / yndecencia en ella el culto dibino y que los clerigos no / gozan cada año mas de 30 ducados de renta mobida de es/tas raciones y de la piedad de Vuestra Magestad en considerazion / de los dichos serbicios a V. Mag. suplica le aga merced para después / de las dichas dos bidas del dicho patronazgo perfectuo que de ma... ⁽¹³⁾ / de los dichos serbicios por la dicha merced ser[vira] ⁽¹⁴⁾ para ... ⁽¹⁵⁾ // ocassiones pressentes con lo que jussto fuere con calidad / de que se le a de conzeder facultad por poder vender algunas / tierras que no le sson de util y lo demas tomar a zensso sobre / el consejo y vecinos particulares de la dicha villa o repartirlo o / ynponer sissas para la paga de lo con que Vuestra Magestad sirbiere y el / gasto de las bulas y lo demas asta que se lo entregue los despachos / que recibira merced.

(1) Tinta mantxatxoa, ez da irakurtzen.

(2) Tinta mantxatxoa, ez da irakurtzen.

(3) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(4) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(5) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(6) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(7) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(8) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(9) Tinta mantxatxoa, ez da irakurtzen.

(10) Tinta mantxatxoa, ez da irakurtzen.

(11) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(12) Carlos Va.

(13) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(14) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(15) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

avilla De neimam que es En la provincia de equipuzco Dize que
ella y sus Vecinos tienen sercos muchos y muy particulares servicios
a Vmaga Valos señores reyes sus predecesores en defensa Dela yglesia
y de la Real corona siendo plaza de armas dela dha provincia en todas
las ocasiones que sean ofrecido y frontera de francia y a m denauarra
mientras se vniere a quella de neimam de ymag y en particular el año de
1512 quando entro el exercito de francia en los reinos de nauarra y de
robia de equipuzcoa acudio contra su gente a su defensa por
cuya causa fue saqueada y que mada Ensa ofacion y en el de
1552 quando Entraron Sagente dela provincia y nauarra En
francia Siruio contra sus Vecinos asta que tomaron los puestos
y de Aho la facion y el de 1550 quando el enemigo tomo a
fuenterrabia fue el prim^o que puso al passo en la opor^{on} con 300
Hombres con que se le dio y el de 1591 que yntento lo
mismo a cadiz En la Misma compania contra tanta gente
el de 1611 siruio contra Oseada para fuenterrabia y el año
de 1616 en las entregas reales siruio a Vmaga con una compania
de 200 Hombres y el de 1618 siruio Por mandado de Vmaga En
una compania de 150 Infantes en el panto de Reobia y el de 1633
a cargo al quartel de gran En una compania y el año de 1636 quando
se armaron de Vmaga entraron en francia fue la compania de la dha
de 200 Infantes la primera que se guiso el año Vidado gofuso
Los puestos y el de 1631 para sacar una corona siruio con
una compania de 100 hombres y en el mismo año siruio con ella para el
de la guerra de Vmaga que amittian En la provincia de la borta y el
de 1638 quando el enemigo Aho y bation y entro en la provincia de
La primera fue la de 200 hombres acudio a su defensa
y el año de 1641 quando el enemigo ocupado al puerto de Cas
tañaga de la dha ciudad de neimam a la dha villa fue la primera
de la gente de la saquea y el año de 1642 quando el enemigo
a el castiello de la dha villa y el año de 1643 quando el enemigo
fue siruio sus dhas y en la guerra fue se ofrecieron durante
la guerra de neimam de fuenterrabia En neimam y to far
armas y de la dha guerra y se ofrecieron con los quartels de la dha
y o de la guerra de la dha guerra y se ofrecieron con los quartels de la dha
y o de la guerra de la dha guerra y se ofrecieron con los quartels de la dha

Veron Lo primero a quien se sale en mangas apelar como
hicieron de darole de sus quantales y certificatione y yelano
1639/ sirbio a Vmag con una compania y asistio en el quartel
De yrun yelano de 1643/ quando el enemigo yntento quax
pasales ynabios que Hauia en el puerto a ludio con 200
a los otros y que sienpre estan con las armas en la mano preuando
los pcos vecinos que sean quedado por haues perdido mucha parte
en las dhas acciones y reduciendose a pobresa la Villa y todos su
Vestidos por haues echo los dros servicios a su Cida de 132 años
Esta parte sin los ynumerables que tiene echo desde la pte
De España en el discurso de 900 años desta parte En ope daron
a pagar la ynfanteria y caualteria que a estado en ella en las dhas
acciones y en la de mas que baxan para lo exercitos de España
y armadas de Vmag. Como en su certificacion nos sta
mente a ludio en las conquistas y no a la defensa de que otras
naciones no entraren a ganar la parte de los Christianos por
ya como fueron quando Carlomagno yntento entrar en ella
yel de 1321/ quando fue derrotado Don Ronce de maentain
La guerra de Goetibas Veniendo a ganar la dha Provincia con
exército de 600 hombres dabiado por el rey arlos de
francia y que mas de todos los dros servicios fue bto Alvar
del adra Villa Guanes de Ribiera Caualtero de la dha Orden
Antiangio quien prendio al Rey frans de francia como lo mand
fiesta el prebteado que le mando de facer el Sena Enponda
Carlos 5 ore fieren todos los aucores frays prudentes de
Sandoval en su vida 4º 129/ y por ser el patronazgo de
La yglesia para adquirir de la dha Villa de Vmag, de que fue
muy apocionadas particulares y de presente le esta echo adon
desp de yndaurti por su vida y otra que son dos vidas y por
que la dha yglesia se alla su mantelada de m que esta con
ynsistencia en ella el culto vrbino y que los Perijos no
han cada año mas de 300 ducados de renta mobida des
tas Praciones y de la piedad de Vmag, en consideración
De los dros servicios a Vmag, suplica se aga m para respu
De las dhas dos vidas de lo q el patronazgo perfectuo que de mas
De los dros servicios por la dha m de la pte

Asi como presentes con lo que fuesse fuere Confalta
De que se lea de Conceder facultad por poder vender algunas
tierras que no le son de Vil y lo demas tomar ajenos sobre
el consejo y vecinos particulares de la dha Villa o repartir lo p
poner a las para la paga de lo que Vnaq sirbiere y el
gasto de las bulas y lo demas asta que se lo entregue los despachos
que recibiran mm



2014

HERNANIKO TENENTZIA NAFARRA ORAIN MILA URTE

Beñi Agirre (Hernani Errotzen Elkarte)
(HERNANI 2014)

Gaur egun Jakue Bidea egiten duten milaka lagunek oso arrazoi ezberdinak dituzte ehunka kilometro horiek nekeak jota egiteko. Erromes adina izan daitezke arrazoiak: turismoa, fedea, paisaiatz gozatzea, jendea ezagutzea, ligatzeta... Turismoa eta ligatzeta helburua dutenei bost axola, baina,

Compostelara iritsi eta Jakue edo Santiagoren hileria aurkitzea espero dutenek jai dute. Han ez dago Santiagoren hilobirik. Apostolu hori ez zen inoiz egon Galizian, dena asmakeria da.

Hala eta guztiz ere, kondaira bat izanagatik, ezin da ukatu Jakue Bideak milioika pertsona mobilizatu izan duela historian zehar ideia baten inguruan. Horretan datza ipuinaren arrakasta. Carlomagno karolingiarra eta bere aliatu Asturiasko Alfontso II.aren garaiko kontuak dira. Erromako elizak islamaren kontrako erlijio eta boterea eskuratzeko gerran, kristautasunaren lurraldea zabaltzeko saioa egin zueneko elezaharra.

Garona ibaiaren iparraldeko lurretan Karlomagno zen nagusi. 769. urtean jada muturra sartuta zuen baskoien Akitanian. Penintsularen mendebaldean,



Beloaga gaztelua izan zitekeenaren irudia.



Hernani tenentzia nafarra.

Lerro hauen bitartez, oroitze-ariketatxo bat egin eta Hernaniko iraganarekin zerikusia duten hainbat albiste ekarri nahi ditugu gaurko egunetara. Jende askori ezezagunak edo bitxiak gertatuko zaizkion zenbait datu eskaintzea da gure helburua. Hain zuzen, kanpoko mehatxu desberdinei aurre egiteko, biztanleek zeukaten babesak edo zeuzkaten babesak izango ditugu hizpide eta ardatz. Gai zehatz hau jorratzeko orduan, Hernaniko historia hain aberatsa izateak eragozpen handi bat planteatzen digu, horri buruzko datuak ezin konta ahala direlako. Hernanik lurraldearen babes-bilbean bete duen zeregin nabarmenaren emaitza da hau guztia. Protagonismo hori bi alderdi zehatz bidez adieraz daiteke: bat, Hernani Frantziako mugatik gertu dago; eta bi, Frantziatik Gaztelara zihoan Errege Bide zaharraren trazatuan (gaur egungo N-1 errepidearen aurrekoan) ondo kokaturik zegoen.

Hala ere, honako artikulua honetan, gaia osorik jorratzea zinez korapilatsua gertatzen zaigu (monografiko bat atera beharko genuke); hori dela eta, artikulua bitan zatitzea erabaki dugu: lehen artikuluan Hernaniko babesak jorratuko ditugu XIX. mende hasierara arte, eta bigarrenean XIX. mendeko Karlistaden asalduzko garaietaraino helduko ginateke (hau hurrengo edizio baterako erreserbatuko dugu).

Erdi Aroko hiribilduaren babesak

Hernaniko babesei buruzko gaia jorratzeko orduan beharrezkoa da, zentzuzkoa denez, biztanleriak bere jatorrian, hau da, sortu zenean izan zituen babeseta-

tik abiatzea ⁽¹⁾. Biztanle-gune hauen ezaugarrietako bat harresi batez inguratutik egotea zen, hau da, harresi batek haien perimetro osoa inguratzen zuen. Hernani ez da salbuespena eta jatorrizko biztanle-gunea inguratzen zuen harresi bat izan zuen bere sorreratik bertatik ⁽²⁾. Herri-gunea zehazteko orduan harresi hauek funtsezko zeregina betetzen zuten, herri-gunearen (kalea) eta inguruko landa-gunearen (baserriak) arteko muga fisikoa ezartzen zutelako. Gaur egun, Hernanin, harresi haien aztarnarik ia bat ere ez da geratzen, edo agerian ez behintzat, arkeologia-indusketa batzuen bidez lortutakoak izan ezik (Kale Nagusia, 27-29 eta 3-5) ⁽³⁾. Horri esker jakin ahal izan dugu harri-lanez eginiko harresi batzuk zirela eta 5 metroko altuera eta 1,20-1,30 lodiera zutela; beraz, Erdi Aroko gainerako herri-guneetakoak bezalakoak ziren. Denborak aurrera egin ahala, harresi hauek euren hasierako balioa galdu zuten, ahanzturan erori arte, haien aldamenen proiektaturik zeuden etxebizitzentzat eragozpen bilakatu zirelarik. Hasiera batean, harresiak eta etxebizitzak atzealdea bereizten zituzten ingurabide zaharrak beretzat hartu zituzten auzokoek; baina azkenean, eraikuntzan bertan integratu ziren, zela harresi perimetral gisa (beraieran leiho edota ate berriak zabalduz) edo besterik gabe harresiak lurrera botaz.

Erdi Aroko harresi hauekin zuzen-zuzenean lotuta dauden beste elementu batzuk sarrerako portaleak edo arkuak dira, bi mundu horien artean (kalekoaren eta baserrikoaren artean) zubi modura funtzionatzen baitzuten. Portale haiek herri-guneen erakusleihoak ziren eta gauez iltzez eta giltzez ixten ziren. Jatorriz Hernaniko hiribilduan gutxienez bost (edo agian sei) portale egongo ziren. Portale nagusiak Kale Nagusiaren eta Kardaberaz kalearen beheko muturrean zeuden, gaur egungo Plaza Berria elkartzen zaien lekuan, eta aurrez aurreko beste muturrean beste portale bat zegoen, gaur egungo udaletxetik gertu, bi kaleak bertan elkartzen baitziren, eta gaur egungo plaza baino txikixeagoa zen beste

(1) Hernaniko hiribildua sortu zeneko uneari dagokionez, gaia jorratu dutenen artean ez dago adostasunik; beraz, misterioak argitu gabe dirau. Aztarren arabera, dena den, herri-gune gisa lehendik existitzen bazen ere, badirudi sorrerako hiri-gutuna XIII. mendean eskuratu zuela.

(2) Hernaniko jatorrizko herri-gunea gaur egungoa baino askoz txikiagoa zela gogoratu behar da, gaur egungo Gudarien plazatik Plaza Berriraino iristen baitzen. Erdi Aroaren bukaeran edo Aro Modernoaren hasieran (XV-XVII. mendeak), gune hau Zinkoeneako bazterretaraino hedatuko da, gaur egungo herri-gune historikoa sorraraziz, nahiz eta ordurako babes-harresi baten beharrik izan ez.

Erdi Aroko sorrerako gune horretan, San Joan Batailatzailearen parrokia-eliza gaur egungo Agustindarren komentuan zegoen, eta ez gaur egun ezagutzen dugun lekuan. XVI. mendearen erdialdean lekuz aldatu zuten, eta sektore honetan herri-gunearen irudia goitik behera aldarazi zuen, inguruan plaza zabalago bat sortu zelako, albo batean tenplua eta beste albo batean udaletxea zeudelarik.

(3) Hernaniko harresiaren trazatu zehatza jatorrizko urbanismoaren beste alderdi batzuekin gertatu bezala definitzea oso zaila da gaur egun, herri-guneari buruzko ikerketa zehatzik ez dagoelako eta horri buruz lortu diren ebidentzia arkeologikoak oso urriak direlako. Antza denez, trazatu hura bat etorriko litzateke Kale Nagusian dauden zenbaki bakoitien atzealdeko egungo fatxadekin, Gudarien plazaren eta Plaza Berriaren artean; hala eta guztiz ere, haren trazatu zehatza zein zen ez dakigu; izan ere, gaur egun hasieran baino nabarmen aurreratuago daude, Kardaberaz kaleko zenbaki bikoitietan dauden etxeen atzealdeko fatxadetan egin izan diren berregituratze-lan handiengatik.

bat zegoen han. Gainerako bi portaleak arruntagoak ziren eta hiribildua Ekialde-Mendebalderantz moztzen zuen kalezuloaren (gaur egungo Felipe Sagarrena Zapa kalearen, edo kantoiaren) bi muturretara agertzen ziren: portale haietako batek oraindik zutik dirau, Gipuzkoa osoan kontserbatzen diren mota horretako alerik zaharrenetako bat izanik. Denboraren poderioz, portale hauek desagertuz joan ziren, eta desagertzen azkenak Plaza Berriaren ondokoak izan ziren, 1855ean eta 1856an eraitsi zituztelarik. Deskribaturiko harresi horren trazatuan modu estrategikoan jarritako dorre batzuekin osatuko zen, ziur aski, biztanleriaren babesa; gaur egun, dorre horietako zenbaitzuk hiri-izaerako etxe peto-petoak bilakarazita dauzkagu (Jentilen dorrea edo Portalondo etxea, Dorre etxea,...).

Babes edo harresi hauek testigantza-izaera edo izaera sinbolikoa izango dute gehienbat, eraso baten aurrean ez baitziren oso eraginkorrak: 1332an, 1512an eta beste urte batzuetan setiatu, arpilatu eta erre zutenean agerian jarriko den bezala.



Jentilen dorrea edo Portalondo etxea, gotor-etxe bat Hernaniko herri-gune historikoan.

Gotorlekuak Aro Modernoan (XVII. mendea)

XVII. mendera arte itxaron beharko da, agintariak herri-gunearen kokapen estrategikoari jarraiki benetako babes-proiektu berri bat planteatu dezaten.


HUA/AMH//D-1-1/5. Kale Nagusian burututako lanak... 1851-1894:

El Director de caminos de esta Provincia en oficio... con fecha de 24 del corriente me dice...

“He reconocido y examinado en virtud... el estado en que se encuentran en la actualidad tanto el arco ó portal de la calle mayor de esa villa, condensuado à la demolición, como el de las dos casas adyacentes sobre las que descansa dicho portal...”.

... para en su vista adoptar la resolución que convenga en orden a la demolición del arco o portal de la calle mayor de esa villa.

... en la N. y L. villa de Tolosa a 26 de mayo de 1855.





Felipe Sagarna Zapa kalean portaleetako bat (ateetako bat) kontserbatzen da.

Proiektua osorik burutu izan balitz, herri-guneari aldaketa handia ekarriko ziokeen, gotorturiko herri handi bat (Donostia, Hondarribia, Baiona edo Iruñekoaren pareko) sortuko baitzatekeen. Aipatutako proiektua Hogeita Hamar Urteko Gerraren ondorio zuzena izan zen (1618-1648), gerra-gatazka honek Europa kontinentalaren zati on bat astindu baitzuen hainbat eta hainbat fasetan⁽¹⁾. Frantziak gatazkan sartzeak ondorioak ekarri zizkion gure lurraldeari, galiar erresumarekin mugakide izanik. 1638ko udan, frantziar armadak, Condé printzipearen aginduetara zeuden 18.000 gizonekin, Gipuzkoa inbadituko du, hainbat herri (Irun, Oiartzun, Lezo, Errearteria, Pasaia) arpilatuz eta Hondarribia ia ehun egunetan setiatuz.

Inbasio berri baten ondorioak prebenitzeko, Gerrarako Kontseiluak Gipuzkoa babesteko hainbat neurri hartuko ditu, diru-kopuru handiak inbertituz. Donostiako eta Hondarribiko babesak nabarmen hobetzea proiektatzen da, eta Pasaia eta Getaria portuak gotortzeko obrei bultzada bat emango zaie; areago, Errearteria Berri bat sortzea proposatu eta trazatuko da gaur egungoa ez bezalako beste kokaleku batean (Basonoaga edo Alto de Capuchinos), zegozkion harresiekin eta guzti. Herri hauetako babesak hobetzeko lanei gehitu beharko zaizkie Hernanin egitekoak direnak, kostaldeko plaza horien atzealdearen defentsarako gune estrategikotzat eta Probintzian barneratzeko ataritzat jotzen baitzaio (una de las cosas mas importantes para la Provincia de Guipuzcoa y defensa della es la fortificación de Hernani).

Hernaniri dagokionez, lanak 1639ko udara arte ez dira hasiko, baina horien arduradunek bidalitako txostenak ikusita, lanak oso poliki aurreratuko dira, diru-baliabiderik eza dela eta. Erdi Aroko jatorrizko harresitik gelditzen diren hondarrei berez aski hondatuta zeudenei eustera eta lurrez eta elkar lotutako egur txikiz osaturiko parapeto soil batzuk egitera mugatuko dira. Lanak etenda eta inongo mantentze-lanik gabe luzaro egon ostean, harresiak hondatuta zeudela ikusi zuten, handik hiru urtera lanei berriro ekin nahi izan zietenean⁽²⁾. Diego Isasi ingeniari ospetsuak 1642an egindako proiektu berria aurrekoa baino anbiziotsuagoa zen, egindako muntaian ikus daitekeen bezala. Horren exekuzioaren arabera, herriaren inguruan gotorleku edo zitadela handi bat eraiki nahi zuten, harri-lanez

(1) Gerra honek, hasiera batean, izaera erlijiosoa izan zuen, Erreformaren (katolikoak) eta Kontraerreformaren (protestanteak) aldekoen arteko gatazka izan baitzen, baina handik gutxira Europako potentzia nagusiek gatazka bere egin zuten, kontinentearen hegemonia eskuratu nahirik. Bandoetako batean Sakro Inperio Erromatar Germanikoa, Liga Katoliko Alemaniarra, Austria, Espainia eta Bavaria batu ziren; bestean, berriro, Suedia, Holanda, Frantzia, Ingalaterra, Bohemia, Danimarka, Eskozia, Saxonia, Palatinatua eta Transilvania.

(2) 1642an eginiko txosten batean hauxe azaltzen da: "la fortificación que oy tiene esta villa esta del todo ynutil por haverse caydo la mayor parte, y la que ha quedado se ha convertido en guertas, y aun que se hallara en la misma forma y comodidad que quando al principio se hizo no es suficiente para detener el enemigo pues su poca altura, cortedad de defensas no puede servir de plaza fuerte ni de quantel por su apretado recinto".

eginda eta bere perimetro osoan bastioiz eta gortinaz babestuta, perimetroaren zati handi bat inguratuko zuen babes-erretan handi batez babestuta ere. Horren barruan, gainera, zenbait kuartel eta bolborategi eta beste eraiketa batzuk egokitzekoak ziren. Horrez gain, zitadela hau obra txikiko beste bi eraiketarekin indartzeko zen, bata Tellerigain deritzon alderdian (en el paraje que se llama Telleria) eta bestea herri-gunetik gertu (Txantxilla). Lanen kostua guztira 70.000 ezkutuko izango zela aurreikusi zen, itxuragabeko diru-zenbatekoa garai hartarako, eta lanen exekuzio-epeak zortzi hilabetekoa izan behar zuen. Proiektu faraoikoak Kontzejuaren aldetik era guztietako oniritziak eta babesa izan arren, azkenean ez zen gauzatuko, zorionez, exekutatu gabeko proiektuen lo-zorroan geratu zelarik.

Hurrengo hamarkadetan hiribilduak ez du bere bario estrategikoa galduko eta gunea gotortzeko proposamen berriak egingo dira, inoiz gauzatu ez baziren ere (1673)⁽³⁾.


Konbentzio Gerra (1793-1795)

XVII-XVIII. mendeetan zehar egindako proiektu handiak bertan behera utzita, gerra-gatazka berri batek Probintziaren defentsan beti izan duen protagonismoa itzuliko dio Hernaniri. Zientzia militarrek ordura arte izandako bilakaeraren ondorioz, herri-gune zaharra gotortzeko aukera erabat baztertu zuten, eta oraingoan ahalegin guztiak bideratu zituzten Santa Barbara inguruak gotortzera.

Luis XVI. erregea hiltzera zigortzearen ondorioz, Konbentzio Gerra sortu zen, eta Espainiak eta Ingalaterrak Frantziaren aurka egingo dute. Gerra hasieran frantziar lurraldea inbaditu zuten, baina gerra-frontea berehala bueltatuko da mugara, eta hori dela-eta gotorleku handiak eraikitzen hasiko dira. Lanik gehienak Bidasoa inguruan egin baziren ere, Hernaniren kokapen estrategikoa dela-eta hiri garrantzitsu bilakatuko da⁽⁴⁾ babes-sistema horretan. Inbasio bat gertatzekotan, hain zuzen, etsaien osteei aurre egin eta atzealdea defendatzeko puntu garrantzitsuenetako bat dela idatziz jasota dago. Helburu horrekin, 1793. urte bukaeran, Juan Poulet eta Juan Ximenez Donoso ingeniariak bertara bidali zituzten, Santa Barbara mendiko gotortze-lanak egin zituzten. Lan horien ezaugarriak buruzko datu zehatzik ez daukagu, baina lan nahiko garrantzitsuak izango zirela pentsatzeko da, garesti atera baitziren (20.000 peso), haien gaineko deskribapen

(3) Gerónimo Rinaldi ingeniariak 1673an egindako proiektuan, elkarren osagarri izango ziren bi gotorleku exekutatzeko proposatzen zen. Bata herri-gunea inguratuz, eta beste bat aurrekoaren osagarri, en un monte asperísimo y de peñas, Santa Barbaran alegia (urik ez zegoen eta nekez mantendu zitekeen alderdi batean).

(4) Gerra hasi baino lehen idatzitako txostenetan, 1791. urte alderantz, zertzelada horiek ordurako nabarmenak ziren, zera aditzera ematen zelarik: "es muy conveniente fortificar tambien el monte de Santa Barbara, situado encima del Pueblo de Ernani, de donde descubren los caminos de San Sebastian, Yrun y Navarra".



Hernaniko zitadela gotortzeko proiektua 1642an; 1639koa baino nabarmen anbiziotsuagoa.

bat edo beste izateaz gain (“si el enemigo retarda en eio unos seis meses, tenemos aquí un Castillo como el de Jaca en Aragon”). Dena den, frantziar osteek 1794ko abuztuaren 1ean Bidasoako su-lerroa hautsi eta Gipuzkoa inbaditzen dutenean, lanak artean amaitu gabe zeuden, eta ondorioz, aurrera egin ez zezaten inongo oztoporik ez zuten kaustu. Hernanik hil horretxan 3an eman zuen amore. Gotorleku haiek, handik urte gutxira, 1796an, “estaban arruinadas todas estas obras por el exercito frances”, eta ondorioz, gugana ia-ia ez da lekukotasunik bat ere heldu.

Napoleonen garaiko guduak (1808-1813)

Hernanik bere historian zehar izan dituen gotorlekuei buruzko gure deskribapenaren azken fasea Napoleonen garaiko guduetan jasotakoei dagokie. Gatazkarekin zerikusia duten zehaztasunak eta Hernaniri ekarri zizkioten zamak albo batera utzita lehenago aurkeztu genuen beste lan batean modu zabalago batez jorratu baikenituen⁽¹⁾, gerra-garai honen alderdi fisikoan jarriko dugu arreta.

(1) Jesus Mari Gómez (Hernaniko Udal Artxiboa): *Guerra de la Independencia (1808-1814)*, *Hernani ante la invasión francesa (1807-1813)* GARAn, 2008ko ekainak 23 (HERNANI Sanjoan publikitate gehigarria).

Frantziar okupazioaren garaian, frantziarren soldadu-oste bat Hernaniko hiribilduan iraunkorki kokatuta egon zen, biltegiak eta kuartelak zeuzkatelarik eta biztanleen hainbat etxe okupatzen zituztelarik. Bien bitartean, gotortze-lan garrantzitsuak egin zituzten, batez ere herri-gunean, herria beharrezko babes-bitarteko hornitzeko, baina aurreko hamar-kadetako proiektu handien mailara iritsi gabe.

Lan hauek 1809. urteko azken bi hilabeteetan gauzatu ziren gehien bat, Probintziako Gobernari Thouvenot jeneralaren aginduz. Horren kostua udal diruekin oso-osorik ordaindu zen, ia-ia 4.000 erreal guztira. Ez dakigu zer-nolako lanak izan ziren (harrizko paramentu berriak, portale-itxierak, e.a.). Gatazka amaiturik, haiek guztiak lurrera bota ziren berriro, ostera ere ahanzturan eroriz.

Horrenbestez, amaitutzat jotzen dugu, oraingoz, Hernanik bere defentsarako denboran zehar izan zituen gotorleku ezberdinei buruzko kontakizun laburra. XIX. mendeko kontakizun asalduzko eta trinkoa uzten dugu hurrengo edizioetarako.



2013

HERNANIKO GOTORLEKUAK (II): KARLISTADETAKO OROITZAPENAK

**Alfredo Moraza Barea (Aranzadi Zientzia Elkarteak)
(HERNANI 2013)**



Hernaniren ikuspegia Astigarragako bidetik XIX. mendeko lehen herenean; eskuinaldean, Santa Barbara basiliza (Henri Wilkinsonen litografia).

Hernaniren arestiko Historiak, ondoz ondoko gerra-gatazkek eragindako inpaktua jaso du. Horrek eragin berezia izan zuen XIX. mendean, eguneroko bizitzaren bilakaera nabarmen aldarazi zuten zenbait gatazka gertatu baitziren aipatu mendean zehar. Honako testu honek garrantzi handiko gertaera horien gaineko oroitzapena berreskuratzea du xede, Hernanin oraindik ere oso hondakin interesgarriak eta gutxi ezagunak gordetzen baititugu lekuko gisa.

2012ko Urtekarian azal gaineratik aztertu ahal izan genuen bertako gotorlekuen bilakaera, herribildu hau sortu zenetik Gerra Napoleonikoak piztu ziren arte. Orain gure helburua kontakizun horrekin jarraitzea da, karlistadak izeneko gatazketan arreta jarrita, bai Lehen Gerran (1883-1839) bai Hirugarren Gerran (1872-1876) gertatutakoak ulertzeko asmoz. Bi gatazka horietan Hernanik protagonismo handia izan zuen, hamaika bat istilu, setio luze eta bonbardaketa suntsigarriren lekuko izan baitzen. Protagonismo horren arrazoia erraz da ulertzekoa kontuan hartzen bada estrategikoki kokatuta zegoela gurutzagune garrantzitsu batean, eta batez ere, Donostiako hiriburura zeraman bidearen giltza bere eskuetan zeukala.

LEHEN KARLISTADA (1833-1839)

Gatazka honen jatorria –edo, hobeto esanda, aitzakia– Fernando VII.aren heriotzaren ostean sortutako ondorengotza-arazo dinastiko batean bilatu behar da, 1833ko irailean. Monarkia absolutuaren aldekoek On Karlos infantea (Karlos V.a intitulatua) hartu zuten buruzagitzat, hildako erregearen anaia alegia; erreformistek edo liberalek, ordea, Fernando VII.aren alaba babestu zuten, Isabel infanta alegia (geroko Isabel II.a). Eskubide horien aldeko lehiak, hurrengo mendera arte hainbat fasetan luzatuko zen enfrontamendu zibil bati eman zion hasiera. Gatazka hau, ordea, dagokion testuinguruan kokatu beharra dago, Europako kontinentearen parte handi batean iraultza ugari ari baitziren gertatzen, gure kasu zehatz honetan ondorengotza-arazo batekin hasi bazen ere. Euskal Herrian, gainera, gatazka hau modu aski nabarmenean korapilatu zen, arazo oso ezberdinak nahasten baitziren, alde batetik foru-pribilegioetan oinarritutako erregimen tradizionalaren aldekoak eta beste alde batetik liberalismoaren eta euskal lurraldea esparru nazionalaren barruan sartzearen aldekoak, eta horri gehitu beharra dago antzinako batasun katolikoaren aldetik iristen ziren mehatxuak eta ekonomikoaren ekoizpen-sistema tradizionalak.


Karlisten eta liberalen (cristino edo guiri izenekin ezagunak) arteko lehen gatazka armatueta

bat Hernanin gertatu zen, hain zuzen, eta 1833ko azaroaren 17an, Lardizabalen agindupean zegoen talde karlista bat garaitua izan zen herriaren inguruetan. Ondorengo hilabeteetan matxinatuen presioak bere horretan iraun zuen, 1835. urtean ia lurralde osoaren gaineko kontrola eskuratu zuten arte, gobernuaren aldeko indarren esku Donostiako hiriburua eta Getaria besterik ez baitziren geratu. Une horretatik aurrera, fronteko lerroa Donostia inguruetan egon zen, San Bartolome Komentu zaharraren parean; Hernanin, berriz, Gipuzkoako indar karlistek euren Kuartel Nagusia jarri zuten.

Uste ez bezala, eta kokalekuaren garrantzi estrategikoa gorabehera, Hernaniko karlisten defentsak garrantzi gutxikoak ziren. Herrigunearen perimetrea parapetoekin eta murre gezi-leihodun batzuekin babesturik zegoen, gehientsuenak Donostiako hiribururantz begira jarrita. Defentsa-sistema osatzeko obra txiki batzuk eginak zituzten (bateriak eta lubakiak gehienbat), inguruko muinoetan. Defentsako bi atal nagusiak Oriamendi Gotorlekua eta horren inguruan eginako beste gotorleku batzuk ziren, baina batez ere, eta bereziki, Santa Barbara Gotorlekua. Azken honen eta herrigunearen artean bazegoen beste gotorleku bat Txantxilla inguruetan, bi posizioen arteko komunikazioak ziurtatzeko balio zuena.



Karlisten defentsa-sistema Hernani inguruetan, 1836ko abuztu.




Yarzagaña Gotorlekuaren plano, liberalak eraikia herribildua defendatzeko.

Hurrengo hilabeteetan gatazkek gogotik jarraitu zuten aurrera, eta borrokaldi armatuei esker gobernuaren aldeko indarrek pixkanaka galduak zituzten posizioak berreskuratu zituzten (San Bartolomeko eta Aieteko ekintzak 1836ko otsailean eta maiatzean hurrenez hurren, eta Oriamendiko gudaldia 1837ko martxoan). Harik eta 1837ko maiatzean liberalen eraso berri batek lurraldeko udalerri estrategiko askotxo (Urnieta, Oiartzun, Irun eta Hondarribia) berreskuratzeko aukera eman zien arte, eta horietako bat Hernani izan zen. Liberalen indarrak herrian sartu ziren ia-ia erresistentziarik topatu gabe, lehenetik hustuta baitzegoen eta ia-ia hiri mortu bat zen. Orduz geroztik fronteko lerro berri bat hantxe kokatu zen, eta gatazkaren bukaerara arte iraungo zuen; ziur aski, hernaniarrak gobernuaren lerrorik aurreratuenetako eta arriskutsuenetako batean zeuden.

Garaipena erabatekoa izan bazen ere, gobernuaren aldekoen posizioa berez nahiko ahula zen, eta horregatik erabaki zuten defentsa-lerroak albait lasterren sendotzea. Lanak azkar-azkar egin ziren, urtebete eskasean bukatu zituztelarik. Julio Angulo eta Rafael Lara ingeniariak 1838ko uztailan idatzitako txosten batean, Hernaniko Udal-barrutian egindako babes-lanak zehaztasun handiz deskribatuta daude.

Herria batez ere Iparraldeko eta Mendebaldeko fronteetatik inguratua zegoen, Agustindarren Komentu-

raino zabaltzen ziren lurrez eginiko parapeto eta lubaki batzuekin, horien eraginkortasuna nahiko eskasa bazen ere, etsaiaren artilleriako inpaktuen aurrean. Defentsa-sistema osatzeko, tamaina txikiko zenbait gotorleku egokitu zituzten inguruko leku garaietan: **Daoiz gotorlekua** herritik Ipar-Mendebaldera zegoen, Txantxilla inguruetan, karlistek lehenetik eginak zituzten gotortze-lanak aprobeztatzen zituen eta herribilduarekin lotuta zegoen kaponera edo gotorturiko bide baten bidez (fusilarienezako lubaki bat eta gezi-leihoak zituen); **Tolosa Gotorlekua** herritik Hego-Mendebaldera zegoen, Tellerigain aldean, eta Errege-Bidea babestea zuen helburu; **Yarzagaña Gotorlekua** herritik Hegoaldera zegoen, izen bereko muinoan, Portu auzoaren gainean; Arkupe Etxea Pitikar baserriarekin lotzen da, lubaki batekin inguratu eta baoetan gezi-leihoak jarri zituzten. Eta azkenik, **Lutxana Gotorlekua** (izen hori eman baitzioten Santa Barbarako gotorlekuari), sektore horren defentsarako garrantzi ezin handiagokoa bilakatua. Horren oinplanoa lurreko irregular-tasunetara egokiturik dago, garaiera ezberdinetan jarrita dauden bi sektorez osatua, biak elkarrekin lotuta fusilarienezako kaponera edo pasabide gotortu eta gezi-leihodun baten bidez. Behealdean soldaduentzako bi kuartel, uraska edo ur-tanga bat eta bi bolborategi eraiki zituzten, eta baseliza zaharra ere egokitu zuten (ofizialen egoitza modura erabili-lia). Gainera, artilleriako hiru baterien babesa ere



Lutxana edo Santa Barbarako Gotorlekuaren inguruko oinplanoa (1838).

bazuen. Goiko sektorea tamaina aldetik txikiagoa zen eta horren gainean blokao bat edo lau angeluko oinplano batez osatutako gotorleku bat jarri zuten, 4 metro altuerakoa, eta telegrafoa.

Defentsa hauek osatzeko, bigarren lerro bat antolatatu zuten, arinagoa eta atzerago jarrita, eta Oriamendiko Defentsa-Lerroa deitu zioten. Lerro honek gotorleku horretan izango du bere euskarri nagusia, garrantzi txikiagoko beste gotorleku batzuen bidez errematatuta, hau da, Iribarren Gotorlekua (Ollomendi gainean, Lore-Toki inguruetan), O'Donnell Gotorlekua (Oiaolagaina muinoan, Oriamenditik Ekialdera) eta Aramburo Gotorlekua (Aranburu baserritik gertuko muino batean), horiek guztiak Donostiako udal-barrutiaren barruan jada.



Hernanik jasandako bonbardaketei buruzko grabatua (The Civil War in Spain liburuan jasoa).

Hirugarren Karlistada (1872-1876)

Gatazka amaiturik, gobernuaren aldeko agintariek gotorleku guztiak sistematikoki suntsitzeko agindua eman zuten, etsaiek horietaz berriro baliatu ezin izan zitzaten. Hala eta guztiz ere, inguruko gotorleku nagusiak, Santa Barbara Gotorlekuak alegia, okupatuta jarraitu zuen, hasierako zereginetako asko eta asko betez eta goarnizio txiki batek zainduta (kokaleku honen bilakaera historikoa zehatz eza gutzeko, kontsultatu 2005eko Urtekaria).

Hainbat hamarkadatan bakean bizi ondoren, orduko krisi politiko eta ekonomikoak zirela-eta karlisten aldarrikapenen txingarrak berriz piztu ziren eta 1872ko maiatzean altxamendu berri bat gertatu zen, oraingoan Karlos VII.a errege-gaiaren banderapean (aurrekoaren biloba zen). Gertaeren bilakaera lau hamarkada lehenago ikusitakoaren antzekoa izango da, hau da, karlistak ia lurralde osoan nagusitu ziren, kostaldeko zenbait tokitan izan ezik (Donostian, Pasaian, Irun-Hondarribian eta Getarian izan ezik). Horiei Hernani batuko zaie, sektore horretan gobernuaren aldekoek zeukaten posiziorik aurreratuena bilakatu zelarik, etsaien indarrek erabat inguratu ta egon arren. Hernanik eskainitako erresistentzia gobernuaren aldekoek euren kausaren ikur bihurtu zuten, herriaren aldeko hamaika abesti, bertso eta beste hainbat aipamen eskaini zizkiotelarik, "Herri-bildu Garaitugabea" ohorezko titulua eta guzti bere-

ganatuz, Koroak berak emanda, egin zuen ahalegin itzelaren omenez (1875eko abendua).

Baliabiderik ez zeukatenez, biztanleria hornitzeko hornigaiak-eta nahitaez ekarri behar zituzten hiri-burutik, Aieteko errepidean zehar, karlisten indarren jazarraldia ibilbide guztian jasaten zuten konboi militar batzuen bitartez, joan-etorri bakoitza halako odisea bat bilakatzeraino. Hornidura-arazo hauek gehitu beharko zaizkie inguruko karlisten bateria ugarietako etengabe egiten zituzten bonbardaketei. Bonbardaketa hauek 1874ko ekainean hasiko dira eta hogeitaz hilabetez luzatu, gatazkaren bukarra-egunaren bezpera arte. Trillo jeneralak idatzitako Txosten batean, Gipuzkoako indar gobernatarren komandantea baitzen, 1875eko urrian hitzez hitz honako zioen: “el enemigo sigue cañoneando con bárbara insistencia las plazas de Hernani y Guetaria, sin la esperanza de tomarlas y sólo por el placer de destruirlas”. Politika honen ondorioak ikaragarriak izango dira Hernanirako, hildako eta zauritu ugari utzi baitzituzten (63 hildako eta 200dik gorako zauritu), eraikin ugari suntsituta (horien artean Udaletxea) eta industria-sarea, baserriak, soroak eta zuhaitziak ondatuak edo ia erabat suntsituak.



Hernaniko udaletxea karlisten granada batez suntsituta, olio-margolana. Aldamenean elizako atarian kokatutako danborra.

Herriaren defentsa oso mugatuta egongo da, gobernuaren aldeko indarrek kontrolpean zuten lur-eremua nahiko eskasa izanik, lehiakideek okupatzen zituzten posizioen planoetan ikus daitekeen moduan. Defentsako posizio berria Santa Barbara Gotorlekuan kokatuta egongo da berriro, garai hartan ezin hartuzkotzat jotzen baitzen. Defentsa horren oinplanoa Lehen Gerran altxatutakoaren antzekoa izango da, zenbait aldaketa egin bazizkioten ere: baterietako bik oinplano zirkularra izango dute; uraska berrituko dute; jatorrizko hiru sarbideak bakar batean batuko dira; eta azkenik, kuartelen kokapena berrantolatuko da.

Herrigunea ere osorik gotortuko dute, bertan lehendik bazeuden eraikinak aprobetxatuz, baoak ta-


patuz eta gezi-leihoak eginez, kaleetan barrikadak altxatuz eta era askotako obra-multzo baten bidez (Murru, danbor, bateria eta gotorlekuen bidez) perimetro osoa indartuz:

- Herribilduaren perimetro osoa itxi zen, batzuetan oin berriko murru batzuk eraikiz eta beste batzuetan baratzeetan bazeudenak berrerabiliz. Urumeara agertzen zen fronte-lerroan fusilarietako gezi-leiho batzuk egin ziren. Murru hauen zimenduak oraindik ikus daitezke herrigunearen hainbat tokitan, nahiz eta denborak desitxuratuak eta arestiko obrek aldaraziak egon: Atzieta aldean zabaldutako baratzeen arteko murruetan; Pana parkearen inguruan edo Balantxako aldapa-igoeran; Izpizua eta Elkano kaleetan parroquia-elizari inguratzen zaion petrilean (fabrikako hainbat lan eta hainbat bao itsutu ikus daitezke-eta bertan); eta azkenik, Leokako iturriraino zerman bide babestuan.



Ezkiaga pasealekuaren inguruko murrua, Karlistada garain eraikia herrigunea defentsarako.

- Herrigunearen barruan lau danbor egokitu ziren: bata Portalondo etxeko aurrealdean; beste bat Zapa Atarian (Atzieta, 41); elizako aurrealde nagusian; eta azkenik Kale Nagusiaren iparraldeko muturrean. Horiek guztiek oinplano zirkularra zuten, gezi-leihoak zituzten eta solairu bakarrekoak ziren, eliza izan ezik (bi solairu zituen-eta)
- Fronte-lerrorik aurreratuenean eta etsaien bonbarik gehien jasan zituen hartan, Urumeara agertzen den hegia zegoen, eta hiru bateria jarri zituzten bertan. Hauen helburua etsaiaren artilleriako suari aurre egitea zen, bai eta beren kanoiekin etsaien posizioak zigortzea ere. Bateria hauetako bakoitza, erasoak zetozen alderantz zegoen jarrita: Orkolaga eta Igartzagaina alderantz (Barrenetxea Gotorlekuaren inguruetan, hiru kanoi-zulo zituen); Astigarra alderantz (kanoi-zulo bat zuen, Patatera etxe ondoan zegoena); eta azkenik, Santiagomendi eta Antonenea alderantz (beste kanoi-zulo bat).
- Defentsa-sistema osatzeko hainbat gotorleku zeuden perimetro osoan sakabanatuta: Lizarra-



Karlisten eta liberalen arteko posizioak 1876ko otsailean, gerratea bukatzeko unean: laranja karlisten posizioak; beltz liberalenak.

ga Gotorlekua, herrigunetik Iparralde bete-be-tean jarria, Agustindarren Komentutik hurbil zegoen etxe gotortu bat baino ez zen, gaur egungo Zinkoenea plazan kokatua; Santo Domingokoa, gaur egungo Izpizua 10 zenbakian dagoen etxearen alboan kokatua, eta esparru apal eta txiki batez osatua egoteaz gain, hobi bat ere bazuena; Birebengoa, izen bereko etxe gotortu bat (gaur egungo Nafar kalea 12); Paissacekoa, inguru horretako posiziorik aurreratuen, Leokadisti izeneko etxearen gaineko muino txiki batean jarrita. Oinplano erdizirkularra zuen dorretzar gezi-leihodun bat zen, 7 m diametrokoa eta 6 m altukoa, hobi txiki batez inguratua; eta azkenik, Barrene-txeakoa, herrigunetik Hego-Ekialde bete-be-tean kokatua (gaur egungo Goiz Eguzki izeneko lekuan), eta fusilarientzat prestaturiko 4 m altuerako lurrezko parapeto batez osatua zegoena.

Hernaniko Udaletxea karlisten granada batez suntsituta, olio-margolana. Aldamenean elizako atarian kokatutako danborra.

Beste aldean, karlisten aldean alegia, inguru horietan egindako defentsako lanak batez ere batera batzuk izan ziren, Hernaniko biztanleei erasotzeko eginak. Gobernuaren aldeko baterien kasuan ez bezala, karlisten bateriei buruzko deskribapenik edota planorik ez daukagu; oro har, nahiko eraiketa sinpleak izango ziren, bi edo lau piezakoak. Lurrezko parapetoei edo zakuekin babestuta egongo ziren, eta atzealdean hornigaiak, bolbora, balak eta artilleriarrien euren babeserako etxola bat edo beste egongo ziren, eta ziur aski, hobiz eta lubakiz osatutako babes-sistema- ren bat ere bai. Muinorik garrantzitsuenetan jarri zituzten, handik arazo handirik gabe kontrolatzen baitzuten Hernani osoa. Muino horien artetik nabarmenenak eta eraginkorrenak Santiagomendin jarritakoak ziren, nahiz eta beste toki batzuetan batera gehiago jarri, besteak beste, Arrikarteko Haitzean (gaur egungo Elutseta sagardotegiaren gainean); Basaunen (Urnietako Goiburu auzoan) edo Iartzagainen eta Orkolagagainen, herribilduko murrueetatik 500 metro eskasera. Herribildua azpiratzea baino gehiago, horien zeregin nagusia inguruotan tentsioa sortzea zen, eta batez ere, etsaiak euren eraso etengabe eta suntsigarrien bitartez adoregabetzea.



Atzieta 39ko aurrealdean sartutako jaurtigaien irudia, eta dagokien xehetasuna.

Borrokaldiak amaitu zirenean, eraiketa horietako gehienak eraitsiak izan ziren, haien iraganeko existentziaren aztarnarik oro desagerraraziz. Dena den, obraren parte batek zutik iraungo zuen, murruek edo babes-paramentuek gehienbat, eta gure egunotaraino heldu ahal izan dira, baina nahiko aldatuta eta garai bateko testuingurutik erabat aterata. Hori dela eta, gatazka haren lekukotasun osoa ezaba-

tuta geratu zen, Atzieta 39an irekitako etxeko aurrealdean oroitzapen berezi bat geratu bazaigu ere, bertan sartuta bi kanoi-jaurtigai ikus ditzakegu-eta, biak lehertu gabeak. Ziurrenara bi jaurtigai hauek, herri-hizkeran “pepinoak” deituak, Santiagomendin egokitutako bateriaren batetik jaurtiko zituzten, eta 75 mm-ko Whitworth kanoi-motarenak ziren.



2014

AITA ORCOLAGA, "AITA BORRASKAS",

PRIMER HOMBRE DEL TIEMPO EN EUSKADI

**Marivi Albizu Echeverria. Meteoróloga.
Doctora en Ciencias Físicas Delegada del Colegio de Físicos en Euskadi
(HERNANI 2014)**



Han transcurrido más de 100 años que nos dejó el Padre Orcolaga, un hernaniarra que gozó de la admiración de la sufrida clase pescadora. Orcolaga, el primer hombre del tiempo de Euskadi, a quien reconocían su profundo conocimiento de los secretos atmosféricos, gracias a los cuales, lograba algo que era "un hito" en su época: "hacer predicciones" y anticipar las catástrofes que se avecinaban, antes de que ocurrieran desgracias humanas.

En aquéllos años de finales del siglo XIX y principios del XX, eran muchos los pescadores que dejaban su vida en la mar, sobre todo en situaciones en las que la furia del mar Cantábrico "se tragaba las embarcaciones". El número de viudas y huérfanos era alarmante. Se dice que las embarcaciones del Cantábrico, no estaban bien diseñadas para resistir los temporales aunque, es cierto que, los temporales y galernas adquieren una especial virulencia, especialmente en la parte más oriental: la Costa Vasca.

Como iremos viendo, la vida de Juan Miguel Orcolaga Legarra no fue nada fácil, tuvo muchos detractores, pero sus dotes personales (la constancia, su capacidad de sacrificio y dedicación, su capacidad de autocrítica y su poder de decisión), le dieron fuerzas para realizar una gran labor que, de alguna manera como hernaniarra y meteoróloga, quiero recordar en este sencillo homenaje. Gracias a la labor que realizó en su vida, se pudieron salvar muchas vidas humanas en la mar, de ahí que los arrantzales le consideraran "su salvador".


Un tema se convirtió en el centro de sus preocupaciones intelectuales para el resto de su vida: "El conocimiento y pronóstico de las galernas y tempestades en el Cantábrico oriental, conocerlas en sus orígenes, trayectorias que seguían, sus causas y sus efectos". Este trabajo lo desarrolló toda su vida y de forma recurrente, aparece en parte de su obra escrita y en las controversias que mantuvo con muchos de sus colegas.

Es de destacar que por aquella época, la Meteorología ni siquiera era considerada una ciencia, se la relacionaba con el arte adivinatorio y las arraigadas y erróneas creencias populares. Como curiosidad, hay que destacar que el desarrollo de la Meteorología, en España y en aquella época, se produce al amparo de la Institución libre de Enseñanza y los gobiernos liberales. Los gobiernos conservadores llegaron a suprimir el Instituto Central Meteorológico en 1891.

En Euskadi no pasó lo mismo: los curas (rurales) fueron los que impulsaron la meteorología. En Cataluña lo hicieron dos órdenes religiosas, y así surgieron el Observatorio del Ebro y el de Fabra, ambos fueron los que pusieron las bases de la meteorología catalana a principios del siglo XX.

En la época en que Orcolaga empieza a pronosticar el tiempo con métodos científicos, sólo existían el Calendario Zaragozano y las opiniones de pastores diversos, herramientas que se utilizaban como sistemas de predicción del tiempo. Nada de esto servía para predecir galernas y temporales .

¿Quién era Juan Miguel de Orcolaga Legarra?



Según la revista Euskalerria, descendía de una antigua familia fundadora de la villa de Hernani, recordando entre los que llevaron este apellido, a Joanes de Orcolaga, quien desempeñó repetidas veces el cargo de regidor en el Ayuntamiento de la villa y el de caballero juntero.

Juan Miguel Orcolaga Legarra nació en Hernani, en la casa de su nombre, antiguamente denominada «Aldapa», el 13 de octubre de 1863. De constitución débil y salud delicada, ello condicionaría su vida.

Desde su infancia mostró interés hacia la geología, la mecánica y la meteorología, y con sólo 13 años

“rechazaba la supuesta influencia que se atribuía a las tóporas para explicar los cambios atmosféricos”.

Una anécdota a destacar de su juventud, fueron las continuas represalias y enfados que tenía con sus padres por sus aficiones a la meteorología. El motivo, veían con desagrado y preocupación que Juan Miguel realizara ejercicios arriesgados trepando por el tejado de la vivienda familiar para colocar unos aparatos rudimentarios a los que llamaba “anemoscopos”, de “propia invención”, con los que pretendía medir el viento (dirección y velocidad).



Indicación de viento fuerte.

A los 15 años, fue con su tío sacerdote a Buenos Aires para iniciarse en el sacerdocio y, de paso, sanar su delicada salud. Tras un año de estancia y tras comprobar que su salud no mejoraba, volvió. Sin embargo en este viaje, ya dejó “reseña de su vocación”; ocurrió a la altura de Brasil, donde, cuando, anunció a la tripulación de que, en el transcurso de la tarde-noche se desencadenaría una fuerte tormenta. Así ocurrió, una fuerte tormenta acompañada de aparato eléctrico y granizo,... su predicción causó la admiración en todos los viajeros, incluidos los oficiales de abord.

En 1880 ingresó en el Seminario de Vitoria, graduándose en 1888. Ordenado presbítero, entre 1888

y 1889 estuvo destinado en la parroquia de Beizama. Los dos años siguientes desempeñó su labor sacerdotal como coadjutor, en su pueblo natal, en la parroquia de San Juan Bautista. Finalmente fue destinado a la Vicaria de Zarauz.

En Zarauz, Juan Miguel Orcolaga combinó sus tareas sacerdotales con su “otra vocación”, la “meteorología local”, profundizando en tareas de observación de fenómenos atmosféricos y haciendo predicciones para la gente cuyo sustento estaba en la mar. Improvisó un modesto observatorio y empezó a hacer predicciones locales. Ideó algunos aparatos como un microbarómetro (para medir la presión atmosférica) y un pluviómetro (para medir la precipitación).

Apodado por sus conciudadanos como “Vicario de Zarauz”, era un teólogo moralista, profundo y sagaz. Dominaba el euskera a la perfección. Era modesto y humilde, huyendo de toda vanagloria y ocultando al público el resultado satisfactorio de sus experimentos. No obstante, su constante dedicación a las observaciones de los fenómenos atmosféricos en su modesto observatorio, le llevó a la predicción de uno de los temporales que mayor eco tuvo, el temporal del 15 de noviembre de 1900.

Previendo el fuerte temporal que se avecinaba para los arrantzales y para las gentes que vivían en el litoral, se dirigió a las Diputaciones de Gipuzkoa y Bizkaia anunciándoselo, y advirtiéndoles de las consecuencias catastróficas que podría traer consigo; les rogó que avisaran a los puertos, para prevenir a los pescadores del litoral. Fue evidente el “acierto” y “exactitud” de su predicción. Cuentan como anécdota que “el temporal” se presentó con desconocida furia, siendo de tal magnitud e intensidad que vapores de alto porte tuvieron que interrumpir y suspender su salida del Puerto de Bilbao.

Todos, pescadores, pueblo, prensa, autoridades,... coincidieron al decir que la predicción del “Vicario de Zarauz” había evitado un día de luto en las costas de Bizkaia y Gipuzkoa.

A partir de entonces, las dos Diputaciones empezaron a abonar a Orcolaga, al que le apodaron también con el nombre de “Padre Borrascas”, el importe de los telegramas que diariamente enviaba con sus predicciones y avisos. Se fue madurando la idea de establecer en un futuro no muy lejano, un servicio meteorológico permanente y oficial.

Ciertamente, a finales del siglo XIX no había ninguna organización que pudiera servir de encaje para sostener el trabajo de un meteorólogo autodidacta como parece ser era Orcolaga. El Vicario de Zarauz, se vio en la necesidad de tener que idear, y crear, un centro que cumpliera sus objetivos. Este sería el Observatorio Meteorológico y Marítimo de Igel-

do. Pero ¿cómo hacerlo? Orcolaga tuvo que recurrir a medios ajenos. No contaba con mecenas privado, por lo que hubo de recurrir a las instituciones, a las Diputaciones de Gipuzkoa y Bizkaia. Sin embargo, en ese impas, surgieron desavenencias entre ambas. El resultado fue que la vizcaína retiró la ayuda de 2.500 pesetas anuales, y el plan se fue al traste.

Orcolaga continuó con su labor, y fueron los pescadores quienes lograron disipar el ambiente hostil que se creó en Bizkaia en torno a su persona. El apoyo incondicional de los arrantzales por sus aciertos y sus cualidades personales que cada vez eran más conocidos incluso fuera de nuestras fronteras, llevaron a Orcolaga a relacionarse con personalidades de gran influencia en su época como Pedro María de Soraluce, su incondicional amigo, conservador del Museo Municipal de Donostia y bien relacionado, dando como resultado que Orcolaga llegara a tener “hilo directo” con el rey, algo impensable en aquella época.

Esas desavenencias las vivió el hernaniarra en solitario, con el único apoyo de su hermano Pedro, hasta que la Diputación de Gipuzkoa le ofreció un modesto observatorio en el barrio de Igeldo, en una casa propiedad de Gabriel Díaz de Gúmez. Era el 1 de febrero de 1902. En esta época, Orcolaga era miembro de diversas sociedades científicas como la Sociedad Oceanográfica de Guipúzcoa.

Al “Padre Borrascas” su constancia le permitió muy temprano “descubrir” que gran parte del secreto de una buena predicción radicaba en la “observación”. Su técnica se basó en el estudio de las nubes: su forma, la altura a la que se encuentran y a sus movimientos. Además, había que observar las variaciones en la presión atmosférica, había que observar las variaciones registradas en el barómetro. El lugar para esas observaciones, el observatorio, requería estuviera a una altura determinada y en un lugar despejado. La Diputación de Gipuzkoa proporcionó ese lugar idóneo: Igeldo.



El comienzo oficial de su andadura se data 1 de julio de 1905, en la Casa Aize Eder, en las afueras de Igueldo. A ella se le agregó una torre, y en ella se instalaron nuevos instrumentos para mejora de las observaciones.

Este fue el primer observatorio meteorológico y marítimo del Golfo de Bizkaia que se instaló en España, conocido como “Observatorio de Igueldo”, siendo Juan Miguel Orcolaga su primer director. Este observatorio (actualmente en operación) tenía, y tiene, la particularidad de que permitía, y permite, “observar” desde Cabo Machichaco hasta las Landas francesas, lugar “idóneo” para poder anticipar y predecir “las galernas” antes de que se produzcan.

El Vicario de Zarauz, ya llevaba varios años advirtiéndolo a los pescadores de la llegada de galernas y temporales. Pero hacía falta crear un observatorio que permitiera emplear métodos científicos para realizar esas predicciones y, de esta forma, “prevenir desgracias entre la gente del mar”. Los partes que emitía el conocido como “Padre borrascas” eran muy esperados en la prensa guipuzcoana, y llegó incluso a entregarlos personalmente en el Palacio Miramar al rey Alfonso XIII, gran aficionado a la meteorología, según se relata en el libro “Juan Miguel Orcolaga y el Observatorio Meteorológico Marino de Igueldo” de Miguel Laburu.

Orcolaga fue el introductor del lenguaje meteorológico

Se hicieron familiares términos como borrasca o vórtices, entre otros. Sus anuncios, sin embargo, no fueron suficientes para evitar episodios trágicos, como el sucedido el 12 de agosto de 1912, cuando se hundieron 15 lanchas y se ahogaron 145 pescadores, de los que 112 eran de Bermeo. La tragedia, sin embargo, se pudo evitar, puesto que Orcolaga había comunicado con 14 horas de anticipación el temporal que se avecinaba a todos los puertos desde Galicia hasta Burdeos. Ese día la costera del bonito, según

citan, estaba terminando y no había sido buena. Por la noche, en cambio, los barcos de Bermeo, Lekeitio, Ondarroa y Elantxobe (todos de Bizkaia) estaban haciendo buena pesca, días antes del cierre oficial, faenando a cuarenta millas.

Según contaron algunos supervivientes, los pescadores franceses les hicieron señales antes de regresar a puerto, y llegaron incluso a mostrarles los barómetros de abordaje para que comprendieran lo que se avecinaba, pero “los vizcaínos” a pesar de la insistencia del peligro que se avecinaba, siguieron pescando. En cambio, los guipuzcoanos atendieron las advertencias que anunció el Padre Orcolaga y... pudieron salvarse. Por aquel entonces, el servicio de meteorología estaba tan atrasado que los partes tardaban horas en llegar, pues se centralizaban en Madrid.

Los pescadores que pudieron huir de esta galerna de 1912 relataban trágicos detalles de lo vivido: “olas como casas de grandes” y 143 hombres muertos, 116 de Bermeo, 8 de Elantxobe, 16 de Lekeitio y 3 de Ondarroa, quedando viudas 75 mujeres y 225 niños huérfanos. La media de edad de los fallecidos era de 29 años.

Lo ocurrido aquella noche del 12 al 13 de agosto es considerado por muchos como la mayor catástrofe del Cantábrico, una “tormenta perfecta” que, todo indica, se trató de una “galerna frontal” seguida de una ciclogénesis explosiva, un fenómeno que dinamitó para siempre la forma en que se emitían los avisos meteorológicos en nuestro país.

Orcolaga también ofreció conferencias, y escribió artículos, entre los que destacamos: “Vórtices ciclónicos”, “Leyes de la circulación atmosférica en el Cantábrico”, “De re meteorológica”, “La Previsión del Tiempo en el Cantábrico” y “De Re Meteorológica. Las galernas del Cantábrico”.

De la época de Juan Miguel Orcolaga Legarra hoy día nos queda el Observatorio de Igueldo, una joya como centro meteorológico en el País Vasco. Ha cumplido





más de cien años de historia y mantiene intactos los métodos de observación manual que se empleaban a comienzos del siglo pasado. Es un observatorio de referencia en España. Tiene recopiladas todas las series climáticas desde 1928, aunque las primeras observaciones datan de finales del siglo pasado, cuando el entonces Vicario de Zarauz, natural de Hernani, comenzó a realizar predicciones y ofrecer avisos meteorológicos a la población.

El 22 de septiembre de 1914 falleció Juan Miguel Orcolaga Legarra, el “Vicario de Zarauz” y/o “Padre Borrascas”.

La actividad del observatorio siguió adelante. Le sucedieron nombres ilustres como Mariano Doporto o Carlos Santamaría que asumió el cargo en 1940. Durante casi cuatro décadas la dirección del centro estuvo encuadrada en el Servicio de Meteorología Español.

En 1978 tomó las riendas del mismo, José Ignacio Álvarez Usabiaga, que falleció en 2008, a quien el observatorio debe su modernización. Al mismo tiempo que se introdujeron sistemas automáticos para la recogida de datos meteorológicos, Usabiaga se empeñó en mantener los métodos manuales que tanto valor han alcanzado en la actualidad.

Margarita Martín, la actual directora del centro, destaca “la calidad excepcional de los datos”, debido a que el observatorio “no ha sufrido cambios de emplazamiento, ni de instrumentación, ni de su entorno”. “Casi ningún otro observatorio cumple estas condiciones”, está atendido las 24 horas del día por personal observador profesional.

El observatorio de Igeldo fundado por este hernaniarra, Juan Miguel Orcolaga, con una proyección

internacional, sigue operativo desde su creación y pertenece a las Redes Europeas de Observación Básica Climatológica y Sinóptica y a la Red Mundial de Observación Meteorológica.

Hemos de estar agradecidos, por poder contar con este centro que nos permite predecir situaciones meteorológicas adversas, las temidas “galernas” de nuestras costas, y por ser una referencia en los estudios de climatología nacional y cambio climático. Con los datos que obran en Igeldo, se puede concluir que “desde los años ochenta hay una señal que indica un cambio climático a nivel planetario” según, advierte Miguel Ángel Manjón. Desde esos años, la temperatura anual comienza a subir ligeramente y se rompen las variaciones de periodos húmedos y secos. Igeldo, junto al de Tortosa, es el observatorio que posee las series climáticas más largas de España.

Es evidente que sucesos como el que ocurrió el 12 de agosto de 1912, son recordados en algunas localidades como Bermeo (Bizkaia), por la pérdida de un número importante de vidas humanas (116) en la mar. Este hecho hizo comprender la necesidad de introducir mejoras en los barcos, hizo empezar a dar importancia a las observaciones y predicciones del tiempo. Aspectos que han ido mejorando paulatinamente.

Son estas unas pinceladas que he querido resaltar en este homenaje al primer hombre del tiempo en Euskadi, Juan Miguel Orcolaga Legarra, un hernaniarra, que con los escasos medios económicos y técnicos, comparados a los que se utilizan en la actualidad, supo enfrentarse a la difícil tarea de analizar los fenómenos meteorológicos adversos, “temporales y galernas”, logrando salvar muchas vidas en la mar. **Goian bego.**



2009

NORTEKO TRENBIDEA

HERNANIKO BARATZETIK

Urko Apaolaza Avila
(HERNANI 2009)



Ez zen nolanahiko askak izango Txirritak bertso batzuk jarri bazizkion. Txirritaren bertsoak merezi dituenak atentzio pixka bat merezi behar luke gure partetik. Hala ere, orain arte ez da kasik ezer idatzi, ez prentsan, ez inon, Norteko trenbideak Hernaniko lurretan barna egindako bideaz eta utzitako arrastoaz. “Ze mespretxua!” esango du kontu zaharrak gustatzen zaizkionak. Baina hori konpontzeko lanean jartzen bada, segituan konturatuko da ez ikusi horren atzean zer arrazoi dagoen: “Trenbidearen eraikuntzari buruz Hernaniko udaleremuko ia berririk ez dago”. Horiek ez dira edonoren hitzak, Norteko trenbidearen Gipuzkoako zatiaz egin den ikerlan sakonearen egileenak baizik. Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intzak 2006an kaleratu zuten Norteko trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan (I) liburukotea eta bertatik, besteak beste, jasoko ditugu Txirritarentzat “adelantu” handia zenak gure baratzean utzitako berri papurrak.

Norteko trenbidearen sorrera

Trenbideen sistemak Ingalaterran eboluzionatu zuen azkarren; hango meategietan erabili ziren lehenengo “perrak” materiala garraiatzeko. Baina iraultzarik handiena Watten lurrin makinarekin etorri zen. Bapore bidezko motorrak itsasontzi eta trenetan aplikatu ziren eta 1830ean Liverpooletik

Manchesterrera trenbidea inauguratu zen, munduko lehena. Urte gutxiren buruan, lokomotoraren keak estepa, tundra eta desertuak zeharkatzen zituen, Siberian, Coloradon edota Indian.

Euskal Herriko lehen trenbidea Baionatik Bordelera zihoana izan zen, 1857an irekia. Ordurako, Espainian hasiak ziren Irun eta Madril elkartuko zituen trenbide proiektuekin. Gauza da, Esparteroaren 1855eko lege batek Espainian trenbide zabalerak handiagoa aurreikusten zuela Europako beste lekuekin konparatuta; horrek sekulako atzerapena eta isolamendua ekarri zuen, konexiorik ezin zitekeelako egin Frantziatik zetozen trenbideekin (gaur egun horrela jarraitzen du). Zergatik jokatu zuen horrela Esparterok? Estrategia militarra? Orografia zailtasunak? Gaur da eguna hori argitu gabe dagoena.

1856an Frantziako Péréire bankariaren Sociedad para el crédito mobiliario español enpresak lortu zuen Madril-Irun linearako kontzesioa. Trenbidea egiteko dirua ezinbestekoa zen eta Euskal Herrian oraindik industrializaziorik ez zegoenez, kapitalik ere ez, horregatik izan zen funtsezkoa frantsesen parte hartzea. Baina Péréire anaien planak ez zuen zehazten Miranda de Ebrotik Irunerako ibilbidea eta horrek probintzien arteko kompetentzia latza sortu zuen, trenbide proiektu ezberdinekin. Bilbotarrek eginiko lehen proiektu batek planeatzen zuenez, trenbideak Miranda-Bilbo-Irun ibilbidea egin behar zuen, Bi-

Suskribatzailea	Errealak	Suskribitzailea	Errealak
Udala	40.000	Antonio Maria Larrarte	8.000
Fermina Aristizabal	10.000	Jose Antonio Murua	500.000
Kristobal Lekunberri	6.000	Jose Inazio Arbelaiz	6.000
Maria Juana Iturriaga Paskual	10.000	Domingo Goenaga	2.000
Manuel Zendoia	10.000	Zuaznabar	2.000
Ramon Berasategi	10.000	Juan Maria Casas	2.000
Benito Antonio Fernandez	10.000	Migel Erize	2.000
Jose Domingo Ollo	10.000	Domingo Etxeberria	2.000
Jeronimo Cardan	16.000	Bizente Ubiria	8.000
Lino Maria Aranburu Miner	30.000	Santiago Urain	2.000
Feliz San Juan	4.000	Luis Adarraga	4.000
Urdangarai	20.000	Andres Agirre	2.000
Jose Antonio Gorrotxategi	4.000	Jose Antonio Olano	8.000
Manuel Lizeaga	6.000	Migel Inazio Azpiazu	4.000
Galardi andereñoak	20.000	Carlos Bireben (sic?)	4.000
Jose Migel Soroa	12.000	Teresa Elizalde	20.000
Feliz Santo Domingo	10.000	Antonio Maria Lizarraga	8.000
Martin Aranburu	10.000	Bizente Ansorena	4.000
Guztira: 826.000			

zkaiko hiriburura Gaztelako zerealak eramatea zen helburua. Aldiz, nafarrek, Frantziako konexioa Iruñea eta Baigorritik barrena egitea proposatu zuten; errioxarrek ere bazuten euren proiektua...

Konpetentzia izugarri horrekin, ez da harritzekoa Gipuzkoako elite ekonomiko eta politiko osoak esfortzu berezia egitea Aizkorri zulatu eta Zegamatik aurrera probintzia osoa zeharkatuko zuen linea berria bultzatzeko. Horrela, Diputazioak, udalek eta baita herrietako apaizek ere, diru-bilketa itzela egin zuten, frantsesek jarritako hasierako kapitala handitzeko. Horren guztiaren atzean Donostia eta Tolosako liberalak zeuden batez ere, baina beste herrietako jendeek ere parte hartu zuten diru bilketa horretan. Hauek dira Norteko trenbidea egiteko akzioak erosi zituzten hernaniarren izenak:

Taula honetan pertsona baten aportazioa nabarmentzen da galanki, Jose Antonio Muruak jarritako 500.000 errealak hain zuzen; hernaniar guztiek jarritakoaren adina baino gehiago eta gipuzkoarren artean laugarren suskripzio handiena da berea. Baina ez da harritzekoa, Murua baitzen Hernaniko gizon aberatsenetako bat, gaur egungo Oblatos aldean palazio eder bat zuen eta, besteak beste, Hernaniko Benefizentziaren eraikina berak eginarazi zuen. Gainerakoan, guztira 33 milioi erreal jarri zituzten gipuzkoarrek Norteko trenbidea egiteko, horietako milioi gehienak Donostiatik atera ziren, baina urrunagotik ere bai, Peru edota Kubako indianoetatik, adibidez.

Azkenean, gipuzkoarrek irabazi zuten lehia eta 1858an Norteko trenbidearen konpainia (Compañía de los Caminos de Hierro del Norte) sortu zen. Altsasura aisa iritsi ziren trenaren habeak baina Altsasutik Irunerako traiektua beste kontu bat izan zen. Malda eta malkarra, horixe. Obra zail eta neko-soek hainbat urte iraun zuten, batez ere Zegamako

Otzaurren tunelak egiteko, Piamonteko langile esperimentatuak –gurera trikitia ekarri zuten horiek– behar izan zituzten, hortik atera kontuak. Horrela, 1864ko abuztuaren 15ean, Espainiako erregea barnean zeramala, trenak ibilbide osoa egin zuen Gipuzkoan zehar.

Hernaniko zatian zer berri?

Gaur ez guke hernaniarrek RENFEko trenik izango –ezta apeaderorik eta estaziorik ere– eta lasartearek bai, historia beste modu batera portatu izan balitz. Norteko trenbidea Andoaindik Donostiara pasatzeko bi ibilbide diseinatu eta eztabaidatu ziren. Batetik, Lasartetik pasa eta Antiguotik barrena Donostiara iristen zena; bestetik, Hernanitik igarotzen zena. Ez da bizkorra izan behar azkenean zein aukeratu zuten asmatzeko. Hernaniko pasabideak bentaja gehiago zituen: motzagoa zen eta errebolta gutxiago eta txikiagoak zituen; ez zen Lasarte-koa bezain aldapatsua; lur zorua hobea zen trenbidearentzat –Oriako erriberak eta Antiguoko plaiak enbarazu egiten zuten– eta azkeneko arrazoia, seguruena inportanteena, merkeagoa zen.

Baina Hernanira iristeko trenbideak Urnietako Azkonobieta pasa behar zuen –Andoain eta Urnietaren artean–. Tunel luze horrekin (850 m) komeriak izan zituzten eta lan istripu larri bat ere gertatu zen: 1862ko abuztuaren 26an luizi batek lau langile harrapatu zituen; hildakoetatik hiru Piamontekoak ziren. Hernanin trenbideak 2.600 metro egiten ditu, 613'7 eta 616'3 bitarteko zenbakidun kilometroak hain justu. Ibilbidea Urumea erriora hurbiltzen zenez, erriok uholdeetan eta itsas-goran izaten zuen altuera maximoa kontuan hartu zuten eta bete-lana egin behar izan zuten trenbidea urak ez harrapatzeko. Hain zuzen, Urumea ondoko harria erabili zuten bete-lan hori egiteko. Hernaniko udal agintariak

eta Eziago nahiz Muntoaundietako lurjabeak bildu, eta lurrak tasatu ondoren, bost urtez esplotatzeko baimena eman zioten enpresari, 121.760 errealen truke.

Bestalde, desjabetzeak ugari izan ziren trenak pasa behar zuen tokitik eta hernaniarrak ez ziren horietatik libratu. 1859tik 1864ra hainbat lur eta eraikin espropiatu zituen Konpainiak eta horiengatik 434.835 erreal eman zizkien jabeek. Besteak beste, Portuko barrioan zegoen Franko errota -1546koak dira bere lehenengo berriak eta udal jabetzakoa izan zen urte askoan- arrunt kalteturik geratu zen. Beste leku ezagunetan soroak, sagastiak, paretak eta bideak zaharkatu zituzten trenaren burniek: Mariluz-txikin, Okendonean, Bestizanen, Etxetxokon, Aldunanian, Ezkerronean, Errotaberrin, Satinean, Muntoaundin, Muruaren jauregian eta teila fabrian. Guztira, 33 soro-puska eta 57.658 metro koadro. Artxiboan badaude desjabetze horien, bai eta planoen eta bideen inguruko dokumentuak ere.

Badirudi Hernanin desjabetzeek ez zutela istilu gehiegi eragin, bai aldiz Tolosan. Herritar asko trenbideetik ibiltzen zen batetik bestera, hura baitzen biderik zuzenena eta samurrena, baina agintariek debekatu egin zuten eta multak jartzen hasi ziren. Gainera, trenbideak hainbat lur sail eta auzo-bide zatitu zituen, itxiturarik ere ez zuen inauguratu zuten egunean eta ganaduarentzat arriskutsua zen. Horrek guztiak kezka eta ezinegona sorrarazi zuen baserritarren artean eta kasu batzuetan harrika eta sabotajeekin egin zitzaion ongi etorria asmakizunari. Jakina da urte batzuk geroago, Bigarren Gerra Karlistan, Santa Kruz apaizak Beasaingo geltokia erre zuela. Historiografian azaldu izan da modernizazioaren kontrako ekintza bezala, baina badirudi batez ere liberalen hornikuntza oztopatzeke gerra-taktika bat izan zela.


Herri memoria zer den

Gainerakoan, Norteko trenbidea Hernanitik pasatzeko eraikuntza lanez ez dakigu ezer askorik. Hala ere, zer den herri memoria, orduko lanen berri ahoz aho nolabait iritsi zaigula. Jorge Villar hernaniarrak behin kontatu zuen -jadanik 103 urte zituela- nondik zetorkion Morral ezizena. Villar aguazil lanetan aritu zen urte mordoa eta horregatik ezaguna zen



Hernaniko paisajea Norteko trenbideak erdibiturik (Argazkia: Indalecio Ojanguren, Gipuzkoako Artxibo Orokorra)





herritarren artean, gertukoenek Morral deitzen zioten. Bada, bere esanetan, ezizena aitonarengandik zetorkion. Antza, bere aitonak Norteko trenbideko obretan egiten zuen lan, eta egunero-egunero makila bizkarrean jarri eta bertatik zintzilik zorro edo "morrall" bat eramaten zuen otordurako janariarekin; bere lankideek Morral deitzen zioten eta izenak belaunaldiz belaunaldi jarraitu zuen. Duela 150 urteko kontuak dira horiek, hortxe bere balioa. Baina, horrelako zenbat kontu ez ote ditu denborak berekin eramango? Gerra garaian babesleku gisa erabiltzen ziren trenbide azpiko pasalekuen istorioak, bake garaian treneko bagoiak abereak garraiatzeko erabiltzen zireneko gogorapenak...

"Jaungoikoari eskatzen diot arren argitu nazala..."

Gaur, abiadura handiko trenaren inguruko eztaba da pil-pilean dagoenean, ez legoke gaizki atzera begiratzea eta ikustea zer gertatu zen beste trenbide batzuekin, orduko hanka sartzeaz ikasteko. Esaterako, ezaguna da XIX. mendeko "trenbideen burbuila" deiturikoa. Trenbideak egin eta egin hasi ziren, adelantoa eta aberastasuna ekarriko zutelakoan, primerako inbertsioa zelakoan... Azkenean trenbide gehiegi egin zituzten eta burbuila lehertu egin zen. Hori gertatu zitzaion, esaterako, Bilbotik Tuterara zioan lineari, gastuek aurrekontua hirukoiztu zuten eta konpainiak porrot egin zuen. Izan ere, sukar eraikitzaileak ez dira onak izan, ez Egiptoko pirami-

deak egin zituztenean, ezta Rapa Nuiko mohaiak jaso zituztenean ere.

Txirritaren bertsoek gertaera konkretu bat azaltzen dute, tren lineari "elektrikako indarra" jarri ziotenekoa, alegia. 1929an gertatu zen hori eta sekulako iraultza izan zen, ordura arte trenak bapore bidez ibiltzen baitziren eta nekez igotzen zituzten Euskal Herriko maldak. Txirrita harrituta utzi zuen trena garraiatzeko sistema berriak eta bere bertsoetan ederki nabari da hori: "Gizon abilla zan elektrika / sortu zuben maisu ori...", esaten digu Latxeoak. Ez dakiguna da, zer esango lukeen bere Hernani kuttunean tragoska bat hartzeko paradarik aurreikusten ez duen tren bati buruz: "Nere munduko jakinduriya / izan da oso azala / Jaungoikuari eskatzen diot / arren argitu nazala..."

Gehiago sakontzeko bibliografia:

- ARANBURU, Pello Joxe; INTZA, Luis Mari: *Norteko trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan (I Liburukia)*, EuskoTren, Irizar kooperatiba eta Pasaiako Portuko Garraio kooperatiba, Astigarraga, 2006
- OLAIZOLA, Juanjo: *Bertan 10. Gipuzkoako trenak, Gipuzkoako Foru Aldundia*, 1996.
- ORMAECHEA, Angel María: "Ferrocarriles vascos 1855.1913", *Ekonomiaz*, 9-10 zk., 1998, 105-142. orr.

NORTEKO TREN-BIDEARI

Aste ontan Txirritak jarriyak

1

Naparrua'tik ardo-karraio
itzai asko zan ikusi,
prankok bazauzkan iri koskorak
beren kollare ta guzi;
zurezko ardatzak lumerarekiñ
al zan maizena iyurtzi;
denbora artan Pantorrill zuten
karreteruen nagusi.

2

Garai artako itzai koskorak
ongi zebiltzan lanian,
Gipuzkua'n da Bizkai aldian
da Euskalerra danian,
gorputzak bapo gobernatuaz
eranian da janian;
akabo oien jornal-biria
trena etorri zanian.

3

Aditu zituztenian trenen
txistua eta marruak,
geientxuenak saldu zituzten
iriyak eta karruak,
esanaz: «Orrek jetxiko dizkik
goi oitan diran arduak».
Garai artako aien abarkak
ziran basurde-larruak.

4

Milla zortzireun irurogei ta
zazpigarrengo urtian,
lenengo trena ikusi nuen
España'ko partian,
bire pixka bat bistan pasa ta
iñoiz sartua lurpian;
perra berriyak erantxi dizte
andikan orañ artian.

5

Modu orretan jarri zuenak
Norteko ferrokarrilla,
jakinduriya aundiya zuen,
entendimentu abilla;
gizonik eziñ asi liteke
zaldi obiaren billa:
goizian irten Irun'dik eta
illuntzerako Madrilla.

6

Danak alkarri lagun zaiogun
illundu gabe kopetik,
indar aundiyan dijala're
gelditutzen da kolpetik;
iñor ezertaz biartzen bada
Donostiya'ra Madritik,
izugarrizko adelantua
jarriya dago Nortetik.

7

Linea orrek badauka zenbait
tunel, zubi ta erriyo,
bi birerekiñ ipiñi dute
sekulan baño berriyô,
eletrikako indarra eta
oinbeste guardarrayo;
gau eta egun gelditu gabe
beti zerbaiten karrayo.

8

Trenera lasai baliyuake
egiñagatik zartzera,
iyo-biriak ederrak dauzka,
kotxian aixta sartze'a;
amar legua bire pasa ta
ordu beteko etxera,
lengo segunda beziñ ederra
dago oraingo terzera.

9

Eseri-alki ederrak eta
beste gauza bat on-ona:
ezertarako biartzen bada
kotxe bakoitzak komona;
lenguan antxen ikusi nuen
larogei urteko amona,
frantzes euskaldun buru-zuri
bat, Bentaberri'ko Moñoña.

10

Karbonerarik ez dute biar,
fogonerorik ain gutxi;
or biar dana: begiyak ernai
eta llabiari eutsi;
abiyatzian iriki eta
allegatutzian itxi,
gau eta egun gelditu gabe
dabill txistu ta irrintzi.

11

Gizon abilla zan eletrika
sortu zuben maisu ori,
piska-piska bat arrek graduak
bajatu zizkan subari;
orañ indarra leku askotan
kendutzen zaio urari,
garai batian merke zan baño
gaur baliyo du ugari.

12

Onla esanaz ur irakiñak
egiten zuen negarra:
«Prezisua al da beti kalderan
kiskaltzen egon biarra?
Ez daukat beste alimenturik:
suba, kia ta txingarra;
ongi miatzen baldin banazu
otzian badet indarra».

13

Berari beira jarri zitzaion
zabaldurikan besuak,
arrazoi ori ontzat artu du
eletrikako maisuak:
«Badakit zure gau ta egunak
dirala lastimosuak,
ori egiya esan badezu
itzaliko dia suak».

14

Nere munduko jakinduriya
izan da oso azala,
Jangoikuari eskatzen diyo
arren argitu nazala;
garai batian ez genekiyen
eletrikarik bazala,
orañ ur otzak dabillki trena
len irakiñak bezela.

Bertsolariya,
(1931-11-01)



2014

URUMEA BAILARA, IRAGAN INDUSTRIALAREN LEKUKOA

(BURDINOLAK, ERROTAK, AINGUREN FABRIKAK,
PAPER-FABRIKAK, PRODUKTU KIMIKOEN
FABRIKAK, ZEMENTU-FABRIKAK,
ZENTRAL HIDROELEKTRIKOAK)

**Alfredo Moraza Barea (ARANZADI Zientzia Elkartea)
Beatriz Herreras Moratinos (ONDARTEZ, S.L.)
(HERNANI 2014)**

“El río Urumea es un aprovechamiento fundamental á las diversas industrias que se han ido estableciendo en los márgenes de ese río, uno de los más importantes de esta Provincia en orden a los establecimientos fabriles que alimenta”.

Horren modu grafikoan egin zituzten adierazpenak 1894an garai hartako Sustapen Ministerioko Uren Negoziatuko ingeniariak, Urumea ibaiak euskal produkzio-panoraman zuen iraganeko eta orainaldiko garrantzia aipatzeko garaian. Horri esker, Kantaurialdeko ibai-ardatz nagusietako bat eta Hernaniko eta eskualdeko garapen ekonomikoaren benetako bultzatzaile bihurtu zen. Garapen hori ez zen inola ere zirkunstantziala izan, Erdi Arotik datorren industria-tradizio luze eta kontsolidatua baitzituen erroak.


Horri esker, Urumea ibaia jarduera ekonomiko ugariren protagonista izan da eta Hernaniko bizitza ekonomikoaren ardatz egituratzaile bihurtu izan da, baita gure udalerriak Gipuzkoako egitura sozioekonomiko konplexuan gaur egun betetzen duen rola ulertu ahal izateko oinarritzko faktorea ere. Olagizonen mailuen burrunba-hotsak edo erro-tarren kirrika, aingurak edo kanoiak egiteko lanak edo merkantzia ugarirekin kargatuta, ibaian gora, Ereñotzuko lonjaraino (eta, zenbaitetan, baita gorago ere, ia Nafarroarekiko mugetaraino) astiro joaten ziren gabarrarien ahalegina ezagutu zituzten ibaia-
ren ertzek. Hernaniko industriako aitzindari horiek

XIX. mendearen amaieran asmamenen belaunaldi berri batek ordezkatu zituzten eta, horrela, Urumea ibaiak hamaika produkzio-jarduera berri bildu zuen (paper-fabrikak, zementu-fabrikak edo kare hidraulikoak, produktu kimikoenak, zentral hidroelektrikoak eta abar).

Zoritxarrez, gaur egun ia ez da ezer geratzen edo gutxi geratzen da iraganeko une goren haietatik. Pabilioi modernoek edo industrialdeek hartu dute antzinako industria haien tokia eta haien jatorrizko tokiak erabat galdu dira edo, pixkanaka-pixkanaka, landarediak eta ahanzturak irentsi ditu. Memoria hura berreskuratu eta Urumeari jatorrizko rol esanguratsu hura itzultzeko asmoz, Ereñotzu Auzo Udalak ARANZADI Zientzia Elkarteak eta ONDARTEZeko ikerlarien talde bati ondare-baliabide haiek ebaluatzeko plana idazteko eskatu zion. Ikerketa haren behin-behineko ondorioak azaltzen dira lerro hauetan.

URUMEA IBAIA, BURDINAREN HARANA

Modu kategoriko samarrean bada ere, horrela defini dezakegu Urumea bailara. Dozena bat kilometro eskaseko eremuan (Hernaniko lurraldea bakarrik hartzen badugu kontuan) hogeitaz burdinola inguru eta, gutxienez, hiru errota zeuden, aingurak produzitzen zituzten hamar “bulego” ingururen alboan. Dentsitate horrek ez du Kantaurialdeko beste ibai-ardatz batzuekiko parekorik eta Lea haranean edo Urola ibaiaren erdiko eta goiko ibilguetan bakarrik ikus dezakegunarekin pareka daiteke.



Fagollagako burdinolaren planoa (1743).

Dentsitate hori lortzen laguntzeko faktoreak ugari izan ziren: ur-ibilgu handiak, Urumea eta haren ibaiadar batzuk, ingenio hidrauliko horiek guztiak mugitzeko behar adinako gaitasuna dutenak; azpiegitura ugarietarako (presak, ubideak, hauspoak, biltegiak...) zein labeak elikatzeeko ikatza produzitzeko ia mugarik gabe egurra eskuratu ahal izateko baso ugari izatea; esku-lanetan espezializatutako eskulana; eta inguruan zuzenean hornitu ahal izateko burdin mineralaren zainak eskuragarri izatea (etorkizunean, ordea, Bizkaiko zaina nagusitu zen). Ezaugarri horiek guztiak zirela eta, Gipuzkoako lurraldeko lursail jakin horretan burdinolako instalazioen kopuru handia pilatu zen eta Hernanikoa ez ezik, Gipuzkoa eta Euskal Herri osoko garapen ekonomikoa ulertzeko oinarritzko gakoetako bat izan zen. Kontuan izan

behar da XIV-XV. mendeetan, Gipuzkoako biztanleen erdiak, gutxi gorabehera, burdinaren sektorean egiten zutela lan

Azterketa arkeologiko sakonagoak egin arte ezin dugu zehaztu burdinola horiek noiz hasi ziren erakitzen Urumea ibaiaren ertzetan. Oso litekeena da haietako batzuen aurrekaria mendian, mineral-zainetatik gertu, egokitutako beste instalazio batzuk izatea. Funtzionatu ahal izateko, gizakiaren indarra izaten zen gakoa: haizeolak izenekoak dira. XV. mendearen erdialdean, honako burdinola hauek zeuden aktibo: Epele, Ereñozu, Latsa, Fagollaga (mende haren amaieran bertan behera utzi zuten), Abillats, Ubarrutu, Urruzuno Goikoa, Urruzono Behekoa eta Pagoaga. Hurrengo mendeko lehen hamarkadetan,




Urruzunoko burdinolaren presa, 1994 (Inventario de elementos patrimoniales inmuebles y muebles).

honako hauek ere sortu zituzten: Ereñozun beste bi (“erdiko errementeria” edo Etxabi, zaharraren alboan zegoena, eta “errementeri berria” edo Bazterrola), Bezkite (Urnietako jurisdikzioan zegoen, baina Urumea ibaiaren ertzean), Pikoaga, Aparrain edo Olaberriagakoa. Horiei, gainera, ibaian behera jarritako beste batzuk gehitu behar dizkiegu: Errotarangoa edo Eziagokoa... guztira, hogeitau produkzio-gune inguru ziren.

Burdinola horiek Hernaniko sare ekonomikoan zuten garrantzia ulertzeko, nahikoa da adieraztea

haietako bakoitzak, batez beste, urtean 150 dukat baino gehiagoko (garai hartarako dirutza) errentak sortzen zituela jabeentzat eta haietako bakoitzerako materialak hornitzeko ehun lagun ingururi ematen zietela lana.

Burdinola haien iraganeko distira pixkanaka gutxitzen joan zen eta, XVII. mendearen hasieratik, krisialdi argian sartu ziren. Haietako askok itxi zizuten ateak (batzuetan, uholdeek eragindako kalteak zirela eta, 1566an izandakoa, adibidez), hala nola, Latsakoa, Bezkitakoa edo Bazterrolakoa. Bes-



Ereñotzuko burdinola zaharren eta errotaren instalazioen ortofotoa. Complejo de Ereñozu. 1) Casa torre de Ereñozu “Txilibita”. 2) Lonja. 3) Ferrerías vieja y de medio, menor o Chabi. 4) Ruinas de la Ferrería nueva o Bazerrola. 5) Pie del puente de Ereñozu.

te batzuk errota bihurtu ziren eta haietako gutxi batzuk bakarrik mantendu ziren aktibo (Ereñozun, zaharra eta Etxabikoa, Urruzuno Goikoa, Ubarrutu, Pikoaga eta Abillats, eta Osinagako Errotarangoa). Horiei, 1627tik aurrera, Fagollagakoa gehitu behar diegu, udal-jabetzakoa zen bakarra. Krisi haren kausen artean bereziki aipatu beharrekoak dira hauek: instalazioak mantentzetik eratorritako kostuak eta langileen soldatak asko garestitu ziren, burdinolen inguruko mendietan ikazkintzarako egurraren eskasia gero eta handiagoa zen eta, batez ere, instalazioen modernizazio-gabezia zela eta, Euskal Herriko burdina ez zen horren lehiakorra eta gune metalurgiko berriek ordezkatu zuten.

XIX. mendearen erdialdean, hiru burdinola bakarrik ari ziren lanean: Pikoaga, Ereñozu eta Fagollaga. Lehen biak, gainera, irin-errotekin batera zeuden. Itxi zuten azkena Fagollagakoa izan zen, 1856. urte inguruan.

Bukaera triste horren antzekoa da geratzen diren hondakinen egoera. Kasu batzuetan geratzen diren arrasto bakarrak ustezko kokapena edo zepen hondarrak dira (Ubarrutu, Abillats, Aparrain, Bazterrola...), beste batzuetan, gordetako hondakinak ez dira esanguratsuak eta presetako zimenduak (Latsa, Olaberriaga edo Bezkitte), edo jatorrizko produkzio-instalazio haien zati bat (Olaberriaga, Bezkitte edo Ereñozu) bakarrik geratzen dira. Ereñozuko hori da gaur egungo zentral elektrikoaren eta Lonja baserriaren artean hondakin esanguratsuenak mantentzen dituen gaur egun.



Antzinako Epeleko errota (2004), XIX. mende bukaeran berre-raikita, eta gero porlan-fabrika.

INDUSTRIA-JARDUERAREN BERPIZKUNDEA

1856. urte inguruan Fagollaga itxi ondoren, Urumea bailarako industria-jarduera nabarmen gutxitu eta ia hutsal bihurtu zen: irin-errota txiki batzuk geratu ziren Urumea ibaiaren iraganeko energia-aprobe-



Santiago Alkizaletok 1902an eraikitako zementu-fabrikaren labeen hondarrak.



Argazki honetan eta hurrengoan Latsa produktu kimikoen lantegiko barrualdea argazkiak dira (Gipuzkoako Foru Aldundia).



ak (1983).



deko ikuspegiak ikusten ditugu, 1980ko hamarkadako

txamendu handi haren azken testigantza moduan (Epele, Ereñozu, Pikoaga). Isiltasun hura Fagollagako burdinolako instalazio zaharren eraldaketak bakarrik hautsi zuen. Izan ere, paper jarraituaren fabrika berria eraiki zuten “La Urumea” izenarekin, Gipuzkoako lurraldean beste hainbat kasutan gertatu zen moduan. Sustatzailea Bonifacio Guibert tolosarra izan zen, dagoeneko Belauntzan beste paper-fabrika bat zuena, eta 1870. urtetik zegoen funtzionamenduan. Paper-fabrika hura aktibo egon zen 1886 arte. Orduan, ustiatzen zuten enpresak (“Sesé, Banderes, Echeverría y C^a”) Eziagoko errotaren ingurura lekuz aldatzea erabaki eta gaur egun oraindik aktibo dagoen paper-fabrika berria eraiki zuten. Huraxe da gaur egun beheraldi argian dagoen sektorearen azken testigantza.

Urumea ibaiaren industria mailako berpizkunde haren lehen erakusgarri goiztiarra Latsa izeneko produktu kimikoen fabrikak ekarri zuen. Izen bereko baserriaren (Txirrita jaio zen etxea) alboan dagoen lursail txikian egokitu eta, seguru asko, izen bereko burdinola zaharraren hondakinen gainean eraiki zuten. 1884. urtean, “Lecumberri y C^a” enpresak, geroago “Puig y C^a” bihurtu zenak, “Aritzarenak” izeneko industria-konplexu handia eraiki zuen (jatorrizko fabrika Zabalaga baserritik gertu kokatuta zegoen, Añorgara joateko errepidearen alboan, eta 1882an izandako sutearen ondorioz, suntsituta geratu zen). Haren xedea, egurraren destilazioaren eta produktu deribatuen bidez, produktu kimiko ugari produzitzea zen (egur-ikatza, alkohol industrial, galipota, azido pirozurkara, pirolignitoak, azido azetiko jangarria eta industrial, azetona...). Enpresa Estatu osoan aurrekaria izan zen sektore horretan eta produkzioaren zati handi bat esportatu egiten zuten. 1973. urte inguruan itxi arte, industria arloko erreferente bihurtu zen. Gaur egun oraindik ere zutik diraute fabrikako pabilioi batzuek eta tximinia handiak. Bestalde, langileen etxe zaharra eta Puig sendiaren txaleta ere han daude errepidearen beste aldean, baina hondatze-egoera aurreratuan daude. Eraikuntza horien artean, “Constructions Mécaniques de S. Quentin” izeneko Frantziako etxeko lurrun-galdararen presentzia nabarmendu behar dugu. 1884ko instalazioen barruan zegoen eta Euskal Herri osoan halako bakarra da. Hori dela eta, beharrezkoa da neurriak hartzea behin betikoz suntsitu aurretik.

Bailaran presentzia izan zuen beste sektoreetako bat zementuaren edo kare hidraulikoaren produkzioa izan zen, baina handik urte batzuetara jarri zuten abian. Gipuzkoaren kasuan, sektore horrek garapen maila oso handiak lortu zituen eta produktuak ia penintsula osora esportatzen zituzten. Horri esker, bi produkzio-gune nagusi sortu ziren: bata Urola Behearen inguruan (Zestoa, Aizarnazabal, Zumaiia...), eta bestea, Donostia hiriburuaren inguruan. Eremu hartan, Hernanik oso rol garrantzitsua bete




Latsa produktu kimikoen lantegiko barrualdeko ikuspegia 1980ko hamarkadan (Gipuzkoako Foru Aldundia).

zuen hainbat fabrikarekin. Azken horien artean, nabarmendu beharrekoak dira honako hauek: Marielutsekoak (oraindik ere hondakin aipagarriak daude bertan, baina nahiko desnaturalizatuta) edo Asperrokoa (Ergobia eremuan). Dena den, gehien interesatzen zaizkigunak Urumea ibaiaren ertzetan daudenak dira. Bi izan ziren gune nagusiak, Epele eta Fagollaga, baina biak une berean jarri zituzten abian: XX. mendearen hasieran. Bi kasu horietako lehenengoan, hasiera batean, Rocaverdeko markesaren jabetzakoa zen Epele errota berrituaz baliatu ziren lehen errotarriak (1901) instalatzeko. Dena den, hurrengo urtean, instalazioak inguruko beste toki batzuetara eraman zituzten (Labazarreta eremua). Instalazio horien aztarna batzuk oraindik ikusgai daude; zehazki, harria kaltzinzatzeko bost laberen hondakinak. Enpresa hark hainbat izenekin ("S. Arribalaga y C^a", "Viuda de Larralde y C^a", "Lostaló, Larralde y C^a" edo "Ricardo Figueredo y C^a") funtzionatu zuen Gerra Zibila baino zertxobait lehenago itxi zuten arte. Antzeko ibilbidea egin zuen Fagollagan Santiago Alkizalete hernaniarrak 1902an instalatu zuen fabrikak. Hamarkada haren amaierara ozta-ozta iritsi zen. Ibilbide laburra izan zuen arren, eskualdeko industria-aztarna ikusgarrienetako bat utzi digu. Izan ere, harria egosteko hiru laberen bateria dago ikusgai eta, haren alboan zeuden zama-lanetarako, biltegiratzeko eta beste lan batzuk egiteko instalazioak. Gaur egun, ordea, kanpoko arkuak baino ez dira geratzen.


Bailara hartako industriaren iraultza handia mende-aldaketarekin batera gertatu zen eta, hari esker, ibaiaren ertzak berriro bete zituzten eta haren indarra asmamen berriak mugitzeko erabili zuten. Gakoa sektore elektrikoaren garapena eta, batez ere, industriara edo argiztapenerako beharrezko energia sortu ahal izateko lurraldeko ibai-ibilgu ugarien aprobetxamendua izan zen. Helburu horrekin, Urumea ibaian edo haren ibaiadarretan zentral hidroelektrikoak eta presak, kanalak (haietako asko tunelean) eta makina-etxeak eraiki zituzten. Haiek eraiki ahal izateko, beharrezkoa izan zen kapital handien inbertsioa egitea, baina lortutako irabaziak ere maila berekoak izan ziren. "Iluntasunaren konkista" deitu zitzaion horri eta bigarren industria iraultza izenekoaren zutabea izan zen.

Hasiera batean, zentral horiek eraikitzeke eragile nagusia argiteria publikoa izan zen. Udalek bultzatu eta kapitalizatu zituzten enpresak: Bergara (1891); Donostia (1893 / 1899); Tolosa (1892); Eibar (1893) eta abar. Haiei, gainera, oso modu goiztiarrean Hernani gehitu zitzairen. Udalak 1896an eskatu zuen Lastaola eremuan zentrala eraikitzeke baimena (makina-etxe izenekoak). Argiteria publiko eta pribaturako (industriak eta etxeak) energia elektrikoa sortzea zuen xede proiektuak. Barnean 90 zp-ko bina turbina jarri zituzten. Bakoitzak bere alternadoreak zituen eta, ondoren, bi diesel-motorrekin osatu zuten instalazioa. Guztira, zazpi lagunek egi-



Santiago - Abañoko Zentral Hidroelektrikoaren ur-baimenaren lursailaren planoa, 1893 (Confederación Hidrográfica del Cantábrico).

ten zuten han lan. Instalazioak aktibo egon ziren 1960ko hamarkadara arte. Orduan, Anticorrosión SA enpresari (gaur egungo Electroquímicareen jatorria) besterendu zizkieten eta hark instalazioak erabat berritu zituen. Gaur egun Añarbeko Urak (AGASA) enpresaren jabetzakoak dira eta jatorrizkoen oso bestelakoak diren helburuetarako erabiltzen ditu (ur edangarria ponpatzeko estazio-proiektua).



Lastaolako Zentral Hidroelektrikoa eraikitzeko egitasmoa, 1896.

Dena den, Urumea ibaiaren ertzetan instalatu zuten lehen zentrala Arranbidekoa izan zen. 1893an eraiki zuten eta gaur egun Añarbe presa dagoen inguruan zegoen, baina Erreterriako lurretan. Haien ondoren iritsi ziren honako hauek: Santiago-Abañokoa eta Ereñozukoa 1895ean; Pikoaga-Mandarrietakoa 1899an; Urruzunokoa eta Mendiaratzekoa (azken hau ere Erreterriako lurretan) 1900ean. Zikloa 1919. urtearen inguruan amaitu zen Fagollagako zentrala inauguratu zutenean. Erabilera publikoetarako zein pribatuetaarako energiaren eskakera handia zela eta, zentral horiek irabazi handiak ematen zituen negozio bihurtu ziren. Hori zela eta, “ikatz zuria” ere deitu izan zitzaion negozio hari. Enpresa ugariaren arteko elkarketa eta sektorea kontrolatzera iritsi ziren enpresa sendoak jaiotzea eragin zuen mugimendu hark.

Mantentze- eta kontserbazio-lanen gastu handiak eta, batez ere, Bigarren Mundu Gerraren ondoren prezioak merkatu zituzten energia-iturri berrien hedapena (petrolioia eta eratorriak, adibidez) zirela eta, zentral haietako asko zaharkituta geratu ziren eta, azkenean, produzitzeari utzi zioten. Horren guztiaren ondorioz, gaur egun, zortzi zentral horietako bi bakarrik daude aktibo (Santiago-Abañoko eta Ereñozu), eta hirugarren bat aldi baterako geldituta dago (Fagollaga). Gainerako zentralen aztarnak zutik diraude, eta batez ere, presek (Mendiaratzekoa izan ezik), kanalaren zati batek eta makina-etxeek, baina makina guztiak erabat dese-



Lastaolako Zentral Hidroelektrikoa eraikitzeko egitasmoa, 1896.

ginda daude. Kontserbazio maila onenean dagoen adibideetako bat da Ereñozuko zentrala. Aurrealdea partzialki erorita dagoen arren, makina-gela duela

120 urte bezalaxe dagoela esan dezakegu. Gainera, makinen zati handi bat bertan dago oraindik ere.



Pikoaga - Mandarrietako Zentral Hidroelektrikoaren presa.



Ereñotzuko Zentral hidroelektrikoaren barrualdea, kontrol-kaxa duen armairuaren xehetasunarekin.



1994

HERNANIKO UDALETXEA

**JOAKIN FERNANDEZ AYARRAGARAY,
HERNANIAR ARKITEKTOAREN OBRA**

**Juan Ignacio Elizondo, Arkitektoa
(HERNANI 1994)**



Udaletxe zaharra, leherketaren ondoko egoeran.

AURREKARIAK

Bigarren Karlistada gerratean, 1875 irailak 16, arratsaldeko lau terditan hain zuzen, Santiomendin kokatu bateriatik karlistek jaurtiki granada batek jo zuen Udaletxeko areto nagusia. Guda agintarien erabakiz bolborategi bilakaturik baitzen hau, bapatean gertatu leherketaren ondorioz edifizioa desegin eta zenbait hildako eta zauritu ugari izan zen.

Hondamendi honek Erretore Etxea ere erasan zuen, zeina etxe koxkor bat baino ez zen, Udaletxearen eta Parroki Elizako dorrearen artean, biekin komunikatzen zuena, eta hau ere militarrek harturik zeukaten. Udal dependentziak deseginda gelditu zirenez, Korporazioa beste lokal batzuk Plazan eta Kale Nagusian

prestatzera edo errentan hartzera beharturik gertatu zen, Udaletxean kokaturik zeuden zerbitzu desberdinak berriro martxan ipiniko bazituen, esaterako bulegoak, alhondiga, musika aretoa, eskolak, etab.

Luza gabe sortu zen herri-gizonen artean hondaturik gelditu zen edifizio nagusia berreraikitze gogoa, baina ezinbestekoa zenez edifizio kaltetuei buruz konpentsazioaren beharra bideratzea, eta hau Estatuak behar zuen onartu, horregatik indemnizazioaren aldeko bide neketsuari ekin zitzaion, hain neketsua bide hau non, bai burokraziaren moteltasunagatik bai eta agintari militarren axolagabezia eta ulertezintasuna dela kausa, hamar urte luze iraun baitzuen.

Ikusi besterik, nahiz eta leherketaren ondoriozko galera eta kalteen tasaketa egin, Iehenik Estatuak eta Udalak izendaturiko arkitektoen bitartez, eta geroago beste batek, auzia ebazteko parte hartu zuen hirugarrenak, hiruok ere udal interesen alde jokatzuz, agintari militarra temati ahalegindu zen behin eta berriro orohar baloratu zenbatekoari bere onarpenik ez ematen. Guztira 111.792,22 pta. igo zen kopurua, arrazoi edo zuzentasun izpirik gabe, 31.482,62 pezetara eraitsi zuten. Honek eragin zuen Udala Gerrako Ministroari txosten bat igortzera, egin nahi zen beharpena ez egiteko argudiatuz, eta beste bat Ministroen Kontseiluko Lehendakariari, aipatu dugun Ministroarekiko bitartekaritza eskatuz, halako eraispen hura onar ez zedin.

Hala, 1882an onartu zuen azkenik Estatu Kontseiluak Udaletxeari egindako kalteen alde 81.585,38 pezetako diru kopurua Udalari ematea. Hortxe sartzen zen baita okupazio egunetik hasita leherketa gertatu zen arteko akurapena eta udal zerbitzuetako hartu behar izan ziren edificizio desberdinen akurapenak ere. Hurrengo urtean eta arrazoi berdinagatik, Erretore Etxearen alde onartua izan zen 10.000,43 pta. Indemnizazio modura ematea.

Hala eta guztiz ere, delako indemnizazioa ez zen 1885-86 ekitaldiko aurrekontura arte sartu, eta beraz, ordainketa 1885 urtearen azkenetan egin zuten.

Hilabete batzuk lehenago -halakoa zen udaletxe propio bat ez izateagatik hernaniarren ezinegona- non Korporazioak, herriarentzat lehen bait Iehen Udaletxea berreraikitzeak zer nolako garrantzia zuen ikusita, eta komenigarri zela baita eskudun pertsonen aholkua, bilkura dei bat luzatu zien aurreko hamar urtetan zehar zinegotzi izandako guztiei. Bartzarkide gehienen ideiak jaso eta aho bateko iritziaren ondotik, Korporazioak haxe erabaki zuen, Joakin Fernandez Ayarragaray Arkitektoari, herriko semea ⁽¹⁾, Udaletxea berreikitzeak obren proiektua eta zuzendaritza gomendatzea.

Proiektu arkitektonikoaren bereizgarriak

Gomendatu zitzaion mandatuari erantzunez, hernaniar arkitektoak 1886 uztailak 3an aurkeztu zuen Hernaniko Udaletxea berreraiki eta berriztatzeko proiektua deitzen dena eta ondoko dokumentu hauetaz osatua: txostena, presupostua, ahalezko baldintza eta baldintza ekonomikoak, eta fatxada eta oin desberdinei buruzko planoak.

Berreraikitze proiektuaren ideia nagusiak Udaletxe zaharraren elementu arkitektonikoak izan zituen abiapuntu, 1679 urtean estilo txurrigereskoan eraikia, eta nahiz ontzat ematen duen Fernandez

jaunak haren fatxada nagusiaren osotasuna, uste du ez direla hark erakusten zituen zurruntasuna, monotonia eta gogortasuna Udaletxe batentzat gaitasunik egokienak. Horregatik, arkitekturari buruzko sistema orokor berria bereganatzekoan, egileak espazio alaiago bat bilatu zuen eta, batipat, gisa honetako edificzioekiko egokiagoa zena. Hala, berariz, ez zituen ez bete forman ez bere neurrietan nola barneko hormetan hala kanpoko fatxadetan osorik gelditu ziren baoak errespetatu, hauek molde, proportzio eta egoera berrietara erakartzeko beharrari jarraituz.

Alabaina, bere sendotasunagatik, onartu egiten ditu berritzapenerako osagai modura, leherketaren ondotik ere zutik gelditu ziren sei arkuak beheko oinean, hauek baitira gainerako oin eta gorputzei altuera eta proportzioa emango dizkienak. Bat gehiago ezartzen die hauei, Erretore Etxeak lehen hartzen zuen orubea osatuz, izan ere edificizio hau, itxura irrigarria zuena, erauzi zutelarik, Udaletxe berriaren luzagarri bilakatu baitzen, hala ere, hori bai, bere nortasuna osoki errespetatzeko modua eginez. Ideia honekin, Plaza Nagusiaren alderdi hori, kalitate arkitektoniko berbera zuen eraikuntza baten bitartez, guztiz osatzeko bidea egin zen, eta baxotza zenez arku kopurua, laugarrena fatxadaren erdian kokatuz, hortxe kokatu ziren baita sarrera nagusia, alkatetzako balkoia, erlojua, Hernaniko armarria, etab.

Proiektuan dugun edificizioa gisa honetan osatua dago: beheko oina, solairuartera, oin nagusia eta es-talipekoa, guztiok elkarrekin hiru eskailearen bidez komunikatzen direlarik, bata, eskailera nagusia, erdian eta beste biak albo banatan.

Beheko oinak arkupe zabal bat dauka aurreko partean, arkuetariko batetan etena duena, hortik zehar Urnietara doan errepidea pasatzen delarik. Pasabide honetatik ezkerrean kokatzen da herriko presondegia eta goiko oinetara garamatzen eskailera eta azpiko pasabide batetik atzeko fatxadara, non gela bat xexenak gordetzeko izaten den eta bestea suten ponpa gordetzeko. Aipaturiko pasabide horren eskuinean aurkitzen da sarrera nagusia jauregiatoko eskailera ederrarekin, eta beronen albo bietan tresnak gordetzeko biltegia, udal arbitrioak, Iangela, alhondiga (atzealdera atea duena) eta zerbitzuak. Ar-kupetik Ezkiaga Pasealekura doan pasabidean daude Erretore Etxera igotzeko bakarrik diren eskailerak.

Solairuartera, aldiz, erabilpen desberdinen arabera, hiru zati desberdinetan banaturik ageri zaigu. Ezkerrean musika akademia kokatzen da, eta koartel aretoa, ofizialen gelak eta komunak; erdian, Udal Epaitegia, bere areto eta alboan gelak dituelarik; eta eskuinaldean, Erretore jaunaren bizitegia.

Oin nagusia bi zatitan banaturik, Udalari dagokiona eta Erretore Etxeari dagokiona. Lehenengoan, bilku-

(1) Joakin Fernandez Ayarragaray jauna, Hernanin jaio zen 1821eko abuztuaren 17an. Peritu Agronomo izan zen eta San Fernandoko Arte Noblean Erret Akademiako Arkitekto. Sevillako Arte Ederren Eskolan irakasle izanik, obra ugariak burutu zituen hiri horretan. Eta 1900 urteko martxoaren 26an hil zen.



Udaletxearen fatxada nagusia, berreraikia.

ra gelak, harrera gela (bi espazio dituen alboetan, bata solasaldi isiletarako eta jende hartzeko bestea), alkatearen langela, idazkaritza, artxiboa, aldagela, komunak, etab. Erretore Etxeari dagokion zatian bizitegiaren osagarri diren gelak

Estalipeko espazioa probetxatzearen, bertan bi bizitegi moldatu dira, algoazilentzat, teiltuan dagoakion txapitelak moldatzen zaizkielarik.

Joakin Fernandez arkitektoaren proiektuan gauza nabaria da Hernani herriarekiko duen onginahia, eta bere jaioterriarentzat Udaletxe eder bat eraikitzeko lehia. Elementu apaingarrien diseinua da benetan eskertzekoa, bereziki honako hauek aipatu nahi ditugularik, fatxadak, fatxada nagusikoa batipat, eta berdin barne apaingarriak (eskailera nagusia, harrera aretoa, etab.), zeintzuk planoetan zehazki idurikatzen dituen. Halako ugaritasuna erakusten du xehetasunetan (zutabe, mentsula, dilindari, lehoi buru, hormakonka, iragarki koadro, apaindura, etab.), non, eta gehiegizko gastua iturtzearen, harria eta porlana konbinaturik erabiltzeari helden zaion, prozedura hau lehen ere erabilia baitzuen arkitekto honek Sevillako katedralaren fatxada nagusia birmoldatzerakoan.



Udaletxe berriaren atzealdeari buruzko ikuspegi partziala.

Hona proiektaturiko obraren aurrekontu orokor laburtua:

Udaletxea

Berreraikuntza eta berritzapen obrak	81.645,51 pta.
Kanpoko apaindura: fatxada nagusia	15.195,00 pta.
atzealdea	5.325,00 pta.
osagarriak	13.150,00 pta.
Barneko apaindura eta haltzariak	19.675,00 pta.
=====	

Guztira Udaletxea 134.990,51 pta.

Erretore Etxea

Berreraikuntza eta berritzapen obrak	21.200,44 pta.
Kanpoko apaindura: fatxada nagusia	2.405,00 pta.
atzealdea	650,00 pta.
osagarriak	5.150,00 pta.
=====	

Guztira Erretore Etxea 29.405,44 pta.

Guztira, orokorra 164.395,95 pta.

Udaletxe berriaren eraikuntza lanak

Proiektu teknikoa aztertu eta onartu ondoan, Korporazioak gastu eta sarreraren presupostu berezia mol-datu zuen, obra horiek egin ahal izateko. Gastuen atalean, Udaletxe berriaren kostuez gain, partida orokor bat sartzen zen Erretore Etxearen orubea eta lursail bat Portale Etxea izandako orubean erosteko, gerora Udalaren jabetzara pasa zirenak, eta halabe-rean eliz-ataria berriztatu eta plaza konpondu ahal izateko.

Gastu hauek, esan beharrik, Estatuak ordainduriko indemnizazioa baino bi halako suposatu zutela, eta horregatik Udalak, beste neurri batzuren artean, de-lako obra horietarako 75.000,-pta. eskuratzeko era-bakia hartu zuen, aldi berean zerga iragankor bat ezarri zuelarik kontsumatzen zen sagardo eta xa-boiaren gain, hortik bildutalkoa zorraren amortiza-ziorako ematearren.

Proiektuaren finantzaketa segurtatu zenean, 1886 urriak 24an, inkante publiko bat ospatu zen herriko Udaletxea berreraiki eta berriztatze obrak kontra-tatzeko. Bost proposamen aurkeztu ziren horretara, Migel Salaberriarena, Donostia, abantailatsuena ger-tatu zelarik. Hala hala, Korporazioak beroni eman zion obra horien adjudikapen erabakiorra. Hauek, hurrengo hilabeteen hasi ziren, aintzinako edifi-zioaren hondakinak erauziz.

Obralaren egiketa Joakin Fernandez arkitektoak zuzendu zuen, baina, hala nahi izanik ere, obrak zi-rauten denboraldi guztian zehar, iraunkorki Herna-nin bizitzea ezinezko baitzitzaien, Sevillan katedra-dun zelako, Ramon Zendoia obramaisua izendatu zuen laguntzaile.

Halatan, 1887 martxoak 19an, goizeko 11etan, ospa-tu zen Udaletxe berriaren, lehen harria ipini zeneko zeremonia. Ekintza handiki burutu zen, banda eta danbolinaren musika alaigarriarekin. Ruperto Erize Alkate jaunak presiditu zuen eta bertan, Korporaioaz aparte, gonbidatu ugari izai zen. Bedeinkazioa Jose Roman Berasategi parroko jaunaren kargura. Ospa-kizun honetako oroitzapen eta agerpide bezala ai-patuko dut, nola sarrera nagusiko ataburupean, ho-rretarako prestatu zokogune batetan, zinkazko kaxa bat kokatu zen, bertan ekitaldi horretako akta agiria Udal Idazkariak jasota, eguneko kazeta zenbaiten ebakidurak eta zilarrezko nahiz kobrezko txanpon batzuk ipini zirelarik.

Obrak normaltasun osoz aurrera zihoazen heinean, zuzendaritza teknikoa ere onartzen joan zen eta ze-gokionez ziurtapen partzialak luzatzen.

Delako obra horien azken etapan, erlojua konpondu eta ipintzeko jokabidea hartu zen, horretarako pres-tatu leku berezian. Erlojua, aurreko edifizio kalte-tuan egondako aparailu berbera zen.

Kontratistari edifizio berriaren entrega egiteko epea hurbildu zitzaionean, 1888ko urria zegoen seinalturik, Korporazioak udal zerbitzuetarako harturik zeuzkan lokal ezberdinen jabeei errenta kontratuaren amaiera iragarri zien.

Alabaina, bi hilabete luzatu zen oraino edifizioen entregako data, Salaberria jaunak hala eskaturik; honek lanak oro, salbu eta pinturarenak, 1888ko abenduaren 20a baino lehen amaitzeko konprometua hartu zuen. Eta halaxe gertatu ere gertatu zen. Egun horretan Udalak eta Kontratistak berreraikia izan zen edifizioa behinekoz okupatzeko hitzarmen akta sinatu zuten, eta hala, Korporazioak 1889 urtarilak 1ean udal zerbitzu guztiak Udaletxe berrira lekualdatzeko erabakia hartu zuen.

Berehalako batetan, lehiaketa bidez, erosi ziren aretoa, harrera gela eta alkatetza hornitzeko haltzariak; esan gabe doa zenbait pieza Fernandez arkitektoak berak diseinatuak zirela. Era berean, baita, eskuratu ziren aipaturiko areto horietarako beirazko lanparak, idazkaritzarako haltzariak, etab.

Berreraikitzeke lanen Arkitekto-Zuzendari jaunak aurkeztu likidazioaren arabera, azken zenbatekoa 229.085,56 pta. igo zen. Nolanahi ere lehen aurrekontua baino handiagoa, zeren eta obrak aurrera zihoazen heinean aldaketarik ere izan baitzen, batzutan Udalak hala eskaturik eta beste batzutan Zuzendaritza Teknikoak edota Kontratistak berak.

Udal edifizioaren entrega ofiziala egin zenetik urtebetera, hots, 1890 maiatzak 22an, Korporazioak, obren egoera zehazki aztertu ondoan, eman zien hauei onarpen erabakiorra.

Atal honetan, amaitu aurretik, aipatu nahi nuke besterik ere, Joakin Fernandez Ayarragaray jaunak bere jaioterriarekiko erakutsi zuen onginala sakona alegia, Udaletxe bikain hau berreraikitzeke obretan izaniko partaidetzan. Hernaniar arkitektoak, eginiko lanengatik ordainsaririk ez jasotzeaz gain, bere jarrera jatorra azaldu zion Korporazioari, esanez, hat ezazue nire eskerron eta onespenik sakonena, aipaturiko obrak direla eta, eskuratu didazuen paradagatik, nere herritarrei zerbait onuradun eskaintzeko bidean eta jarraitzen zuen sobera eta gehiegi ordaindurik naukazue nere ahalmen murrizten arabera hain maitagarri zaidan Herriaren alde egin dudanaren aintzarekin.

Korporazioak, aldiz, eta bere eskerronaren azalpe-
nez, diamantezko botonadura eman zion oparitzat, eta hau zihoan kutxatila-
ren barne honako inskribapen hau "Hernaniko herriak Joakin Fernandez herriko-
seme goraipatuari, Udaletxea berreraikitzeke proiektuaren egile eta obren
zuzendari izatearen oroigarritzat. 1890".



Obra osagarriak

Nahiz eta oso aberatsa ez izan une horretan udal altxorra eta Udaletxea berreraikitzeke gastuek gora egin zuten arren, Korporazioak maila txikiagoko beste obra batzuei ekin ahal izan zien, Udaletxe berriaren inguruan, hain zuzen. Hala nola plaza bere iturriarekin konpontzea eta Eliz-ataria berriztatzea, Joakin Fernandez gure arkitektoaren ideia jarraituz; eta gainera, plazatxo bat eraikitzea Udalaren atzealdean, Portu auzorako bidea konpontzearekin batera.

Bidenabar adierazi nahi dut azken proiektu hau burutzeak, orgabidea eten egin zuela hirigunea eta aipaturiko auzo horren artean, erabiltzaileak Karabeletik barna ibiltzera behartuz. Inkomunikazio egoera honek hainbat kexa sortarazi zuen bertako bizilagunen artean eta Udalaren kontra, eta hauxe izan zen hain zuzen, Leokan behera Urnietarako errepidearen arkupetik zehar Porturako bidea eraikitzearen jatorria.

Baina beste kontu bat da obra hau, agian beste parada batetan aipatuko duguna.

Hernani, 1994 otsailak 2
(Itzultzaile: Jaxinto F. Setien)

Oharra: Udaletxearen estalipeko espazioa, Joakin Fernandez Ayarragaray Arkitektoak egin proiektuaren arabera burutua, 1942-1943an moldaberritua izan zen, berari atiko bat ezarri, ormigoizko estali lauarekin, isuridun harbelezko teilatuaren ordainez.



2001

RETRATOS DE REYES Y HOMBRES ILUSTRES EN LA CASA CONSISTORIAL DE HERNANI

Mikel Lertxundi Galiana
(HERNANI 2000/01)



Retrato de la Reina Maria Cristina. Foto: Alberto Elozegi

Este breve artículo tiene la intención de dar a conocer tres pinturas que hasta hace varios años habían permanecido olvidadas en la casa consistorial de Hernani. Los tres retratos hallados coincidían con las referencias que el arquitecto Juan Ignacio Elizondo había descubierto con anterioridad en las actas municipales de principios del siglo XX, y que permitían identificar a los retratados en los tres lienzos como la reina María Cristina, el rey Alfonso XIII y el filántropo Pedro Viteri⁽¹⁾. Finalmente, y con la intención de dar una visión

(1) Tengo que agradecer a Arantxa Laburu que me facilitase las tres referencias de actas descubiertas por Juan Ignacio Elizondo, que sirvieron como punto de partida a mi investigación.

más completa del asunto, se ha considerado oportuna la inclusión en este artículo de otros dos retratos que hoy adornan el salón de del edificio municipal.

La realización de retratos de reyes y de hombres ilustres para decorar los salones de los ayuntamientos no fue una actuación exclusiva de Hernani. Atendiendo únicamente a Gipuzkoa, podemos afirmar que desde la segunda mitad del siglo XIX se observa una proliferación de este tipo de producción. En cuanto a los retratos reales, estos fueron habituales en la decoración de los ayuntamientos, sobre todo desde el reinado de Isabel II, cuando el pintado por Federico de Madrazo 1850 se convirtió en modelo

para un enorme número de copias que fueron remitidas a las distintas instituciones públicas. Así, por ejemplo, los pintores guipuzcoanos Eugenio Azcue y Luis Brochetón, basándose en la idealizada obra de Madrazo, pintaron retratos de esta reina para la Diputación de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Donostia respectivamente.

En lo referido a los retratos de hombres ilustres, durante este periodo debemos recordar tres nombres propios, responsables en gran medida de buena parte de la realización de este género de obras ⁽¹⁾.

Duela gutxi Klara Campoamor anderearen oroitzapena berreskuratu ahal izan dugu, Estatu Espainolean berau izan baitzen 1.931 urtean emakumezkoaren botoa lortzeko bidean aintzindari. Kosta zaigu berreskurapen hau berea eta bi.

Arlo desberdinetan nabarmendu diren emakume asko eta asko ahortzi egin ditugu, nahiz eta gertaera garrantzitsuetan partaide izan ziren. Zer esan azken gerrateko gure emakumez? Ia urtebete eska-sean bi joan zaizkigu, bata Donostian Ixiar Muxika, bere jardueragatik heriotzera kondenaturik egon zena. Gerrosteian euskararen irakaskuntzan jarraitu zuen, urte ilunetatik hasita. Edo Kasilda, Loiola hartzekoan, Aiako harriko frontean partaide izan zen anarkista maitagarri eta bihotz zabala, gero Erresistentzia Frantsesean jardun zuena eta geroago beharrean aurkitzen zen errefuxiatu oro bere etxean hartu zuena. Eta inolako garrantzirik gabe hartu ere, gauzarik arruntena egongo balu bezala.

Duela gutxi ohartu gara gure Euskal herri honetan izan dugula argazkiaren alorrean aintzindari bat: Eulali Abaitua, hain zuzen, bilbotarra, 1.873an argazkigintzan hasi eta altxor baliotsu bat bildu eta utzi diguna: pertsona, jende arrunta, garaiko emakumeen ofizio (laborari, garbitzaile, sardina saltzaile, esneketari...) eta zernahi argazki.

Ata askoz hurbilago, bai geografiaz bai eta denboraz, zer oroitzapena utzi digun Zikuñagako emakumeen grebak! Haiek denborak haiek! Azkenik, turismoaren eta munduaren birako bidaien aro honetan, agian norbaiti irri eragingo dio, baina bai ongi etorri zitzaizkigula pertsona askori, hirurogeigarren urteetatik aurrera, Timotea Rekondok antolatu bidaiak. Handik eta harat irten ginen hemendik eta eza-gutu ahal izan, beharrik, beste lurralde eta paisaia batzuk! Esan gabe doa, gainera, Hernaniko herrian badugula ekintza desberdinetan nabarmendu izan den emakumerik. Eta, nor oroitzen da jada horietaz?

Ziur nago hau irakurtzen ari den bat edo batek esango duela, baina... baina... zer esaten ari da hau? Izan ere nahasketa horretan Olympe de Gouges eta Kasilda eta Timotea Rekondo aipatzen baititu. Baina... zer da hau?

Halaxe da, bada, guzti honek berretsi baizik ez du egiten Joxepa Zubeldiaren bertsoetan aipatu gertaera hartako protagonisten auzia, Mikela, Axentxi, Luzina eta hernaniar beste emakume haiek burutu zuten egitea.

Eta gauzak ez dira egiteko egiten, ez eta oroituak izan daitezkeen ere, baina esperi[e]ntzia hau, eta lana nahiz esfortzua, ongi probetxatuko bagenu, benetan aberasgarri litzaigukeela ez da dudarik, eta seguraski zinez baliagarri izango zitzaigun, baina ez, hauek eginiko guztia ia ahortzi egin baitugu.

Esan gabe doa erregina eta printsesa batzuen, zenbait santa eta zientzilarien... bizitza eta esperientzia bildurik gelditu dela. Ez hala ere emakumerik gehien emaitz aberatsa, ahazturak eraman baitu berekin. Edo eta ahortzi egiten da egilea emakume izan zenik ere. Hau jenderik gehienari buruz egia baldin bada, emakumezkoen kasuan askoz zorrotzago da arazoa.

Askotan esan ohi da pertsona edo gizarte batek bere historia galdu edo ahanzten duenean, izatearen zati bat galtzen duela, edo eta besamotz edo maingu gelditzen dela. Hauxe gertatzen zaigu. Maingu gaudela. Guztiok maingu, baina emakumezkoak batipat. Beti da beharreko erreferentziak izatea, eta eraberrituko baldin bagara, beharrezko dugu geure historia berreskura dezagun. Liburuetan ageri ez den historia hori, hortik zehar normalki mugitzen baigara emakumezkoak. Orain behintzat. Maila apaletatik abiatu, herri mailara helduz gutxienez.

Horregatik, zoragarria iruditzen zait historia hau eta gure amonen bertsoak berreskuratzea. Beharrezko dugu haien pista bilatzen eta jarraitzen ahalegintzea. Gurea da ondarea. Guztiona, baina gu emakumezkoena batipat. Egin dezagun ezagutzeko bidea eta harrotasunez egin ere.

Halatan bada, beharrezko dugu animo handi bat eta kuraia izatea edo berreskuratzea. Gu geuk ez badugu egiten, beti ere zailago izango da. Eskolan, unibertsitatean, emakume taldeetan edota nonahi ere ez dezagula ahortz gure leku bazterturik, gure zeregina ahortzirik dagoela.

Ahortzi ezin duguna zera da, jarraitu beharreko dugu bidea erakutsi zigutenoi gure eskerrona azaltzea, izan ere berek utzi baitziguten kemena, gogoia eta behar hainbateko kuraia, garraxi egiteko eta berekm urratutako bidean ahalegin betean jarraitzeko.



2004

ANDREKALE

**Estitxu Eizagirre - Nekane Idarreta
(HERNANI 2004)**



Urumea kaleari Andrekale esan izan dio beti hemengo jende edadetuak. Nekane Idarreta, Kaxko elkarteko kideak kontatzen duenez: “Gure etxean, aitak beti horrela izendatzen zuen gaur Kardaberraz den kalea. Baina Urumea zuen izen ofiziala”. Izen bikoiztasun horrek jakin-mina sortu zion Idarretari: “Zer da, jendearen ohitura, edo kaleak noizbait izan zuen izen ofiziala?”.

IZEN OFIZIALA ZEN

Gai hori ikertzen hasi, eta artxibo lanari esker, Pepi Mujikak eta artxiboaren arduradunak dokumentu batzuk bilatu zituzten. Agirietan jartzen duenez, 1896an Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei gomen-dio egin zien ordura arte erdara hutsean idatzita zeuden kale izenen errotuluak euskaraz ere jartzeko. Horren ondorioz, Hernaniko Udalak egun Karda-

beraz kalea denari, bi izen hauek jarri zizkion: Andrekale euskaraz, eta Urumea kalea gaztelaniaz.

Beraz, ofizialki 1896tik Andrekale izen zen frogak badira, baina artxibo lan handia dago egiteko: izen hori noiz arte izan zuen, zergatik galdu zen, beste herri batzuetan izen hori azaltzen den.

El objetivo de esta entrevista es que conste por escrito lo que hemos recibido por transmisión oral y sirva para una posterior investigación.

ZERGATIK “ANDREKALE”?

Dokumentu idatzietan ez da izenaren arrazoirik topatu. Ahozko testigantzetan oinarrituta, teoria bat baino gehiago daudela dio Idarretak: “Batzuek esaten dute, Kale Nagusian finkatzen zirela denda doto-

reak, eta apain jantzitako jendea. Aldiz, Andrekalen egiten zituztela beren lanak emakumeek". Bi atariko etxeak dira nagusi Hernaniren egiturari, eta horrek laguntzen du herrian "gune publikoa" eta "pribatua" bereizita zeudela dioen teoria hau. Eta garai batean, emakumeek ohitura handia zuten aulkiak etxetik jaitsi, eta kalean eserita lanak eginez hizketan ari zeko. Horrekin lotuta, Nekane Idarretak kontatzen duenez: "Esaten da, emakumeak kartetan aritzen zirela Andrekalen. Horregatik, Urumea kalea festa antolatzerakoan, ohitura hori berreskuratzen saiatu gara".

Beste teoria batek dioenez, Andrekalen arropa garbitzaile asko bizi ziren. Aberats jendea Andrekalera etortzen zen arropa garbitzaileei bere jantziak uztera, Leokako garbategian harrikoa egin ziezaioten. Baliteke izenaren jatorria hori izatea.

Eta hirugarren teoria, honela azaltzen du Idarretak: "Ez ote zegoen generoen arabera kaleen banaketarik? Kale Nagusia gizonezkoena, Andrekale emakumeena, eta hirugarrena, Atzietas, animaliena".

Ikusten denez, Andrekalea izena, garai bateko gizartearen azterna bizia da. Garai hartako Hernaniko ohitura, bizimodu eta gizon-emakumeen arteko harremanak nolakoak ziren aztertze bide ematen duena. Nola ikertu, ordea? Ahozko testigantzak gal-

tzen ari dira. Horregatik, artxiboa arakatzeko, eta ez bakarrik Hernanikoa, da bide ziurrena. Nekane Idarretak ikerlariak animatu nahi ditu: "Oso lan interesgarria litzateke izen horren atzean dagoen historia aztertzea".

IZENA BERRESKURATU BEHARRA

Nekane Idarretak izen hori berreskuratzeak duen garrantzia argitu du: "Hernanin ez dago emakume izen duen kalerik, badirudi herri honetan ez garela emakumeak existitu". Herriko emakume talde batek, Kaxko Elkartearen bidez, Andrekale izena berreskuratze saioa egin zuen iaz. Urte horretan, ordea, Kardaberaz jaio zeneko 300. urteurrena ospatzen zen, eta ez garairik onena kaleari izena aldatzeko. "Baina emakumeek jendaurrean ere agertu behar dugu herrian, eta alternatiba bat bilatzen saiatuko gara. Adibidez, bi izenak ofizial izatea" proposatzen du Nekane Idarretak.

Parece que las mujeres no han existido en Hernani, ya que no aparecen sus nombres públicamente.

La recuperación del nombre de Andrekale sería ser justos/as con la aportación de las mujeres a la historia de Hernani.





2016

ILUNPETIK ARGITARA

**Maialen Apezetxea Lujanbio
(HERNANI 2016)**

Maiz entzun ohi dugu emakumeok orain gutxi hasi garela lanean. Baina hori horrela al da? Jarri al gara inoiz pentsatzen gure ama eta amonek zer nolako lanak, eta zein baldintzatan egiten zituzten? Eta zeri deitzen diogun lana?

Berdintasun Kontseiluak eta Udal Berdintasun Arloak, emakumeek historian izan duten lekua eta zereginak ezagutu eta aitortzeko helburuz, hainbat ikerketa beka jarri dituzte martxan azken urteotan. Argitaratu den “Ilunpetik argitara. Emakume langileak iruditan. Hernani 1939-1975” azken ikerlan honen xehetasunak azalduko dira ondorengo lerroetan.

Liburu bilakatu den ikerlan honen helburua izan da, izenburuak berak dioen moduan, ilunpean zegoen errealitate bat argitara ateratzea. Kasu honetan, Frankismo garaian (1939-1975) emakumeek lan eremuan egin duten ekarpena jaso nahi izan da ahoz eta irudiz, emakumei eurei ahotsa emanaz eta Hernaniko historia osatu nahian.

Ikerlan honen ezaugarri garrantzitsuenetakoa bat da “lan” kontzeptuaren inguruko ikuspegi zabala eta konplexua hautatu izana. Izan ere, sarritan, lana enpleguarekin nahasten dugu; badirudi lana etxetik kanpo eta diruaren truke egiten den hori dela. Baina lana hori baino askoz gehiago da; etxe barruan eta ordainsaririk gabe egiten direnak ere, zaintza eta etxeko lanak kasu, lana baitira. Horrexegatik ikerketa honetan lan alor ezberdinak aukeratzean, lanaren ikuspegi zabala hartu da ardatz. Horren isla dira testu honetan biltzen diren lan arlo, enplegu eta eginbehar ezberdinak (industria, merkataritza, ostalaritzari loturikoak baina baita baserri eta etxeari loturikoak ere); emakumeek denetan parte hartu baitute, denetan ekarpena eginez.

Testuinguruari dagokionez, garai honetan hernaniarren bizitzetan aldaketa handiak eman ziren. Frankismo garaia zen, diktadura aldia, gerra ondorena: debekuak, errepresioa... Garai gogorak izan ziren. Demografikoki ere Hernaniren itxura aldatuz joan zen, industria-lantegi asko zabaldu ziren; eta inguruko herrietatik, nahiz Espainiatik ere, jende asko etorri zen lanera. Populazioa laukoiztu egin zen denbora gutxian; eta, beraz, honek beste hainbat arazo ekarri zituen: etxebizitza eta azpiegitura falta, identitateen arteko talka, aurretik zeuden baloreetan aldaketa sakonak...

“Con siete años vino la guerra... nos fuimos a Francia. Allí estuvimos dos años, y bueno nos toco de todo. Hicimos travesías en barco de aquí para allí; primero a Francia, luego volvimos a Bilbao, porque mi aita estaba en Bilbao ejerciendo... Luego ya nos volvimos a Hernani”.
(Loli).

Emakumeen kasuan, bereziki azpimarratu behar da Francoren erregimenarentzat emakumea azpitik zegoen izakia zela; ez jendarte, eta ez politikan lekurik ez zuena; eta, beraz, etxekoandre eta ama izatera bideratua zegoen. Gizonen menpe egon behar zuten (lehenengo aitaren menpe eta, ondoren, senarraren menpe), eta beren helburua “etxeko aingeruak” izatea zen: ama onak eta etxekoandreak. Hori lortzeko, hainbat tresna erabili zituen erregimenak; etxetik kanpoko lanak debekatzetik lan pedagogikoa egitera... hori guztia Sección Femenina erakunde frankistaren laguntzaz. Ondorioz, aipaturiko “etxeko aingeruek” emakume idealaren eredua garatu zuten. Hemen horren adibide pare bat:

“A través de toda la vida, la misión de la mujer es servir. Cuando Dios hizo el primer hombre, pensó: No es bueno que el hombre este solo. Y formó a la mujer para su ayuda y compañía, y para que sirviera de madre. La primera idea de Dios fue el hombre. Pensó en la mujer después, como un complemento necesario, esto es, como algo útil”.

(Formación Político-social del primer curso de Bachillerato, 1963. Régimen Franquista).

“En especial prohibirá el trabajo nocturno de las mujeres y niños, regulara el trabajo a domicilio y libertad a la mujer casada del taller y de la fábrica”.

(Fuero del Trabajo, 1938)

Hala ere, ideologia eta eredu honek ez zuen eragin maila berbera izan jendarte klase guztietan. Horren isla da, adibidez, frankoren erregimenak bultzatutako hainbat legeren gainetik, emakume askok etxetik kanpoko lanak egiten jarraitu zutela, bizirauteko beharrezkoa baitzuten.

Ondoren, hainbat arlotan lan egindako emakumeen bizipenak eta argazkiak jaso dira, liburuaren oinarri direnak.



Falangistak, guardia zibilak eta bando nazionalako kideak Hernanin desfilatzen, San Juan Bataiatzailea elizan izandako ekitaldi erlijioso bukatu ostean, 1936an (arg.; KUTXA Fototeka).

INDUSTRIA

Industriako lana gizonezkoei atxikitzen bazitzaien ere, guda aurretik, eta ondoren, emakumeek industrian lan eskerga egin dute. Euskal Herrian, eta baita Hernanin ere, sekulako garapen industrialak eman zen; hainbat lantegi zeuden bertan kokaturik, gerra aurretik, eta baita gerra ondoren ere. Hauek, horietako batzuk: Zikuñaga eta Papelera del Norte paper fabrikak; Policloro S.A., Electroquímica de HERNANI, Denak bat, Transpacar S.A., Orbegozo y Cia... Beraz, eskulana behar zen. Hernanik immigrazio tasa handiak jaso zituen, baina gerra ondorenak utzitako egoera krudela medio (erbesteratuak, hilak...) familia asko oso egoera larrian geratu ziren, eta lan egin beharra zuten, nola edo hala. Industria izan zen askoren hautua, aipaturiko garapen industrialak medio; emakumeak ere kontratatu ziren. Hala ere, sexuan oinarritutako lan banaketa ematen zen, Frankismoak bultzaturiko arrazoi biologikoei jarraikiz. Emakumeek soldata baxuagoak jasotzen zituzten, eta lan baldintza kaskarragoak zituzten. Orokorrean euren lanek prestigio txikiagoa zuten. Hezkuntza sistematik ere sistematikoki kanporaturik zauden; ez zuten garapen profesionalerako aukerarik izaten; eta beraz, nagusiki lan kualifikatu gabeak egiten zituzten. Hona hemen garaiko emakumeen hainbat bizipen:



Papelera del Norte fabrikaren inaugurazioa; autoritateak lantegia ikusten, tartean bi emakume lanean.

“Así que a la escuela nada... fui hasta los trece, ja los trece ya kitto, a trabajar! Me pusieron un banquito porque no llegaba a la plancha, y allí estuve hasta que me pude defender yo”.

(Loli)

“Con trece años empecé en la galletera, íbamos cantando y nos dicen, ¿queréis venir a trabajar? ¡Jolín que si! Al día siguiente a trabajar... Estuve poco tiempo, luego nos fuimos a coser a Carrero, nos gustaba más”

(Carolina)

“Aitak fabrikan itten zun lana, almidoian fabrikat ta aita hil zanian (1937), nik hasi izandu nun hamazazpi urte nitula. Hogeita hamahiru urte arte ibili nitzan fabrikan, ezkondu arte. Ez zituzten emakume ezkonduak admititzen fabrikan”.

(Ixabel)



REMY almidoi fabrikaren kanpoaldea: Carmen Etxezarreta Genua, Manolo Olano Garayar, Xilberio Ezeiza, Inaxi Ruiz eta Benita.

“Las condiciones no eran igual para hombres y para mujeres en la fábrica, para nada: trabajo específico de la mujer, trabajo específico del hombre. Electricistas, mecánicos, todos esos se contemplaban absolutamente de hombres, las máquinas absolutamente de hombres, y mujeres más o menos (...) O sea otra categoría, tenía otro prestigio el trabajo de los hombres... Y hoy en día, posterior que he trabajado en la limpieza, todavía”.

(Maite)

BASERRIA

Baserriak, bere baitan, berezitasun batzuk ditu beste esparruekiko; etxea eta lantokia bat izatea, ekonomia formalarekiko harreman txikiagoa izatea (soldatarik ez, eta diru sarrerak produktuen komertzializazioaren baitan), garraiobideak mugatuagoak eta distantzia/denbora handiagoak behar izatea (ba-

serrien artean alde nabarmenak bazeuden ere), lana kanpoan ere egin behar izatea (eguraldiaren eta urtaroen eragina) eta lana “lotua” izatea (animaliekin eta produktu freskoekin lan egitearen ondorioz), esaterako. Era berean, guda ondorengo Frankismo hartan, eguneroko elikadura bermaturik izateko aukera handiagoa zuten, estatuak baserrietan eta baserri auzoetan eragiteko aukera gutxiago izan baitzuen, eta euskararen transmisioa eta erabilera mantendu ziren, besteak beste. Jendarteko beste esparru guztietan bezalaxe, Frankismoaren eragin handiagoarekin eta txikiagoarekin, aurretik eta ondoren, gizon eta emakumeen artean sortutako desorekak nabariak dira, baita baserrian ere. Sexuen arteko lan banaketa, aisialdiaren erabilera desorekatua, maio-



Bertxako merkatua (arg.: KUTXA Fototeka).

razkoa edota harreman sozialak, horren lekuko dira.

“Ni amakin jutenintzan; ama berdurak saltzen gelditzen zan ta ni esnia partitzea, 6 litroko marmitekin etxez etxe, ta geo bueltan Astiarra eskola”.

(Ereñotzuarrak)

“Tranbiaino juteko astuan ordubete; goizeko seiak laurden gutxi jaiki eta... Beti izaten nun inbidi bat zortizak arte lo itekua; ezintzan! Baño ayatu zait e!”

(Ereñotzuarrak)

“Baserrin ne amak eta jende askok behiak bildu ta dana, baino ne amak, esaten zuten ne ahizpak, etziotela beiñe utzi ez segan... Ez ikas-teko segan ta ezta behiak biltzen e! Zeatikan bestela gizonak feria jun ta etziala etortzen”.

(Arantxa)

“Baserrikok goseik ez genun pasa. Bestelakoko behar genitunen Donostia jun ta kanbiatu itten ginuzen. Arrautzak saldu ta sardin zaharrak hartu, atuna...Ogia genunian bokadiyuan atuna ta maihonesa jaten ginun”.

(Ereñotzuarrak)

“Gure etxian emakumiak eman bihar du etxe-ko martxa, bestela alperrik da gizonak lana itia ez bakizu ondo administratzen. Ganadua, o holako zerbait zanian, pues hau ingo deu hola, hoi ya gizonana zan”.

(Arantxa)



Inaxi Urkizu Altuna, eta Estebantxo eta Eulalitxo (1962an, “Mallus” inguruan).

ETXEA

Erregimen Frankistarentzat etxea andrazkoen tenplua zen, eta emakumea bertako aingerua. Ideia hau tradizionalismo katolikoan, eta biologian oinarritzen zen; emakumezko eta gizonezkoen arteko ezberdintasun biologikoak oinarrian jarritz, emakumeek ama izatera mugatu behar zutela defendatzen zuen, bestelako alor ekonomiko, juridiko edota sozialetatik kanpo utziaz. Etxetik kanpo lan egin ala ez, emakumeak ziren etxe barruko kideen zaintzaz eta bertako lanez arduratu zirenak. Eztabaidagai jartzen ez zen gaia zen emakumeari zegoen lana horiek egitea, emakume izanagatik soilik, guztiz normalizatuak eta naturalizatuak egonik ardura hauek. Mota askotako jarduerak egiten ziren etxeetan: elikagaiak eskuratu, familia guztiarentzat egun osoko otorduak prestatu eta, ondoren, guztien harrikoa egin; arropak garbitu, lehortu eta lisatu; haurrak izan eta

horieta arduratu; adineko pertsonen, gaixoen edota menpekotasunen bat zutenez arduratu; arropak egin eta josi; etxea txukundu; etxe ondoan lurak izanez gero, baratza zaindu eta berdurak jaso... hori guztia ikergai den garaian zeuden baliabideak kon-tuan izanik. Lan hauek aldiz, ez ziren lantzat har-tzen; ez zuten ez balio ez prestigiorik, ez erretirorik, ezta soldatarik ere.



Manuela eta Maria Agirre Zugasti, eta Luis Antonipo Lizeaga Agirre (Bezkitas baserria).

“Etxeko lana gogorra da, inork ez du aprezia-tzen (...) nik ez banizuke jarriko, nik ez banuke arropik maituko, nik ez banuke umeik haziko... in dezagun truk!”

(Ihintza)

“Nik bi anai ni baño zaharraguak di-tut baño etxian beti izan naiz ni, la ma-yor de las chicas esaten dan bezela, eta dana nik in bihar nun: batek miña har-tzen bazun hanketan indiziyua jartzea a don-de la comadrona ni juten nintzan, hamaika hamabi urtekin! Klaro, ne amak lan asko zakan, ta ni negarrez, baño juten nintzan. Ta dena nik inbiar nun, enkarguk ta dena (...) es-kolatik etorri eta oyak in ta dena, txikitatik bai”

(Maritxu)



Consuelo Moya Gascón.

“Yo tenía diez cuando nació el hermano pequeño, a los nueve meses se puso enferma (la ama), y me quedé sola con otro hermano, eso tampoco se me va a olvidar nunca. Vino una tía, y me dijo que me haría cargo de mi hermano, tendría dos años, que vendría la amona a la tarde. Yo no sé lo que le di de comer, cuidar ya sé que le cuide, porque se cago en las escaleras y limpie todo. Y el niño en brazos, y el niño no hacía más que llorar... pasé toda la tarde en Zinkoenea dando vueltas esperando a la amona, y amona no venía, todo el rato llorando... Por fin, llegó a las 6 de la tarde. Venía con un cesto en la cabeza, vendría andando seguramente la pobre, ay... se me abrió el cielo”

(Juani)



Maria Pilar Luanbio Olano, Manoli Olano Garaia, Joaqui Lujanbio Olano, Martin eta Juan Carlos Lujanbio Olano (1967, Sarasketako terrenoan).

“Si a la casa, a los hijos... a coser, a planchar, a limpiar... ama de casa que no me han pagado nunca. Pero sueldo hacía! Ahí sí que deberían de pensar... cuidar de tus hijos en casa es un trabajo bonito, y la vida de la casa es muy bonita, porque puedes atender las cosas mucho mejor, sobre todo a los hijos (...) Que va, no, no se valoraba nada ni ahora tampoco. Eso es un trabajo que no se valora. Ahora, no te ayudaba nunca el marido, si estas en casa... Claro y no se daba cuenta que era mucho trabajo”.

(Dominique)



Mª Kristina Ugalde Mendizabal eta Kristina Korella Ugalde (1967ko uda).

MERKATARITZA

Hernani saltoki ugariko herria izan da. Jadanik 1931. urterako era guztietako komertzioa zegoen herrian: abarketa dendak, bizartegiak, ikaztegiak, aroztegiak, harategiak, drogeriak, mertzeriak, oiha dendak... Hala ere, guztien gaintik janari denak gailentzen ziren. Hauetariko asko aurrera ateratzearen ardura emakumeena izan zen. Gainera, komertzio hauetara eguneroko beharrak asetzerantz gerturatzen ziren bezero gehienak emakumeak izan ohi ziren; bereziki emakumeei atxikita egon diren jardueren lotutako komertzioak izanik: mertzeria, oiha dendak, ile-apaindegiak... Gizonezkoak gailentzen ziren, ordea, burdindegia eta aroztegiak bezalako jardueretan. Izan ere, merkataritza alorrean, beste hainbat esparrutan bezala, sexuen arabera lan banaketa

argia zen. Beste jarduera batzuetan, aldiz, bi sexuetako pertsonen elkarrekin egiten zuten lan: ezkon bikoteak, oro har; baina baita bestelako bikoteak ere, aita-alabez osatutakoak, adibidez. Jarduera hauetan pertsonen elkarrekin egiten zuten lan, biltegi eta jendaurreko lan eremuak aldizkatuz.



Peluqueria Juli, 1969: Juli Ayerra Gómez eta Arantza Etxarri (laguntzailea).

Frankismo garaian legedi zorrotza ezarri zitzairen emakumeei etxera itzularazteko ahaleginean. Horren adibide izan zen, erregimen frankistak, errepublika garaiko legeak indargabetu eta 1889ko Kode Zibileko hainbat artikulua eta titulu ezarri izana:

Art. 60: *“El marido es el representante de su mujer. Ésta no puede sin su licencia, comparecer en juicio por sí o por medio de procurador...”*.

Art. 61: *“Tampoco puede la mujer, sin licencia o poder de su marido, adquirir por título oneroso ni lucrativo, enajenar sus bienes, ni obligarse, sino en los casos y con las limitaciones establecidas por la ley”*.

Mota honetako legedia indarrean, normaltzat joenezake, tailer, denda... gehienak gizonen izenean egotea; nahiz gizon izen horien atzean emakumeak egon (ezkutatuak). Txiki txikitatik atxikitzen zitzaizkien etxeko eta zaintza lanak egiteaz gain, emakume askok, etxetik kanpo ere egin zuten lan, nahiz eta datu ofizialetan langile hauetariko askoren izenak ez ageri.

“Mi padre era peluquero y alpargatero y de ahí empecé, y luego termine haciendo tienda (...). Mi padre hacia alpargatas y yo cosía”

(Felixia)

“Erosten gendun lenteja, garbantzua ta dena zakutan, ta geo iten gendun kilua jarri beharrian hartu gendun genero hobia baño kilo erdika, azukria ta galletak, geo enpaketatzen genitun denda itxi ta geo”

(M^a Angeles)



Ixiar Etxeberria Balerdi, Marina Cuevas Dañoibeitia eta Maritxu Almorza Jaunarena, Cuevas farmazia aurrean, 1960 inguruan.

“Teníamos lencería, y entonces las mujeres no iban a comprarle sujetadores y bragas a un hombre, no... eso era así (...) hacía falta estar una mujer”

(Francisca)

“Petxua ematen nion hor atzian, (denda barruko almatzenian) hotza itebazun goien ematen nion petxua umiei, ta ama jaisten zan dendara, ta telefonotik “la lejí ¿cuánto es? Tal”

(Mertxe)

“Tuve a mi hija a los dos años de casarme, cuando era chiquitita le engañaba sentadita en la peluquería con una mantita mientras yo trabajada”

(Loli)



Consuelo Moya Gascón eta Mari Cruz Moya Gascón, gozokiz beteriko karroaren atzean (mostradore izango balitz bezala) garaiko Plaza de España.

OSTALARITZA

Hernaniko historian oso ugariak izan dira taberna eta sagardotegiak. Taberna eta sagardotegien jabeak gizonak ziren, alargunak salbuespen; nahiz eta bertan lan egiten zuten langile asko emakumeak izan. Taberna batzuk txikiteorako izaten ziren soilik; beste batzuek otorduak ere eman ohi zituzten. Jende gehien eguerdi aldean eta arratsaldean, seietatik aurrera ibiltzen zen, gizonak lanetik ateratzen zirenean. Emakumeak ez ziren hain erraz sartzen tabernetan; agian otorduren bat edo beste egitera bai; baina emakumeak txikiteoan ikustea ia ezinezkoa zen Frankismoak iraun zuen urte luzeetan.



Azurmendi taberna, 1960 inguruan: Adeli Erdozia eta Joxe Azurmendi (barra barruan).

Ostalaritzaren esparruak merkataritza alorrekin antzekotasun ugari ditu; biak ere jendaurreko jardunean oinarritzeaz gain, bezeroekin oso harreman berezia izaten baitzuten. Kasu honetan, ordea, ezberdintasun handi bat zegoen: generoa. Hain zuzen ere, ostalaritzan zebilen bezeroa gizona zen. Esanda dago garai hartan ez zegoela batere ondo ikusia emakumeak tabernetan ibiltzea, eta egitekotan, senarrarekin edo gizon batekin batera egin behar zuten. Tabernak eta sagardotegiak gizonen egunerokotasunean oso presente zeuden, ohitura handia baitzegoen horretarako. Aldiz, barraren beste aldean ez ziren gizonak bakarrik egoten, Hernaniko taberna askotan emakumeek egiten zuten lan; zerbitzatzen, sukaldean, barra atzean... neska gazte asko gurasoei edota bestelako familiakoei laguntzen hasi ziren tabernan lanean, txikitatik ikasiz gerora jardungo zuten lanbidea. Garai hartan hainbat tabernaren jabeek ezin izaten zituzten kanpoko langileak kontratatatu (ez baitzen nahikoa diru ateratzen guztientzat); eta, beraz, etxeko edo inguruko neskak “hartzen” zituzten lanerako. Beste batzuek, etxean diru falta egonik, tabernetan bilatzen zuten bizirau-teko modua:

“Laguntzen beti mucho o poco, baina ama gaixo jarri zanen, ordun hartu non la batuta! Teníamos cocinera y yo la que menos se creían que mandaba pero... etxekoandria”.

(Joxepa)

“Poteuan? Gizonak bai, emakumezkuak gizonakin juten bazan igandetan e kanpuan, atian onduan geatuko zan emakumia, gizona sartu eta baxo erdi bat hartuko zun”.

(Rosi)

“Y luego por la tarde, cuando terminaba de comer y arreglar un poquito la cocina y eso, me iba a casa, que vivíamos ahí cerca, me iba a casa y hacer cosas de casa, tenía que poner la lavadora, hacer las camas, tenía que limpiar... cuando daban las siete de la tarde, me bajaba otra vez (al bar), tenía que hacer las tortillas. Y cuando sacaba las tortillas, a la barra”.

(Antonia)



Juana Aranburu Oyarzabal eta Anttoni Egaña Aranburu Egaña tabernan.

“Behin emakume bat etorri zan ta: honako aulki honek asko balio al du? Ta zeba, balio al dun? Ez baldin bado oso gaizki etxea eman-goet, aber hola ne gizonak hemen aulki hontan aiña denboa etxian pasatzen dun!”

(Arantxa)



Juli Alberdi, Mª Dolores Peña Iradi eta Mercedes Iradi Cinco-Enea taberna aurrean.

“Haurdun ta gelditzen nintzanen, poner unos vestiditos flojitos para que no te notaran, porque siempre estaba en estado, con esos delantales y así...”

(Joxepa)



2003

JOSTUNAK ETA JOSTUNDEGIAK HERNANIN

**Eulali Aranburu Urkizu
(HERNANI 2003)**

Ba al da norbait gure herri honetan sukalde txokoan amona, ama edo izeba josten ikusi ez duenik? Hainbat arropa zahar konpondu, galtza barrenak hartu, maindirei puskak jarri, soineko konponketak egin, galtzerdietako zuloak pasarazi... beti emakumeak horrelako lanetan.

XX. mende hasieran familiak handiak ziren, bai kalean bai baserrietan; denontzat konponketak egiten bakarrik bazen nahiko lan. Beti jostorratza eta haria prest zutela emakumeek. Arropa aldatzeko, gaur adina ez zen izaten; seme-alaba nagusien jantziak txikientzako izaten zirenez, soinekoei eta galtzei barrenak hartu behar izaten zitzaizkien. Botoiren bat falta bazuen, jarri. Josteko lan guztia etxe-ko-andreentzat izaten zen. Familia barman ikasten zituen emakumeak zegozkion eginkizunak: garbiketana, sukaldaritzan eta josten.

NON IKASTEN ZEN JOSTEN?

Eskolak eta kolegioak izaten ziren ikasteko leku. Gogora ekartzen baditugu eskolan ibilitako garai haiek, akordatu gara, behin sei edo zazpi urte betez gero, neskak eta mutilak gela ezberdinetan bereizten zirela: neskak maistrarekin eta mutilak maisuarekin; horrela 14 urte bete arte. Eskolan erakusten ziren letrak, matematikak eta laboreak. Arratsaldeetan, neskek josten ikasten zuten: jostorratzari haria sartzen, guraizeak erabiltzen, trapuari hariak ateratzen... eta, bitartean, abestiak eta olerkiak buruz ikasten zituzten. Ondo irakurtzen zutenek, egunero txandatzuz, altuan irakurtzen zuten guttientzat, gainerakoek josten jarraitzen zuten bitartean.

Neska bakoitzak bere trapu puska eraman behar izaten zuen. Aurreratzen zihoazen neurrian, "trapu muestrarioa" egiten zuten: azpildura, atzera-puntadak, bainikak, inkrustazioak, festoiak, botoi zuloak, presillak, gurutze puntua... Hamabi urtetik hamalaura eskolan jarraitzen bazuten, denetarako prestatuta zeuden. Bakoitzak nahi zuen laborea eramaten zuen eskolara, ahal zuenak ahal zuena.

Batzuek tapeteak, kuxinak, mahai-zapiak; beste batzuek telatxoak, gonamotxa edo azpiko gona, kuleroak... egiteko.

Neskentzat zaila izaten zen 14 urte arte eskolan jarraitzea. Familien beharren arabera, 13 edo 14 urterako utzi behar izaten zuten eskola eta lanean hasi: neskame, enkarguetan, haur zaintzen, fabriketan.

Lan honen hasieran ageri den labore hori etorri zait eskura. 1890. urtean Hernanin egina da, ABEDeak edo ABECEDARIOak dauzka, tamaina desberdinetan eginak, eta honela dio azpian:



"Lo hizo Teresa Olloquiegui en Hernani año 1890"

Eskolatik atera, eta modua zuenak, jarraitzen zuen josten. Baziren jostea atsegin zitzairen neska gazteak, behin lanak bukatuta, ilunabarrean jostundegira joaten zirenak. Komenigarria zen emakumeak ezkondu aurretik josten ikastea. Beharrezko ofizioa zen etxea ongi eramateko. Aipatutako gazte horiek jostundegira joaten ziren, "Talleres de Costura" izenekoetara.

XX. MENDEKO JOSTUNDEGI SONATUAK

XX. mendearen lehenengo hiru hamarkadetan, edo beharbada luzaroago, Hernanin baziren jostundegi sonatuak.

Kardaberaz kaleko 44an, 1. bizitzan, familia bat bizi omen zen, Izagirre - Zubillaga sendia. Hiru alaba eta semea zituzten. Haietako bi alaba, Carmen eta Trini, jostunak ziren eta josten erakusten zuten. Horien jostundegiak izen handia zuen, "Las del cantón" deitzen zitzairen. Hor telak moztzen, neurriak hartzen, telei tolesak hartzen eta soineko, traje, gona, beroki, blusa, mahuka eta abar maniki batean probatzen ikasten zuten. Neska gazte asko inguratzen zen jostundegia zen, baina kontuan izan behatzean lehen ziztada eskolan hartua zutela; han ikasi baitzuten titarea erabiltzen, trapu bat behatz artean



Izagirre - Zubillaga sendia. 1898.

ibiltzen, hariak ateratzen eta bainika egiten. Horregatik diot eskolak goi mailako jostundegiak zirela, eta maistrak emakume finak eta eleganteak, argazkiek erakusten dutenez. 1900. urtean ateratako argazkia: irakasleak eta ikasleak dotore jarrita, Sarasketa parkean, denak metroa lepotik zintzilik dutela. Bere lanean ari dira, bastidorean bordatzen, josteko makinan... Hortxe ageri dira bi maistrak ikasleekin josten.

Carmen eta Triniren ondoren, pisu berean, 1960-72 bitarteko urteetan, "Montero Sastre Anaiak" jostundegia egon zen. Traje eta galtza ugari egin zizkieten hernaniarrei.



Teodora Etxebeste Kerejeta. 1909.



Graxi Izagirre Rekondo. 1906.



Carmen eta Trini. 1920.



Josefa Urreaga jostuna ikasleekin. 1947 / XII / 13

Beste jostundegi bat Plaza Nagusian izan zen, Telleria sendiarena. Telleria sendiak janari denda zuen (kamineroarena deitzen zioten). Telleriatarrek hiru alaba zituzten: Isabel, Rosario eta Pakita. Hirurek Parisen ikasi zuten josten. Rosariok oso esku ona omen zuen josteko, eta berandu arte dena eskuz josten omen zuen, makinarik gabe. Jostun tailer horretan Donostiarako asko josten omen zuten.

Atsegindegi etxean bazen beste jostundegi bat. Senar - emazteak, D. Cayo Blas eta Pilar Zuleta jostuna, seme batekin bizi ziren. Etxe horretan ikasten zuten neska gazteek josten.

Etxe berean, 1. pisuan, bizi ziren Alberrotar hiru ahizpa, Casimira, ezkondua, eta beste biak, ezkongabeak, Fermina eta Kontxa. Hirurak jostunak. Horien lehengusuak ziren Kale Nagusian bizi ziren Alberrotar beste bi ahizpa, horiek ere jostunak. Jostundegia zuten, eta bertan ofizioa erakusten zuten. Gerra Zibilaren aurretik, gaur Aralar taberna dagoen gainean, bazen beste jostundegi bat, Josefa Urreagarena. Jostundegi horretatik ere gazte asko pasatu ziren, batez ere ezkontzarako arrea prestatu nahi zutenak. Bere jostun-ikasleekin oso ondo ospatzen omen zuen Sta. Luzia eguna, Zumarraga aldera joanez eta bazkari ederra eginez.

Kardaberaz kalean azken 40 urteetan Ma Dolores Lasak izan duen jostundegian adin guztietako emakumeak ibili dira ikasten, "Mozteko Metodo Berezia"

liburua eta guzti. Bazuen diplomak emateko ahalmena ere. Orain dela urte gutxi arte, hortxe ikusi dugu lan eta lan. Gaur itxita dauka tailerra. Ama galtzagilea zuenez, berak erakutsi omen zizkion lehen puntadak ematen.

Jostundegi horiek Hernani erdian zeuden, baina auzo bakoitzean ere bazen jostun bat inguruko gazteak hartzen zituen erakusteko. Adibidez: Olazar baserrian, amona Maria omen zen erakusle; Berakorte baserrian, amona Saturnina Galardi; Ugaldetxon; Florida auzoan; Akarregi auzoan; Tellerigainen; Loidin. Herriko jostun guztiek ez zuten erakusten, baziren josi besterik egiten ez zuten jostunak ere, hau da, besteentzat josten zutenak.

Jostunen artean izaten ziren, eta badira, espezialistak: galtzagileak, kapelugileak, alkandoragileak, kortseterak, haurrentzat arropak egiten oso onak zirenak, bordatzaileak...

EHUNGINTZA FABRIKAK

1914. urtean jarri zuen Hernanin lehen ehungintza fabrika Santiago Carrerok, eta 1918an Pablo Morencosek bigarrena. Bi fabrika horietan emakume jostun asko kolokatu zen.

S. Carreron 150 langileri ematen zitzaion lana. Dotoreria handiz aurkezten omen zituzten arropak. Arropa horiek batez ere honako hiru lehengai hauekin



1915. Saturnina Galardi



Santiago Carrero fabrikako jostunak. 1924.

egiten zituzten: artile hutsez, artile eta zetaz, zeta hutsez. Horrela, ondo lan eginez eta kalitate handia eskainiz, merkatuan konfiantza lortu zuen, eta bere izena ez zen estatuta bakarrik mugatu, ezaguna zen baita Portugal eta Ameriketara ere.

Pablo Morencos ehungintza fabrika beste hainbeste gertatu zen. Marka onenekin lehiatu zen, langileen kalitateari eta jostunen trebeziari esker. Arropak ongi begiratuta bidaltzen zituzten modan punta-puntan zeuden merkatuetara: Parisera, Viennara, Donostiara... Gerora fabrika hark "Kurt Halle" izena hartu zuen, nagusiz aldatu zenean.

JOSTEKO MAKINAK

Josteko makinak asmatu zituztenean, izugarri erraztu zen josteko lan hori, eta horrek era industrialean lan egiteko aukera ere eman zuen.

Josteko makinarik zaharrena "Singer" izan zen, 1851. urtean asmatua. Gerora, 1920an, Eibarren, "Alfa" josteko makinaren fabrika jarri zuten; eta 1940an "Sigma" etxea ireki zuten Elgoibarren.

"Sigma" josteko makina bat saltzen zutenean, trukean, erosleri bordatzen ikasteko hilabeteko ikastaroa eskaintzen zioten doan. Denbora gehiagoan jarraitu nahi zuenari beste bi edo hiru hilabete luzatzen zitzaion, baina hilabete horiek erosleak ordainduta.

Hernaniko emakume jostunak txalogarriak izan dira eta gaur egun ere hala dira. Orduak eta orduak jostoratzari lotuta egon direlako, eta daudelako. Horiei eskaini nahi izan diet lan xume hau, benetan merezi eta irabazi baitute aipamena eta ohorea.

Bukatzeko, 1933-36 urteetan Escuela Pública Viterin ibilitako neskei Srta. Agustina Leoz (aragoiarra), Srta. Gersi eta Srta. Resurekin jostoratzaren ohoretan abesten zenuten abesti hau dakarkizuet gogora, nahiz erdaraz izan:

LA AGUJA DE COSER

Un tesoro del taller
es la aguja, es la aguja.
Un tesoro del taller
es la aguja de coser.


Tan brillante y tan pequeña
no le cansa el trabajar.
Por tarea que la pongas
ella no se ha de quejar.

Un tesoro del taller
es la aguja, es la aguja.
Un tesoro del taller
es la aguja de coser.

C. C. Martín



Jakin-minez elkarriketak eginez bildu ditudan kontutxo eta borondatez utzitako argazki guztiengatik, bihotzez, mila-mila esker.



2012

EMPAR PINEDA, FEMINISTA ETA HERNANIAR BIKAINA

**Eñaut Agirre
(HERNANI 2012)**

Empar Pineda (Hernani, 1944) feminista hernaniarrak jaso du aurten Hernaniar Bikaina saria, Xalaparta Elkarteak eskainia. Pinedak aspaldi alde egin zuen Hernanitik (nahiz ahal duen guztietan etorri), eta gaur egun Madrilen bizi da. Emakumeen eskubideen alde egindako lanagatik hainbat eta hainbat sari jaso ditu (Zilarrezko Gehitu Saria ere 2012an jaso du), bizi guztia eskaini diolako Pinedak lan horri.



Arg.: Hernaniko Kronika.

Empar Pineda Hernaniar Bikaina izendatu zuen Xalaparta Elkartek. Egun horretan bertan zeuk esana da, seinale ona dela zeuri sari bat ematea elkarre gastronomiko batek. Ze esan nahi du horrek?

Alde batetik, elkarre gastronomikoak orain arte nabarmendu izan dira jarrera baztertzaila izan dutelako emakumeekiko. Sartzen utzi ez; sozio izaten utzi ez. Beraz, batzarrean erabaki badute niri sari hori ematea, seinale oso ona da. Galdu egin du garai bateko kutsu misogino hura: emakumei eskubiderik aitortzen ez zitzaiena.

Beraz, poza eman zizun sariak?

Sekulakoa. Orduan ere esan nuen... neure herrian halako errekonozimendu bat egitea da niretzat inoiz egin ahal izan didaten oparirik onena. Poz handiena honek eman dit, jaso ditudan sari guztien artean: hemengo eta kanpoko instituzioak... Arrunt hunkitua egon nintzen... esan nien lehendakariari eta Mikeli... bizitzan egin didaten aipamen garrantzitsuena izan zela.

“Esan nien lehendakariari eta Mikeli... neure herrian halako errekonozimendu bat egitea da niretzat inoiz egin ahal izan didaten oparirik onena”

Madriken bizi zara aspaldi. Ze tratu duzu Hernanirekin? Asko etortzen al zara Hernanira?

Ahal dudan guztietan; ahal dudan guzti-guztietan hor izaten naiz. A, eta hutsik egin gabe, eguberrietan eta udaran. Hernani da, ni jaio nintzen herria, eta 20 urtera arte bizitu nintzena: nire lurra. Zentzu berezi-berezia dauka Hernanik nire bizitzan; ez da pasieran sartu gabe uzten dudana herri bat, edo noiz-behinka gogoratzen dudana. Bihotzean daramakit.

Asko aldatu al da Hernani?

Arrunt. Beldurgarri. Etortzen naizenero obra berrien bat baduzue! Beno, eta gu txikiak ginen garaitik? Urumea kalean barrena korrika ibiltzen ginen garaitik, edo Kale Nagusia, Plaza... Horrez gain, asko handitu da herria. Auzo berriak egin dituzte, eta jendea ere aldatu egin da. Orain ez ditut asko ezagutzen.

Badakigu gustuko zenuela txapatan eta kaniketan ibiltzea...

Hori da, bai! Han, amaren harategi aurrean, Urumea kalean! Pentsa zenbateraino...! Harategiko bezeroek amari esaten zioten: “Zuen alaba hori beti ibiltzen da ipurdia burua baino gorago duela”. Noski, beti burua makurtuta, txapatan, kaniketan...

Eta ez zen ba ohizkoena izango? Gaur egun normala da neska-mutilak elkarrekin jolasean aritzea...

Orduan ez... Nola ba! Ni mutilekin ibiltzen nintzen ia beti. Banuen neska-koadrila ere baina jokoak askoz sosoagoak egiten zitzaizkidan; mutilenak be-

rriz, mugituagoak, bromarako hobeak. Eta gainera ni nola nintzen marimandona xamarra... beti edukitzen nituen xuxen!

Eta hori normal hartzen al zuten hernaniarrek? Arazorik izan al zuten inoiz?

Erabateko normalidadean bizi genuen hura. Ez dut inoiz arazorik izan pixka bat originalagoa edo partikularragoa izateagatik; garai hura izanagatik ere.

Garai hartan ze politika egiten zen gizon eta emakumeen arteko oreka edo berdintasunari begira? Frankismo garaia buruz ari gara, bete betean...

Bai. Ni 1944an jaio nintzen. Hurrengo urtean bukatu zen Bigarren Mundu Gerra. Alde horretatik, negargarria zen zein egoeratan zegoen gizon eta emakumeen berdintasuna. Emakumei erakusten zitzairen beraien bizitzak eta dignitateak gutxiago balio zuela gizonezkoenak baino. Bazen liburu bat, Liburu Berdea, Frankismoak zabaltzen zuena eskolatan, ikasleek espiritu nazionala ondo ikasi zezaten. Liburu horretan ikusi egin behar da, emakumeak nola uzten dituen! Lotsa ematen du, eta amorrua! Benetan.

Orduan, emakumearen lana zen etxean egotea, eta etxeko lanak egitea. Eta gogorra zen lan hura e! Orduan ez zegoen labdararik, eta denak Leokako labaderoan garbitzen ziren arropa guztiak. Neronek ikusten nituen etxeko leihotik, emakume haiek, eskuak urratzen.

Gaur egun zail egingo litzaiguke ikustea, eta imajinatzea, garai hartan emakume izateak zer suposatzen zuen. Adibiderik jarriko al zeniguke?

Orain ezinezkoa da hura imajinatzea. Begira, garai hartan emakume batek ezin zuen lan kontratu bat egin gizonaren baimenik gabe. Gizonak eman behar zion baimena emakumeari lan hura egiteko, eta gehiago esango dizut: gizonak kobratu zezakeen emakumearen soldata.

1975ean Nazio Batuek deklaratu zuten Nazioarteko Emakume Langilearen Eguna. Eta Espainiak fatxada aldatu behar zuen, bestela ezinezkoa zen Nazio Batuen foro batean parte hartzea. Eta egin zuen, eta beno pixka bat hobera egin genuen.

Emakumeak ezin zuen ezer erabaki bere kaxa. Senarraren baimena behar zuen pasaporte ateratzeko, kontu zenbaki berri bat irekitzeko... Ezin zuen ikasi ere egin, zenbait karrera ezin zituen egin: adibidez, juez. Ezin zuen emakume batek juez izan. Medizinan bat edo beste sartzen ziren, baina oso-oso gutxi. Baina galbahe asko pasa behar izaten ziren.

Esan liteke, beraz, aurrerapen handiak egin direla. Eta neurri haundi batean hori mugimendu feministari eskerrak izan dela?

Frankismoa bukatu zenean, dena zegoen egiteko. Alegia, mugimendu feministan genbiltzanok sekulako lana geneukan aurrean, gauzarik begi-bistakoenak ere ez geneuzkalako. Adibidez, emakumeek ez geneukan sexualtaterik; ez zen kontuan hartzen. Umeak egitea zen gure lana; orduan esaten zen bezala, “gizonari umeak ekartzea” zen gure lana. Eta beno, eta abentura txikiren bat izanez gero edo... Bueno! Gizonezkoek bai, bazuten sexualitatea, bazuten grina eta gogo. Emakumeek ez. Gure lana zen etxean egotea, eta gizonezkoa etxean gustura edukitzea. Hor bukatzen zen gure sexualitatea. Hasierako gure kontsigna batek hala zion: “¡Madrid la nuit, también me gusta a mí!”.

Iraultza bat izango zen ba hura! Nola gogoratzen duzu?

Alde batetik sekulako poza sentitzen dut garai hartaz gogoratzean. Hainbeste gauza puskatu genituen. Ba al dakizu borrokarako ze gogo geneukan? Hori zen sentimendua: “Ez gara geldituko! Ez gara geldituko!”. Borroka handia egin genuen. Pentsa ezazu, borroka ez zela lantoki batean nagusiaren kontra egitea... ez, borroka etxean hasten zen! Gizonezkoek ez zioten hola eta hola uko egin nahi beren pribilegioei. Horregatik zer ikusi handia izan zuen emakumeak talde feministetan biltzeak. Ez delako gauza bera ezezagun baten kontra borrokatzea edo zure jendearen kontra aritzea.

“Pentsa ezazu, orain 30 urte emakumearen borroka ez zen soilik lantoki batean nagusiaren kontra egitea... ez ez, borroka etxean hasten zen!”

Ba al zen alderik ezkerreko eta eskuineko gizonen artean?


Bazen aldea, baina oso txikia. Ohiturak aldatzea oso zaila izaten da, eta dena oso normalizat jotzen zen garai hartan.

Dena borrokatu behar izan zenutela...

Dena! Etxetik hasita.

Eta, ez al zaizu iruditzen feminismoak zentzu negatiboa hartu duela zenbait ingurutan edo zenbait jenderentzat?

Hori hasieratik da horrela. ‘Feminismo’ hitza edo ‘feminista’ hitza asko zigortu izan dute hasiera-hasieratik. Guk eskatzen genuena ez zen batere eroso jende batentzat, eta batzuk horretaraxe jarri ziren, guri izen txarra jartzera. Hainbat kontzeptu itsusi lotu nahi izan ziren feminismo hitzarekin... baina gauza bera egin zieten lehendabiziko feministei, alegia, sufragistei. Sufragistak ziren emakume batzuk, emakumeen boto eskubidea eskatzen zutenak. Ba sufragista hitz hori oso modu negatiboan erabili izan zen, izen txarra eman nahian. Eta gero, guri gauza bera egin ziguten feminismo hitzarekin. Eta gaur egun ere horretan saiatzen da jende bat, baina



Arg.: ARGIA Astekaria

gehiago ari zaie kostatzen. Gaur egun izen hobea dauka feminismoak eta horren adibide da lehen esan duguna... alegia, elkarte gastronomiko batek pentsatu duela emakume feminista bati saria eman behar diola.

Feminismoak beste borroka bat ere egin du sexu orientazio librearen alde. Alegia, bakoitzak nahi duena maitatzeko eskubidea daukala.

Liberazio sexualari ordu asko dedikatu dizkiot nik feminista moduan. Pertsonak izaki sexualak gara, gizon zein emakume. Gustatu egiten zaigu sexualitatea. Horrez gain, onartu behar dugu, ez garela denok heterosexuak. Ez daukagula zer izanik, behintzat. Ni bezala, pertsona askori gustatzen zaizkigu geure sexu bereko pertsonak, eta hori erabat normala da. Zergatik gustatzen zaizkigun sexu berekoak? Hainbat arrazoi izan litezke: edukazioa edo beste hainbat faktore izan litezke, baina ez dago esaterik zergati jakin bat. Alegia, alde horretatik ere pertsona hain da aberatsa... dibertsitate sexuala ere hala bizi beharko genuke, aberastasun bezala. Eta onartu dezagun, eta borroka dezagun, aberastasun horren alde.

“Alde horretatik ere pertsona hain da aberatsa... dibertsitate sexuala ere hala bizi beharko genuke, aberastasun bezala”

Zu zeu izan zinen lehendabizikoa lesbiana zela telebistan aitortu zuena... nola hartu zuen hori jendeak?

Oso kuriosoa izan zen. Garai hartan, 1980 hamarkada hasieran, oso jende gutxi zegoen prest telebistan ateratzeko. Horregatik, Bartzelonako lagun bat, Jordi Petit eta biak ateratzen ginen telebistan (elkarri adarra jotzen genion: “pareja de hecho garena ematen du”. Izan ere, beti biak ateratzen ginen). Eta lehendabiziko aldian sekulako eztabaida izan genuen, alde batetik, Partidu Karlistako kide batekin; irakaslea zen Etikako Unibertsitatean, eta bueno, gutxienez errespetuzko gizona zen. Eta ez beste psikiatra hura! Zer zen hura! Kobazulotik atera berria ematen zuen. Ordu eta gehiago pasa genuen eztabaida batean, haien kontra, Jordi Petit gay-en izenean eta ni lesbianen izenean.

Eta oso bitxia izan zen ondorena. Gure amaren ahi-zpa txikiak, izeba Adelik, Azurmedi taberna zeukanak, hurrengo egunean entzun zuen berriketaldi bat bi emakumeren artekoa, Aristimuño okindegian:

“Atzo ikusi al zenuen telebistako programa?”

“Bai”.

“Ez al zenuen ezagutu hitz egin zuen neska?”

“Ez, nola ezagutuko dut ba?”

“Amparito neska! Iñaxi harakinaren alaba!”

“Bai zera! Amparito? Askok hobeto ulertzen zitzaion katedratikoari baino! Amparito, bai, bai, alde egin zuen hemendik-eta, ezkondata ote dago?”

Izeba Adelik kontatu zidan, a ze parrak! Pentsa, or-dubete pasa lesbiana gisan hizketan eta horretarako.

Dibertsitate sexuala dela eta asko al dago egiteko?

Bai, oraindik bai, aitorpen aldetik batez ere. Homofonia handia da oraindik, eta horrek sekulako arriskua dauka, jende bat oso agresiboa delako. Fobia horiek baztertu egin behar dira. Hezkuntzak hor zeregin handia dauka. Askok egin da, eta asko dago egiteko. Ikastetxeetan horri buruz gehiago hitz egin beharko litzateke. Badago kontu bat, nahiko lotsagarria, estatu honetan. Bada jende bat kanpotik etorri eta hemen bizi dena, beren herrietatik ihes egin dutelako, hain zuzen arazo honegatik. Pertsona horiei babesik ez ematea lotsagarria da; berriz beren herrietara bidaltzen dituzte, eta han geratzen dira ihes egin dien haixen esku. Herrialde batzuetan hil egiten dute arrazoi honegatik.

Feminismoaren barruan badira korronte bat baino gehiago. Zuen korronteak izena du ‘Beste ahots feminista batzuk’. Zuek kritika egiten diozue feminismo korronte nagusiari.

Bai, gu hitz egitera atera ginen ez geundela ados esateko. Ez geundela ados orduan entzuten genituen ahots feministekin. Mugimendu hegemoniko edo nagusi bat ari zen zenbait mezu zabaltzen guk konpartitzen ez genituenak. Gizonezkoei botatzen zitzaion kulpak emakumeen arazo guztiena. Gainera, gizonezkoek jaso duten heziketari aipamenik ez

zitzaion egiten, edo instituzioek bultzatzen duten heziketari ere ez. Alegia, ulertzen zen, gizonezkoak zirela errudunak, gaiztoak, halaxe jaio zirelako. Gizonezkoak arrisku mortala balira bezala emakumearentzako. Eta guk diogu, gizonezkoak eredu horrekin hezten direla, eta ideologia horretan, eta beraz, heziketa dela aldatu behar duguna. Eta gizonezkoek onartu behar dutela, aprobetxatu egin dutela emakumeak zapalduta egotea. Hori da erremedioa, eta ez kartzela. Denak kartzelara sartu eta kito! Ez, gu ez gaude ados horrelako mezuekin.

Prostituten egoerari buruz ere badago eztabaida feministen artean.

Bai. Prostituzioa desagerrarazi egin nahi dute feminista korronte gehienek. Eta guk diogu emakume horien eskubideak ere onartu egin behar direla. Horrekin esan nahi dugu, prostituzioa utzi nahi duenari lagundu egin behar zaiola uzten, eta segi nahi duenari onartu egin behar zaiola langile bat dela eta eskubideak dituela, beste edozein langilek bezala. Eta baldintza negargarrietan salerosian darabiltzaten emakume horiei ere lagundu beharko zaie noizbait.

“Prostituzioa utzi nahi duenari lagundu egin behar zaio uzten, eta segi nahi duenari onartu egin behar zaio langile bat dela eta eskubideak dituela, baldintza duinetan lan egiteko”.

Prostituziori buruz zer dio legeak?

Arraroa da kontua. Prostituzioa alegala da, nola-bait esateko. Ez da delitua prostituta izatea, baina bai hortik negozioa egitea; alegia, proxeneta izatea bada delitua.

Baina ez daukate aukerarik kontraturik egiteko. Hori litzateke erremedioa; erremedio txukun xamar bat.

Aborto eskubidea eskatzen urte asko daramazkizu.

Nik defendatzen dut, emakume batek nahi duenean eten dezakeela haurdunaldia. Berak jakingo du zein arrazoi dituen horretarako. Alde horretatik, Justizia Ministroak Gallardón jaunak esandakoak muturra-sartze bat iruditzen zaizkit, emakumeen bizitzan. Hau da, emakumearen bizitza osatzen omen dela ama izandakoan. Baina zu nola ausartzen zara emakumeen bizitza bideratzera? Emakumeak bagara nor, bagara nahiko serioak eta zentzudunak erabakitze noiz izan nahi dugun ama eta noiz ez. Horregatik, abortuaren eskubidearen alde lanean ordu asko pasa ditugu. Orain berriz, PPK atzera bota nahi du orain bi urteko legea, PSOEk jarritako. Lege hura ez zen nahikoa guretzat, baina gauza batzuk egokiak eta interesgarriak bazituen. Adibidez, heziketa plan bat zekarkien, ikastetxeetan berdintasunari buruz aritzeko. Gaur egungo gazteek gai honi buruzko heziketa falta handia daukate. Atzo ia hankaz gora

erori nintzen, entzun nuenean gaur egungo gazteen %36k ez duela antikonzeptiborik erabiltzen sexu-harremanak dituztenetan. Pentsa hor zenbat neska gazteri tokatu zaien abortatzea, eurek hala nahi izan gabe, aurrez neurririk hartu ez dutelako.

“Emakumea bada nor, bada nahiko serioa eta zentzuduna erabakitzeke noiz izan nahi duen ama eta noiz ez. Eta noiz eten nahi duen haurdunaldia”

Madriko Clinica Isadoran lan egin duzu urte askoan, eta besteak beste, klinika horretan abortuak egin izan dira. Eztabaida eta istilu bat baino gehiago ere izan dituzue hori dela eta. Nola bizitu duzue hori?

Orokorrean, beti dago aukeraren bat norbait pankartekin klinika aurrean aurkitzeko, abortatzera doazen emakumeei kargu hartuz, edo kandela txikiak jarriaz fetuei... Grabeena izan zen, orain dela urte batzuk, Guardia Zibilak akusazio gogorra egin ziola klinikari: behar baino abortu gehiago egiten genituela, eta fetuak zaborretara botatzen genituela. Garai hark oraindik hotzikara jartzen dit. Ikargaria izan zen bolada hura, baina azkenean epaitegiek gure alde egin zuten. Dena dela, emakume askok eta askok tratu hura pasa behar izan zuten. Epaitegitik pasa, edo beraien etxetara joan eta galdezka hasi: «hemen halako eta halako bizi al da, Isadoran abortatu zuena?». Hor eragin zuten mina ez da posible ordaintzea.

Heziketa aipatu duzu lehenago. Nolakoa beharko luke heziketa horrek?

Nik uste dut ikastetxeen egin beharra dela heziketarena, baina horri lagundu behar zaio etxetik ere. Ikastetxeetan hasten dena etxean bukatu beharko litzateke, horri buruz hitz eginda, eta tabu guztiei aurre eginda. Orokorrean, gazteei erakutsi behar

zaie sexualitatea ikasi egiten dela, eta hitz egin behar dela horri buruz. Alde horretatik Holanda da eredu on bat. Holandan abortua legala da, eta horrez gain heziketa on bat daukate ikastetxeetan, gai honen inguruan. Emaizta? Gero eta abortu gutxiago egin behar izaten direla.

Emakumeek oraindik %28 gutxiago kobratzen dute orokorrean. Asko dago egiteko oraindik? Feminismoaren erronkak zein lirateke etorkizuneko?

Batetik, ez emakumeen egoera zein den jarraitzea. Oso gertu egon behar da emakumeengandik, ikusteko ze arazo dituzten, beharrak... Informazio hori transmititu egin behar litzateke gizartera, eta gizarte osoa inplikatzeko saiatu beharra dago. Emakumeek %28 gutxiago kobratzen dute, baina hori ez da soilik emakumeen arazoa. Gizonezkoena ere bada; gizarte osoarena. Sindikatuena, alderdi politikoena... Hori ezin dute utzi feministen eskutan bakarrik. Indarra eta gogoia behar da, lan gogorra daukagulako, erronkak daukagulako bizitzaren alor guzti-guztietan.

“Emakumeek %28 gutxiago kobratzen dute orokorrean. Hori salatzeko ardura gizarte osoarena da, ez feministena bakarrik”

Bukatzeke, erresidentzia bat irekitzeko asmotan zineten adin handiko gay, lesbiana eta transexual. Zertan da proiektu hori?

Aurrera dioa. Badugu lurra, Madril ondoko herri txiki batean Rivas-en. Metroa badu, trena ere bai. Lurra adjudikatzeko konkurtsoa irabazi egin genuen, eta arkitekto talde batek presentatu digu proiektua; zoragarria portzierto. Gu txoratzen gaude, laster beste albiste bat izango duzue! Espero dut lehenbailehen izatea.




2012

UR-MEHEAK GAINEZKA EGITEN DUENEAN...

**Leire Goñi Iradi
(HERNANI 2012)**

Urumea; ur-mehea, gardena, fina eta garbia. Horrelako adjektiboak jarri dizkiote sarri hainbat autorek Urumea ibaiari. Baina, ibaiak, tarteka, bere izaera baduela gogorarazten digu, eta bere lur zatia erreklamatzeko du. Azken 80 urtetan, uholde handiak izan ditugu Hernanin 8 aldiz gutxienez. Azkena, lehengo urteko azaroan.



Arg.: Hernaniko KRONIKA.

Euriak ez zuen etenik izan 2011ko azaroaren 6an. Igande hartan goizean goiz jaiki zenak ere, euria, zarra-zarra, etengabe ari zuela ikusi zuen. Eguerdia parterako, Urumea ibaia leku askotan gainezka eginda zegoen. Hernanin azken 20 urtetan gertatu den uholderik handiena izan zen. Añarbeko datuen arabera, 308 litro bota zituen metro karratuan, 56 ordutan. Añarbeko urtegiak berak 10 milioi metro kubiko ur hartu zituen, momentu batzuetan, 187 metro kubiko segundoko. Kalteak handiak izan ziren. Hildako bat izan zen Irunen; 76 urteko gizon bat eraman zuen urak.

Goizean goizerako urak hartuta ageri ziren Landa-reko errugbi eta Zubipeko futbol zelaiak, baita Karabeletik Portu alderako lur eta baratzak ere. Bestalde, Hernanitik Goizuetarako bidea moztuta zegoen, batetik, Fagollagan ura errepideraino atera zelako, eta bestetik, Latxen eta Ubarroton bi lur jausi eragin zituelako urak. Eguerdiko 13:45etan itsasgora zen, eta herritarrak Urumea ibaiak emango zuen hurrengo pausuaren zain ziren, Karabel auzora begira. Uste bezala geratu zen, eta Karabel ere urak hartuta geratu zen. Ertzaintzak bi pertsona erreskatatu behar izan zituen bertan.

Lehengo urtekoa, Hernanin azken 20 urtetan gertatu den uholderik handiena izan zen

Osiñagan uholdeek izan zuten eragina ere ez da erraz ahazteko modukoa. Altzueta, Iparragirre eta Elorrabi sagardotegietan sartu zen ura, eta Elorrabiko zubia urak eraman zuen. Hernanitik kanpo ere ezaguna egin zen errugbi taldeko jokalariek grabatu zuten bideoa. Telebista kate batean baino gehiagotan erakutsi zuten Urumearen indarrak zuba nola puskatu eta eramaten zuen.



Errugbi taldeko jokalariek grabatu zuten bideoa: "Elorrabiko zubia".

Bestalde, Floridan, *Papelera del Norte* parean bidea moztuta geratu zen, urak hartuta. Eta industriguneetan ere, kalteak handiak izan ziren, Ibaiondo, Lastaola, Ibarluze, eta batez ere, Eziagon.

Gaua iristerako, Karabel, Portu eta Floridako 40 bat etxetatik hainbat familia atera behar izan zituen Udalak. Kiroldegian pasa behar izan zuten gaua. Karabeleko bizilagunetako batek Hernaniko Kronikari adierazi zionez, "1973az geroztik ura ez zen sekula horrenbestearino sartu auzoko etxeetan".

Añarbeko paretak, urari eutsiz. Añarbeko urtegiak jakinarazi zuenez, 5.874.769 metro kubiko ur hartu zituen 08:00etatik 15:00ak bitartean. Egun osoan zehar, 10 bat milioi metro kubiko. Urari kontu egin zion urtegiak, eta horri esker, Urumea ibaiak %75 ur gutxiago jaso zuen. Hala ere, ura kolpean igo zela aipatu zuten herritar askok, eta urtegiak ura askatu ote zuten susmotan ibili ziren. Baina Añarbek ziurtatu zuen urari eutsi ziola, eta urtegia betetzear egon bazen ere, hurrengo egunetan ere ez zuela urik askatu, Urumeako urak jaitsi bitartean.

Uholdeak pasa, Añarbek txosten bat argitaratu zuen argitzeko nola jokatu zuen. Bertan, uholdeak zergatik gertatu ziren ere argitu zuen. Informe honen



Karabel auzoa, 2011ko azaroaren 6an. Arg.: Hernaniko KRONIKA.biko zubia".

arabera, azaroan izaten diren prezipitazioek hilabete osoan 243 litro metro karratuko uzten dituzte. Baina lehengo urteko uholdeak gertatu zirenean, lau egunetan hilabete osoan erortzen den ur kantidadea baino gehiago erori zen; 4 egunetan jaso ziren 328 litro metro karratuko.

Añarbek argitaratutako txostenaren arabera, azaro osoan, normalean, metro karratuko 243 litro jasotzen dira. Lehengo urteko uholdeak gertatu zirenean, 4 egunetan metro karratuko 328 litro jaso ziren

Azken mendeko uholdeak

Urumea ibaiaren lehengo urteko hazaña ahaztu ezinik gabiltza oraindik. Baina, pasa den mendean gehiagotan atera ziren urak, Urumea ibaiaren ertzetan.

1933ko ekainaren 16an. Urte hasieran uholde benetan handiak izan ziren Holandan. Itsasmaila igo eta milaka hildako izan ziren. Londresen ere uholde haien eragina nabari zuten, eta urte hartan hasi ziren eraikitzen gaur egun urari eusteko dituzten dikeak. Euskal Herrian, eta bereziki Gipuzkoan, ekainean izan ziren uholdeak. Oria ibaiak hartutako maila, azken 60 urtetako bigarren altuena izan zen. Gipuzkoa osoan, 5 hildako eta desagertu bat izan ziren.

1953ko urriaren 14an. 24 ordutan metro karratuko 313 litro jaso ziren Arditurrin; Igeldon, gaueko 23:00ak eta 23:05ak artean, 11,2 litro jaso ziren metro karratuko. Berez, 1983an etorriko ziren uholde handietan baino euri-jasa indartsu eta larriagoa bota zuen, baina lurralde eremu zabalagoan eragin zuen; ez zen horren toki txikian hainbeste kalte izan, 83an bezala.

Urriaren 11n dagoeneko, euria ari zuen Euskal Herri osoan. Baina 14an, inolako abisurik gabe, sekulako euritea bota zuen, bereziki Gipuzkoan. Bidasoa, Oiartzun, Oria eta Urumea ibaietan eragin zuen euriteak. Ordu batzuetan, Urola ibaiak Oria ibaiaren bidea hartu zuen. Hernanin, kalteak eragin zituen uholdeak 350 hektarea eta 44 eraikinetan. Enpresa kaltetuenetako bat Floridako Harinera Guipuzcoana S.A. izan zen; handik gutxira desagertu zen.

Guzira, 27 hildako izan ziren Euskal Herri osoan, horietako 2 Urola ibaiak eraman zuen autobusean zihoazen hernaniarrak. Urriaren 14 hartan, arratsaldeko 18:00etan, La Guipuzcoanako autobus bat abiatu zen Donostiatik Zestoara bidean. Zestoatik bi kilometro eskasera zeudela, Urolako urek autobusa-ren motorraren altura hartua zuten, eta autobusa ez atzera ez aurrera geratu zen. Orduko Revista del Norte eta La Voz de España egunkariak kontatutakoaren arabera, autobusa beste kotxe bateko bidaiariak la-

guntzeko geratu zen, eta azkenean, denak eraman zituen urak. 22 pertsona hil ziren ezbehar hartan.

1953ko urriko uholdeetan 27 pertsona hil ziren Euskal Herrian. Horietako 2 hernaniarrak ziren; Donostiatik Zestoara zihoan La Guipuzcoanako autobusean zeuden, Urola ibaiak eraman zuenean

1960ko abenduaren 29 eta 30ean. Garai hartako La Vanguardia Española egunkarian jasotakoak dio, 24 ordutan etengabe egin zuela euria, eta goizeko 07:00etatik eguerdira bitartean 40 litro jaso zirela metro karratuko. Hernaniko Udal Artxiboan dagoen argazkiak erakusten du Karabel auzoa urak hartu zuela Hernanin. La Vanguardiako artikuluan aipatzen da baita ere, Donostiatik Hernanirako autobus zerbitzuak ibilbidea aldatu behar izan zuela, Loiola eta Martutene zeharkatu ezin zirelako. Itsasgora izan zen euri gehien egin zuen momentuan, eta Urumeako urek izugarri egin zuten gora. Hortik egun batzuetara, aipatutako egunkariak uholdeek eragindako hainbat herritako argazkiak argitaratu zituen.



Karabelgo irudiak, 1960ko abenduaren 30ean. Arg.: Hernaniko Udal Artxiboa.



LA VANGUARDIA

BARCELONA
Martes 3 de enero de 1961

ESPAÑOLA

Redacción y Administración: PELAYO, 28
Teléfono: 21-41-35
Precio de este ejemplar: 2 ptas.

FUNDADORES: DON CARLOS Y DON BARTOLOME GODÓ

Año LXXVII - Número 29.417

PUEBLOS DEL NORTE DE ESPAÑA ANEGADOS Y TIERRAS QUE PARECEN LAGOS

Un aspecto de la carretera de Bilbao a Vitoria, a la entrada de esta última ciudad, por desbordamiento del río Zadorra



POR muy habituados que estén los navarros y los guipuzcoanos a la lluvia tenaz que es como un elemento esencial de su vida cotidiana, esta vez se han visto sorprendidos con tan abrumadoras cantidades de lluvia que calles y sembrados quedaron sumergidos bajo la desmanada corriente de los ríos. El Arga, que es en Navarra como un nimen pamplonés, salió de madre e invadió los campos y barriadas de la Rochapea, desde donde salen los toros de San Fermín en las madrugadas del encierro.

Las verdes praderas del valle de Hernani se vieron, asimismo, inundadas, igual que en las grandes películas del Oeste americano. Vea el lector en esta página varias fotos de las inundaciones.

La ciudad de Pamplona se ha visto asolada por un violento temporal de agua y nieve. La capital navarra sufrió la inundación de algunos de los grandes ríos, como consecuencia del agua que tratan las rieras procedentes del monte San Cristóbal y por el desbordamiento del Arga. Las dos fotos de arriba, derecha, muestran al barrio de la Rochapea anegado por completo.



He aquí un aspecto del valle de Hernani completamente inundado por las aguas.
(Fotos Citra y Europa Press)



Nota gráfica de una calle de la ciudad de Estella cubierta por las aguas. En esta ciudad fue necesario el uso de barras para socorrer al vecindario, que se vio bloqueado por la inundación.

"He aquí un aspecto del valle de Hernani completamente inundado por las aguas".

1981eko urtarrilaren 16an. Euriaren eta mendi-ton-torretako elurra urtzearen ondorioz, Gipuzkoako hainbat herritan izan ziren uholdeak. ABC egunkariaren arabera, Urumea, Oria eta Deba ibaiek egin zuten gainezka, besteak beste. Hernanin bertan hainbat zelai geratu ziren urpean, eta Urumeako urek Martutenen, Astigarragan eta Ergobin ere egin zuten gainezka.



1983ko abuztuaren izandako uholdeak Karabel auzoan. Arg.: Hernaniko Udal Artxiboa.

1983ko abuztuaren 26 eta 27an. Guztira, 70 hildako izan ziren. Euskal Herrian gogoratzen diren uholde gogorrenetakoa izan zen 83koa, bereziki, Bizkaian. Nerbioi eta Ibaizabal ibaiek jasan zuten eraginik handiena. Ondorioz, Bilbo, Aste Nagusia ospatzen ari zela, urak hartu zuen. 417 etxebizitza suntsitu ziren, eta 6.000 kalteak izan zituzten. Baina, Bizkaiaz gain, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoa ere, hondamen-eremu deklaratu zituen Espainiako Gobernuak.

Hernanin, Ereñotzu isolatuta geratu zen uren eraginez. Karabel eta Portu auzoak urak hartu zituen, eta Eziago poligonoan ere kalteak handiak izan ziren. Udalak argitaratzen duen urtekari honen 2003ko edizioan, Jose Mari Martinezek idatzitako Hernani convive con las inundaciones artikuluan aipatzen da, Egin egunkariaren instalazioek ere oso kalte handiak izan zituela, eta abuztuaren 27ko tirada okasio horretarako utzitako beste instalazio batzuetan egin behar izan zela.

1988ko uztailean. Kasu honetan, euri jasa handienak Urola eta Deba ibaietan izan zuten eragin nabarmenena. Gipuzkoa osoan, 9 pertsona hil eta beste 7 desagertu ziren.



1997ko ekainak 1ean. Maiatzaren 30etik ekainaren 1erako goizalde hartan euri asko egin zuen, bereziki, goizeko 09:00etatik 10:00ak bitartean. Herri askotan izan ziren uholdeak, eta baita Hernanin ere. Kalteak handiak izan ziren.

2004ko urtarrilaren 24ean. Uholde hauen ondorioz aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak 2008an Uholdeak Saihesteko Plana. Euri asko egin zuen, eta Euskal Herriko hainbat probintzian izan ziren uholdeak. Hernanin, Karabeleko hainbat portaletan ura sartu zen, eta Zubipeko zelaia igerileku bihurtu zen. Astigarrarako errepidea ere moztuta geratu zen.

2007ko abuztuaren 23an. Urumea ibaiak gainezka egin zuen beste behin, eta Landare erabat estalita geratu zen. Ahateak ere igerian ibili ziren errugbi zelaian. Iluntzeko 20:00etarako Zubipe ere urak hartzen hasia zen, eta Fagollagan erreka ateratzeko puntuak izan zen.



Arg.: Hernaniko KRONIKA.

Uholdeak saihesteko planak

Argi dago ibaiaren ondoan bizitzeak uholdeak gertatzeko arriskua areagotzen duela. Batez ere, urteetan zehar ibaiaren bide naturala behin eta berriro aldatu edo mugiarazi badugu. 2004ko uholdeek dezenteko kalteak eragin zituzten, eta ondorioz, Eusko Jaurlaritzak *Uholdeak Saihesteko Plana* aurkeztu zuen 2008an.

Plan horretan, 18 fasetan egin beharreko moldaketak proposatu zituen Eusko Jaurlaritzako Inguru-

men eta Lurralde Antolamendu Sailak. 18 fase horietako 7tan egin beharreko aldaketak Hernanirekin zuten zerikusia.

Besteak beste, ondorengoak proposatu zituen. Bate-tik, Hernanitik Ergobiko zubira ibaiak egiten duen bidea egokitzea. Era berean, Akarregin ibai-parke bat egingo litzateke, urak haziz gero ura jasoko duen eremu bat egon zedin. Gainera, trenbidearen pasabide zaharra bota egingo litzateke.

Bestalde, Hernaniko hirigunetik Karabeleko zubiraino pareta bat jarriko litzateke. Ibaiak Hernani zeharkatzeko egiten duen bidearen eskuin aldean dagoneko badagoen pareta handituko litzateke batetik, eta ezkerrean lurrezko beste pareta bat egingo litzateke, bestetik.

Egindako beste proposamenetako batek zioen Karabeleko zubi txikia ordezkatzeko komeni zela, eta Osiñagako eta Elorrabiko zubi kolganteak kentzea ere beharrezkoa zela.

Karabeletik Portu auzorako bidea ere, sarri geratzen da ur azpian. Horregatik, bide berria egitea proposatu zen, altuagoa, uholde arriskutik kanpo gertatzeko.

Azkenik, Eziagoko pabilioi batzuk lekuz aldatzea proposatu zen, ibaiak bere eremu naturala berreskuratu ahal izateko.

Baina iritsi zen 2011ko azaroa, eta uholde handiak izan ziren berriro Hernanin. Elorrabiko zuba kendu gabe zegoen oraindik, eta Urumeak beregain hartu zuen lan hori. Gauzak horrela, urte honetako otsailan, Hernani, Astigarraga eta Donostiako Udalek eskatu zioten URA Agentziari mugitzen hasteko. Izan ere, URA Agentziak ere aurkeztu zuen plan bat 2007an, Urumea ibaiaren inguruan uholde arriskua murrizteko.

Azkenean, 2012ko uztailan elkartu zen *Urumea ibaian uholdeen arriskua murrizteko Erakunde Arteko Batzordea*. Bertan izan ziren, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako eta URA Agentziako ordezkariak; Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak; Donostia, Astigarraga eta Hernaniko Udaletako ordezkariak; Añarbeko Uretako ordezkariak; eta Gobernu zentralaren aldetik, Kosten Zuzendaritza. Hauekin batera, bizilagun elkarten ordezkariak ere bertan izan zen. Bilera horretan, presa handiena zuten neurriak zein ziren zehaztu eta horiekin hasteko konpromisoa hartu zen. Hernaniri dagokionez, Karabel auzoan egin beharreko obrei eman zitzaizen lehentasuna.

Karabel berria, uholde arriskutik kanpo. Uholdeen arriskua murrizteko Eusko Jaurlaritzak eta URA Agentziak egindako planak kontuan hartu zituen ikuspegi hidraulikoa, ingurumenaren ikuspuntua, eta hirigintzaren ikuspuntua. Hala ere, 2008an ze-

haztutako proposamenak txiki geratu dira, eta aurren, proposamen zabalagoa egin da, eta data zehatzak jarri dira, obrei ekiteko.

Gauzak horrela, Karabeleko zubia bota eta berria egiteaz gain, eta Karabeleko iparraldean barrena doan bidearen luzera osoan zehar lezoia egiteaz gain, beste bi neurri hartzea erabaki da. Batetik, euri-uren sarea egokitzea, eta bestetik, ur horiei eusteko depositu bat egitea.

Zubia aldatu eta lezoia eraikitzeke lanak URA Agentziak finantzatu ditu, guztira, 3.386.921,28 euro. Euri-sarea egokitzea eta depositua egitea berriz, Hernaniko Udalaren esku egongo da: 862.693,97 euro balioko ditu, eta obra hauek, Karabel auzoko urbanizazio planaren barruan sartu ditu Udalak. Urbanizazio plan honen barruan egingo dira etxebizitza berriak, errotonda, errepide berria, aparkalekuak, parkea... eta uholdeen aurkako obra hauek guztiak. Egingo diren etxebizitzek lagunduko dute obra hau finantzatzen. Urte honetan bertan lanean hastea aurreikusitakoa da.

Karabeleko urbanizazio planaren barruan sartzeko dira etxebizitza berriak, errepidea, errotonda, parkea... eta uholdeei aurre egiteko obrak: zubi berria, lezoia, euri-sarearen egokitzapena eta ur-depositua.

Uholde arrisku handia, Gipuzkoako 46 herritan

Uholde arriskua murrizteko planak egiten ari dira, ez soilik Urumea ibaiari dagokionez, baizik eta, baita beste ibai batzuei dagokienez ere. Izan ere, Europako 2007ko uholde arriskuak neuritu eta kudeat-

zeko arautegiak (903/2012 ERREGE-DEKRETUAN jasoa), lan horiek guztiak egiteko epeak jarri ditu. Batetik, uholde arriskua duten eremuak identifikatu behar dira. Bestetik, arrisku-mapak egin behar dira. Mapa honetan, arrisku mailaren arabera banatuko dira eremuak (altua, ertaina eta baxua). Era berean, uholdeek eragin ditzaketen kalteen neurrak ere jaso beharko da bertan. Dokumentu hau, 2013ko abenduaren 22rako prest izan behar da. Ondoren, uholde arrisku horiek kudeatzeko eta murrizteko planak osatu behar dira. Azkenik, 2015eko abenduaren 22rako txosten bat aurkeztu beharko da, argituz aurrez prestatutako planek bermatzen ote duten uholde arriskuen murrizketa.

Hernanin dagoeneko, neurri batzuk hartzen hasiak dira. Izan ere, urte hasieran aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak txosten bat, eta bertan zehazten zen zein ziren Kantauri isurialdeko ekialdean zeuden uholde arrisku handiko eremuak. Euskal Autonomia Erkideagoan 56 eremu zehazten ziren txostenean; Gipuzkoan, 35. Gipuzkoako eremu horretan, 46 herri kokatzen dira (Gipuzkoan, guztira, 88 herri daude). Deba, Urola, Orian eta Urumea ibai ertzetan dauden herriak dira, arrisku eremu horietan kokatzen diren herriak, besteak beste, Hernani.

Gipuzkoako 46 herri daude uholde arrisku handiko eremuan; tartean, Hernani.



2008

HACE CUATRO DECADAS HERNANI TEMBLÓ CON FUERZA

José Mari Martínez
(HERNANI 2008)

El pánico llevó a muchos hernaniarras a abandonar precipitadamente sus hogares, algunos, incluso, en paños menores. Dos movimientos sísmicos consecutivos encendieron la alarma. Eran poco más de las 11 de la noche del 13 de agosto de 1967. Hace ya cuarenta y un años.

A las 23 horas 8 minutos y 50 segundos del día 13 el Observatorio Central Geofísico de Toledo registró un terremoto con una magnitud de 5,5 en la escala Richter⁽¹⁾, con su epicentro en la zona de Oloroe (Oloron, Pirineos Atlánticos), en el Bearn, muy cerca de Zuberoa. A un suave temblor le siguió inmediatamente otro que según el observatorio toledano (en aquella época el más próximo al epicentro) fue el que alcanzó la mayor magnitud.

Los daños más importantes se registraron en la villa de Arette. Allí se derrumbó parcialmente la torre de la iglesia cayendo la campana sobre una casa y destruyéndola. En esa localidad pirenaica, destruida en un treinta por ciento, falleció una anciana de ochenta años al quedar sepultada bajo los escombros de su vivienda. Otros municipios de aquel entorno también sufrieron las consecuencias del seísmo.

A este lado de los Pirineos el balance fue menos grave, y los pocos heridos por caídas y contusiones fueron consecuencia de la precipitación al abandonar los edificios en un estado de nerviosismo que rayaba, en algunos casos, la histeria.

Era el domingo que daba inicio a la Semana Grande donostiarra. Muchos hernaniarras se encontraban de vacaciones, o ya plácidamente en sus casas cuando notaron que todo se movía. Inicialmente fue un temblor suave de los muchos que se hacen patentes con relativa frecuencia en esta zona, pero inmediata-

mente el movimiento se hizo más evidente. Muchos vecinos, algo atenazados por el temor, decidieron salir precipitadamente a la calle, en la creencia de que allí estarían más seguros, aunque, como contrasentido, algunos no dudaron en utilizar ascensores, sin pararse a pensar que la lógica recomienda no utilizarlos en esos casos. De cualquier modo, pocos ascensores había todavía en Hernani hace cuarenta años, aunque ya comenzaba a llenarse el paisaje urbano con edificaciones que superaban las cuatro alturas.

El barrio de Lizarraga acababa de construirse y en él dos edificios de planta baja y ocho pisos más, todas ellas dedicadas a viviendas, ostentaban el liderazgo de altura, junto al edificio central de Orcolaga kalea con planta baja comercial y siete más de viviendas. Auténticos edificios torre para la época, igualados años más tarde por las diez torres de Etxeberri.

Fueron precisamente los pisos más altos y los edificios asentados sobre suelos menos firmes en los que con más intensidad se acusó el seísmo y en donde más se alarmó la población. Solo hacia un mes que habían sido estrenadas las viviendas de Orkolaga y el seísmo provocó la lógica preocupación entre los nuevos inquilinos que en un primer instante pudieron poner en duda la fiabilidad de la construcción, dudas que se disiparon cuando comprobaron que vecinos de todos los edificios habían bajado precipitadamente a la calle. Victoriano Florindo había trabajado con la empresa constructora Ijurco en las obras de edificación de esa torre y ocupaba uno de los pisos. Quizá por ello no dudó de la fiabilidad de la construcción. *“Salimos a la calle como todos, pero el movimiento en ningún momento lo achaque a un posible fallo en la estructura o cimentación del edificio”*. Los Mitxelena vivían en el sexto piso de esa torre de Orkolaga y recuerdan que la oscilación fue tan acusada que el sofá resbaló por la sala, lo que llevó a toda la familia a salir de la vivienda y descender por las escaleras hasta la calle. Situacio-

(1) Esta escala, la escala Richter, mide la intensidad de los terremotos de en hasta nueve grados.



nes similares se dieron en otros pisos de ese edificio y en otras zonas. En pocos minutos las áreas más despejadas de todos los barrios de la localidad se llenaron de vecinos, muchos en pijama o camisón y no pocos descalzos. El susto y tensión inicial dieron paso a comentarios más distendidos y bromas.

El suceso afortunadamente no tuvo consecuencias pero dio pie a la propagación durante los días siguientes de anécdotas de todo tipo, aunque muchas de ellas sin visos de ser reales, como la de quien, se decía, había cargado al hombro un frigorífico antes de abandonar la vivienda en su afán de proteger su patrimonio familiar.

Prensa donostiarra

La prensa que se editaba entonces en la capital donostiarra se hizo eco del suceso llevándolo a sus portadas como noticia más destacada. *Unidad*, que se autodefinía como, “diario de combate nacional sindicalista”, daba cuenta al día siguiente, lunes por la tarde, del fenómeno con un titular a toda pagina en su portada, “*El seísmo de anoche tuvo su epicentro en la región francesa de Oloron*”, que completaba con un subtítulo “*Alarma en distintas poblaciones guipuzcoanas y en la capital, especialmente en Amara*”. En paginas interiores el vespertino aportaba mas información señalando que por los efectos percibidos del seísmo, el área en que se sintió era muy extensa y su foco más profundo de lo normal. Lo cierto es que el temblor se hizo patente con claridad en todo Euskal Herria y en localidades de La Rioja y Aragón,

al sur de los Pirineos y en todo el Bearn, sobre todo en su parte alta.

El Diario Vasco, dos días después del movimiento sísmico (al día siguiente del suceso, lunes, no se editaba en aquella época) abrió su primera pagina con el titular “*Violento terremoto en el sudoeste de Francia*”. Ya en paginas interiores se hacia eco de su incidencia en Donostia y la provincia, y refiriéndose a Hernani señalaba que en los barrios de Lizarraga, Florida y Villas fueron también muchos los vecinos que “*salieron pitando*” (sic) de sus hogares.

El diario *La Voz de España*, fundado en 1936 como el vespertino *Unidad*, cuyo lema “Por Dios, por España y por Franco” figuraba en su portada, era el órgano de Falange Española Tradicionalista y de las JONS. Titulaba “*San Sebastián entró en la Semana Grande entre temblores de tierra*”, señalando en un subtítulo que “*Cundió el pánico y la gente se lanzó a la calle precipitadamente*”. La coincidencia horaria del seísmo con los Fuegos Artificiales de la Semana Grande en la bahía de la Concha hizo que los asistentes al festejo no fueran conscientes del temblor. Pensarían que era consecuencia del estallido de los cohetes y bombas pirotécnicas.

Área de riesgo

Los movimientos sísmicos son frecuentes en todo Euskal Herria Las zonas de más riesgo en la Península Ibérica son los Pirineos, Andalucía Oriental, especialmente Granada y Almería, y Murcia. Hay dos



focos sísmicos principales: uno que procede de la falla Azores-Gibraltar y otro que surge de la presión de la placa africana y que afecta especialmente a todo el sur de la Península.

El área de los Pirineos conoce numerosos episodios sísmicos a lo largo del año, tanto al norte, sobre todo, como al sur de esta cordillera montañosa. Una sismicidad de la que ahora estamos permanentemente informados por su peligrosa incidencia en el pantano de Itoiz, donde se producen movimientos continuamente.

Históricamente la sismicidad de la Comunidad Autónoma Vasca se puede considerar baja, según los datos reflejados en el Plan de emergencia ante el riesgo sísmico elaborado recientemente por el Departamento de Interior del Gobierno de Lakua. Otro nivel de riesgo, más alto, corresponde a Nafarroa y los territorios de Iparralde.

Según el citado estudio, dentro de la Comunidad Autónoma Vasca, la zona de mayor peligrosidad sísmica deducida a partir de la aplicación de un método posibilista que tiene en cuenta las características de las zonas sismotectónicas, la localización y longitud de las fallas que afectan a materiales recientes, las leyes de Gutenberg y Richter y la ley de atenuación propuesta por el Instituto Geográfico Nacional, es la situada al noreste de Gipuzkoa, en la franja limítrofe con Nafarroa. Esa zona se ve afectada en su límite meridional por la falla de Leitza, prolongación de la falla norpirenaica, y por la falla de Hendaia, zonas donde se ha detectado una relativamente notable actividad sísmica.


Uno de los terremotos más potentes de los que se tiene constancia en Gipuzkoa tuvo lugar el 23 de septiembre de 1978. Alcanzó los 3,6 grados de magnitud y su epicentro se localizó en Antzuola. Un año después Errezil, el 1 de abril, y Zestoa, el 30 de agosto de 1997, conocieron seísmos de similar magnitud, pero en ningún caso produjeron incidencias de gravedad.

En 2007 se registraron un total de 43 movimientos sísmicos de baja intensidad en Gipuzkoa, la mayor actividad registrada en la historia. Entre esos temblores está el detectado en la madrugada del 2 de noviembre en Astigarraga con 1,2 grados de magnitud en la escala Richter, en definitiva, imperceptible para los vecinos de la localidad. Esa mayor actividad registrada no significa que aumente la actividad sísmica, sino que, probablemente, los sistemas de detección de movimientos de tierra son cada vez mejores, más sensibles.

Con todo, aunque en la CAV no existen municipios obligados a realizar un Plan de Emergencia Sísmico, los que alcanzan un cierto nivel de peligrosidad, es decir, los situados en la franja geográfica antes citada, desde Hondarribia a Enirio Aralar (entre ellos Hernani), estarían en la necesidad de realizar estudios más detallados, tales como vulnerabilidad o catalogación de edificios singulares o de especial importancia, a juicio del citado Plan de Emergencia ante el Riesgo Sísmico. Ese documento señala a modo de conclusión que en la Comunidad Autónoma Vasca se generan relativamente pocos terremotos, generalmente de muy baja o baja intensidad, y que es improbable que tenga lugar un movimiento sísmico de carácter destructivo.

ARRISKU SISMIKOA / RIESGO SÍSMICO

- Ertaina / Moderado
- Txikia / Bajo
- Oso txikia / Muy bajo
- Oso-oso txikia / Infimo



ESCALA RITCHER

Se entiende por terremoto o sismo a la liberación súbita y brusca de energía elástica acumulada por la deformación lenta en la superficie de la tierra, que se propaga en forma de ondas sísmicas. Los terremotos son sacudidas de corta duración, pero de gran intensidad, que se producen en la corteza terrestre.

La escala Richter es hasta ahora la más utilizada para evaluar y comparar la intensidad de los sismos. Mide la energía del terremoto en el hipocentro o foco, es decir, en el punto donde se inicia el terremoto, y sigue una escala de intensidades que aumenta exponencialmente de un valor al siguiente. Cada grado representa una liberación de energía diez veces superior a la anterior. El epicentro, sin embargo, es el punto de la superficie situado en la vertical del hipocentro o foco.

La escala sismológica de Richter, denominada así por haber sido desarrollada por el estadounidense Charles Richter (1900-1985) con la colaboración de Beñó Gutenberg en 1935, investigadores del Instituto de Etnología de California, es ineficaz para relacionarla con las características físicas del origen del terremoto y, además, para magnitudes cercanas a 8,3 - 8,5 produce estimaciones similares para sucesos, sin embargo, diferentes.

Actualmente, la mayoría de los sismólogos consideran obsoletas las escalas de magnitudes tradicionales, entre ellas la de Richter, y consideran más adecuado para relacionar los parámetros físicos y la energía liberada por el terremoto otra medida que denominan momento sísmico.

Una magnitud de 4,5 en la escala de Richter es la que produce un tornado de tipo medio, y 5 grados, por ejemplo, la de un terremoto que tuvo su epi-

centro en Albolote (Granada) en 1956, que dejó un saldo de víctimas mortales. Por tanto, la de 5,5 de 1967 que se sintió en Hernani es una magnitud nada desdeñable y fue similar al terremoto de Little Skull Mountain, Nevada (Estados Unidos) de 1992.

Más conocido por haber sido recreado en el cine es el terremoto de San Francisco en 1906, inmortalizado en una película de Clark Gable y que causó 700 muertos, la mayoría por los incendios que se declararon tras el sismo. Aunque para mortífero el de Shansi (China) que causó la muerte de 830.000 personas en 1556. China es el país que ha conocido cinco de los ocho sismos más importantes de la historia. En la Península Ibérica el ranking lo encabeza el que tuvo su epicentro en la zona de Lisboa en 1755, destruyó la capital portuguesa y provocó 60.000 víctimas. Se estima que tuvo una magnitud de 8,5 grados y llegó a Cádiz en forma de tsunami de casi 15 metros de altura. Afectó al norte de África y a buena parte de Europa occidental.

La mayor liberación de energía que ha podido ser medida ocurrió durante el terremoto ocurrido en la ciudad de Valdivia (Chile) el 22 de mayo de 1960 que alcanzó una magnitud de momento (MW) de 9,6 y mató a 5.700 personas. Produjo una ruptura de falla de alrededor de 1.000 kilómetros.

La intensidad, como se ve, no va en proporción directa a los efectos porque, en opinión de los sismólogos, no matan los terremotos, matan las construcciones al derrumbarse. De ahí que los temblores causen más víctimas en zonas subdesarrolladas, con alta densidad de población y edificaciones endeble, que en otras donde están mejor preparados para hacer frente a los efectos de estos sismos (California, Japón,...).



2001

TRANSIZIOA HERNANIN

Garoa Gonzalez Fernandino
(HERNANI 2001)



Askatasunaren Ibilaldia, 1977ko abuztuaren 12an izandako kontzentrazioa.

TRANSIZIOAren tarte kronologikoa zehaztea zaila da. Iritzi zabalduenaren arabera, Francoren heriotzarekin batera hasi zen, baino, hain hurbileko aldia izanik denboran atzerago ere kokatu izan dute zenbaitzuk, diktadorea artean bizirik zen garaietan hain zuzen ere. Trantsizio aldiaren amaiera finkatzeko orduan ere ez datoz bat iritzi guztiak: 1977. urteko hauteskundeak, 1978. urteko Konstituzioa, 1979ko Autonomia Estatutua etab. aipatzen dira.

Horrenbestez, trantsizioa aztertzerakoan lehenik eta behin nabarmendu beharreko kontua da historiografiak erabat zehazteke utzi dituela aldi honen hasiera eta amaiera.

Aurreko erregimenarekiko haustura izan zen erreforma, batzuen ustez, sistemaren modernizazio hutsa besterik ez zen izan, egiturak ez baitziren sakonean aldatu. Horrela, dena aldatu zela ez ezer aldatzeko esan ohi da erreformaz. Denek ez zuten parte hartu, iritzi sozial eta politiko asko baztertuak izan ziren eta gutxi batzuen esku jarri zen; hortaz, haien arabera osatu zen sistema berria. Ez zitzaion inori erantzukizunik eskatu, eto ez ziren gainditu antzinako erresuminak.

Garai hartako abaguneak gaur egungo gizartearen giltzarriak finkatu zituela esan daiteke.

Francisco Franco Bahamonde, 39 urtez estatua diktadurapean izan zuena, 1975eko abenduaren 20an, hilabete bat hilzorian igaro ondoren, hil zen. Gizarte osoa jabetuta zegoen hurrengo hilabeteak garrantzi handikoak izango zirela etorkizunerako. Franco hil eta bi egunera errege izendatu zuten Juan Carlos de Borbon printzea, Francok bere ondorengotzat hartua zuena. Hark mugimenduaren printzipioak betetzeko konpromisoa berretsi zuen eta Arias Navarro, aurreko urteetan gobernu presidentea zena, mantendu zuen postuan. Hala ere, “Burgoseko auzian” ikusi zenez, diktadura agortua zegoen sistema politiko bezala, ez baitzen gizartearen berezko joerari eusteko gai, eta estatua mendebaldeko demokrazien sailean sartu nahi zen.

Hurrengo hilabeteetan, 1976. urtea aurrera ahala, elkartu eta indartu egin zen oposizioa. “Coordinación Democrática” izeneko plataforma osatu eta manifestazio, herri protestaldi eta beste hainbat ekitaldi egin ziren demokrazia, amnistia eta beste hainbat erreibindikazio aldarrikatuz. Horrela, erreformistek ikusi zuten ezinbestekoa zela aldaketa batzuk aurrera eramatea, erregimenak beren gus-tukoa ez zen norabide bat har ez zezan.

Erregea eta bere aholkulari zen Gorteetako presidente, Torcuato Fernández Miranda, Ariasen ondorengo nor izendatuko bila zebiltzan, erreforma aurrera eramango zuena. Adolfo Suárez aukeratu zuten. Erreinuko Kontseiluan oraindik indar handia zuten frankisten, “bunkerra”ren, adostasuna lortu eta uztailaren 3an egin zen izendapena. Suarezek kargua hartu eta hamabost egunera eman zuen argitara bere programa: amnistia legea, iritzi eta delitu politikoengatik espetxeratutakoentzat, zenbait askatasunen onarpena eta urtebeteren buruan hauteskundeak deitzeko konpromisoa.

Erreforma legea 1977ko udaberrian onartu zen, diktadura ondoko lehen hauteskunde orokorretan hain zuzen ere.

Azpiegitura politikoa osatzen ari zen. Hurrengo urratsa, berriz, Konstituzioa idaztea izango zen. Prozesu honetan protagonista bakarrak UCD, PSCE eta PCE izan ziren, gainontzeko indarrak bazterre-ra utzi baitzituzten. 1978ko urriaren 31n Estatuko Gorteak Konstituzioa onartu zuen; kontrako boto bakarra Euskadiko Ezkerrako ordezkariak eman zuen, eta PNV-EAJk, berriz, abstentzioaren bidea hartu zuen. Abenduaren 6an erreferenduma egin zen.

Euskal Herrian, Francoren heriotzatik lehenengo hauteskundeetarako denbora tartean egoera berezia bizi izan zen. Hau da, gertaeren hurrenkera eta ezaugarriak desberdinak izan ziren, alderdi askori dagokienez eta estatukoekin alderatuta. Diktadura amaitu ondoko hilabeteetan hainbat eratako



Udaletxeko balkoian ikurriña, Hernaniko eto estatuko banderen ondoan. Hainbat mozio eto bilera egin ondoren, 1977ko urtarilaren 19an jarri ahal izan zen, azkenik. Hernaniar ugari bildu ziren plazan.

erakunde (sindikatuak, herrialdeko batzordeak, herrietako elkarteak etab.) antolatu ziren eta aldaketa nahia agertzen hasi ziren. Egoera horretan, ETako bi adarrek benetako erasoaldi bat zabaldu zuten; erasoaldi horren balantzea: bi industriagizon bahitu eta segurtasun indarretako 17 agente hil.

Amnistiaren aldeko batzordeak 1976. urteko urtarilean herrialdeko koordinakundeetan egituratu ziren, askatasunen aldeko borrokan aurrera pauso bat emanez. Urte hura izan zen, halaber, 1974. urteko udazkenean jaiotako langile komiteen goraldiaren urtea, komiteek asanblada mugimenduak bultzatu baitzituzten. Asanblada mugimenduak ez ezik, sindikatuak ere jarduera bizia izan zuten. Egun haietan “Sindicato Unitario” bat sortzeko asmoa agertu zen, eta uztailaren 10an egin zuten COME (PCEn kontrolpean zegoenak) eta CECO (EMK, LKI eta ORTren parte hartzearekin). Horrela sortu zen “Euskal Herriko Comisiones Obreras”. Aldi berean, alderdi politikoak plazara ateratzen hasi ziren, eta horrela azaldu ziren alternatiba politiko ezberdinak.



Diktadura ondoren Aberri Eguna ospatzen hasi zen berriro; 1978ko martxoaren 26an Donostian egin zen.

Era berean, KAS agertzen da, ezker abertzale gisa ezagutzen hasi zen taldearen bilgune bihurtu zena.

Urte hartan bertan Josu Zabala hil zuten segurtasun publikoaren indarrek, tiro batez, Hondarribian amnistiaren aldeko manifestazio batean parte hartzen ari zela. Hainbat herritan (Azpeitia, Bergara, Eibar, Gabiria, Hernani etab.) udalbatzar bereziak egin ziren eta Zabalaren heriotza dela-eta agiri bat helarazi zioten Gipuzkoako gobernadoreari, segurtasun publikoaren indarren nolabaiteko kontrola eskatuz.

Irailaren 17an, Gipuzkoako herri bilkura berak Donostian ateratako agiri batean, auzi berriak azalatu zituen, lehen aldarrikatutakoekin batera: ikurrina erabiltzeko askatasuna, euskararen ofizialkidetza edo sortu berriak ziren ikastolak hornitzeko Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari laguntza eskatzea.

Ikurriña, 1977ko urtarrilaren 20an hasi zen Euskal Herrian barrena legez onartzen eta erabitzen.

Esan bezala, 1977ko udaberrian hauteskunde orrokorak egin ziren eta Euskal Herrian PSOEk eman zuen lehen "ezusteko" handia; Euskal Herriko bigarren indarra izan zen, botoen %25eko batez bestekoa lorturik, Hernanin ere, %26ko abstentzioarekin, PSOEk eskuratu zuen gehiengoa, botoen %42arekin; bigarren indarra, berriz, EAJ-PNV izan zen, %24arekin,

eta hirugarrena, Euskadiko Ezkerra, botoen %7a eskuratuta.

Hurrengo urtean, 1978ko abenduaren 6an, erreferenduma egin eta Konstituzio berria onartu zen; baina emaitzak garbi erakutsi zuen Euskal Herrian gauzak ez zirela gainerako lurraldeetan bezala, izan ere, oso handia izan baitzen abstentzioa (Hernanin %51ko abstentzioa izan zen, %16ak eman zion ezezkoa, eta baietza %31k bakarrik eman zuen). Argi zegoen konstituzio edo lege bilduma hura oraindik ere oso kontserbadorea zela eta ez zela aurrerapen handirik eskaintzen aurreko garaiko jarrerekin alderatuta.

Hernanik 28.828 biztanle zituen Francoren heriotzaren urtean. Euskal Herriko herri gehienek bezala, Hernanik ere hazkunde industrialeko garaia bizi izan zuen 1940. urtetik 1975. urtera, eta industrializazioa eta etorkinen masa zirela-eta biztanle kopurua lau halakotu egin zen bitarte hartan. Hazkundera eten egin zen, ordea, 1975. urtetik aurrera, estatu osoan nabarmendu zen krisi ekonomikoaren eraginez. Horrela, Hernaniko biztanle kopuruaren hazkundera eten eta biztanleria finkatu egin zen, eta aurrerantzean ez zen gertatu emigrazio eta inmigrazio joera aipagarriarik.

Diktaduraren ondoko, lehen alkatea, Fermin Altuna Aguirresarobe izan eta gero, Ignacio Iruin Izagurre

izan zen (1976. urteko otsailean izendatua). Giro honetan, Hernaniko Udalak beste euskal udaletxe askok bezala, foruen aldeko aldarrikapenak eta euskara, ikurrina eta amnistiaren aldeko mozioak aurkeztu zituen, aurreko urtetan debekatuak izan ziren hainbat elementu berreskuratzeko asmoz.

Hernanin, Euskal Herriko hainbat herritan bezala, aldarrikapena nagusitu zen; izan ere, oposizioa indar hartzen ari zen urte haietan, arestian esan bezala, eta aspaldiko urteetan kalera ezin irtenik egon ziren hainbat taldek orain ikusi zuten aukera. Dena dela, kale ekintzak legez kanpokoak ziren artean, eta ordena publikoko indarrek diktadura garaian bezalaxe jarduten zuten. Taldeek mozioen bidez egin zituzten beren aldarrikapenak. Horren erakusgarri da, esate baterako, urriaren 7an, Hernaniko zinegotziek aurkeztutakoa; mozio horretan gogor gaitzetsi zuten Hernanin gertatutako hainbat ekintza, Guardia Zibilen bat-bateko ekinaldiak, dendetako kristalak eta autoak txikitzea, atxiloketa masiboak, ultra eskuindarren (Batallón Vasco Español) ekintza ugariak, errepideetako kontrolen gehitzea etab., eta harridura erakutsi zuten Espainiako gobernua demokrazia bideratzeko plan bat aurrera eramaten ari zen bitartean horrelako gorabeherak gertatzen zirelako.

Aldarrikapen haren alde agertu ziren Hernanin sortutako hainbat talde eta elkarte, esate baterako, kirol elkarteak (Mendi Gain, Mendiriz Mendi, JOCC, Urumea Klub Atletiko, C.D. Hernani, Hernaniko Rugby Taldea, Txantxangorri Elkartea etab.), kultur eta beste hainbat alorretako elkarteak (Ekintza Euskal Dantzari Taldea, Hernaniko Luis'ar Gaztedia, Kimu Alai elkarte, E.P.O.ko antzinako ikasleen elkarte

edo Familiako Gurasoen elkarte), elkarte gastronomikoak (Ur-mia elkarte, Oriamendi, Santa Barbara, Peña Otaño edo Elur-Txori), Langile eta Urumea ikastolak etab.

Aldaketen eskaera eta aldarrikapena nagusi ziren giro honetan berrikuntza nabarmenak egin ziren Hernanin hirigintzaren alorrean; esate baterako, urte hartan hasi ziren Florida auzoaren azpiegiturak ezartzen, adibidez espaloia, errepidea eta estolde-riak. Zabaltze eta handitze plangintzak ere eraman ziren aurrera, adibidez, Perkaiztegi kalearen zabaltzea eta "Toki alai" izenekoarena. Gainera argitatzeko lanak ere egin ziren hainbat gunetan, Lizeaga eta Portuko auzoetan edo trenbide bidean.

Hernaniko ikastolek ahaleginak egin zituzten tar-te kronologiko horretan euskarazko irakaskuntza posible egiten zuten azpiegiturak osatzeko; Urumea, Langile eta Ereñotzuko ikastolak aritu ziren buru-belarri zeregin horretan, Guraso elkarteek ere lan handia egin zuten, ikastola horien sostengu ekonomikoa ahalbidetzeko, baina ez zuten, ez, lan samurra izan; adibide gisa aipa daiteke 1977. urteko urtarrilean Txirrita ikastolarentzat (Langile ikastolaren parte zen) dirua biltzeko egindako jaialdia, Guardia Zibila jaialdia ospatzen ari zen aretoa hustuarazi eta hiru lagun eraman baitzituen atxilotuta.

Gero eta gehiago zabaltzen joan ziren era horretako gertaerak, gertaera ohiko izateraino; argi zegoen euskalduntzearen eta eraberritzearen bideak zailak zirela oraindik, Francoren heriotzaz gero ere.

Irailaren 27an Urumea eta Kale Nagusian bonba bat jarri zela iragarri zuen norbark, eta Hernaniko he-



Adarra bidean 1977ko urte berri egunean zeuden pankartak.



rri osoa beldurturi utzi zuen gertaera hark; hainbat egunkaritan eman zen iragarpen haren berri, baina, beste hainbestetan bezala, inork ez zuen ardurarik eta erantzukizunik bere gain hartu.

Ezkerreko abertzaleek onartu berri zen Konstituzioa aztertu zuten, eta beren helburuak bete ahal izateko tresna desagokitzat jo zuten, Espainiaren batasunaren eta haren armadaren babesle gisa azaltzen baita konstituzio hura zenbait artikulutan.


1979. urtean hainbat erreferendum eta hauteskunde egin ziren. Urte hartan egin ziren bigarren Hauteskunde Nagusiak. Hernanin, %33ko abstentzioa izan zela, baina PSOE atera zen, berriro ere irabazle, botoen %25arekin PNV-EAJ alderdiak, bestalde, gora egin zuen, eta botoen %19a lortu zuen. HB alderdia gelditu zen bigarren, bozen %22a eskuraturik. Urte bereko Biltzar Nagusietarako Hauteskundetan, %40ko abstentzioarekin, Herri Batasunak lortu zuen botoen portzentaje gehiengoa, Eusko Alderdi Jeltzalea izan zen bigarren, eta PSOE, berriz, hirugarren. Udal Hauteskundeak ere izan ziren 1979an, eta honetan ere Herri Batasuna alderdia izan zen garaile, botoen %32arekin. Emaizta horri esker Juan Jose Uria izendatu zuten Hernaniko alkate berri, eta

hark hartu zuen, horrenbestez, udaletxearen zuzendaritza. 1979. urteko bozketetarako azken deialdia Autonomia Estatutuaren gaineko erreferenduma izan zen; baiezko botoak izan ziren nagusi, bozatu zutenen %67, hain zuzen ere. Abstentzioa handia izan zen, %77koa, batez beste.

“Guda Zikina” izenaz ezagutu den prozesuari dagokionez, Hernaniko herriak hainbat ekintza jasan zituen; garai hartan ekintza haien gidaria “Batallón Vasco Español” taldea izan zen, eta haren eskutik etorri ziren, hain zuzen, Juan Jose Uria Hernaniko alkatearen aurkako atentatu saiakera, 1979. urtean, eta Felipe Sagarna “Zapa”, Luis Maria Elizondo, Miguel Maria Arbelaitz eta Joaquin Antimasbere Hernaniko semeen hilketak, 1980. urtean.

* * *

Trantsizio izeneko garaiko nondik - norakoak garrantzi handiko ondoriook ditu gaur egungo historian, aurreko garaian konpondu gabe gelditu ziren arazoak, historian beti gertatu ohi den bezala, arazo baitira aldi berrian ere.



1992

ENTREVISTA FORMULADA A **JOSÉ M^a SETIÉN** OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

Lujan Ruiz Goñi
(HERNANI 1992)



- Usted nace en el seno de una familia acomodada hernaniarra, el 18 de Marzo de 1928. ¿Cuántos eran de familia?

Mi padre fue arquitecto, lo que llaman una profesión “liberal”. Experimentamos los efectos económicos de la guerra civil y de la posguerra, lo que ha de matizar no poco lo de familia “acomodada”. En mi casa vivíamos los padres, cuatro hermanos y dos tíos, hermanos de mi padre. Cuando yo era aún joven, falleció la hermana mayor, Mikeli. Tenía yo 15 años y ella 23.

- ¿Podría hacernos una descripción de su familia?

No es fácil hacer una descripción de la propia familia, pues necesariamente toca a algo muy íntimo a la vida de uno mismo. Además, difícilmente puede uno ser suficientemente objetivo. Puedo decir que vivía a gusto en ella. Había orden y apertura, fruto del cultivo cultural de mis mayores, respeto mutuo y a la vez disciplina, sin mucho rigor en ningún aspecto, pero en la que se percibía el valor del orden

y de una elemental disciplina. Se respiraba también un clima religioso sin imposiciones pero serio y, a la vez, sereno.

- ¿Cuáles son sus primeros recuerdos infantiles?

Para mí fue muy grato el ambiente de los amigos que frecuentaban el entorno de mi casa. Recuerdo mi afición a la pelota y, en especial, en el “chirri”. Nos gustaba hacer nuestras pequeñas “obras” en las huertas, lo que en ocasiones daba lugar a pequeñas “luchas” de barrio.

- ¿Dónde realizó sus primeros estudios?

Estudí mis primeros años en la escuela pública. Después, en tiempo de la guerra, hice el ingreso y ler. año de bachillerato, “por libre”, con mi tía María, maestra en Elduayen. Luego ingresé en el Colegio del Sgdo. Corazón, en San Sebastián, donde hice el Bachillerato, incluida la Reválida, que nos llevó a Valladolid para hacer el Examen de Estado, una auténtica prueba enciclopédica en que había que saber de todo. Luego, el año 1944 pasé al Seminario de Vitoria, hasta que me ordené sacerdote en el año 1951. Hace ya 41 años; son muchos años.

- ¿Se acuerda de algún profesor en particular?

Sí, recuerdo a Dn. Jerónimo Velamazán en la Escuela Pública. Era exigente, pero buen maestro. En el “Colé” me ayudaron mucho Dn. Luis Ortiz y Dn. Esteban Múgica, en 6º y 7º de Bachillerato. Eran de una entrega total, muy interesados en el seguimiento de los alumnos. Creo que me ayudaron mucho a aprender a estudiar, aunque los métodos pedagógicos eran naturalmente diferentes.

- ¿Recuerda a sus primeros compañeros de clase?

Recuerdo efectivamente a algunos de ellos, de mi clase y de los de otras clases, especialmente a los que hacíamos todos los días, dos veces, el viaje en el tren de Hernani a San Sebastián. Era muy precipitado todo, aunque contábamos ya con los “retrasos” de la RENFE. Jugábamos también al fútbol en el apeadero, para llenar esos espacios de espera. Antonio Idarreta era de los mayores. Seguían mi hermano Isidro,

luego Bernardino Pérez, “Pasie-guito”, los Adarraga, línchalo, Joaquín Garmen-día, mi hermano Teddy, Ramiro Loyarte y otros. Del “Colé” de San Sebastián recuerdo especialmente a los de mi clase.

- ¿Mantiene relación con sus antiguos compañeros.?

No es fácil. Cada uno ha seguido su camino. Desde el año 1944 en que fui al Seminario, hasta que el 1972 vine de Obispo Auxiliar a San Sebastián, mi vida anduvo por otros lugares, Vitoria, Roma, Alemania, Salamanca, Santander... Los recuerdos perduran pero las amistades no cultivadas quedan fácilmente en eso, en recuerdos.

- ¿Era buen estudiante D. José Ma Setién?

Dicen que sí y los resultados académicos parecen confirmarlo. Pero las notas pasan. Lo que queda sobre todo es el modo de situarse ante la vida. Me refiero a saber dedicar tiempo, esfuerzo y un poco de disciplina a lo que uno ve que tiene que hacer.

- ¿Cuál era la materia, la asignatura que más atraía su atención, y cuál era la que menos le gustaba?

Tenía especial afición a las ciencias y a las matemáticas. No me gustaban tanto las materias relativas a la literatura, la historia y otras análogas. Pero es curioso que después hube de orientarme por materias más bien afines a éstas. Aunque los que me conocen bien dicen que sigo teniendo una mente de “arquitecto” en el gobierno de la diócesis. Puede ser cosa de herencia familiar.

- ¿Qué contestaba cuando le preguntaban “Qué vas a ser de mayor”?

Cuando tenía 14 ó 15 años ya había pensado ser cura. No creo que extrañara mucho a la gente. Me imagino que a algunos les daría un poco de pena.

- El hecho de que su padre fuera arquitecto ¿no le hizo pensar en seguir los pasos de su progenitor.?

Realmente no tuve tiempo para planteármelo por lo que acabo de decir. Tampoco puedo decir si mi padre tuvo alguna ilusión por mí en lo que se refiere a estudiar alguna carrera. Era muy respetuoso en esa materia. Y así lo manifestó cuando supo que quería ir al Seminario.

- ¿Cómo recuerda el Hernani de su infancia.?

Como un pueblo familiar, cercano, en el que una persona de mi edad podía hacer una vida de relación fácil y, según creo, sin grandes dificultades. Tengo que decir que, al menos yo, no las tuve.

- ¿Qué aspectos resaltaría del Hernani que usted conoció?

Acabo de decirlo. Imagino que en muchas familias se vivirían conflictos y sufrimientos que más tarde habrían de aparecer con más fuerza. Pero en mi época de estudiante yo no los percibía. Me entendía bien con mis amigos y ello daba un tono grato a la



José Ma Setién el día de su Consagración Episcopal.

vida que yo quería vivir. No había grandes riesgos ni aventuras; tampoco por ello grandes realizaciones ni grandes frustraciones.

- Tengo entendido que usted era un gran deportista, ¿jugaba al fútbol, no es así?

Me gustaban ciertos deportes, no todos. Especialmente el fútbol y la pelota. También, en invierno, el ski. El Adarra lo he pisado muchas veces. También la Sierra de Aralar y el Aitzgorri. Naturalmente el Urumea recibía a muchos “nadadores” del pueblo. No se me daba demasiado bien, como tampoco la bicicleta.

- ¿Sigue siendo aficionado al deporte, le sigue gustando el fútbol, qué le parece la situación del Hernani en segunda división?

Sí, pero me ha gustado más ejercerlo que contemplarlo. Ahora tengo que limitarme por prescripción médica y por falta de facultades. Los años cuentan. Me gusta que gane el equipo de mi pueblo, aunque no conozco a los jugadores. No pongo límites a las aspiraciones de los hernaniarras y, por ello, tampoco al equipo.



Primera misa en Hernani de D. José Ma Setién.

- En 1944, terminado el bachillerato en el Colegio del Sagrado Corazón en San Sebastián, ingresa en el seminario de Vitoria, donde realiza los estudios eclesiásticos. ¿Cuándo nace en usted la vocación religiosa?

Allí por mis quince años. No hubo ningún acontecimiento especial ni fue una decisión repentina. Fue una idea que fue haciendo su sitio en mi interior, de una forma progresiva pero firme. No creo que pensara nunca en serio que pudiera ser otra cosa en mi vida.

- ¿Recuerda usted el día de San Pedro de 1.951?

Lo recuerdo, en la Catedral de San Sebastián. Y recuerdo el 1 de julio, en Hernani, donde celebré mi primera Misa. Creo que fue un acontecimiento, no sólo mío sino también del pueblo. Al menos así lo percibí yo. Me parece recordar que el pueblo quería mucho a los curas que salían de él. Seguramente hoy sería distinto.

- Tras ordenarse sacerdote se traslada a Roma donde obtiene la Licenciatura en Teología y el Doctorado en Derecho Canónico. ¿Cómo fueron los años transcurridos en la Universidad Pontificia Gregoriana?

Fueron muy ricos en todos los sentidos. Estuve cuatro años allí. Un amigo, D. José Ig. Tellechea, acaba

de contarlos en una autobiografía que ha publicado recientemente. Los describe muy bien y es una delicia recordarlos. Fue mucho más que hacer unos estudios para sacar unos grados. Descubrí lo que es Roma y lo que una Universidad, mejor dicho, muchas, pueden dar. Aquellos años dejaron una huella muy fuerte en mí.

- Vuelve usted a Vitoria donde es nombrado Profesor de la Facultad de Teología hasta 1960, año en el que se convierte en Catedrático y Decano de la Facultad de Teología en la Pontificia Universidad de Salamanca. ¿Qué significa Salamanca para D. José Ma Setién?

Mis años de profesor en Vitoria y Salamanca me ayudaron, creo, a crecer en todos los órdenes. Estudiar, más para comunicar que para aprender. Estar cerca de los problemas de la Iglesia y de la sociedad. Vivir los años de una transición que ya se preparaba. "Gustar" las molestias de acercarse a la realidad político-social sin renunciar a las propias convicciones. Preocuparse de los alumnos detenidos por la policía en la Comisaría. Preparar caminos que inexorablemente tenían que recorrerse más tarde... Es muy difícil resumir aquellos años. Quizás tiene uno ahora la impresión de que tuvo que dedicarse a demasiadas cosas. Pero aprendí algo que luego he tratado de hacer norma de mi vida: tratar de responder a los retos que la vida le plantea a uno, sin pensar demasiado en las consecuencias personales que se pueden seguir.

- En 1972, es nombrado Obispo Auxiliar de San Sebastián. El 28 de octubre del mismo año es consagrado Obispo en la Catedral del Buen Pastor y en 1979 sucede a D. Jacinto Argaya como Obispo de San Sebastián. La década de los 70 fue una época marcada por acontecimientos políticos importantes a nivel nacional. ¿Cuál es el análisis que usted hace de esta época?

Tengo que decir que en una primera época los viví más desde las repercusiones que los hechos tenían en la vida interna de la Iglesia. Después, especialmente desde el tiempo en que fui Obispo Titular de San Sebastián, los viví en función de la respuesta que la Iglesia había de dar a los problemas, de toda índole, que se planteaban a nuestro pueblo. Como decía antes, veía la vida como una llamada a implicarse en ella desde la perspectiva vocacional o desde la misión que cada uno ha de cumplir en su vida.

- El Obispo de San Sebastián, D. José Ma Setién parece que molesta a algunos dirigentes políticos, que arremeten contra usted tachándole de ambiguo, de querer hacer política..... etc. ¿Qué opina?

Que quizás tengan razón... con tal de que nos entendamos bien. Yo no hablo ni actúo por hablar y para que todo siga igual. Uno trata de influir en la vida, a fin de hacerla más conforme con lo que uno piensa y, en mi caso, con los valores éticos y evangélicos.

Lo social y lo político no pueden ser una excepción a esta exigencia. No aguanto que los mismos que piensan o dicen que los curas no hacemos más que “hablar”, se molesten cuando nuestra palabra “influye” en un sentido o en otro. Creo que, en definitiva, les gustaría que nos calláramos y los dejáramos en paz. Pero eso no puede ser así. Sería poner un “bozal” al Evangelio.

- ¿Hasta qué punto interesan a D. José Ma Setién la política y los políticos?

Desde el punto de vista de la fidelidad a mi ministerio de Obispo.



- Da la sensación que los medios de comunicación del Estado se fijan en el discurso del Obispo de San Sebastián, cuando José Ma Setién habla de E.T.A y de terrorismo, dejando a un lado otros aspectos que también contienen un mensaje social. ¿Se siente usted incomprendido, mal interpretado?

Pienso que si mi palabra fuera indiferente, nadie le haría caso. Tengo la impresión de que, en ocasiones, algunos pretenden defenderse de ella y de hacerla inoperante, porque no coincide con los propios intereses o proyectos políticos. Conozco y reconozco mis limitaciones. Pero pienso que en muchas de las críticas que se me hacen actúan mecanismos, más o menos conscientes, de defensa, sin el esfuerzo de búsqueda por una mejor comprensión de los problemas que vivimos.

- Una curiosidad, ¿qué es lo que más le interesa de los periódicos, en los que usted sale tanto?

Me interesa todo aquello que toca a mi tarea de Obispo, desde la perspectiva que interesa a la palabra que creo que he de decir o de los juicios que he de emitir. Pero tengo que reconocer que me gustaría poder leerlos más despacio y con más tiempo para pensar. Como es normal, me interesan también, sobre todo los lunes, las páginas deportivas, a pesar de los disgustos que, en ocasiones, nos da la Real. Este año se ha ido comportando cada vez mejor.



- Se habla de falta de vocaciones, que la Iglesia como institución ha perdido credibilidad, que tiene que evolucionar. ¿En qué momento está ahora la Iglesia Católica, cuál es el compromiso que tiene y/o que debe tener con la sociedad?

Tengo que reconocer que la Iglesia vive momentos difíciles y que uno de los signos de ello es la escasez de vocaciones. Yo diría que vive una búsqueda dolorosa de su propia autenticidad, sobre todo en las respuestas que tiene que dar a una sociedad en cambio. El peligro radica en mirar al pasado para reproducir formas de pensar y actuar que antes pudieron servir pero que no se pueden reproducir. Pero la Iglesia tampoco puede hacer “borrón y cuenta nueva”. Una Iglesia que se desdijera de su historia pasada no sería la Iglesia de Jesucristo. Comenzaría a ser una “secta” y yo no me apunto a eso.

- Se habla mucho de los jóvenes, se dice que la juventud de hoy es materialista, caprichosa y nada comprometida con la sociedad. ¿Cómo ve usted a la juventud?

No creo que sean ésos los calificativos que mejor definan a nuestra juventud. Se impone hacer un análisis más profundo. La juventud necesita razones para tener ideales, tomarse en serio la vida y comprometerse. Si no somos capaces de dárselas, la culpa está en los adultos y no en los jóvenes. En lugar de juzgarla o juzgarnos, sería mejor que juntos nos planteáramos, con sinceridad, el papel que hemos de cumplir ellos y nosotros en nuestra historia personal y comunitaria.



- ¿Cuál es su opinión acerca de la Objeción de Conciencia?

Tomada en serio puede ser una importante aportación para construir de otra manera la historia humana. Es lamentable que la historia se cuente desde las guerras.

- Estamos en el tan traído y llevado 92, me gustaría saber su opinión en cuestiones como Juegos Olímpicos de Barcelona, Capitalidad Cultural de Madrid, Exposición Universal de Sevilla.

Pienso que son expresiones socio-culturales que los pueblos han de tener y manifestar. Lo que no veo claro, quizás porque se me escapa una visión de conjunto englobante de estos acontecimientos y de otros como el paro, la reconversión industrial, la educación y la universidad, la justa distribución de renta, etc..., es la proporción del gasto en relación con una jerarquía de necesidades más estrictamente social y justa. Pero seríamos poco sinceros si no aplicáramos los mismos criterios a ingresos y gastos más personales.

- ¿Cómo ve la Conmemoración del V Centenario?

Como una oportunidad para ser agradecidos a cierta historia y también para ser más críticos y severos con ciertas formas de hacer esa misma historia.

- ¿Cómo valora la problemática que ha suscitado la creación en Bilbao del Museo Guggenheim?

No creo que ande muy distante de lo dicho en relación con lo que comentaba en torno al año 92.

- Volviendo al entorno Hernaniarra, ¿visita con frecuencia su pueblo natal?

Visito con alguna periodicidad a mi familia de Hernani. Siendo Obispo de San Sebastián, es decir, de toda Guipúzcoa, mis visitas al pueblo como tal siguen los mismos criterios de visita que a los demás pueblos guipuzcoanos. Quizás a algunos "hernaniarras" les gustaría otra cosa. Confío en que sabrán perdonarme si no actúo como ellos quisieran.

- ¿Está al corriente de cuál es la situación económica y laboral de Hernani en su conjunto, cómo ve

usted el cierre de la planta de Acenor, popularmente conocida como Orbegozo?

He tratado de seguirla de cerca. He tenido algunas conversaciones para informarme mejor. Es un tema que me ha inquietado y entristecido mucho. Además se me hace muy difícil prever en toda su gravedad, las consecuencias que de un hecho así se pueden seguir para nuestro pueblo. Los problemas políticos nos inquietan mucho. No deben inquietarnos menos los económico-sociales. Me preocupa una sociedad en la que el principio de la solidaridad se sacrifique al principio del "sálvese quien pueda". Eso no sería humano y mucho menos cristiano.

- Hernani ha cambiado, ha crecido, pero sigue teniendo unas fiestas patronales, calificadas por muchos como "las mejores de Guipúzcoa". ¿Cómo eran los San Juanes de D. José Ma Setién?

Pienso que muy alegres, siempre bulliciosos, y, en todo caso, "populares". Eran las fiestas del pueblo de Hernani, aunque atraían muchas gente. Me gustaría que siguieran siendo así y que todo el mundo tuviera derecho a divertirse pero sin impedírselo a los demás.



- Finalmente, ¿qué pediría para los Hernaniarras y qué pediría a los Hernaniarras en estos San Juanes 92?

Acabo de decirlo. En otras palabras, que fueran una señal vigorosa y significativa de que todos podemos sentirnos muy unidos en el deseo de darnos alegría y felicidad, aunque haya otras razones que nos dividan en nuestras formas de pensar y de actuar. La "fiesta" debería ser un mensaje y un anuncio de la voluntad de todos de vivir en paz.

Este cuestionario ha sido formulado en Marzo de 1.992.



2017

ATSOLORRA, EUSKAL JAIOTZE ERRITOA EREÑOTZUN

“Haur jaioberriei ongi etorria egiteko
Atsolorra egiten jarraitzen dute Ereñotzun”

Idurre Lekuona Antzizar
(HERNANI 2017)



Fagollagako Atsolorra (argazkia: “Fagollagako euskal sukaldea” liburua).

Euskal jaiotze errittoa da Atsolorra. Garai batean ama erditu berriari eta haurrari bisitan joaten zitzaizkien auzoko emakumeak igande arratsaldean. Hark afari-merienda ematen zien esker onez. Bide batez, kontu kontari aritzen ziren honetaz eta hartaz. Ohitura zahar hori galtzear egon da azken hamarkadetan eta Ereñotzun berreskuratu egin dute azken urteotan.

Igande arratsaldeko bisita

Noiznahi izaten omen zen atsolorra garai batean, baserri batean ez bazen, bestean, besteak beste, haur asko jaiotzen zelako. Haurra jaio zela jakinda, ama bizkortu arte pixka bat itxoin eta hantxe joaten zitzaizkion igande seinalatuan etxe bakoitzeko emakume bana, jeneralean etxeko zaharrena, amari bisitan.

Orduko Atsolorrak ezagutu zituzten pertsonak badira oraindik Ereñotzun eta horien esanetan, orduan emakumea ez zen nolanahi ateratzen etxetik, eta Atsolorra aitzakia ederra izaten zen lagunekin elkartu eta kontu kontari aritzeko; zenbaitetan festa giroa ere sortzen omen zen. Diotenez, desiratzeko egoten ziren emakumeak hurrengo Atsolorra noiz izango. Gehienek merienda dute gogoan eta festa giroa ere aipatzen dute baten batzuk.

Bisitariak ez ziren esku hutsik joaten. Jakina izaten zen zenbat diru eman behar zen horrelakoetan (bost pezeta gehienek esanetan), urteen poderioan igotzen joan bazen ere. Tripa ederki beteta alde egiten zuten bueltan. Otordua segurua zen: gisatua eta xerra piper morroekin ematen zuten etxe guztietan. Eta gainera gainerakoak: sagardoa, pitarra, ardoa, kafea eta pattarra. Gero gerokoak.

Haurra jaio berria zen etxera ailegatu eta lehendabiziko zeregina umea eta ama ikustea izaten zen. Handik aurrera mahaian eseri eta jaten hasten ziren. Bitartean kontu-kontari aritzen ziren, bataren eta bestearen kontuak esaten, hango eta hemengo kontuak berritzen. Batzuetan jokoan ere aritzen ziren. Eta zenbaitetan harrokeriatan ere bai.

Lagun artean egoteko aitzakia

Igande arratsaldeetan, bazkalondoren, emakumeak bidera ateratzen hasten ziren eta elkarren arri-muan hantxe joaten ziren bisitatu beharreko etxeraino. Etorri ere hala egiten ziren, askotan ilunpetan, ahal zenean farola eskuan hartuta. Zenbaitetan iluntzean algara ederrak entzuten zirela gogoan dute Ereñotzuko auzotar batzuek.

Jeneralean etxeko emakume zaharrena joaten zen, beharrezkoa bazuen, neska koskorak lagunduta. Hura ezintzen zenean, alaba edo etxeko beste emakumeren bat bidaliko zuen. Baziren atsolorretan eza-gunak ziren emakumeak, Fagollaga aldekoak eta; haiek tartean baziren, festa segurua izaten omen zen. Emakume haien kontuak ongi gogoan dituzte auzotarrek: gonak altxata nola ibiltzen zen halako, edota elurretan eseri eta marka utzi zuenekoak...

Atsolorra aipatuz gero, jende askori irribarrea etortzen zaio ahora. Batzuetan merienda lasaia izaten zen; beste batzuetan, ordea, festa sortzen zen, zurrutak

lagunduta seguraski. Horregatik, besteak beste, auzotarrek gogoan dituzte atsolorretan gertatutako hainbat pasadizo. Esate baterako, auzotar batek gogoan du neska koskorra zela Atsolorra batera bidali zutela; han mahai erdian jarritako platerera iristeko gauza ez, eta emakumeek sagardoa ematen ziotela “edantzan” esanez, eta etxerako bidea tximistak ikusten zituela egin zuela.

Jaiotze erritua

Merienda eta festaz gain, ordea, Atsolorrak badu esanahi sakonagorik. Atsolorra euskal jaiotze erritua dela diote aditu batzuek. Horrenbestez, gizarteak ezarritako eta ongi araututako erritua da Atsolorra. Hori egin aurretik beste pausu batzuk bete behar ziren.

Antzina haur jaio berrien heriotza tasa oso altua zen, horregatik, haurra lehenbailehen bataiatu behar izaten zen eta ama makal samar bazegoen, beste norbait bidaliko zuen haurra bataiatzera. Behin ama bizkortuz gero, lehenengo gauza elizara joatea zen. Erditu eta lehenengo aldi hori, *Elizan Sar-tzea* esaten zitzaiona, oso berezia zen. Elizan sartu aurretik apaizak halako bedeinkazioak egiten zitzaizkion amari eta behin hura eginez gero, orduan sarzitekeen ama elizan.

Hori ez zen, ordea, ama erditu berriaren betekizun bakarra: elizan sartu arte emakumeek ezin zuen kalean nolanahi ibili eta etxetik ez ateratzen saiatzen ziren; atera behar izanez gero, zapia buruan jarrita atera behar izaten zuten, eta teila buruan jarrita ibiltzen zenik ere bazen. Ereñotzuko adineko pertsona batzuek entzuna dute kontu hori eta inork ikusia ere bai.

Ama purifikatzeko errito horiek guztiak bete ondoren, haurraren gizarteratzea zetorren: Atsolorra. Bertan, amak haur jaioberria aurkezten zien auzotarrei eta horiek bisitaren bidez beren babes adierazten zieten amari eta haurrari. Amari auzoaren babes eta laguntza adierazteko ekitaldia zen, beraz, Atsolorra. Edonola ere, aipatu behar da Atsolorra, aurreko ekintzak ez bezala, ez zela errito erlijiosoa.

Antzinako ohitura

Ikerlariak diotenez, antzinako ohitura da Atsolorra. Ereñotzun ez ezik, Urnietan, Errearterian, Oiarzun eta Gipuzkoako eta Bizkaiko beste zenbait lekutan jaso dira testigantzak; horietako leku batzuetan *Martopila* edo *Bixita* esaten zaio Atsolorrari. Ohitura hori duela hamarkada batzuk arte mantendu zen, baina galtzearen egon zen ia leku guztietan. Errearterian, esate baterako, galdu da dagoeneko.

Hori dela eta, Ereñotzun, beste zenbait lekutan bezala, ohitura berreskuratzea erabaki zuten duela urte

batzuk. 2012 urtean hasi ziren berriz egiten Ereñotzun. Atsolorra, garaiak bezalaxe, dezente aldatu da: orain gurasoak eta nahi duten guztiak joaten dira Atsolorrera, aurreko urtean jaiotako haur guztien Atsolorra batera egiten da, eta orain arte, behinik behin, auzo udalaren aretoan egin da bilkura. Aldaketak aldaketa, komunitateak haurrari eta amari babesa azaltzea da orain ere helburua.

Elkarri laguntzeko modua

Atsolorra ez da gertaera isolatua. Gizarte, garai eta bizimodu baten adierazgarria da. Nekazal munduan ohikoak izan dira elkarri laguntzeko ekintzak eta adierazpen sinbolikoak. Bizimodu komunitarioaren adierazgarria da Atsolorra. Bizimodu horretan auzoek elkarri laguntzen zioten, eguneroko zereginetan eta, batez ere, bizitzako une garrantzitsuetan. Bizimodu horren ezaugarria da Euskal Herrian hain ezaguna den auzolana, eta auzolan eta harreman horren adierazgarria da, besteak beste, bisita.

Auzoko norbait gaixotzen zenean, erditzen zuenean edota ezbeharren bat jasaten zuenean (etxea erre,

esate baterako) auzokoen laguntza jasotzen zuen. Auzolanak zen irailean inistor bila joateko aurretik egiten zen araldia ere, bideak txukuntzeko, idi-gurdiei bidea errazte aldera. Eta bizimodu komunitario horren adierazgarri garrantzitsua dira oraindik heriotzaren inguruko erritoak ere. Horrelakoetan, auzoek elkarri laguntzen zioten.

Atsolorra hitzaren esanahiaz

Asko hitz egin da Atsolorra hitzaren esanahiaz. Hain zuzen ere, Bizkaia aldean jaso dira bizimodu komunitarioaren adierazgarri diren bestelako –lorren adierazpenak. Esate baterako, artzain berriak artaldea osatzeko bildots-lorra egiten zuen eta auzo-koek ardi bana ematen zioten artaldetxo bat osa zezan; era berean, ongarria behar bazuen, simaur-lorra deitzen zuen eta auzokoek ahal zuten simaurra ematen zioten.

Era berean, Atsolorrean emakumeek beren laguntza eskaintzen zieten haur jaioberriari eta amari. Beraz, Atsolorra beren laguntza eskaintzera biltzen diren emakumeen bilera da.



1995

AZERI DANTZA URTETEAN ZE HAR

Xabier Iriarte Ansorena
(HERNANI 1995)



Azeri dantza izenarekin gure herrian urteetan zehar bai San Joanetan edo lhauterietan ikuskitun mota bat ospatu izan ohi da.

Festa honen ezaugarrietariko bat dantza-joko desberdinak eginez, ikusle zein partehartzaileak dibertizea izan da.

GARAI BATEKO AZERI DANTZA

Garai batean ohitura honek, Euskal Herri guztian hedatuta egon bazitekeen ere, arrakastarik handiena Gipuzkoako Beterren lortu zuen. Horrela izan dela egiaztatzeke, eta gure herriari

konkretuki dagokionez, jai honi buruz aurkitu dudan lehenengo aipamena 1735. urtekoa da, dena den XVIII. mendean erreferentzi garrantzitsu batzuk idatzirik aurki daitezke.

Hauetako batean Aita Larramendi (1690-1766) andoaindarrak, baina Hernani ondo ezagutzen zuenak, Azeri dantzari buruz 1754an idatzitako liburu batean, honela zioen:

“... Vístense ridículamente y tienen sus sonos particulares. Bailan, ya dándose las rnanos, siguiendo en línea al capitán, ya sueltos unos tras otros, con vueltas, cabriolas, campanelas y otros movimien-

tos. Vuelven a atarse de manos; desátalos el son siguiente, y empiezan las mudanzas, que son varias y bastantes, y todas siguiendo el compás del tamboril...” Esta danza se usa “... sólo en Beterri” (Tolosa, Hernani, Urnieta...), “... por San Juan” “ y sirve de preambulo a los toros que se corren por la mañana...”.

Beste idatzi batean, Guillermo de Humboldt-ek, alemaniar bidaiaria 1801. urtean Gipuzkoa bisitatzen ari zela. Hernaniko azeri dantzaz honela zioen:

“... Todos los danzarines se agachan, cada uno con dos cortos garrotes gruesos en la mano, en una hilera unos detrás de otros y el de detrás le sujeta siempre al de delante por el pie. Uno solo está, en pie y tiene un tizón en la boca. Con él intenta besar a los otros y le deben desviar sin perder el equilibrio en su incomoda postura...”.

Antzeko zerbait J.I. Iztuetak (1767-1845) historiagile eta dantzari ohia 1824. urtean Gipuzkoako dantzei buruzko liburu batean honela azaldu zuen:



BIZARRAK ERRETIA - Lekeitio J.C. Iribarrenek sortutako irudia.

“... Azeri dantza eguiazcoa, eguin oida diaquinde edo funcio aundiak bucatu ondoan, eta iñauterietan... Dantza mota au guciz da chistoso, farragaria eta pozquidatsua. Batean illeti iracequiarequin buruzariac ematen die su, sudur zuloetan lendanaz sartutaco mullo puscaetatic... Besteac beguiac estaliric dauzcatela sartu bear dituzte buruac, soinuaren azquenengo puntuan, ustai chiqui batean, ceña egon oidan chinchillica soca batetic plazaren erdian...”.

Aipatzekoa da halaber, Iztuetak, dantzen melodiak azaltzerakoan, Azeli dantzarena gaur egun Hernanin ezagutzen dugun antzekoa idatzi zuela.

Hernanin, XVIII, mendean zehar Azeri dantzaren presentziaren lekukotasunak artxiboko zenbait aipamlenetan ere aurki daitezke. Hauen arabera, herriko zein inguruko jendeek parte hartzen zuten eta horren truke gosaria pagatzen zitzairen.



Azeri dantza Andoainen. “Dorre Borrokak”.

Bestalde, Lekeitioko herrian 1737 urteko erreferentzia batean “Bizarrak erretia” izenarekin antzeko jokuaren aipamena jaso izan da:

“Comenzaba con diferentes mudanzas de VOLATINES (pelea puestos unos sobre otros encima de brazos y hombros) y se remataba andando todos sobre un pie y agarrando del otro pie al que precedía. El que guiaba traía en la boca un tizoncillo ardiendo e iba quemando a cada uno las barbas”.

Honekin lotuta Hernaniko artxibategian 1735. urtean Azeri dantzaren aipamena azaltzen bada ere hurrengo urtean honen ordeztu “VOLATINES” izeneko dantzarietako aipamena egiten zaie era berdinean.

Datu guzti hauen arabera Hernanin egiten zen Azeri dantzaren egitura antzeko erreferentzia jasota izan da.

GAUR EGUNGO AZERI DANTZA

Azkeneko mende bukaeratik gutxienez, eta gaur arte, bi motatako azeri dantzak ezagutzen ditugu Beterri inguru honetan.

Lehenengoa, Andoain, Aduna eta Oreretan ospatu izan ohi da eta zer ikusi handia dauka garai bateko jokuen konfigurazioarekin.

Garai bateko jokoei dagokienean, batzuk desagertu egin dira, beste batzuk, berriz, mantendu, hala nola, "Volatines" edo "Dorre"-en arteko borrokak. Joko berriak ere sortu dira. Festaren eskema nahiko bedina da eta herriaren arabera ihauteri, San Joan edota herriko festetan ospatzen da.

Iztuetak bere liburua idatzi zuenetik, mende honen hasierarte, festa honen bilakaera jarraitzeko erreferentzia gutxi aurkitzen dira. Andoaingo artxibategian 1844-47 urteetan soilik agertzen dira aipamenak.

Gaur egun, Andoainen egiten den Azeri dantza, Adunan 1929. urtean azkeneko aldiz egin zenaren modukoa da. Bertako zaharrek, ordurako, ohitura zahartzat hartzen zuten.

Bigarren Azeri dantza mota Hernanin egiten da. Joku-dantza bakarra da eta Maskuri dantza izenez ere ezaguna da.

Beste herrietan gertatu ez den bezala, Hernanin, 1887. urtea geroztik gutxienez gaur arte, ia urtero ospatu izan da joku dantza bat, non, maskuria elementu garrantzitsua zen eta gizon soka protagonista.


Egun, 15 lagun inguruko taldea 20-25 metroko soka bati helduta doa. Bakoitzak esku batean maskuria daramala, txistularien musikarekin lagunduta, herriko kaleetan zehar jendea harrapatzea dute helburu, segidan maskuriarekin jotzeko. Horretarako, alde zaharran bi sarbideko etxe zein dendak erabiliz, beren buruak izkutatzuz jendea ezustean harripatu izan ohi dute.

Aita Donostiak (1886- 1956) jasota, mende honen hasieran dantzariak berdin ibiltzen ziren, baina herriko zenbait tokitan gelditu eta ordurarte melodia "lento"z jotzen bazuten ere, une horretan "allegretto"ra aldatuz mutilek makurtu eta sokaren gainean horrelako figura egiten zuten:

Aipatutako ibilera galdu bazen ere, azkeneko urteetan ihauterietan berreskuratu izan da, dena den, aspalditik Azeri dantzan bai hasieran eta bukaeran sokaren atzeko bi muturrak lurrean utzirik lagun guztiak gainetik pasatzen dira. Zati honi, Ansore-



Azeri dantza Hernaniko Ihauterietan. Soka gaineko dantza.



natarrek -herriko txistulari ospetsuek- melodi berria erantsi zioten, egun doinu hau amaitzerakoan denak lurrean maskuria utzita haien gainean salto eginez lehertzen saiatzen dira.


Aipamen zaharretan, dantzariak poltsikoan irina eta bestelako koloragailuak eramaten zituzten, nahasmen unetan nesken aurpegiak zikintzeko.

Ohizkoa zen halaber balkoitik igotzea eta etxe barrura sartzea. Honi buruz Aita Donostiak zera dio: **“Sokari helduta zihoanak ezin zen inolaz askatu, are gutxiago etxe barruan, betirako desondratuta geldituko baitzen”.**

Garai batean umeez honako kanta abesten zuten dantzaren melodia berdinarekin:



Azeri dantza, Hernaniko San Joanetan. Bukaerako dantza.



**AZERI DANTZA
TXIBU TXIBULETE
OPILA JANDA KONKETE
TXIBU TXIBULIBU
TXIBULI LIBULETE...**

Bestelako ohitura bat ere bazen, hau da, zenbait etxe edo dendatetik pasatzerakoan janari batzuk hartzea. Horrela 1917. urteko prentsan jaso:

“La azeri dantza recorrerá las calles, karkabas y cuantas casas tengán abiertas sus puertas. Las amas y menegildas tendrán a buen recaudo los perniles, chorizos, lukainkas, etc..., con lo caras que están las subsistencias, su desaparición por arte Birli-birligue pudiera dar origen a una alteración de orden... doméstico”.

Honelako jarrerak eta izkutuan ibiltzea, jendea harrrapatzeko, azeriaren ibilerarekin zerikusirik baduen ustea zabaldurik dago.

Azken urteetan gainera, pertsonaia bat buruan azeria daramala taldearekin aritzen da. Honek, sokakoak izkutuan daudenean jendea distraitzen du. Figura berri hau oso ondo onartua izan da.

Joko honek Azeriaren ibilerarekin lotura baduen ustea argitzea zaila gertatzen da. Dena den, izenak eman dio jendeari erlazionatzeko aukera. Nola nahi ere, joko hau beste garaiko Azeri dantzan ez bazen ere, konfigurazio horren babesean sortua izan daiteke eta horregatik izen honekin ezagutu.

Mende honen hasieran, eta orduko ihauteri arrakastatsuetan Azeri dantzak protagonismo izugarria hartu zuen.

Gero, 1936ko gerraren ondoren ihauteriak debekatu zirenez, San Joanetan egitea erabaki zen modu berdinean.

Azkeneko hamarkadetan horrela mantendu da eta egun, bai San Joanetan eta baita Ihauterietan ospatzen da.

Hernaniko atzoko eta gaurko azeri dantzaren artean geratu zaigun lotura bakarra, jotzen den doinua da, baina bestelako jokuen arrastorik ezean inguruko herrietan antzeko zerbait jaso denez, hurrengo belaunaldietarako erakustea komeniko litzateke.



2013

LUIS TELLERIA: "EL AZERI LE APORTA SOSTENIMIENTO A LA AZERI DANTZA"

Jon Odriozola
(HERNANI 2013)

El padre del azeri (zorro) no se imagina ni carnavales, ni San Juanes, sin Azeri Dantza. El año de su puesta de largo (1988), el azeri supuso un complemento. "Hoy en día -añade Telleria- su presencia está consolidada y es una figura que realza la Azeri Dantza". El azeri, 25 años después, se ha consolidado.



En San Juanes de 2013, ha recibido Luis Telleria el reconocimiento por los 25 años del "azeri".

La azeri dantza, para ti, es un acontecimiento especial.

Sí. Viví en la plaza y lo he conocido desde pequeño. Entonces no solía salir tanta gente como ahora. Los componentes de la cuerda rodeaban y pegaban al primero que pillaban: a la que salía de compras... Hasta subían a los balcones. Había madres que abrían la puerta del balcón para que despertaran de la cama a los hijos a golpe de maskuri. He presenciado también -hace más de 40 años- como los integrantes de la Azeri Dantza entraban en la iglesia, escuchar el golpeo de los maskuris, y verlos salir por otra puerta.

¿Cómo se gestó hace 25 años la incorporación del azeri?

Un día que estaba en casa frente al televisor, se me encendió la luz viendo como una tribu africana bailaba, gesticulaba e interpretaba los movimientos de

las jirafas, como las cazaban, etc. Y pensé: "Eso lo podemos aplicar a la Azeri Dantza".

Antes, los componentes de la cuerda, nada más empezar la Azeri Dantza, comenzaban a pegar. No había un baile previo como ahora, aunque existen escritos que señalan que "...el ayuntamiento le pagará una cena al dantzari". Eso quiere decir, que antiguamente participaba un dantzari en la Azeri Dantza.

En mi intento de recuperarlo, expuse la idea del azeri al entonces presidente de la Sociedad Txantxango-ri: Mauri López de Zubiria. Me dijo que mantendría una reunión con los integrantes de la cuerda en la que tratarían mi propuesta. Tras una votación, aceptaron la incorporación del azeri a la Azeri Dantza.

Pero no todos compartieron la idea. El nacimiento en 1988 del azeri, no fue un parto sencillo.

Al enterarse personas que estaban en torno a la Azeri Dantza, pero que desconocían la propuesta, mostraron su desacuerdo. Por ello, se organizó una reunión en la casa de cultura, Biteri. Acudió mucha gente. Tras una conferencia pronunciada por el etnógrafo Antxon Aguirre Sorondo, tomé la palabra acompañado del dantzari Mikel Intxaurburu -el primer azeri- para explicar la iniciativa.

Cuando comencé a hablar sobre la idea del azeri, algunas personas me silbaron, apagaron la luz... Mikel y yo aguantamos el chaparrón. Después de que se calmara el ambiente, hubo una votación en la sala, a mano alzada, sobre la propuesta de incorporar al azeri a la Azeri Dantza. La votación apoyó la propuesta.



Una de las primeras apariciones del azeri en al Azeri Dantza. Mikel Intxaurburu es el "azeri".

¿Tuviste que buscar aliados para seguir adelante?
Conté con el apoyo de la directiva de la Sociedad Txantxangorri, de Imanol Larretxea, etc. Imanol solamente había conocido la Azeri Dantza de sus padres, etc. Es decir, la dinámica, 'salir y pegar'.

Diseñaste el azeri, la coreografía de los bailes...

Sí. En la Azeri Dantza existen 'tiempos muertos'. Momentos en los que los integrantes de la cuerda se esconden para irrumpir por algún otro lugar. Para avivar esos momentos, con la ayuda de los txisturalis, el azeri, le aporta sostenimiento a la Azeri Dantza.

El azeri tiene su particular historia.

Cuenta la leyenda que un baserritarra, tras bajar del caserío a una sidrería del pueblo, contó en unos carnavales hernaniarras, cómo se había apoderado del pellejo de un zorro. Lo exhibió. Entre kupelas narró las vicisitudes que vivió en el gallinero para dar caza al zorro: saltando, etc. En la Azeri Dantza, el azeri, hace exactamente lo mismo: se mueve de un lado a otro, salta... De ahí surgió la idea de la figura del zorro.

El azeri es la guindilla de la Azeri Dantza.

Sí. El azeri baila por primera vez en la plaza al comienzo de la Azeri Dantza. Después de hacer una reverencia al pueblo con el ayuntamiento de fondo, dirige a los componentes de la cuerda, pero cuando comienzan a pegar se retira y se mueve a su aire a lo largo de todo el recorrido. ¿Su labor? Dar vidilla a los 'tiempos muertos': azuzar, enredar, saludar a los más pequeños...

Hiciste también de sastre diseñando la indumentaria del azeri.

Así es. Por eso, me da pena que en 25 años se hayan descuidado algunas cosas: el azeri salía con unos cascabeles en los calcetines que avisaba de su presencia, algunos pasos del vals que se baila a la altura del Bar Irizar, han desaparecido... El vals que se baila en estos dos lugares, me gustaría que lo bailara no solo el azeri con una persona, sino que se involucraran todas las personas que en ese momento se encuentren alrededor.



En los primeros años, el azeri, entraba en las tiendas y robaba productos. Eso suponía tener que estar al tanto de él como de la reacción del comerciante.

Efectivamente. Los zorros, roban. Y el nuestro, también. Una vez, el azeri entró en la tienda Oa, cogió unos huevos y huyó pitando. La empleada del establecimiento también; salió como una bala tras él. En otra ocasión, tras robar unos huevos, se los ofreció a una persona. Nada más cogerlos, el azeri, se los reventó en las manos. ¡El zorro en estado puro!

¿Pensaste en algún momento si la aportación del azeri no cuajaría?

Tenía fe que no sería un acto puntual y que iba a gustar. La experiencia de la primera edición fue muy positiva y mucha gente me felicitó por el resultado final.

Conoces muy de cerca la Azeri Dantza.

Sí. Tras volver del servicio militar, a lo largo de tres años –en la década de los sesenta– fui componente de la cuerda. Para un hernaniarra, salir en la Azeri Dantza, es un orgullo. La única ley que hay entre los componentes es que a la hora de pegar no se debe de soltar nunca la cuerda. Por otra parte, el público debe respetar a los txistularis y a los componentes de la cuerda. Si te pegan, no puedes devolverles los golpes, ni insultarles. El que acude a la Azeri Dantza sabe a lo que va.

Antes había más opciones de realizar una Azeri Dantza más variada.

Sí. Algunos establecimientos han cerrado la puerta posterior del comercio. Antes, todos los portales que tenían puerta trasera, solían estar abiertos y eso daba muchas posibilidades para desaparecer y aparecer. He conocido muchos lugares. Por ejemplo, entrar en la cárcava -la callejuela que comienza tras pasar la pequeña puerta que se encuentra detrás de la fuente de la plaza- y llegar, entre casas, hasta la calle “Zapa”.

AZERIKERIAK

Mende laurdena bete du aurten azeriak lehen aldiz Azeri Dantzaz azaldu zenetik. Erdi ezustean. Nola bestela. Harrez gero, ez du hutsik egin. Esaerak dioen bezala, "Azeri zaharra, goizean goiz lanean". Xaxatu, probokatu, saltsa sortu, 'bildotsen' -herritarren- artean ibili... Izan ere, "Sortzetik du azeriak maltzurkeria". 25 urtetan zehar Azeri Dantzak bederatzi azeri izan ditu.

MIKEL INTXAURBURU (Hernani, 1972). Azeri Dantzako lehen azeria izan zen. Garai hartan, Mikelek, dantza askatuko lehiaketetan parte hartzen zuen Gurutze Telleriarekin batera. Bere aitak, Luis Telleriak, Mikelen-gana jo zuen buruan bueltaka zebilkion ideia proposatuz: "Baietz erantzun, eta aurrera egin genuen". Orduan, zenbait kuadrillak, Azeri Dantzaz barrikadak egiten zituzten, eta sokako partaideek arazoak izaten zituzten aurrera egiteko. Horri aurre egiteko, adibidez, azeriaren sorrerak egoera arindu egin zuen.

"Azeriaren ideia gauza berria izan zen, eta ez genekien nola egin, eta nola asmatu", dio Mikelek. "Niri, adibidez, azeritxo bat buruan jartzea bururatu zitzaidan. Kili-kolo zegoen azeri diseinatu bat konpondu eta maskara bat egin nuen. Era horretan beldur gutxiago izan nion hasiera hari. Gainera, horri esker, nahiz eta dantzaria aldatu, inork ez zuen jakingo nor ezkutatzen zen azpian".

17 urterekin irten zen lehen aldiz Mikel. "Batzuek onartzen zuten azeriaren ekarpena; beste batzuek, ez", dio. "Gauza asko aldatu dira harrez gero". Mikel irina eta arrautzak botatzen... ibiltzen zen; baita dendetan 'lapurretan' ere. Zirikatzen. Orain normaltzat ikusten dena, hasiera ez zen hala izan: "Halere, guztia, nahikoa espontaneo izan zen. Jendeak asko lagundu zidan. Herritarrek etxeetara gonbidatzen ninduten, eta irina, etab. eskatzen nizkien jendeari botatzeko. Ez zen aldezturik prestaturiko zerbaite; 'igo hona' esaten zidaten. Eta ni, gora, noski!". Dendetako 'lapurretekin' arazo gehiago izan zituen: "Batzuetan, Telleria atzetik ibiltzen zen nik harturiko produktuak ordaintzen!", dio irribarretsu.

Anekdotak mordo bat ditu Mikelek baina bitxiak etxe batean sartu zenean gertatu zitzaion. "Kale Nagusiko adineko emakume batek bere etxebizitzara igotzeko gonbita egin zidan. Bertara sartu orduko galdezka hasi zitzaidan: noren semea nintzen... Nire amona ezagutzen zuela ohartu zenean, 'geratu nahi al duzu gosaltzen?', galdetu zidan. Nik baietz erantzun nion. Maskara kendu eta jaten hasi nintzen Azeri Dantzakoak kalean barrena zebiltzan bitartean. Ordu erdi

pasatxo igaro nuen gosaltzen, emakumeak, nire amonaren pasadizoak kontatzen zizkidan bitartean. Amaitzean, bat egin nuen Azeri Dantzarekin".

Mikel urtetan azeri izan ostean, San Joanetako Azeri Dantza mistokopartaide ere izana da: "Biek-azeriak eta sokak dute beren xarma; sentsazio ezberdinak bizi izan ditut. Bietan, ondo". Azeri Dantza "herriaren festa" bezala definitzen du, eta azeriak ekimenari "berritasuna eta bizitasuna" eman diola uste du.



Xabier Zilbeti "azeria", Xabier Segura eta Luis Telleriarekin, "azeriaren aita".

XABIER ZILBETI (Hernani, 1964). Azeri Dantzak une ezberdinak bizi izan dituela gogoratzen du Xabierrek: "Garai batean, adibidez, askotan ez zen jende kopuru nahikoa osatzen sokarako ere, eta ohikoa izaten zen arkupetatik barrena azaldu eta 'sokan parte hartu nahi al duzu?' gonbita jasotzea". Inguru horretan ibilia da Xabier: sokako partaide, maskuriak eramaten...

Luis Telleriak Xabierrengana jo zuen azeri izateko Mikelen lekukoa hartu zezan. Herriko Urtza taldean dantza egiten zuenez iritsi zitzaion gonbita, eta plaza-gizona izateak, ausardia eman eta urduritasunak uxatu zitzaion azeri gisa parte hartzeko. Xabierrek markatutako gidoia egiten ei zuen, eta ez zela paperetik gehiegi ateratzen aitoritzen du. Ez zitzaion irina, etab. botatzea askorik

gustatzen. Dendaren batean sartu, eta txorixoren bat lapurtu izana gogoratzen du, baina era sinbolikoan egin omen zuen: "Aldiz, umeek azeriaren beldurra galdu zezaten ahalegindu nintzen".

Inauterietan oso gutxitan parte hartu izan du - behin edo bitan -, oro har, San Joanetako azeri izan da Xabier: "Garai batean inauterietako eta San Joanetako Azeri Dantzako antolakuntza bi kuadrilla ezberdinen esku zegoenez, horrek ere azeria bat edo beste izatea eragiten zuen". San Joanetako Azeri Dantzako hiru egunak, hernaniarrentzat data bereziak direla uste du: "Egun, Azeri Dantzak izugarritzko arrakasta du; orain, goizean goiz biltzen den jendetza garai batean ez zen ikusten".

Izarren aurrean azeriak dantzatzeko duen baltsa berezia delakoan dago Xabier. "Une horretan, adibidez, adineko emakumeren bat... ateratzen ahalegintzen nintzen; presztzegoenarekin egiten nuen dantzan".

Azeri gisa, ekitaldi amaierako argazki saioa, Xabierrek ez zuen ia ezagutu: "Nire garaian ez zegoen joera hori nahiz eta azken urteetan indar hartzen hasi. Inork proposatzen zidanean, apur bat harrituta geratzeaz gain, lotsa pittin bat ematen zidan".

Azeriaren ekarpenak, Azeri Dantzari, ikusgarritasun gehiago eman diola uste du Xabierrek. "Azeri Dantzak, arrakasta, berezkoa du. Bere berezitasunarengatik gustukoa du jendeak. Hernaniarrak da; oso gurea. Ikustera joanez, jendea konturatu da era honetako ekitaldiak zaindu eta mantendu egin behar direla. Ez hori bakarrik, baita belaunaldiz belaunaldi helarazi ere". Gaur egun, Azeri Dantza ez litzateke ulergarria izango azeriaren figura gabe; belaunaldi berriek hori ezagutu baitute. "Halere, azeria, protagonista den bezala, nire ustez -azpimarratzen du Xabierrek-, sokako partaideak Azeri Dantzako heroiak dira".



LARA MITXELENA (Hernani, 1985). Txikitik dantzaria izan zenez, Azeri Bila lasterketako antolatzaile batek, azeri gabe geratu zirenez, lasterketaren hasieran dantza egin nahi ote zuen proposatu zion: "Baitez erantzun, eta Azeri Dantzako dantza ikasi eta irten nintzen.

Ordutik hamar bat urte igaro dira". Horren ondorioz, hurrengo urtean, Larari, Azeri Dantzan irtetea eskaini zioten; oraingo honetan, 'ez' erantzun zien. "Lotsa, errespetua... ematen zidan. Neure buruari esaten nion, gauza bat zela leku jakin batean dantzan egitea, eta beste bat oso desberdina Azeri Dantzan irtetea", dio Larak.

Gonbit berri baten ostean, zalantzak gaintuz, handik urte batzuetara, urrats handi bat ematea deliberatu zuen. 'Ba proba egingo dut ba!', pentsatu, eta parte hartzea erabaki zuen. "Baiezkoa esan, eta inauterietan Langile Ikastolak antolatzen zuen umeen Azeri Dantza irten nintzen", gogoratzen du. "Hura izan zen nire lehen esperientzia azeri gisa".

Harrez gero beste bi aldiz izan da Lara azeria: bai inauterietan, eta bai San Joan jaietan. Batean edo bestean azeri rolean aritzea, oso ezberdina dela dio: "Inauterietan publikoa, batez ere, gurasoak euren haurrekin, eta gaztetxoak izaten dira. San Joanetakoa, berriz, beste kontu bat da".

Larak ez du ahazten San Joanetako Azeri Dantza mistoan (ekainaren 27an) bizi izandako uneak. "Esperientzia oso ona izan zen eta oso gustura ibili nintzen", azpimarratzen du.

Azeri bezala irteteko egunaren atarian, bezperan, Larak ez zuen apenas lorik egin: "Ezer ere ez! Tximeletak nituen sabelean. Martxan jarri aurretik Coca Cola edaten aritu nintzen indarrak hartzeko". Azeri Dantza abiatu baino lehen, udaletxe atzean egiten dira prestaketetan -abarkak lotu, azeri burua ipini...- "oso-oso urduri" zegoela oroitzen da.

San Joanetako Azeri Dantzan parte hartu zuen ekitaldi hura, "oso motza" egin zitzaion, nahiz eta ibilbide guztian zehar jendetza egon. "Hasieran, lehen dantza, urduri egin nuen baina behin Andre kalerantz abiatu orduko asko lasaitu nintzen".

Larari, azpimarragarria egiten zaio hernaniarrek azeriari dioten adeitasuna. Askok errespetatzeaz gain benetan gogoko dute: "Begirunea zaio".

Saioa bukatu orduko, hasieran, Larak ez zuen jendaurrean azeriaren burua kendu nahi izaten; moztzearen atzean nor zegoen ez salatzeke: "Isilpean mantendu nahi nuen".

Une oro, denek nahi dute azeriaren ondoan egon. "Umeek azeria asko maite dute, nahiz eta beldurtu egiten diren. Horren lekuko, Azeri Dantzaren amaieran, azeriarekin argazkia atera nahi izatea. Izan ere, azeria, nolabait, herriko irudia bihurtu da", dio Larak.



EKAIN SARDON (Hernani, 1978). Estreinakoz, 2000. urte baino lehen irten zen Inauterietako astelehen batean, gaztetxoek Azeri Dantzan: "Xabier Segurak ezin zuenez irten, eta berarekin dantzan ibilia nintzenez, parte hartzea eskaini zidaten. Ez nuen bi aldiz pentsatu. Gerora ere San Joanetan irtena naiz".

Azeri lanetan aritzea polita dela aitortzen du San Joan egunean jaiotako hernaniar honek: "Herritarrentzat garrantzi handia du Azeri Dantzak. Goizeko ikustera joaten den jendetza da horren lekuko. Eta ekitaldiko pertsonaia nagusienetarikoa den moztorropoan aritzea ez da ahuntzaren gau erdiko ez-tula. Alde batetik polita da, baina presioa ere antzematen da; jende guztia ibiltzen da azeriaren atzetik, eta gaztetxoek inguruan bueltaka aritzen direnez -isatsetik tiraka...- estualdi puntu bat ere sumatu izan dut. Halere, oso gustukoa dut".

Haurren begiratua, nahiz eta azeria eurengana hurbildu orduko bat baino gehiago negarrez hasi, une berezia dela aitortzen du, lanbidez, haur hezkuntzako irakaslea den Eka-inek. "Haurrek jartzen duten harridura aurpegia ikustea guztiz pozgarria da; une horiek oso berezi eta politak izaten dira". Inauterietan edota San Joanetan azeri lanetan aritzea "oso bestelakoa" dela aitortzen du Ekainek. "San Joanetako giroa desberdina izaten da: jendetsuagoa... Inauterietakoa, berriz, giroz, hotzagoa". Ekainek dio, jendeak ondo ezagutzen duela azeriaren egitekoa, eta baita bera zirikatze mugak ere: "Hernaniarrek begiko dute azeria", dio. Horrez gain herritarrek, kanpoko jendea etortzen denean, ahalegina egiten dute ohituraren nondik norakoa azaltzeko.

Ekain lau bat urtez jardun izan da azeri. Ondoren, soka ere aritu da: "Azeria edota soka, baina beti saltsan!", gaineratu du. "Bi sentsazio oso ezberdin dira. Azeri lane-tan, protagonista zara. Libre. Zirikatzen. Batera eta bes-

tera, baina jendea guztia, une oro, aldamenean. Soka, beste zirrara bat sentitzen da. Talde bateko partaide zara". Soka, Inauteri zein San Joanetan, Azeri Dantza mistoan irteten da Ekain.

Ibilbidean zehar, Irizar tabernaren parean, azeriak baltza dantzaten du. Inguruan ikusi izan duen bakoitzean, Ekainek, ama atera izan du dantzatzera. "Une berezia izaten da berari ilusio handia egiten baitio. Gero, argazkia ere atera nahi izaten du. Biok pozik. Mutilek ere nirekin dantzan egiteko ahaleginak egin izan ditut. Eta bat baino gehiagok atzera egiten duen arren lortu izan dut, inork, azeriarekin dantzatzea", dio.

JON GOÑI (Hernani, 1975). Kale Nagusikoaren parte hartzea Azeri Dantzan, "nahikoa bitxia" dela aitortzen du. "Jon Alejos -Azeri Dantzako soka-burua- eta biok kuadrilla berekoak gara, eta beti Azeri Dantzarako jendea behar zela esaten aritzen zitzaigun. San Joanetan, mistoa irteten hasi zen lehen urteetan, soka aritzen zirenei gogorra egiten zitzairen hiru egun jarraian joka irtetea. Beraz, jende bila hasi ziren. Hala, egin nintzen sokako partaide Azeri Dantza mistoan". Handik denbora batera, Jonek parte hartzeari utzi egin zion sorbaldatik gaizki ibiltzen baitzen.

Baina, behin, itzuli egin zen. Eta nola gainera. Beste rol batean. "Urte batean, inauterietan, Mikel Intxaurburuk azeri izateari utzi eta soka irteteko asmoa azaldu zuenez zirikatzen hasi zitzaidan azeri lanetan ordezkatu nezan. Nik hasieran ezetz esan nion. Baina halako batean, dantza ez nekienez, pauso batzuk ikasi, eta irten nintzen. Horrela engainatu ninduen! 'Bat eta bakarra', esan nuen neure artean", dio Goñik. "Irizar taberna aurrean, baltsean, norbaitek nirekin dantzan egin nahi ote zuen ahalegindu arren, ez nuen lortu. Uste dut, azkenean, udaltzain batekin aritu nintzela.

Azeri Dantzan zehar, irina eta halakoak botatzen ere ibili nintzen jendartean... Lotsa askorik ez dudanez, esperientzia polita izan zen".

Jonek izan du beste gertakari berezi bat ere. "Duela sei bat urte, San Joan jaietako goiz batean, gaupasa egin ondoren, bi lagun eta ni, Santa Barbara elkartera ha-maiketako egitera gindoazela, sokakoak Errioguarda jatetxean sartzeko orduko, builaka, zirikatzen hasi gintzaizkien: 'Lasai ez dira etorriko', pentsatu nuen nire baitan. Guk ez genekien baina beraien artean hitz egin, eta Kale Nagusiko lanak amaitu ostean, sokako partaideak ezkutatu zirenean elkartean sartu, gu aulkitik altxarazi, eta hirurok ederki 'berotu' gintuzten. Astindu hura ez dut sekula ahaztuko!". Egun hartan, Jon azeria, ehizatu egin zuten. Eta nola gainera.

Goñik, Azeri Dantzaren alde guztiak ezagutzen ditu: maskuriaren laztanak jasotzea, maskuriarekin astintzea, dantzan aritzea, eta orain, etxekoei erakustea. "Haur txikiak izanik, ohitura beraiei hurbiltzen ahalegintzen gara".

MAIDER GARMENDIA (Hernani, 1979). Azeri Dantzan parte hartzeko aukera iritsi zitzaionean Mikel Intxaurburu eta Xabier Zilbeti ziren azeriak. Inauteri batzuetan batari zein besteari, parte hartzea ezinezkoa zitzaienez, eskaintza jaso orduko, 'bai' erantzun zuen. Urte batzuk joan dira ordutik. "Harrez gero, lau bat aldiz, aritu nintzen azeri lanetan", ondo gogoratzen du Maiderrek. "Beti inauterietan irten nintzen, Langile Ikastolak antolatzen zuen Azeri Dantzan, alegia".

Herrian hain sustraitua dagoen ohituran, azeria izatea pribilegioa dela aitortzen du. "Azeria, ekitaldiko gatza eta piperra da, Azeri Dantzari bizia ematen diona. Zereginean erabat murgiltzen nintzen; jendeari arrautza eta irina botatzeraino", dio irribarretsu. "Irinaren kontura oraindik ere norbait gogoratzen da nitaz...". Bere ustez, Azeri Dantza, azeria izatea, ez da moztarra jantzea soilik; musika entzuteak, jada, oilo-ipurdia jartzen dio. "Jendearekin izaten den 'jokoa' ere, oso polita izaten da: helduek errespetatzen zaituzte-azeriari maitasun handia diote-, baina haurrek... Hori beste kontu bat da: isatsetik tiraka... aritzen zaizkizu. Azken finean, umeak ume baitira".

Sokan, Maider, San Joan zein inauterietan Azeri Dantza mistoa egiten hasi zen lehen urteaz geroztik irten izan da. "Sokak bere xarma du, baita azeri izateak, noski! Bi lan ezberdin dira. Baina politak oso". San Joanetako Azeri Dantzak, erakargarritasun berezia du Maiderrentzat. "Sokakook irrikatan egoten gara jendea berotzeko; eta era berean, jendea grinatsu astindua izan dadin. Bitxia, ezta? ". Une politak bizi izan ditu urte hauetan guztietan, euripean nahiz izerditan blai. Herritarren begirune eta eskuza-baltasuna ere antzeman du. Adibidez, Zaraguetarren etxean: "Sokako partaideok bertan ezkututzen garenean, urtero-urtero, Vicente Zaraguetak, lokarriko emakumeoi, cava kopa bana eskaintzen digu. Emakumeei soil-soilik. Tragotxo edan eta berriz ere kalera irteten gara azken txanpa egitera! ".

Inoiz ez du Azeri Dantzaren bezperan lasai afaldu eta lo egiten Maiderrek. Eta urteak daramatza! "Ez naiz ohitzen. Sokan irteten naizenean, adibidez, badaezpada ere sugusak eramaten ditu poltsikoan. Oso urduria naiz, beraz, plaza iristen garenean, asko pozteaz gain lasaitu ederra hartzen dut".



AITOR PARRONDO (Hernani, 1975). Ez zen luzea izan Aitorren parte hartzea Azeri Dantzan. Sartu-irten moduko bat izan zen. "Behin bakarrik izan naiz azeria: 1990ean. Gaztea nintzen parte hartu nuenean; 15 urte nituen".

Inauterietakoan parte hartu zuen. "Mikel Intxaurburuk egun batean irteterik ez zuenez eta ni dantzan aritzen nintzenez, irteteko eskatu zidaten". Hasieran ezetz borobilez erantzun zien Aitorrek; ez zuela bere burua ikusten halako ekitaldi hain berezi batean. Jendetzak, hau da, aglomerazioak, Aitorri ez zaizkio batere gustatzen. "Bestalde, nahikoa lotsatia naiz, eta Azeri Dantzako azeria izatea handi gelditzen zitzaidala esan nien".

Antolatzaileek ez zuten etsi eta berriz ere beregana jo zuten azeria izan zedin. Aitor dantzan maiz ibiltzen zen orduan eta dantzatu beharrekoa ondo baino hobeto ezagutzen zuenez -nahiz eta pausoak, oraindik, oso finkoak ez izan- irtitziz aldatu zuen. Halako batean, antolatzaileen ahaleginak bere saria jaso zuen: "Azkenean baietz esan nien; Azeri Dantzan parte hartuko nuela, alegia".

Dantzaria, Azeri Dantzan, moztarra atzean ezkututzen da. Eta Aitor, horren adibide da. "Gogoratzen dut aurreko egunetan oso urduri ibili nintzela. Horrez gain, Azeri Dantza hartan herritar piloa, jendetza, bildu zen. Batzuetan ezin pasa ibili nintzen".

Luis Telleriak -azeriaren sortzaileak- gomendio batzuk eman zizkion; dendetara sartu eta arrautzak hartzeko, irina botatzen ari tzeko... Azeriaren pikardiak, alegia. "Ni lotsatu egiten nintzen nahiz eta egun batzuk lehenago mentalizatzen aritu. Egia esan, guztia, goitik behera, oso prestatuta eraman nuen". Nahiz eta kezkatu ekin, zalantzak uxatu orduko, Aitor, konforme geratu zen bizi izandako esperientziarekin.

Azeri Dantzan irten baino egun batzuk lehenago, bestalde, Aitorri, aitona bat hil zitzaion: Juanito Arrondo. "Urumea kalean bizi zenez, oso 'azeri-dantzazalea' zen. Beraz, Azeri Dantza hura berezi samarra izan zen niretzat", aitortzen du.

Esperientzia hartatik gaur egunera, aldaketa bat antzeman du Aitorrek: azeriaren 'denda lapurretak'. Urri egin omen dira. Aitorrek orain Azeri Dantza jendartearen ikusten du bere hiru semeekin batera. "Hernanin bizi ez arren, iragan San Joanetan, hiru egunetan etorri nintzen beraiekin batera ekitaldia ikustera. Txikiak izan arren ez dute batere beldurrik, eta primeran pasatzen dute!".

AIMAR ABAD (Hernani, 1990). Duela zazpi urte hasi zen Azeri Dantzan irteten Aimar. Azeri lanak egiten zituenak ezin zuenez irten, eta bera dantza askatuan urte piloan ibilia zenez, parte hartzera gonbidatu zuten. Inauterietako Azeri Dantza batean irten zen lehen aldiz. Debutean ez zen batere urduritu Aimar: "Jendaurrean dantzatzera ohituta nengoenez ez zitzaidan zaila egin. Guztiz kontrakoa. Oso gogotsu nengoen". San Joanetako Azeri Dantza, maskurien kolpeen hartzaile gisa, gogoko zuen, beraz, azeri izateko hots egin ziotenean izugarri poztu zen. "Ordutik urtero deitu didate, eta ez dut inoiz hutsik egin; ez inauterietan, ez San Joanetan ere".

Sokako partaide ere izan da Aimar. Bi aldiz. Inauterietako Azeri Dantza mistoan. "Bi jardun ezberdin dira. Azeri bezala, guztien ahotan zaude, denak daude zuri begira. Sokan, taldeko beste partaide bat zara". Beraz, Aimarrek jendea berotu izan du. Eta baita berotuta amaitu ere. Eta ia-ia baita min hartuta: "Azeri gisa irten nintzen goiz batean, mutil koskor baten atzetik irten nintzen maskuriarekin jo asmoz. Plaza Berritik Zinkoenea bitartean dauden euskarri baten kontra kolpe ederra hartu nuen. Jendeak, zutitzen lagundu ninduen. Hura kolpea, eta hura lotsa!".

Aimarrek, ez du zalantzarik Azeri Dantzan irteteko. Sasoian egoteak garrantzia handia du: lan batean zein bestean. "Behin gaupasa egin ondoren irten nintzen. Eta ederki damutu nintzen! Harrez gero, bezperan, lo ondo eginda altxatzen naiz, goizean fresko-fresko egoteko. Ibilbidea ez da luzea baina denbora guztian, korrika, dantzan... ibiltzeak nekatu egiten du. Eta sokan irtenez gero, zer esanik ez! Maskuria eramaten duen besoak, leher eginda amaitzen du". Azeri Dantzan irtetea, Aimarrek, behin eta berriz plazerra dela esaten du. Lokarriko kide bezala, adibidez, partaide guztiak han eta hemen gordetzen direnean, herriko txoko ezutuak bertatik bestera ikustea zorte handia dela dio. Gutxi batzuen esku dagoen aukera. Ekitaldiko une politenetarikoa, ibilbidea amaitu orduko dela uste du Aimarrek. Hau da, plazan, azeriari hurbiltzen

Xabierrek, pertsona lasaia dela aitortzen du. Ez ei da Azeri Dantzan estutzen. Halere, traba batzuk gainditu behar izaten ditu. Azeriak buruan eramaten duen maskarak bero galanta ematen duela azpimarratzen du Xabierrek: "Hartzen den arnasa berriro ere barrura doanez, ez zara erabat eroso ibiltzen". Eta begietako zulotxoetatik ez ei da askorik ikusten. Beraz, galtza bete lan izaten du azeriak. "Urduritasun edo lotsa puntu handiena Portalondo eta Irizar tabernaren parean izaten dut. Ordura arte jendea sokako partaideen zelatan egoten da. Bi leku horietan, be-



zaion jendetza, alegia. "Guraso asko, euren seme-alabekin arimatzen zaizkit argazkiak ateratzera". Denbora pasatzen du denen eskariak asetzen. Horrez gain, badago bere ustez beste une berezi bat. Guztia amaitu orduko, partaideek elkarrekin egiten duten hamaiketakoa. "Hori ere, primerako saria izaten da!", aitortzen du Aimarrek.

XABIER SEGURA (Hernani, 1984). "Ni irten aurretik Mikel eta Xabier Zilbeti izan ziren azeri urte dezentetan. Halako batean, txanda eske zebiltzanez, Luis Telleriak niregana jo zuen. Dantza askatuan ibiltzen nintzen orduan", gogoratzen du. Xabierren aitona, Enrique Esteban, eta aita, Jose Angel Segura, biak, Azeri Dantzan -sokan- ibiliak ziren. "Eskaintza jaso nuenean, parte hartzera animatu nintzen. Halere, aita eta biok ez dugu inoiz aldi berean parte hartu; berak utzi zuenean, ni hasi bainintzen".


Estreinako aldiz, Xabier, 2001ean irten zen Azeri Dantzan: 17 urte zituen. San Joan jaietan egin zuen debuta; ekainaren 27an, Azeri Dantza mistoan. Bi egun lehena-go, 25ean, Luis Telleria, Xabier Zilbeti eta hirurak Azeri Dantza hasi aurretik bildu ziren. "Egun hartan Zilbeti irten zen, eta ni, Telleriarekin batera kale buelta eman nuen jendartean bere gomendio eta iradokizunak entzuten. Nire kasara, lasai, ibiltzeko esan zidan. Dantzatzen ziren pausoak ezagunak nituenez, hasierako beldurak uxatu eta aurrera egin nuen".

Irtten bezperan lo lasai egin zuen Xabierrek, nahiz eta ohetik altxatzeko ordua iristean lo hartuko duen kezka izaten duen beti. Urtero urduritasun puntu hori ere inguruan izaten du. Beti hor dago. Duela hamabi urtez gero, inauteri zein San Joanetan parte hartu izan du: "Ekainaren 25ean ez dut hutsik egiten". Aurtengoa berezia izan da gainera. Azeria, duela 25 urte jaio zela ospatzeko Txatxangorri Elkarteak prestatutako oroigarria, Luis Telleriak, Xabierren eskutik jaso zuen.

rriz, begi guztiak nire gainean sumatzen ditut". Irizarrenean, adibidez, baltsa dantzatzera ohikoa da. Behin, "Peter" Antsorena txistularia, herriko txistulariekin jotzera etorri zela aprobetxatuz, Xabierrek berarekin batera dantzatzera gonbidatu zuen.

Azeri Dantza amaitu orduko, berriz, 'eskarien unea' iristen da. Hots, haurrekin argazkiak ateratzeko momentua. Eta gero, saria. Hau da, dutxa on bat hartu, eta hamaiketakoa sokako partaideekin: eguneko anekdoten bilkura, alegia.






2011

HERNANIKO MUSIKA BANDA: MENDE ETA ERDI, URTEZ URTE

Urko Apaolaza
(HERNANI 2011)



Hernaniko musika bandak historia luzea du atzean, 150 urterekin herriko kultur talde oparoenetakoa baita. Baina ibilbide horretan gaziak


eta gozoak ezagutu ditu, gerrak eta ospakizunak, doinu alaiak eta tristeak, *crescendo*-ak eta *diminuendo*-ak... Kronologia honetan dituzue laburbilduta gure banda kuttunaren datu esanguratsuenak eta giltzarri izan diren gertaerak.

1861: Hernaniko Udalak herrian “musika” bat sortzeko proposamena egiten du. Hernaniko musika bandaren fundazio urte gisa hartu daiteke data hori. Udalean gordetzen den akta baten bidez jakin dezakegu urte horretako San Sebastian egunean

erabaki zutela, kontzejuan bilduta, “gazteek osatutako musika bat sortzea”; musika banda bat sortzea esan nahi du horrek, orduko argotean. Horretarako borondatezko harpidetza antolatu zuten herritarren artean.

1864: Manuel Sanchez Salvador hainbat laguni musika irakasten aritzen da. Musika ikasle hasierriek Sanchez Salvadorren klaseak jasotzen dituzte eta hainbat urtez arituko da zeregin horretan. Sanchez Salvadorrek musika jakintza handia zuen; Leo de Silka pianista ospetsua zuen koinatu.

1871: Manuel Zendoia lehenik eta Ruperto Erize ondoren, jarriko dira herriko “musikari afizionatuak” zuzendari. Manuel Zendoia da Hernaniko



... Acto continuo manifestó el propio Sr. Alcalde que en este pueblo se intenta formar una música compuesta de los jóvenes del mismo y que debiendo reunir el importe de su instrumental por medio de una suscripción voluntaria es de opinión que sería muy conveniente que a la cabeza de esta suscripción figurase el Ayuntamiento. Enterada la junta de esta manifestación abundando en las idem emitidas en Ma acuerda que el Ayuntamiento encabece dicha suscripción... (HUA/AMH/A-1-16. Libro de acuerdos de la N. y L. Villa de Hernani, 1855 ene. 1 - 1871 ago. 27: 1861eko urtarrilaren 20ko akta).

musika bandako lehen zuzendaria, baina denbora gutxiz arituko da zuzendaritza lanetan, hasiera batean behintzat. Erizek 1872an lekukoa hartzen dioenean, taldearen egoera finantzarioa ez da bate-re ona. Bigarren Karlistaldiak bete-betean kolpatuko du Hernani eta horrek isla izango du bandaren zereginean.

1875: Bandako hainbat kidek zuzenean parte hartuko dute Karlistaldian, horietako batzuek batai-loiak musikatuko dituzte korneta banda batekin, Teodoro Erauskin atabalariak gidatuta. 1875eko bonbardaketan hainbat musika tresna txikituta geratuko dira bonben ondorioz. 1876an Ruperto Erizek dio banda guztiz deseginda dagoela “kide batzuk ihes eginda eta beste batzuk hilda” daudelako. Erizek bere dimisioa aurkeztuko du urte horretan.

1877: Manuel Zendoia berriz ere hasten da banda zuzentzen. Bandaren lehen araudia sortzen da eta pixkanaka musika taldeak sendotasuna hartzen du. Urte horietan Hernaniri eskainitako hainbat doinu agertzen dira, tartean gaur arte iraun duen Hernaniko martxa edo Liberalen martxa.

1889: Bandako musikariek kontzertuak Ezkiaga pasealekuan egitea eskatzen dute. Hernaniko udaletxea Bigarren Karlistaldian txikituta geratu eta

gero, musika bandak Tilosetan eskainiko ditu kontzertuak denbora batez, udaletxea konpondu bitartean. Berriz ere udaletxeko arkupetako betiko tokira itzultzeko agintzen dietenean, musikariek protesta egiten dute, Tilosetan jotzea nahiago dutela esanez. Bandako hainbat kide zigortuak izango dira horregatik. Tilosetako dantzaldi eta kontzertuen hasiera da.

1891: Musika akademia sortzeko araudia onartzen du Udalak. Musika akademiaren jaiotza ofiziala izan liteke. Aurretik musika eskolak zeuden arren, araudi baten menpean eta Udalak babestuta, urte horretatik aurrera jardungo da musika akademia.

1895: Hainbat herritarrek “musikari afizionatuen” bandari udal izaera emateko eskatzen dute. Ordu-ra arte “musikari afizionatuen” taldea zenari, beste maila bat emateko helburuz egiten dute eskakizuna: “...habiendo otra buena parte de residentes y vecinos que conocedores del solfeo e instrumental pudieran cooperar y formar parte del núcleo de ejecutantes...” dio idatziak.

1899: Bandak araudi berria publikatzen du. 1877koa eta 1895ekoaren ondoren, hirugarren araudia izango da honakoa. Moldiztegi batean inprimatua, zuzendariari botere ugari emango dio.



Hernaniko Musika Banda 1910eko hamarkadan.



Musika Banda, 1933. urteko San Joan egunean udaletxeko arkupetan.

1907: Estanislao Gorrotxategi tolosarra bandako zuzendari berria izango da; 1910 arte arituko da zeregin horretan. Hernaniko musika bandak Donostiako Banda eta Orfeoien Nazioarteko Lehiaketan parte hartzen du eta estandarte estreinatzen dute.

1909: Hernaniko Euskal Jaiak ospatzen dira. Fes-ten programan musika bandaren protagonismoa erabatekoa da: goiz, arratsalde eta gau aritzen da kontzertuak, kalejirak eta dantzaldiak ematen.

1910: Federico Iglesias zuzendari izendatzen dute. Iglesiasek hogeitaz hartuko du bandaren gidaritza, harik eta 1930ean ustekabean hil zen arte. Tarte horretan bandak hainbat alarde eta jaialditan parte hartuko du eta herrian musikaren erreferente bilakatuko da, sona eta izena bereganatuz.

1913: Hitzarmena sinatuko dute tranbia elektrikoaren konpainiarekin igandetako dantzaldiak diruz laguntzeko. Tranbia edo Tximist gurdia-n jende andana etortzen zen Hernanira urte horietan bandak eskainitako dantzaldiez gozatzeko. Ondorioz, urtean 2.000 pezetan ematen zion bandari igandetan jotzen segitu zezan. 1925ean tranbia krisian sartu zen eta konpainiak jabez aldatu zuen; gainera, gero eta gutxiago ziren Hernaniko igandetako dantzaldietara etortzen zirenak eta ondorioz diru laguntza bertan behera geratu zen. Herriko tabernariak hartu zuten banda babesteko txanda, dantzaldietako giroak haien negozioetarako onura ekartzen zuelako.

Tabernek banda diruz laguntzeko ohiturak gutxie-
nez 1970eko hamarkada arte iraun du.

1920: Istiluak gertatuko dira Inauterietan eta bandako hainbat kide kanporatuak izango dira. Sardina-
ren entierroa egitea debekatu egin zuen Udalak, baina herritar ugari kalera atera ziren konpartsa egiteko asmoz. Horren harira pentsaera politiko ezberdinetako jendeak elkarren kontra aritu ziren eta hainbat mikelete egurtu zituzten. Asaltoko goardiak zenbait pertsona atxilotu zituen, batez ere Sardina-
ren entierroaren alde zeuden errepublikar eta ezker-
tiarrak. Gertaera horien ondoren, Federico Iglesias bandako zuzendariak hainbat musikari kanporatu zituen taldetik, debekatuta zegoen arren, Sardina-
ren entierroan parte hartu zutelako.

1925: Musika tresna berriz hornitzen da taldea. Konkurtso baten ondoren Erviti musika etxeak irabaziko du Hernaniko banda musikaz hornitzeko eskubidea. Klarineteak, flautinak, flautak, oboeak, saxofoiak, tronboiak, tronpak, bonbardinoak... Guz-
tira 12.000 pezetako inbertsioa egingo du Udalak. Musika tresna zaharrak partikularrei salduko dizkie.

1930: Federico Iglesias zuzendaria hiltzen da urte horretako abuztuaren 15ean. Miguel Abalos zuzen-
dari ordeak ordezkatzeko dio behin-behinekoz.

1931: II. Errepublika aldarrikatuko dute Espainian. Jose María González Bastida bergararra zuzendari

berria izango da. Bandaren araudi berria ezarriko da eta jai erlijioso ugari kenduko dira egutegitik. Eztabaidak eta tira-birak izango dira hurrengo urteetan zenbait ospakizun eta himnoen harira, ezkertiar laikoen eta abertzale katolikoen arteko tentsioa nabarmenduko da. Esaterako, bandako hainbat kidek behin baina gehiagotan uko egingo diote Riegoren Himnoa jotzeari eta hargatik zigortuak izango dira.

1932: Ramon Muguruza bandako zuzendari orde izendatuko dute. Ramon Muguruza hernaniarrak bete-betean parte hartuko du Hernaniko jai eta bitzita musikalean, izan Unión Musical taldearekin edo musika bandarekin. 1934an Muguruza asaltoko goardiek atxilotuko dute, urriko iraultzako erreboltan parte hartzea leporatuta.

1936: Gerra zibila hasten da uztailearen 18an. Bandako hainbat kide purgatuak izango dira eta taldea funtsean deseginik geratuko da. Purgaturikoen artean Jose María González Bastida bera dago. Guardia zibilen kabo batek salatu egingo du bere seme alabei izen euskaldunak jartzeagatik: "...muy simpaticante nacionalista, tiene dos hijos con nombres vascos: uno nació a principios del año 1934 y se llama Iñaki Xabier Sabin, y el otro a mediados de 1935 y se llama Miren Edurne Maite..."; isuna ordaindu behar izango du Hernaniko zuzendariak. Beste hainbat kide frontean hilko dituzte eta beste batzuk Frantziako kontzentrazio zelaian edo erbestean bukatuko dute; Ramon Muguruzak, Fernando Honsteinsek eta Jose Ginések adibidez, Gürsen egingo dute denboralditxo bat.

1939: Frankisten aldeko hainbat ekitalditan parte hartzera derrigortuta egon eta gero -tartean Eroritakoei plazan egindako monumentuaren inaugurazioan-, azkenean bandak ofizialki udal izaera galduko du. Ondoren, bandako plantilla berrosatzen saiatuko dira eta uniforme berria jarri nahi izango diote "alkandora urdina eta txapela gorriarekin", baina ekimenak ez du aurrera egingo.

1941: Udalak Gobernadore Zibilar jakinarazten dio Hernanin ez dagoela "udal funtsek sostengatutako" bandarik. Udalak gramola bat erosiko du banda ordezkatzeko. Hurrengo urteetan Falangearen bandak eta banda militarrek musikatuko dituzte ekitaldiak.

1948: Banda Urumea sortzen da Joxe Mari Goñi zuzendari duela. Banda del trueno izenez ere ezaguna, gerra aurreko musikariek osatuko dute taldea. Dantzaldiak eta kalejirak eskainiko dituzte, esaterako Karmen egunean. Bernardo Alvarezek gidatutako rondalla bat ere sortzen da urte horietan, herriko hainbat gaztek osatua.

1950: Txantxilla futbol zelaia inauguratzen dute. Banda Urumeak bete-betean parte hartzen du ospakizunetan eta herritarren aurrean luzitzeko aukera paregabea izango du. Ohitura bihurtuko da Hernanik futboleko irabazten duenean Bartali izenez ezagutzen den doinua jotzea.

1956: Banda Urumea desagertzen da eztabaida politikoak tarteko. Jose Antonio Ruiz Bona jarriko da musikarien zuzendari eta bultzada berria hartuko du bandak zuzendariaren zorrotasun eta profesio-



Musika Banda, 1935.eko maiatzaren 5ean, Donostiako Chofre zezen plazan.

naltasunari esker. Berriz ere kontzertuak eskainiko dituzte dantzaldiez eta kalejirez gain.

1957: Ignacio Iruinen ekimenari esker Agrupación Musical Hernaniarra sortzen da Ruiz Bonak zuzenduta. Ekainaren 24ean, San Joan egunean, Ezkiagako kioskoa inauguratzen dute eta uniforme berriak jantziko dituzte bandako kideek.



1950: Txantxilla futbol zelaia inaugurazioan, 1950.



Banda Urumea parroikiko eskaileratan (1953-06-28).



1957ko ekainaren 24an, San Joan egunean, Musika Bandak kontzertua eskaini zuen Tilosetako pasealekuko musika kiosko berrian.

1961: Sorguiñeta obra estreinatuko da San Joan bezperan Hernaniko plazan. Hernaniko Schola Cantorum-ek eta herriko zuzendari eta musikariek parte hartuko dute, Donostiako kontserbatorioko orkestra sinfonikoak eta Olaeta baletak lagunduta. Ikuskizunak sona handia hartuko du Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo.

1964: Ezkiaga pasealekuko dantzaldiek indar handia hartuko dute. Milaka lagun hurbilduko dira Hernanira igandero dantzaldiez goatzera. Tira bira gertatuko dira txistularien alde eta kontra. Txistulariek dantzaldiaren deskantsuetan egiten zuten saiotxoak eta jende askoren txitu eta oihuak jasan behar izan zituzten. Hernaniko koadrilak haien alde agertu ziren eta borrokak gertatu ziren. Nortasun eta kultur auzi bat zegoen sakonean, euskaldun eta espainiarren artekoa.

1966: Juan Jose Iruretagoiena "Oriyo" jarriko da bandako zuzendari. Schola Cantorum-ean eta musika akademian ondutako gizona zen Iruretagoiena. Berak idatzi zuen Solfaketa irakasbidea lehen euskal musika metodoa. Bandan zuzendari aritu zen azkeneko urteetan Manolo Sagarna zuzendari ordeak hartu zion erreleboa, osasun arazoak izan zituelako. 1984an utzi zion zuzendari karguari eta 1985ean omenaldi hunkigarria egin zioten.

1969: Orbegozo lantegian greba handiak egingo dituzte eta istiluak gertatuko dira. Elkarte gastronomikoen aldi baterako itxiera aginduko du Gobernadore Zibilak. San Joan festak ez dira ospatuko herritarrek hala erabakita; horrek bandako jardunari eragingo dio bete-betean.

1970: Ezkiagako dantzaldietan banda osoak jotzeari utzi eta orkestina batek eskainiko ditu emakundiak. Joakin Ortega eta Felipe Sagarna hernaniarrak Los Incansables txaranga sortuko dute.

1977: Musika ohitura aldaketek aginduta, bandak dantzaldiak eskaintzeari utziko dio Ezkiaga pasealekuan. Musika banda ugari desagertu egingo dira. Hernanikoak irautea lortuko du, eta dantzaldiak bertan behera geratu arren, kontzertuak eskaintzen segituko du Tilosetan.

1978: Zarautzen Gipuzkoako musika banden lehiaketa egingo dute. Gipuzkoan geratzen diren musika bandak suspertzeko asmoz antolatuko da ekimena. Hernaniarrak azkeneko postuarekin konformatu behar izan ziren.

1984: Manolo Sagarnak hartuko du bandaren gidaritza eta zuzendaritza. Bizitza osoa musika bandari lotuta egon ondoren hartuko du Sagarnak banda zuzentzeko zeregina, eta bere jardunari esker aurrera aterako da taldea 1980ko hamarkada zaillean. Konpositore eslaviarren lanak, zarzuelak eta autore

euskaldunen obrak gehituko dizkio bandaren erreperitorioari. 1997an Hernaniar Bikain izendatuko dute.



Musika Bandak Tilosetako kioskoan eskainitako kontzertua: Juan José Iruretagoyena zuzendaria ikuslegoa agurtzen.

1985: Hernani Musika Eskola sortzen da. Hernaniko musikari harrobia handitzen du eta bandaren iraupenerako gakoetako bat izango da. Lehenengo aldiz emakumeak bandako partaide izango dira, musika eskola berriko ikasle izandakoak horietako asko.

1992: Hernaniko banda Gipuzkoako banden federazioan sartzen da.



Hernaniko Musika Banda, 1991.

1994: San Joanetako lehen Iragarpen Kontzertua antolatuko dute bandako hainbat musikariren bultzadarekin eta Luis Berrondo zuzendari artistiko duela. Preludioak ibilbide gorabeheratsua izango du, baina pixkanaka indarra hartuz joango da, eta egun, herriko ekitaldi musikal garrantzitsuena bilakatu da. Musika bandaren agendan ere ekitaldi bereziena da preludea eta urteko hainbat hilabete kontzertu hori prestatzen igarotzen dute.



Musika Bandak Manolo Sagarnaren zuzendaritzapean udaletxeko arkupetan.

1996: Bandaren egoitza Udaletxetik Milagrosako kaperara pasako da. Benefizientzi zaharreko Milagrosako kaperan eraberritze lanak egingo dituzte eta musika kontzertu eta ekitaldietarako atonduko dute.

2004: Zipri Otxandorena jarriko da musika bandaren zuzendari. Beste herrietako taldeekin elkarlanean hasiko dira eta erreperitorioa aberastuko dute hurrengo urteetan. Bandak egoera onenean iritsiko da XXI. mendera, baina errelebo falta nabaritzen hasiko da zenbait musika tresnetan.

2011: 150. urteurreneko ospakizunak. Bandak uniforme, logo eta himno berriak sortzen ditu eta makina bat ekitaldi egingo ditu herriko beste taldeekin elkarlanean. Mende eta erdia gogoratzeko liburua kaleratuko dute.



Hernaniko Musika Bandako musikariak Milagrosan (2011).



2006

REFORMA DEL MONASTERIO DE SAN AGUSTIN DE HERNANI

**Juan Ignacio Elizondo Camio
(HERNANI 2006)**



APUNTES HISTORICOS

La construcción del Monasterio se remonta al año 1544, cuando el Obispo de Pamplona, D. Pedro Pacheco, a cuya sede episcopal pertenecía la villa de Hernani, concedió licencia a Juan Martínez de Ereñozu, señor de la casa y herrerías de Ereñozu, y vecino de Hernani, para levantar y fundar el cenobio, en la antigua Parroquia de San Juan Bautista, situada extra-muros e indefensa, y cuya construcción, que había sufrido graves daños en el saqueo e incendio causados por las tropas francesas en 1512, salvándose únicamente las cuatro paredes sencilla, se encontraba sin uso por haberse trasladado la parroquia al interior del recinto murado.

Se iniciaron las obras edificando la iglesia del Monasterio sobre la traza del viejo existente, y en una segunda fase se levantó la residencia de las religiosas “fuera de dicha iglesia, cerca y unida a ella, con campanil, claustro, refectorio, dormitorios y otras oficinas necesarias para ello”.

El 13 de noviembre de 1547, Juan Martínez de Ereñozu otorgó al Monasterio la escritura de donación

y obligación, reservándose para sí como patrón y fundador, y sus herederos, una sepultura con tumba.

A pesar de que los documentos existentes apenas dejan entrever en adelante el proceso de construcción del Monasterio, se sabe que en 1577 las monjas afrontaron la renovación total del coro, siguiendo el diseño del maestro de San Telmo. En 1657 se obtuvo licencia para construir un lagar y una hospedería, y en 1684 se levantó una nueva casa vicarial.

Con motivo de las diferentes guerras, en los años 1638, 1719, 1794 y 1808, la Comunidad tuvo que



abandonar el Monasterio, y éste, que sirvió en ocasiones de alojamiento a las tropas, sufrió importantes destrozos, particularmente durante la Guerra de la Independencia, lo que obligó a reconstruir la iglesia y la residencia del Monasterio, gastando las religiosas importantes sumas de dinero, y viéndose precisadas a vender algunas fincas. En estos sucesos se perdieron parte de los documentos referentes a las cuentas conventuales.

Al celebrarse el 400 aniversario de la fundación, en 1947, las monjas construyeron una terraza, y en 1988, se abordó con ayudas oficiales y particulares, la renovación de la cubierta de la iglesia. Ya en época más reciente, en 1997, se procedió a la restauración de la torre-campanario.

Por Orden del 17 de enero de 1964, el Monasterio de Agustinas fue declarado monumento provincial de interés histórico-artístico.

OBRAS DE REFORMA

1.- Preámbulo.

Al situarse los terrenos monacales en un lugar significativo de la trama urbana de Hernani, rodeados de otras áreas urbanizadas, fueron aquellos objeto en los últimos años, de expectativas diversas en orden a concluir la conformación urbanística de la zona, con presiones exteriores de tipo inmobiliario, que por una causa u otra no fructificaron.

El tiempo transcurría inexorablemente y el edificio monástico iba deteriorándose y debilitándose a pasos agigantados, con la consiguiente inseguridad y cuantiosos gastos de reparación a los que tenían que enfrentarse la Comunidad. Además parecía por otro lado obligado, que el conjunto del Monasterio, edificio y terrenos, acomodase sus espacios y superficies a la realidad física y numérica de las religiosas, dotando a las mismas de unas mínimas pero dignas condiciones de bienestar.



A principios del año 2000, toma la iniciativa el Ayuntamiento de la Villa, y tras un periodo de consultas mutuas donde la Comunidad pudo exponer sus inquietudes, en mayo de este año, la Corporación municipal presentó una propuesta de reordenación de la denominada área de Agustinas, cuyo ámbito comprendía la propiedad de las monjas y otras propiedades colindantes. Dicha propuesta, que mantenía en un principio la calificación urbanística asignada a dicha área por las vigentes Normas Subsidiarias de Planeamiento de Hernani, planteaba la creación de dos parcelas, una para los usos terciarios establecidos en las citadas Normas, y otra reservada al Monasterio, consolidando así el aprovechamiento religioso, y muy respetuosa con la singularidad del mismo.

Dada la carencia de recursos de las religiosas, la propuesta, aceptada en principio por la Comunidad, tendría que garantizar que los rendimientos económicos obtenidos con la enajenación de los aprovechamientos edificatorios correspondientes al Monasterio, fueran suficientes para acometer la reforma en profundidad y la rehabilitación del edificio monástico, asegurando así la salvaguarda del bien cultural y la continuidad de la Comunidad presente en Hernani desde su fundación a mediados del siglo XVI, por lo que a tal fin, y antes de iniciar los correspondientes trámites administrativos y recabar las pertinentes autorizaciones, se evacuaron consultas a diferentes empresas constructoras.

Dos de ellas, muy vinculadas al municipio hernaniarra, manifestaron su interés en la promoción, y se dispusieron a comprar solidariamente la parte de los terrenos que excedían de la parcela reservada al propio Monasterio. Se confirmaba así la viabilidad de la operación, y la Comunidad vislumbró con fundadas esperanzas, que la ansiada reforma, después de tantas y tantas penalidades, podría llevarse a efecto a corto o medio plazo.

A partir de este momento se sucedieron a buen ritmo y siempre con la tutela del Ayuntamiento, las visitas a los diferentes organismos oficiales, tanto civiles como eclesiásticos, para exponerles la propuesta de reordenación del área de Agustinas, y más concretamente lo que en ella se establecía de cara al interés de la Comunidad.

En noviembre de este mismo año 2000, el Sr. Obispo de la Diócesis de Donostia-San Sebastián, siendo favorable a la operación de venta, solicitó a la Santa Sede su autorización. Esta no se hizo esperar, ya que a los pocos días, la Congregación para los Institutos de vida consagrada y las Sociedades de vida apostólica del Vaticano, concedió su licencia para vender una parte de los terrenos del Monasterio.

Como consecuencia de la competencia exclusiva asumida por Euskadi en materia de patrimonio cul-



tural, y la aprobación posterior por el Parlamento de Vitoria-Gasteiz de la correspondiente Ley, el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, en julio de 2001, adoptó mediante Decreto a las prescripciones de la citada Ley de Patrimonio Cultural Vasco, el expediente de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento, del Monasterio. Dicho Decreto, además de la descripción formal del mismo, delimita su entorno de protección y aprueba asimismo el régimen de protección a aplicar al propio edificio y su entorno, describiendo junto a unas disposiciones generales y usos permitidos, los criterios de intervención constructiva permitidos sobre el inmueble.

Entendiendo que las aprobaciones obtenidas hasta el momento, aseguraban en buena medida la idea de reforma, la Comunidad decidió abandonar la casa de Hernani, y el 29 de septiembre de 2001, se trasladó al hermano Monasterio de Nuestra Señora de los Remedios, en Artziniega (Araba).

Paralelamente a las gestiones realizadas, y con el objeto de que las determinaciones planteadas en la reordenación del área de Agustinas tuvieran un refrendo legal, y en el caso del Monasterio se ajustaran al Decreto de julio de 2001, el Ayuntamiento, previas consultas a los diferentes departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, competentes en el tema, redactó el denominado “Proyecto de Modificación de Elementos de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Urbanístico de Hernani”. Tras su aprobación

inicial y provisional por la Corporación municipal, fue remitido el expediente a la citada Diputación Foral para su sanción definitiva, que tuvo lugar el 24 de septiembre de 2002.

La ficha urbanística relativa al Monasterio, formulada en el Proyecto de Modificación de Elementos, reitera la consolidación del edificio monástico y del uso de equipamiento religioso existente, y declara fuera de ordenación parte de las edificaciones sustituibles que rebasaban los límites del área ordenada, así como la casa vicarial, próxima al Monasterio, y también propiedad de la Comunidad.

2.- Proyecto de reforma.

Una vez resueltas las diligencias anteriores, continuó el proceso con la elaboración del Proyecto Básico y posterior de Ejecución, para la Reforma y rehabilitación del Monasterio.

2.1.- Características del antiguo edificio monacal.

El conjunto monástico estaba compuesto por diferentes cuerpos edificatorios, tales como la iglesia y sacristía, residencia fundacional adosada a la anterior con claustro alrededor de un patio interior con balcón, ampliación posterior para uso residencial complementario y también para la actividad agro-pecuaria desarrollada en tiempos pretéritos, hospedería, cuadra y terraza.



Salvo la iglesia y especialmente su portada románica-ogival propia de las construcciones de fines del siglo XII y principios del siglo XIII, que es realmente la pieza más atractiva del Monasterio, tanto el claustro como las demás dependencias son de escaso interés arquitectónico. Hay que destacar el carácter modesto de la edificación, su austeridad constructiva. La ornamentación no cuenta en el cenobio, y los elementos estructurales no tienen valor artístico alguno. La funcionalidad se impone a cualquier otro valor, adquiriendo total y absoluta primacía, sin concesión formal alguna.

En relación a la clausura original, es decir al cuerpo fundacional del siglo XVI, buena parte de las dependencias, especialmente las de la planta primera, fueron alteradas al objeto de acomodarlas de forma pragmática a las necesidades que a lo largo del tiempo, y a consecuencia del desenvolvimiento de la vida diaria, fueron surgiendo.

La construcción posterior del cuerpo agregado, de considerables dimensiones, y su entronque con el fundacional, supuso también a buen seguro, el replanteo distributivo de algunos aposentos, y la alteración del orden espacial existente.

Todo ello tenía su lógico reflejo, no solamente en la caótica composición de sus fachadas exteriores, sino incluso en el análisis volumétrico del conjunto monacal, que mostraba asimismo las diferentes etapas de su creación.

Debido al mal uso de la edificación, en ocasiones por causas o acontecimientos ajenos al Monasterio, por las transformaciones habidas en el mismo, y por la carencia de recursos, la organización general de la estructura primigenia había sufrido importantes variaciones, en detrimento de su capacidad portante.

Por otro lado, la extrema decrepitud de los elementos constructivos del inmueble, fruto de la antigüedad del edificio, de la humedad, de las malas condiciones de los materiales, y también de la falta de importantes inversiones para su reparación, dada la

limitada disponibilidad económica de las religiosas, que se reduce a los escasos ahorros provenientes de su trabajo, pensiones y donaciones, provocaban serios problemas de habitabilidad, que incluso repercutían en la salud de las residentes.

2.2.- Descripción de la reforma.

Hay que señalar en primer lugar que la iglesia con su portada y la sacristía, restauradas con anterioridad, no han sido objeto de intervención.

A la vista de la composición arquitectónica existente en el Monasterio, y de su desarrollo cronológico, y teniendo en cuenta el programa de necesidades elaborado por la Comunidad, surgió en principio la idea de derribar la ampliación levantada en época posterior a la fundación, que ocupaba importantes espacios desocupados a causa del cese de la actividad agraria y ganadera, y ordenar los usos residenciales como en origen, alrededor del claustro, en el cuerpo fundacional.



Ello no fue posible, ya que con los estudios previos realizados, se llegó a la certeza de que tal edificio fundacional, por falta material de superficie, no podía responder adecuadamente a las exigencias demandadas por la Comunidad, siendo imprescindible



por lo tanto ampliar su actual capacidad constructiva, levantando un nuevo edificio en compensación del cuerpo que se proyectaba derribar.

En la nueva distribución de dependencias, y al objeto de evitar drásticas modificaciones de hábitos en la regular vida monástica, se tuvo muy en cuenta la configuración de los espacios existentes, así como la disposición arquitectónica que en origen tuvo el

edificio, y como no, las sugerencias expuestas por la propia Comunidad.

De forma resumida la intervención reformadora contemplada en el proyecto fue la siguiente:

- Demolición del edificio levantado con posterioridad al cuerpo fundacional, hospedería, cuadra, terraza y balcón en patio.



La ausencia de valores, la condición de añadidos degradantes, el estado de profundo deterioro, y en algunos casos la desaparición de usos que dieron origen a su construcción, hacían imprescindible la demolición de los mismos.

- Renovación del edificio fundacional que constituye la parte residencial principal de las religiosas, vaciando previamente su interior, salvo los muros

estructurales exteriores e interiores, y manteniendo inalteradas las características de los elementos considerados como fundamentales, y por consiguiente de especial protección, tales como volumen, altura, superficie y dimensiones de planta, número de pisos, disposición de la cubierta, estructura general, etc.



La puesta en valor del aspecto arquitectónico, con el restablecimiento de los valores originales de las partes alteradas, ha supuesto la restauración de las fachadas internas y externas, incluso con modificaciones que no han alterado la unidad de su composición; la restauración de los espacios interiores en las dos plantas, conservando o implantando el esquema básico de distribución general y la organización espacial original; y la conservación o el restablecimiento del claustro.

- Creación de una nueva edificación residencial complementaria, sustitutiva del cuerpo a demoler, y albergando las dependencias destinadas principalmente a servicios, que no tienen cabida en el edificio fundacional. Entre ambas construcciones, la original y la nueva, y a modo de elemento de unión, se sitúan la escalera y el ascensor, precedidas de un vestíbulo. Este se comunica con una entrada secundaria, en parte cubierta, que además de relacionar-



la con la huerta monacal, permite por medio de un vial, su conexión con otra puerta exterior del Monasterio, utilizada para el suministro de provisiones, material de trabajo, etc.

- Reconstrucción de la hospedería, sustituyendo al edificio a derribar, y ocupando su mismo emplazamiento.

2.3.- Licencia de obras.

Redactado el Proyecto Básico para la reforma, la Comunidad, en marzo de 2003, solicitó al Ayuntamiento de Hernani la correspondiente autorización de obras.

Al estar calificado el Monasterio como Bien Cultural con la categoría de Monumento, la Corporación municipal, tal y como está establecido, remitió el proyecto a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación previa, que fue acordada en abril de este año 2003, con una condición, la obligación de presentar el proyecto arqueológico del solar, ya que el edificio monacal figura entre las zonas de presunción arqueológica del municipio.

Cumplimentado este requisito y una vez aprobado por Diputación el proyecto de excavación arqueológica a realizar en el entorno del Monasterio, correspondió al Ayuntamiento de Hernani conceder la licencia de obras solicitada, por acuerdo de su Comisión de Gobierno en mayo de 2003.

3.- Ejecución de las obras.

Una vez conocidos los resultados del Estudio Geológico-Geotécnico encargado por la Comunidad, y desarrollado el Proyecto de Ejecución para la reforma, así como redactado el preceptivo Programa de Control de Calidad y el Estudio de Seguridad y Salud, por fin, después de cuatro largos años de gestiones, en enero de 2004, pudieron iniciarse las obras para la reforma y rehabilitación del Monasterio.



Los trabajos de desarrollaron en aplicación estricta del proyecto aprobado. Al desmonte manual y posterior derribo mecánico de los cuerpos a desaparecer, siguió el vaciado cuidadoso del cuerpo fundacional, con el acopio de los elementos estructurales de madera en buen estado, para su posterior aprovechamiento.

A partir de aquí comenzó la reconstrucción del citado cuerpo fundacional, restaurando en primer lugar los muros de carga, cerrando algunos vanos y abriendo otros nuevos, según las necesidades de la reforma. Asegurada la capacidad portante de los muros originales, se abordó el hormigonado de los suelos de planta baja, y, poco a poco, se fueron ejecutando los dos forjados de pisos y la cubierta, de madera, antigua o nueva según los casos, como estaba exigido.

A medida que iba cerrándose este cuerpo, fueron erigiéndose el nuevo cuerpo complementario del anterior y la nueva hospedería, en sustitución de los derribados, el primero de dos plantas, igual que el cuerpo fundacional, y el segundo de una sola planta; ambos con estructura de hormigón armado. Con ello la población expectante empezaba a entrever el alcance y las características de la acción reformadora.



La obra prosiguió según la lógica constructiva, sucediéndose los diferentes gremios intervinientes (albañiles, canteros, carpinteros, herreros, fontaneros, electricistas, pintores, etc.).

A pesar de su lejanía, la Comunidad estuvo informada en todo momento del desarrollo de los trabajos, y de cuantas incidencias sobrevinieron en el periodo de ejecución de las obras de reforma.

A medida que iban terminando las labores de reconstrucción, la Comunidad contrató asimismo el suministro del mobiliario mínimo necesario para poder ocupar el Monasterio y proseguir con normalidad la vida monacal.

Al mismo tiempo, en el exterior del Monasterio, se ejecutaba la urbanización de la zona, y con ella la

construcción del muro perimetral que delimita la nueva parcela claustral resultante de la ordenación urbanística.

Con las obras de reforma prácticamente terminadas, el 30 de noviembre de 2005, la Comunidad regresó a Hernani, y tomó posesión de su Monasterio reformado.

Poco a poco las monjas han ido completando y acondicionando los espacios interiores, y se ha zonificado el terreno libre, reservando una parte para el cultivo de huerta y árboles frutales, y el resto como jardín.

La inauguración oficial, que estuvo precedida por tres jornadas de conciertos musicales (coros, órgano y txistu, y acordeón) en la iglesia del Monasterio, se llevó a efecto el día 30 de abril de 2006, con una solemne eucaristía presidida por el Sr. Obispo de la Diócesis, y concelebrada por numerosos sacerdotes, y a la que asistió la Autoridad local, y multitud de fieles y amigos de las religiosas que abarrotaban el templo.

ADMISION AL NOVICIADO

Procedente de la Comunidad del Monasterio de Nuestra Señora de los Remedios de Artziniega (Araba), el 24 de abril de 2004, Sor Vigilia Cagang Judaya, a petición propia, fue admitida en nuestra Comunidad, ingresando como novicia para completar su formación con el segundo año de noviciado.









2001

CHILLIDA - LEKU, ESPACIO MÁGICO

**J. Ángel Azke Oraien
(HERNANI 2000/01)**



Cuando tantas veces hemos pasado por delante de lo que, para nosotros, ha sido siempre la finca Lore Toki dedicada a la cría caballar, no imaginábamos que dentro de su gran superficie escondía un tesoro, un espacio de remanso y paz, con hermosas y verdes praderas donde durante años han pastado cientos de rebaños de ovejas así como otros tipos de animales, bosques de robles, hayas, plátanos, etc. Y como elemento clave en un alto y prácticamente en el centro de la finca, un hermoso caserío con denominación de origen Zabalaga, noble escudo de armas en su fachada principal, erigido hacia 1543 y perdurando hasta nuestros días como una joya de nuestra arquitectura popular euskaldun. En todo lo descrito parecía que el tiempo no dejara señal alguna de su paso, a no ser por el deterioro que sufría el edificio. Todo permanecía igual de

tranquilo, verde, hermoso. Pero el destino quiso que este entrañable lugar se topara con el sueño de un escultor y de toda su familia. El escultor era Eduardo Chillida y su sueño consistía en crear un espacio donde pudieran descansar sus esculturas y que la gente pudiera caminar entre las mismas como si de un bosque se tratara.

En 1984 la familia Chillida adquiere tan hermoso lugar y a partir de entonces y hasta su inauguración todo ha sido entregarse en un trabajo arduo y con sus propios medios, para crear un espacio único, un espacio mágico como es Chillida-Leku.

Aquí el arte y a naturaleza se abrazan dando lugar así a un hito cultural que hará que Hernani, así como Euskal Herria, traspasen las fronteras tanto artísticas como geográficas.



Superada la pequeña historia pasaremos a disfrutar del museo, del espacio, en definitiva de Chillida-Leku.

Udalak garbi izan zuen honen aurrean zerbait egin beharra zegoela eta horrela, Aranzadi Zientzia Elkar-teak, Mendiriz Mendi Elkartarekin batera, Herna-niko Ibilbide Sarea osatzea proposatu zuen. Herna-niko Ibilbide Sarea, bat zetorren lortu nahi ziren helburuekin eta moduekin. Hernani, mendiarekiko zaletasun handia duen herria da eta herri urbaniza-tua denez, ibilbideen eraketak, herrian bertan aisial-diaz gozatzeko aukera ere ematen zuen. Eta noski, Hernaniko ondarearen puntu garrantzitsuenetari-koetatik igarotzen zen bide sare berri baten erat-zeak, ondarea hernaniarregana modu atseginean gerturatzea eragingo zuen. Dударик ez zegoen bada: has gaitezen Hernaniko Ibilbide Sarea sortzen!

HERNANIKO IBILBIDE SAREA: SOILIK HERNANIARRONTZAT?

Sarearen eraketak helburu nagusi bat bazuen ere, segituan hasi zitzaizkion helburu gehiago gehitzen. Izan ere, Turismoaren gaiak gero eta indar handia-goaz zuen herrian, ezin ziren Hernani ezagutzera etor zitezkeen bisitariak ahaztu. Honela, sarea disei-natzen jarri aurretik, lau helburu nagusi bete behar zituela adostu zen:

- Hernaniko kultura, historia eta natura ondarea ezagutaraztea.
- Aisialdirako aukera berriak eta gune berriak ahalbidetzea.
- Turismo berdea herrira erakartzea.
- Herriko ikastoletan Hernaniko ondarea lantzeko aukerak ematea.




Lau helburu hauek ardatz harturik, ibilbideek izan behar zituzten ezaugarri ezberdinak finkatu ziren:

- Zirkularrak izan behar zuten: gune berean hasi eta bukatu behar zuten.
- Nahiz eta beste udalerrietatik pasa, Hernanin hasi eta bukatu behar zuten.
- Adin ezberdinetako pertsonentzat diseinatuak behar zuten eta zailtasun ezberdineko bideak behar zuten izan.
- Ibilbide bakoitzak, intereseko gune ezberdinetatik pasatu behar zuen.
- Ibilbideek, ahal zen heinean, ezin zuten elkarren artean gurutzatu.
- Ibilbideak ondo balizatuak eta markatuak behar zuten egon.
- Bide bakoitzari buruzko eta pasatzen zen gune bakoitzari buruzko informazioa zekarren esku-orriak atera behar ziren.
- GPS bidezko track-ak hartu behar ziren ibilbide bakoitzarentzat.
- Ibilbide Sareak Interneten, sarean, behar zuen izan.
- Ibilbideak, ezaugarri hauek betetzeaz gain, erakargarriak behar zuten izan.

Helburuak eta ezaugarriak zeintzuk izango ziren erabakita, ibilbidearen diseinuari ekin zitzaion.

HAMAIKA IBILBIDE AUKERATZEKO

Eta honelaxe, Mendiriz Mendi Elkartek eta Aran-zadi Zientzia Elkartek, elkarlanean eta Udalaren la-guntzarekin, aurreko helburu eta ezaugarriak beteko zituzten hamaika ibilbide ezberdin diseinatu zituz-ten. Ezberdinak izanagatik, ordea, bazituzten ezaug-arriak komunean, eta honela ibilbide sarea izango zena hiru multzo nagusitan banatzea erabaki zen:


IBILBIDEEN KLASIFIKAZIOA			
	Urdinak	Homologatuak	Libreak
Zenbat ibilbide:	4	3	4
Balizatuta:	Bai	Bai	Ez
Markak:		 	Ez
Izena:	HIU	PR- / SL-	Ez
Noren ardura:	Hernani	Diputazioa	Hernani
Homologatuak:	Ez	Bai	Ez

- **Ibilbide urdinak:** Aiako Harria Natura Parkearen eremua zapaltzen ez duten ibilbideek osatzen dute eta marka zuri eta urdinez daude margotuak. Hauei dagozkien esku-orriak urdin kolorekoak dira.
- **Ibilbide homologatuak:** Aiako Harria Natura Parkearen eremua zapaltzen duten ibilbideak dira. Euskal Mendizale Federazioak, Foru Aldundiak eskatuta, diseinatu, markatu eta balizatuak dira. Hauei dagozkien esku-orriak lila kolorekoak dira.
- **Ibilbide libreak:** Aiako Harria Natura Parkearen barruan zein kanpoan egonda, balizatu eta marka-tu gabeko ibilbideak dira. Hauek egiteko esku-orrie-tako deskribapenak jarraitu behar dira nahi eta nahi ez. Esku-orriak arrosa kolorekoak dira.

MOTA ETA EZAUGARRI EZBERDINEKO IBILBIDEAK, GOZATZEKO ETA IKASTEKO DISEINATUAK

Luzera, malda metatua, iraupena, zailtasuna... kon-tuan eduki beharreko ezaugarriak dira ibilbideak di-seinatzerako orduan. Izan ere, pertsona bakoitzak ez du mendirako joera berdina, ezta zaletasun bera ere. Are gehiago, hezkuntzari eta etxeko txikienei gure on-darea ezagutarazi nahi badiegu, ibilbide motzak eta erakargarriak egon behar zuten, baina goiz osorako mendi buelta handiagoa eta gogorragoa nahi due-narentzat ere zerbait prestatu beharra zegoen. Bide batzuk, asfaltotik eta herritik gertu, besteak bidezido-rretik eta herritik urrun, ibilbide bakoitzak bere ezaug-arriak ditu eta hori da Hernaniko Ibilbide Sarearen ezaugarri ederrenetariko bat: aukera zabala duela.

HERNANI



Ibilbidea	Izena	Markak	Luzera	Denbora	Igoera
Santa Barbara	HIU-1		7,0 Km.	2:00	300 m.
Sagardotegiak	HIU-2		8,6 Km.	2:00	150 m.
Oindiri bira	HIU-3		8,4 Km.	2:45	285 m.
Urruzuno	HIU-4		8,6 Km.	3:10	450 m.
Epele	PR-Gi 1002		8,6 Km.	2:15	490 m.
Ereñotzu	SL-Gi 1002		4,1 Km.	1:15	240 m.
Oberan	PR-Gi 1001		10,7 Km.	4:00	800 m.
Larregain			3,7 Km.	1:00	192 m.
Osokori bira			11,8 Km.	3:45	810 m.
Latse			5,6 Km.	1:20	283 m.
Aparrain			3,7 Km.	1:15	285 m.

Ibilbide bakoitza banaka azaltzea alferrikako lana litzatekeenez, hemen aurkeztzen dizuegu ibilbide bakoitzaren ezaugarri nagusiak biltzen dituen taula, irakurleak sarearen deskripzio orokor bat behintzat izan dezan.

HERNANIKO KULTURA, HISTORIA ETA NATURA ONDAREA PAUSUZ PAUSU EZAGUTZEN


Herriko ondarea ezagutaraztea zen helburu nagusienetarikoa eta bideak aukeratzeko orduan ere, pisu handia izan du puntu honek. Arestian aipatu den moduan, diseinaturiko ibilbide bakoitza Hernaniko ondarearen parte den intereseko guneetatik pasatzen da. Ibilbide bakoitzean, gutxienez 3-4 puntu aukeratu dira, kasu batzuetan, agian gehiago ere jartzea bazegoen arren. Hauetaz gozatzeko lekuri hoberena, dudarik gabe, mendia den arren, hemen Hernaniko udalerrian topa daitezkeen gune interesgarri batzuk aurreratu ditugu, irakurleari puntu hauetara joateko tentazioa sortzeko asmoz edo.

Hernani herriko erdigunetik atereaz, edota Ereñotzu, Epele, Latse edo Ugaldetxotik irtenda, Santa Barbara, Akola eta Aparraingo atsedenera ederrak ezagutzeko aukera izango dugu. Baso ezberdinetatik paseatuko gara: Ezteizar, Pagosarde, Azerilepo eta/edo ezezaguna bezain zabala

den Oberango pagadian barrena galduko gara; eta Mospelango zokoa, Aparrain, Epele eta Ereñotzuko baso misto eta harizti ederrak zeharkatuko ditugu. Bailara malkartsu eta estuetan barneratuko gara. Purgatorio errekek, Usoko errekek eta Epele errekek urteetan zehar sortu dituzten bailaretatik esaterako. Mendi tontor txiki eta era berean ederretara igoko gara, Santa Barbarako gotorlekutik eta/edo ezezagunagoa den Saratsetako lepotik ikus daitezkeen bista ederretaz gozatzeko. Igorin-Akolako estazio megalitikoak igaroko ditugu, edo Muniskue ederrean, dolmenen albotik pasako gara. Hernaniko historia ezagutuko dugu Santa Barbarako gotorlekura igotzean, Latseko fabrikatik igarotzean, edo Fagollagako zubia, karobiak, Txirritaren oroitarria eta Comète sareko monumentua ezagutzean. "Hitz egingo" digute "hitz egin" historiaz Koronelarriko, Argurutzeko eta Jibraltarreko harri bereziek, mugarriek eta artamugarri misterioetsuek. Kultura eta natura aberastasun hau guztia gugandik oso gertu dago, zain, ibilbide hauek eginez guk noiz ezagutuko.

INFORMAZIO GUZTIA ESKU-ORRIETAN ETA HERNANIKO UDALEKO WEBGUNEAN

Bost urte luzeetako lanaren ondoren, 2012ko azaroan, Mendiriz Mendi Elkartek antolatutako Mendizale Astearen ekitaldi nagusian aurkeztu zitzairen "Hernaniko Ibilbide Sarea" herritarrei. Bertan, jen-



Esku-orriak doakoak dira eta Hernaniko Biteri kultur etxean aurkitzen den Turismo informazio puntuan daude eskura eta baita Biteri kultur etxeko parean jartzen den Turismo informazio gunean ere. Bestalde, Ereñotzu ingurukoentzat Ereñotzuko Udalean eta tabernan ere lor daitezke eta Epeleko auzotarrek Irubide Jatetxeen dute gunerik gertukoena.

Baina esku-orrietaz gain, ibilbide bakoitzak ere badu bere track-a osatua eta beraz, GPSaren laguntzaz bi-

dea osatu nahi duen edonork, ez du web gunera joan eta deskargatzea baino egin beharrik. Gainera, track-arekin batera, bideari dagokion informazio guztia jaitsi ahal izango du erabiltzaileak doan .pdf formatuan. Hauxe da web gunearen helbidea:

**URTE ERDIAN, HERNANITIK MADRIL ETA TOU-
LOU-SERA, FERIAZ FERIA**

Ibilbide Sarearen bidea oraindik ere motza den arren, urte erdian gure herriko esku-orriek Euskal Herritik kanpoko hiri ezberdinak bisitatu dituzte. Turismo feria ezberdinen aitzakiaz, Iruñan ospatu zen Nafarroako NAVARTUR-en, Donostiako Kursaal-ean ospatu zen SEVATUR-en, Madrilgo FITUR-en eta Toulouse-ko MAHANA-n egon dira Hernaniko ibilbideak, eta nola ez Hernaniko ondarea.

Dударик ez da, hasiera bateko helburua hernaniarroi gure ondarea erakustea bazen ere, ibilbideen erakargarritasunak inguruko herrikoak eta urrutixeagokoak ere ari dituela erakartzen Uru-meako bailarara. Hilabete batzuk baino ez di-tuen Hernaniko Ibilbide Sareak hasiera oparoa izan duela esan dezakegu harro.

IBILBIDE SAREA:

HERNANIARREK HERNANIARRENTZAT EGINA

Azpimarratzekoa iruditzen zaigu aipatzea, Ibilbide Sarearen eraketan parte hartu duten pertsona guztiak hernaniarrak direla. Hauen ilusioa eta lanerako gogoari esker burutu eta bukatu ahal izan da bost urtetako proiektu luze hau.

Mila esker laguntza eskaini diguten guztiei:

Ibilbide Sarearen diseinua, eraketa eta testuen sorrera:

- Jesus Mari Azkue (Mendiriz Mendi Elkartea)
- Iñaxio Sanz Zalakain (Mendiriz Mendi Elkartea)
- Iñaki Sanz-Azkue (Aranzadi Zientzia Elkartea)

**Ibilbide urdinen balizatzea eta markaketa
(Mendiriz Mendi Elkartea):**

- Jesus Mari Azkue.
- Joxe Miguel Ollo "Kixko".
- Iñaki Zuza.

Hernaniko Udala:

- Gurutze Amigorena (Turismo teknikaria).
- Olatz Urrutibeaskoa (Ingurumen teknikaria).
- Jesus Mari Gómez “Txuso” (Artxibo teknikaria).
- Roxario Pikabea (Landazaina).

Laguntzaileak:

- Jose Zuza “Txe”.
- Juan Aginaga.

CONOCIENDO EL HERNANI DESCONOCIDO:

HERNANI EZAGUTUZ



Visita guiada del año 2012.

Durante los cinco años en los que se ha trabajado en la creación de la Red de Senderos de Hernani, el club de montaña Mendiriz Mendi y la Sociedad de Ciencias Aranzadi, en colaboración con el Ayuntamiento de Hernani, han organizado una visita guiada anual para dar a conocer los recorridos que componen dicha red. Estas visitas guiadas, más conocidas como “Hernani ezagutuz”, han servido, a su vez, para acercar el patrimonio natural, histórico y medio ambiental del municipio a los hernaniarras y a personas interesadas de fuera de Hernani. Para ello se han realizado cuatro salidas que han contado con la colaboración de dos miembros de Aranzadi: el historiador responsable del Archivo del Ayuntamiento, Jesús Mari Gómez “Txuso” y del biólogo Iñaki Sanz-Azkue, ambos hernaniarras.

Además de estas visitas guiadas, enfocadas para adultos, dentro del mismo proyecto, Mendiriz Mendi ha organizado una salida anual por Hernani, destinada a los más pequeños de la casa.

Tanto las salidas para los más jóvenes, como las visitas guiadas organizadas para adultos han sido un verdadero éxito y han contado con muchísima asistencia de gente. Desde 2009 hasta 2012, las visitas guiadas han contado con un mínimo de 81 personas el primer año y un máximo de 130 el último. Las salidas para niños también han ido aumentando año tras año, con 45 niños el primer año y 120 el último.

El proyecto “Hernani ezagutuz” que finalizó en 2012, coincidiendo con la presentación pública de la Red

de Senderos de Hernani, ha demostrado que Hernani tiene un rico patrimonio que debemos conservar y proteger. Pero también nos ha demostrado que el valle del Urumea puede ser un lugar apropiado para atraer a turistas que pueden estar interesados en el turismo activo y en el patrimonio del valle.

HERNANI EZAGUTUZ-EKO AZKEN EKITALDIAN, HERRIKO PARAJERIK EDERRENETARIKOAN UTZI GINTUEN PACO SECOREN OMENEZ:



Hernani ezagutuz
jaialdi ederra
antolatzen da herrian.
Udaletxea, Mendiriz Mendi
ta Aranzadi batian.
Aurten eguna tristea izan da
lagun bat zendu zen mendian.
“Paco” rekin ez gara ahaztuko
bizi garen bitartian.
* * * * *

Antton Garin
(“Txinparta” koadrila)



Aparraingo basoa




Pagosardeko basoa



Argurutzeko harkaitzak



Latseko fabrika zaharra



Fagollagako zubia




Jibraltarko harria



Hernaniko
Udala



Fagollagako fabrika zaharra



Txirritaren oroigarria



"Sagastietako lepoa I" trikuharria



ARANZADI

zientzia elkartea . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences



2009

NERE BORDA, HERNANIKO LORATEGI BOTANIKOA

Iñaki Sanz-Azkue eta Anaïs Mitxelena
(HERNANI 2009)



Argazkia: Jesús Mari Azkue.

Londreseko "Royal Botanic Gardens"-aren handitasunik edo eta "Orto botanico di Pisa"-ko lorategi botanikoaren historiarik ez duen arren, Hernanin bertan herritik aldendu gabe ere badugu landare eta zuhaitz bereziez goatzeko aukera ematen digun txokoa. "Nere Borda" du izena eta Hernaniko Lorategi Botanikoa da.

LORATEGI BOTANIKOA HERNANIN

Koloradoko izeiak, palmondo kanariarrak, jukak, jasminak, pago gorriak... Nere Borda jardin botanikoak mota eta jatorri ezberdinetako landareak biltzen ditu eremu txiki baina erakargarrian. Herriaren erdigunetik 10 minutura, lorategia Latsunbe auzoko biribilgunearen alboan dago kokatua eta Hernaniko udalerriko ondare kultural eta naturalistikoaren katalogoan dago jaso.

Landareez gain, ordea, badira lorategia berezia egiten duten beste ezaugarri batzuk ere. Horietan azpimarragarrienetakoa jardinak berak duen diseinua da. Nere Bordakoa, lau eremu ezberdinez osaturiko lorategia da: lorategi ingelesa, basoa, lorategi klasikoa eta lorategi esperimentalak ditu. Hauetan guztietan aurkituko ditugun landareak identifikazio-txartel batekin hornituak daude, bisitariak zein espeziearen aurrean dauden jakin dezaten.

Eremu irekia edo lorategi ingelesa

Biribilguneetik gertuen dagoen parkearen zatia da. Gainontzekoak bisitatzeko ordutegi bat dagoen arren, lorategi ingelesa guneko irekia da, abiapuntura itzultzen den bide zirkular batez osatua eta mota askotako espezieez apaindua.

Zedro urdina, Himalaiako zedroa eta magnolioak dira, Kanarietako palmondoekin batera, lorategi in-



Argazkia: Jesús Mari Azkue.

geleseko zuhaitzik esanguratsuenak. Hauen babesean zuhaixka eta loreak aurkituko ditugu, hauek ere kanpotik ekarriak.

Basoa

Zuhaitz handi eta zuhaixkez osaturiko gun e itzaltsua da. Lorategiaren iparraldean dago kokaturik eta haize babesgarri lanak egiten ditu.

Bertan, bide baten alde bietara izei gorriak, intsinis pinuak eta erramu orbandunak nagusitzen dira. Baina agian bide ertzean aurki daitekeen intsinis pinuetako bat da guztietatik aipagarriena.

Hernaniko Udalak, 2003. urtean, ale hau Zuhaitz Bezezien Katalogoan sartzeko eskaera egin zuen. Izan ere dituen dimentsioak apartekoak dira, 25 metroko altuera eta ordurarte Gipuzkoan ezagutzen zen enbor-perimetro lodiena (441 cm) baititu.

Lorategi klasikoa

Lau zatitan banaturiko karratu itxurako eremua da. Bertan Kanarietako palmondoak dira gehien ikusten direnak. Bide ertzean, aldiz, ezpelak eta basaerramuz

osaturiko tontorkak azaltzen dira, lorategi klasikoa modu erakargarri batean apainduz.

Lorategi esperimental (eremu didaktikorako erabilia)

Garai bateko atsedenekua da. Egun jarduera parte-hartzaileak eta didaktikoak egiteko prestatua dago. Ur-landareak dituen putzuaz gain, bada aldizkako landaketa aldagarriak egiteko gun e bat ere, baita informazio taulak jartzeko horma-markesina bat ere.

HALLE-TARREN LORATEGI PRIBATUTIK HERNANIKO PARKE BOTANIKORA

2000. urtean Hernaniko Udalak lorategia erosi zuen arte, egun Nere Borda dena jatorri alemaniarreko Halle senar-emazteena izan zen. Parkearen alboan dagoen etxebizitzan bizi ziren eta gaur parke botanikoa dena euren lorategi pribatua izan zen. Baina Udalak lorategia erosi zuenerako jardina dagoeneko diseinaturik zegoen eta kanpotik ekarritako espezie asko bertan zeuden landatuak.

Guzti honek zer pentsatu eman zigun. Jardina diseinatu zuen lorategiei zein botanikari buruzko eza-



Intsinis pinua. Argazkia: andre kale 35.

gutza handia eduki behar zuen... Izan ere, ekarritako landare arrotzak euren baldintzetatik kanpo landatzea eta haztea ez zen lan erraza. Are gehiago, lorategiak zuen itxurak, egileak landareekiko ezagutza eta afizio handia zituela adierazten zigun eta baita dirua horretan gastatzeko aukera ere!

Hau honela izanik, Kurt Halle (senarra) eta Lidia Hallerentzat (emaztea) lan egindako bi hernaniarrekin elkartzearabaki genuen.

Lidia Halle, lorategi botanikoaren ama?

Maria Pilar Carrerak Halle-tarrek Orkolagan zuten lantegian lan egin zuen urte askoan. Mantilak eta errezelak egiten zituzten bertan eta Kurt Halle zen bertako nagusia. Hau dela eta senar-emazteen artean Kurt bera, fabrikako nagusia, izan zen hoberen ezagutu zuena.

Patxi Apezetxeak, aldiz, Lidia Halle emaztea ezagutu zuen. Nere Bordako jardinarene lorategiaren mantentzen eman zuen 20 bat urtez Halletarren jabegotasunean zenean. Bertara astean 3-4 egunez joaten zen lau orduz lan egitera.

Kurt eta Lidia Halle II. Mundu gerrarekin batera azaldu ziren Hernanin. Biak ala biak alemaniarrak baziren ere senarra jatorri judutarrekoa zen. Maria Pilarrek adierazi digunaren arabera Halle-tarrak Plaza Berrian bizi izan ziren lehendabiziko urteetan, beranduago egun jardín botanikoa dagoen etxera joan baziren ere.

Loreei buruz hitzegitean, ordea, Lidia Halleren izena da azaltzen dena. Gogoan ditu Maria Pilarrek Lidiak fabrikaren kanpoaldean zituen loreak. "Oso jardín-zalea zen emaztea" dio Maria Pilarrek. "Berak (Kurt Hallek) nahiko lan zuen fabrikarekin" dio.

Patxik berak ere, hasieratik baieztatu digu Maria Pilarrek aipatutakoa. Lidia Halleri izugarri gustatzen zitzaizkion loreak eta "jardín emazteak berak diseinatu zuen". Patxi lorategian lanean hasterako landare gehientsuenak landaturik zeuden jada, orain kiroldegia dagoen lekuan zeuden pinuak izan ezik: "hauetariko batzuk guk geuk landatu genituen lorategian" dio.

Nabaria da Patxik ordu asko sartu zituela bertan lanean, oraindik ere buruz zenbatzen dizkigu eremu bakoitzeko zuhaitzak. "Jardín oso txukun edukitzea gustatzen zitzaion señoari, belar txarrik gabe! Eta halaxe ibiltzen nintzen ni, belarrak banaka kentzen, magnolioei piramide forma ematen..."

Senarra eta alaba hil zitzaizkionean, Lidia bakarrik geratu zen eta bere bizia eta ilusioa lorategian jarri zituen. Jana edo eta arropan diru askorik ez zuela gastatuko baina lorategian dirua uzteak ez ziola inportare esan izan zion Patxiri behin baino gehiagotan.

Lidiak landareekiko zuen ezagutza eta pasioari esker bere jardín botaniko propioa diseinatu zuen etxean bertan. 2000. urtetik hona ordea bere lorategia zena, bisitatu nahi duen ororentzat dago irekia "Nere Bordako Jardín Botanikoa" izenpean. Lidiak, zoritxarrez, ez zuen halakorik ezagutu.

Lorategi botanikoak eta euren garrantzia espezie mehatxatuen kontserbazioan

Parke edo lorategi botaniko bat landareak, batez ere iratze, landare loredunak eta zuhaitzak dituen gunea bat da. Baina lorategi arruntetan ez bezala, jardín botanikoetako landareak ikerketarako, kontserbaziorako eta hezkuntzarako hazten dira.

Ezagutzen den zaharrena XVI. mendekoa da, 1543an Pisako Unibertsitateak medikuntzarako erabiltzen

Hernaniko Parke Botanikoa

Ordutegia Horario

NEGUAN Inbierno: 9:00 - 18:00
UDIAN Verano: 9:00 - 20:00

EGUNERO IREKITA DAGO Atertu todos los días

ZATOK
EZAGUTZERA
HURBIL ZAITEZ
VEN A
CONOZCERLO
ACEPDATE

HERRIAREN ERDIOGUNEK 10 MINUTUTARA

Aberastasu botanikoa eta disetua
elkartzen dituen parkea.

Konifera ezberdinak, Gipuzkoan dagoen
pinurik handiena izan daitekeena, hosto
gaikorreko zuhaitzak, denborarik diko
kolore bizidun loreak, urmatia,
nerutseak, arraitxoak...

Kolore eta material ezberdinetako
harizuek gaitzadutako bideak,
egurreko eta harizko aukiak...

5.685 m² familiarekin gozatzeko, lasai
egoteko, paseo bat emateko, natura
miresteko, irudimena askatzeko...

A 10 MINUTOS DEL CENTRO

Un parque que une la riqueza botánica y
el diseño.

Variedad de coníferas, el que posiblemente
sea el pino más grande de Guipúzcoa,
árboles de hoja caduca, flores de temporada
con vivos colores, un estanque, ramilletes,
péculas...

Caminos pavimentados con colores y
materiales diferentes, bancos de madera y
de piedra...

5.685 m² para gozar con la familia, para
relajarse, para dar un paseo, para admirar
la naturaleza, para dar rienda suelta a la
imaginación...

A Eremu irekia: Lorategi ingeleza

Zona abierta: Jardín inglés

B Basoa

Bosque

C Lorategi klasikoa

Jardín clásico

D Lorategi experimentalia, Eremu didaktikoa

Jardín experimental, Área didáctica

1. SARRERA NAGUSIA, Informazio-taula

Acceso principal, Panel informativo

2. Zuhartz katalogatua

Árbol catalogado

3. Palmondoen birbilgunea

Rotonda de los palmitos

4. Urmasia

Callejón

5. Informazio-horma

Muro para paneles informativos

6. Nere Borda ebrea

Villa Nere Borda

7. Latsunboko birbilguneak sarrera

Acceso desde la glorieta de Latsunbe

HERNANIKO MAPA
Mapa de Hernani

Latsunboko birbilguneak sarrera
Acceso desde la glorieta de Latsunbe



Lorategiaren eta etxearen ikuspegi orokorra 1968 urtean.

ziren landareak ikertzeko sorturikoa. Egun, ordea, lorategi botanikoak mundu osoan zehar barreiaturik aurkitzen dira eta Kontserbaziorako Lorategi Botanikoen Elkarte Internazionala (BGCI) taldeak esaterako mundu osoko 800 kide (lorategi botaniko) biltzen ditu.

Lorategi botanikoek oso funtzio garrantzitsuak bete izan dituzte historian zehar eta egun ere hori bera egiten dute. XVIII. mendean, adibidez, esplorazio-bidaietatik ekarritako landareak beren jatorriko lurraldetik kanpo aklimatatzeko erabiltzen zituzten gune hauek. Egun, aldiz, turismo berdea erakartzeko ez ezik, jardín botanikoek funtzio oso garrantzitsuak betetzen dituzte landare espezie mehatxatuen kont-

serbazioan, hauekin erlazionaturiko ikerketetan edo eta ingurugiro-hezkuntzan.

Baina jardín botanikoetara ekartzen diren kanpoko landareekin ere ardura handia eduki behar da. Izan ere, hauetara ekarritako landare batzuen haziak ingurune naturalera zabaldu dira hemengo klimara egokituz eta landare exotiko inbaditzaile bihurtuz. Hau dela eta, egun, landare hauetariko asko arrisku-tsuak suerta daitezke ekosistema eta flora autoktonoarentzat.

Euskal Herrian bertan hainbat lorategi botaniko dira: Barakaldon eta Gasteizen esaterako. Baina gertutasunagatik agian Iturrarango lorategi botanikoa da



Eskerronak:

Maria Pilar Carrera Vera eta Patxi Apezetxea Navarroi, baita beraien senar eta emazteari euren etxean eskuzabaltasun eta goxotasun osoz hartu gintuztelako.

Bestalde, ez genituzke eskertu gabe utzi nahi Ines Sarasua eta Agustin Sanz, lorategiaren jatorriari buruzko informazio bila noraezean ginenean bidea argitu zigutelako.

ezagunena gure artean. Gipuzkoako Aia herrian Pagoetako Parke Naturalaren barruan dagoen 10 ha-ko gune honek 2.400 landare ditu eta espezie atzerritar zein autoktonoekin osatua dago. Horrez gain, Euskal Herriko landare mehatxatuen bilduma bat du eta ibilbide batzuk ditu diseinatuak mota ezberdineko hainbat zuhaitz ikus daitezkeelarik bertan, bakoitza bere etiketaz identifikaturik.

Zein da Nere Bordaren funtzioa Hernanin? Nere Borda Parke Botanikoa Hernaniko turismo berdeari bultzada emateko tresna paregabea da, eta ere berean herritarroi ingurumen-hezkuntza lantzeko ez ezik, atsedena, aisia eta lasaitasunaz gozatzeko aparteko txokoa eskaintzen digu.



2016

MENDIETAKO BUZOIAK HERNANIN

Inaxio Sanz Zalakain
(HERNANI 2016)



1959-09-25. Herriko mendizaleak buzoi batekin, mendian jarri aurretik (Andres Olaondo, Joxe Joakin Esnal, Joxe Ramon Azkue, Jesús Arozena, Joxe Ramon Almarza "Atarrabiyo", Salvador Alvarez, Rikardo Goya eta Joxe Mari Gonzalez).

Mendira gutxi edo gehiago joan den edozein hernaniarrek jakingo du gailurretan aurkitzen diren buzoiak zer diren.

Izan ere, Euskal Herriko hainbat mendi puntetan forma eta itxura ezberdineko buzoiak ditugu eta hauek bertan ikustea, dagoeneko, ez zaigu arraroa egiten.

Euskal Herriko buzoiaren historia, ordea, ez da horren zaharra.

Aurreko urtean, 2015an, bete ziren 100 urte gure inguruan lehendabiziko buzoiak jarri zela.

Anboto mendian izan zen, hain zuzen ere.

Ordutik hona Hernanin edo Hernanirekin muga egiten duten gailurretan ere jarri dira buzoiak.

Aurreneko buzoiaren 100. urteurrenaz baliatuko gara gure inguruko mendietakoei buruzko ezagutza handitzeko.

Mendizaletasuna eta mendi elkarteak Euskal Herrian

Egun euskaldunon artean mendizaletasuna oso errotua badago ere, mendira gailurra egitera joateko ohitura gure artean nahikoa gauza berria dela esan dezakegu. Euskal Herriaren industrializazioarekin batera Europarekin harremana estutzen hasi zen, eta honekin batera hasi ziren bertako ohitura eta kirol ezberdinak sartzen gurean: tartean mendizale-
tasuna. Ez da harritzekoa, beraz, Bilbon sortu izana mendiari loturiko lehendabiziko taldea: “Los Gane-
kogortos” izenekoa. 20 pertsonaz osaturiko talde hau izan zen 1870-71 inguruan lehendabiziko mendi ir-
teerak antolatu zituen. Taldeak, ordea, ez zuen ja-
rraikitzen izan, eta ez zuen mendi elkarte sork-
tzeke indarrik izan.

1894an etorri zen *Gimnasio Zamacois* izenarekin, mendi irteerak antolatu zituen lehendabiziko elkar-
tea. Denborarekin *Gimnasio Zamacois* izango zen C.D. *Bilbao*-ri bizia emango ziona. 1912an sortu zen C.D. *Bilbao*.

Mendizaletasuna bultzatzeko lehen ahalegina: buzoien sorrera

1913an C.D. *Bilbao* izeneko elkarte honetan bertan izendatu zuten presidente Euskal Herriko mendiza-
letasunaren aitapontekoa bezala hartua dagoena: Antxon Bandres Azkue. Antxonek ordura arte nahiko kirol elitista zen mendizaletasuna gehiago zabaltzeko nahi izan zuen, gizarteko beste eremuetara iritsi ze-
din. Gizarte industrialean zeuden bulegoetako lan-
gile, komertzioetako jabe, artisau etab.-engan jarri zuen amua.

Helburu hori lortu nahian sortu zen Euskal Herrian jarri zen lehendabiziko buzoia. 1915eko maiatzaren 30an, 1.331 metro dituen Anboto mendian jarri zuen buzoia C.D. *Bilbao*ak. Inaugurazio egunean idatzi bat-
zuk sartu zituzten Bizkaiko Aldundiari, Udaletxeari, kirol elkartei, Espainiako Club Alpinoari eta bertan ez zeuden bazkideei. Idatzi hauetan eskakizun bat egiten zen: Anboto igoko zen pertsona orok utzi ze-
zala buzoian paper bat, izena, herria eta data jarriaz. C.D. *Bilbao*ak liburu bat ireki zuen igotzen zirenen kontrola eramateko, eta, bide batez, mendizaleta-
suna sustatzeko. Bitxikeri moduan, esan daiteke, ga-
rai hartan buzoiak 260 pezetako prezioa izan zuela.

Ekintza honetaz gain, ordea, Antxonek hiru zutabe proposatu zituen mendizaletasuna sustatzeko:

1. Euskal-Nafar mendi federazioa sortzea.
2. PYRENAICA boletina sortzea
3. Mendi lehiaketak sortzea.

Beranduago hirurak bete ziren, eta hirugarrenarekin batera hasi ziren Euskal Herriko mendietan buzoiak jartzen.

Mendi lehiaketak: buzoiak zertarako?

Antxon Bandres Azkuek proposaturiko hirugarren zutabea mendi lehiaketak sortzea zen. 1918an 100 mendien lehiaketa sortu zuten horrela, egun orain-
dik ere martxan dagoena. Hauek ziren lehiaketaren berezitasunak:

- 100 mendi igotzeko proposamena egiten zuten. Helburua 5 urtetan (20 mendi urteko) eta gehie-
nez 10 urteko iraupenean (10 mendi urteko) 100 gailur egitea zen. Helburua mendiak ezagutzea zen, ez ahalik eta azkarren egitea.
- Herrialde guztietako mendiez osaturiko katalo-
go bat osatu zuten. Mendi hauek ziren egin be-
harrekoak. Ez zuen edozein mendik balio.
- Mendi guztiek ezberdinak izan behar zuten. Ezin ziren mendiak errepikatu.
- Gailurreko buzoian txartela utzi behar zen, eta igotzen zen hurrengo mendizaleak aurrekoaren elkartera bidaliko zuten.
- Elkarteak egingo zuen mendizaleak mendi ho-
riek igo zituenaren kontrola.

Hau da, lehiaketa honek mendi gailurretan buzoiak jartzea eskatzen zuen. Hau dela eta, azkar hasi ziren zabaltzen Euskal Herri osoan mendi gailurretako bu-
zoiak. Bitxikeri moduan esan beharra dago 23 per-
sona izan zirela lehendabiziko 100 mendien lehiaketa bukatu zutenak 1923an.

Euskal Herri mailan gertatu zen lehiaketa eta men-
dietako buzoien sorkuntza honetan Hernani ez da salbuespena izan eta bi gauzak izan ditugu gurean XX. mendearen erditik aurrera.

Hernaniko mendi lehiaketak

Gure herriko mendi elkarteek (Mendi Gain eta Men-
diriz Mendi, garai haietan) ere 1950-60 urteetan mendi lehiaketak antolatzeko hautua egin zuten. Mendi kopurua baino, igo beharreko metro kopurua hartzen zuten oinarritzat. Honela, urte bakoitzeko igo behar zen metro kopurua zehazten zuten. Ga-
raiak ere beste batzuk ziren, eta gaztetxo eta hel-
duek egin beharreko metro kopurua ezberdintzeaz gain, emakume eta gizonek egin beharrekoak ezber-
dintzen zituzten. Hauek ziren urte bakarrean egin behar zituztenak:

- Gaztetxoek: 5.000 metro.
- Emakumeek: 15.000 metro.
- Gizonezkoek: 30.000 metro.

Mendiriz Mendi elkartearen 1959ko iraileko boleti-
nan azaltzen denaren arabera, bazkideek zuten soi-
lik lehiaketa honetan parte hartzeko aukera, eta go-
gorarazten diete parte hartzaileei irailaren 30a baino lehen eman behar dizkietela delegatuei igo dituzten mendien parte. Ohartarazten zaie, era berean, egun



Santa Barbaran "Finalista eguna" 70. hamarkadan. (Antton Garin, Joxe Ramon Almarza "Atarrabiyo", Mikel Urruzola, Gema Izagirre, M^a Jose Ezeiza, Ixiar Laburu, Arantxa Rekondo, Koro Etxeberria, Ina Idarreta, Lurdes Arabaolaza eta Marimi Azkue).

horretatik aurrera, mendia igo eta 15 eguneko epea izango dutela partea eramateko.

San Inazio egunean, lehiaketako baldintzak bete zituzten mendizaleei domina ematen zitzaaien Santa Barbaran. "Finalista eguna" ere ospatu izan zen beste mendiren batzuetan.

Mendietako buzoiak Hernanin

Aurretik aipatu den moduan, Hernani ere ez zen atzera geratu lehiaketa eta buzoien kontuan. Honela, Hernani eta Hernanirekin muga egiten duten gailurretan ere aurki ditzakegu buzoiak.

Hauek beti herritar bolondresak jarri ohi zituzten. Galdaragintzan lan egiten zuen jendea beti izaten zen kuadrila edo lagunartean, eta hauek izan ohi ziren buzoiak egiten, eta, askotan, diseinatzen zituztenak ere. Kasu askotan mimo handiz, eskalak mantenduz eta koloreak errespetatuz, zerbaiten erreplika bazen.

Jartzeko eguna, lagun artean, mendian igarotzeko egun berezia izaten zen normalean. Buzoiak konpontzeko prozesuan ere (izan baitira konpondu behar izan direnak) antzekoa izaten zen Mendiriz Mendi Elkartean, esaterako. Buzoia gaizki ikusten zutenean, kendu, menditik jaitsi, konpondu eta bes-



amandrearen figura zuenik ez genuen ezagutu. Li-tekeena da urte horretatik aurrera galdu egin izana.

Zaburu mendiaren amandrea da, esaterako Lupe Azpiazu. Zaburu, Hernaniko mendietan jarri zen lehendabiziko buzoia izan zen, 1954-04-18an eta Lupe izan zen aukeratua amandre izateko.

90.eko hamarkadan, buzoia oso hondatua zegoen eta konpontzeko behera jaitsi genuen buzoia. Konpondu ostean, jarri zuten koadrilarekin hitz egin, eta denok elkarrekin joan ginen berriro jartzera. Egun berezia izan zen, alde batetik, egun bera errespetatu zelako, 1993ko apirilaren 18an jarri baitzen berriro. Bestetik, 1954an jarri zuten asko ere bertan izan zirelako.

Baina, hori gutxi ez, eta hauen seme-alabak, suhiak etab. ere joan ziren egun hartan. Jartzeko prozesua, egun berezi bihurtuz.



1993-04-18. Zaburuko buzoia konpondu ostean, berriro jarri zen eguna.

te egun batean jartzen zuten. Askotan, elkartearen mendi irteera bat baliatzen zuten horretarako (Eulatz-, Aralar-, Guratz-, Gorriti- mendietan egin zen moduan) edo lagunekin egun pasa egiten zuten.

Hernaniko buzoien amandreak

Buzoiak jartzerako orduan Hernanin ohitura izaten zen amandrea izendatzea buzoia bakoitzari. Ez dakigu Hernanitik kanpo ohitura bera zegoen. Amandreak ez zuen eginkizun berezirik. Mendi Elkartean ibiltzen zirenek, bertako neska mendizale bat aukeratzeko zuten eta jarri beharreko buzoia amandre izendatzen zuten. 70. hamarkadatik aurrera, ordea,

Buzoiak Hernaniko paisaia

Mapa honen bidez, Hernaniko mendietako buzoiak non dauden adieraziko da, irakurleak hauek kokatzeko erraztasuna izan dezan:



Egilea: Ana Felipe

Buzoi ezberdinei buruzko informazioa

AGIÑA

Altuera: 442 m.

Nork jarria: Ereñotzuko "Olak" Auzo Elkarte eta Mendiriz Mendi Elkarte.

Data: 1994-02-20.

Koordenadak: UTM 30T X: 0587689; Y: 4787571 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Ez.

Bitxikeria:

Joxe Legarretaren oroimenez
*Mendiak asko maite zenittun
oietatik bat "Agiña".
Zure denboran amaika aldiz
igo ta jetxi egiña,
Gure ingurugiroa zaintzen
egin zendun alegiña,
Ondorengoak izan zezaten
bizileku atsegiña.*



AKOLATXARA

Altuera: 359 m.

Nork jarria : Ez du buzoirik.

Koordenadak: UTM 30T X: 0587118; Y: 4789079 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Ez.

Bitxikeria: Club Vasco de Campingek jarritako buzoi izan zuen denbora laburrez. Norbaitek kendu zuen eta ordutik buzoirik gabe egon da.



AZKETA

Altuera: 834 m.

Nork jarria: Mendi Gain eta Mendiriz Mendi elkar-teek.

Data: 1973-12-16 (2006-04-23an konpondua).

Koordenadak: UTM 30T X: 0586182; Y : 4781398 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Bai.

Bitxikeria: Hernaniko gailurrik altuena. Mendi Gain eta Mendiriz Mendiko mendizaleek jarritako buzoi.



IGOIN

Altuera : 457 m.

Nork jarria : Mendi Gain eta Mendiriz Mendi elkar-teek.

Data : 1979-12-02.

Koordenadak : UTM 30T X : 0588822 Y : 4789879 (WGS84).

Mendi Katalogoan : Bai.

Bitxikeria :

Ildako mendizaleen oroigarria

*Usoa eskutan harturik
nahi zuten paketu,
Bainan usoa zegoen
piska bat elbarritu,
Ezkerreko egoa
zitzaion faltatu,
Orain ongi ikusten da
Euskadi ez dute askatu.*



MERKU

Altuera : 477 m.

Nork jarria : Ez du buzoirik.

Koordenadak : UTM 30T X : 0586515; Y : 4784019 (WGS84)

Mendi Katalogoan : Ez.

Bitxikeria: Hernaniko mendi ezezagunenetarikoa eta buzoirik gabea.



OINDI

Altuera : 545 m.

Nork jarria : Mendi Gain eta Mendiriz Mendi elkar-teek

Data : 1975-12-21

Koordenadak : UTM 30T X: 0585115;

Y: 4787132 (WGS84)

Mendi Katalogoan : Bai.

Bitxikeria: Oindiko puntan hiru buzoi ezberdin aurki daitezke.



SANTA BARBARA

Altuera: 240 m.

Nork jarria: Langaitz, Mogel, San Bartolome eta Landaberri ikastolek.

Data: 1998-11-15.

Koordenadak: UTM 30T X : 0582128; Y : 4790758 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Ez

Bitxikeria : "EUSKARAZ BIZI, mendian ere euskara ezpainetan".



URDABURU

Altuera: 598 m.

Nork jarria: G.M. Urdaburu.

Data : Plaka kenduta dago.

Koordenadak: UTM 30T X: 0589264; Y: 4787761 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Bai.

Bitxikeria: 2016ko urtarrilean atera zitzaion argazkia buzoiari. Martxoaren 30an, berriro igo, eta dagoeneko ez zegoen. Itxuraz, ezezagunen batek kendu du, berriro ere.



ZABURU

Altuera: 778 m.

Nork jarria: Lupe Azpiazu (amandria), J. Garcia, F. Aranburu, J. Gonzalez, X. Sistiaga, A. Rodriguez, C. Gonzalez, J. Telleria. Mendiriz Mendi Elkartea.

Data: 1954-04-18 (1993-04-18an konpondua).

Koordenadak: UTM 30T X: 0584641; Y:4782361 (WGS84)

Mendi Katalogoan: Bai

Bitxikeria: Mendiaren puntak banatzen ditu Hernani, Elduain eta Urnieta udalerrien mugak.





Emakume kuadrila bat buzoi baten inguruan. (M^a Pilar eta Xatur Karrera, Konsuelo Oruezabala, M^a Jesús García, Flori San Jose eta Arantxa Goya).

Buzoiak bai, buzoiak ez

Buzoiak mendi gailurretan jartzeko ohiturak ere sortu ditu eztabaidak mendizaleen artean. Batzuen ustez, mendizaletasuna sortzeko oso erabilgarriak ziren/dira eta merezi zuen/du gailurrean buzoiak jartzea. Beste batzuen ustez, ordea, “txatarra” mendian uztea da, eta mendizaleak mendia maite badu, ez du zergatik buzoiak beharrik erakarria izateko.

Kontua da dagoeneko Hernani inguruetako mendietan badirela buzoiak jarriak eta horren aurrean postura ezberdinak defentsa daitezkeela. Batzuek kentzeak merezi duela esango duten moduan, beste batzuentzat mendizaletasunaren historiaren parte ere badira, eta beraz, zaindu beharrekoak dira, gazteenentzat oraindik ere motibagarriak dira. eta laino itxiko egunetan erreferentzia ona izan daitezke.

Honen harira, badira puntu batzuk, nire iritzi apa-lean adierazi nahiko nituzkeenak:

- Buzoiak arautu egin beharko lirateke, arautuz gero, gauza positibo asko ekar dezaketelako.
- Esate baterako, mendi gailur bakarrean buzoi bat baino gehiago egoteak ez du zentzurik, eta bakarra egotea arautu beharko litzateke.
- Buzoia jarri duenak hartu beharko luke berau mantentzeko ardura ere.

Lehiaketak eta buzoiak berreskuratu gure herria hobeto ezagutzeko

Artikulu hau irakurri duzuen askok pentsatuko zenuten dagoeneko, artikulu honetan bertan aipatu diren mendietako batzuk ez dituzuela inoiz igo, eta/edo nahiz eta igo, ez duzuela inoiz bertako buzoiak erreparatu.

Esan beharrik ez dago, hernaniar askok, mendizalea izan edo ez, ez dituela gure herriko gailur txiki eta ederrak ezagutzen. Honetarako, modu polita litzateke lehiaketak berreskuratzea eta antolatzea, non proposatzen den buzoiak dituzten Hernaniko gailurrak igotzea eta bertan txartela uztea.

Mendiriz Mendi Elkartea bera izan daiteke gailurrak egin dituztenen zerrenda emango duena. Dinamika oso erraza izan daiteke:

- Zazpi txartel berezi aterako dira buzoiak dituzten 7 mendien izenekin.
- Jendeak izena eman dezake lehiaketan, eta 7 txartelak hartu izena ematen duenean.
- Bi urtetako denbora izango du gehienez 7 gailurrak egiteko.
- Egiten duen gailur bakoitzeko buzoiak dagokion txartela utziko du, eta buzoiarekin argazkia aterako du gailurrean bertan.
- Eguneko gailur bakarra egin ahal izango da.
- Argazkia 15 egun baino lehen Mendiriz Mendira bidaliko da, edo dagokion web orrian jarriko da.
- Utzi duten txartela mendira igotzen den hurrengoak hartuko du eta Mendiriz Mendira eraman-gotziko du.
- Zazpi gailurrak egitean Mendiriz Mendik antolatzen duen “Mendizale Astea”n dagokion erre-konozimendua jasoko du.

Euskal Herriko buzoirik zaharrenak 100 urte bete dituen honetan, burnizko kaxa txiki hauek atzetik duten historia handia eta istorio txikiak beti izan-go dira gure mendizaletasunaren ondarearen parte. Artikulu honen bidez, Hernaniko kasua ezagutzera eman nahi izan da.



1992-06-14. Gipuzkoako eskolarteko mendi lehiaketako gaztetxoak Finalista eguna. Indamendi (Zestoa). Garikoitz Arruarte, Iñaki Sanz, Lander Fernandez, Julen López, Garikoitz Iradi, Joanes Mathiuet, Izaskun Baro, Nerea González, Leire Imaz, Irati Trantxe eta Idurre Sanz.

Eskerrak, artikulu hau egiteko laguntza eman di-daten guztiei, Joxe Ramon Aizpuru eta Ane Feliperi, bereziki.



2001

PARQUE NATURAL DE AIAKO HARRIA PARKE NATURALA

**José Ángel Torres Saenz⁽¹⁾ (ARANZADI Zientzi Elkarteak)
(HERNANI 2001)**

Los parques naturales son considerados como zonas no alteradas por la explotación de la actividad humana. Son reconocidos por la singularidad y belleza de sus paisajes, su patrimonio natural, geología, flora, fauna, sus diferentes ecosistemas o por la existencia de un patrimonio histórico de interés. El Parque Natural de Aiako Harria fue declarado como área de especial protección en abril de 1995, pasando a formar parte de la Red de Espacios Protegidos de Euskadi. Como consecuencia de esta declaración, en mayo de 1999 la Diputación Foral de Gipuzkoa puso en marcha un plan para la ordenación, gestión y regulación de los usos del parque.



Vista general de Aiako Harria parkea.

1. ESPACIO GEOGRÁFICO

El Parque Natural de Aiako Harria se encuentra situado en el extremo oriental del territorio guipuzcoano, extendiéndose entre las cuencas de los ríos Bidasoa y Urumea, lindando con la vecina Navarra. El territorio comprendido dentro del parque tiene una extensión aproximada de 6.913 hectáreas y se caracteriza por la existencia de un complejo relieve formado por agrestes montañas y barrancos surca-

dos por numerosos arroyos. Los territorios del parque pertenecen a 5 municipios diferentes (Oiartzun, Errenteria, Irún, Hernani y Donostia).

La mayor parte de los terrenos existentes en este área son de titularidad pública, estando en manos de los distintos ayuntamientos un 83% de los mismos y en manos de propietarios particulares y Dipu-

(1) José Ángel Torres es representante de ARANZADI Zientzia Elkarteak en el Patronato del Parque Natural de Aiako Harria.

tación el resto (16,8%). La distribución aproximada de los terrenos pertenecientes a los distintos ayuntamientos es la siguiente:



Municipio.....Superficie publica

Oiartzun	2.522 hectáreas
Errenteria	1.618 hectáreas
Irún.....	827 hectáreas
Hernani	481 hectáreas
Donostia	207 hectárea

2. GEOLOGÍA

Las montañas que forman el Parque de Aiako Harria constituyen, geográficamente hablando, las estribaciones más occidentales de la cadena pirenaica, formada hace unos 40 millones de años tras la colisión de dos placas tectónicas (placa ibérica y placa euroasiática) y el consiguiente plegamiento y emersión de los antiguos fondos marinos.

La altitud máxima del parque se localiza en el cordal de Aiako Harria (Erroilbide, B3B m.) y las más bajas coinciden con las orillas del río Bidasoa, hasta donde llega a penetrar el agua en pleamar.

Desde el punto de vista geológico, los territorios que forman el parque resultan de gran interés ya que en ellos se encuentran las rocas y materiales más antiguos de Gipuzkoa y unos de los más viejos del conjunto de la geografía vasca. Estas rocas se originaron durante la Era Primaria o Paleozoico, en las profundidades del mar que cubría la totalidad de Euskal Herria, hace unos 400 millones de años. En algunos puntos del parque se conservan los restos fosilizados de animales que vivieron en dicho mar y tienen una antigüedad cercana a los 350 millones de años.

También, en el Parque Natural de Aiako Harria aparece el único afloramiento granítico existente

en toda Euskal Herria. Estas rocas tan particulares como exclusivas son las que dan forma a las características siluetas de Aiako Harria y Bianditz.

Aparecen igualmente, materiales metamórficos (pizarras), alterados por la irrupción del granito al finalizar la Era Primaria, hace aproximadamente 280 millones de años.

Según nos vamos alejando del cordal de Aiako Harria - Bianditz, encontramos diferentes tipos de rocas sedimentarias (conglomerados, areniscas, calizas y margas), formadas a lo largo de la Era Secundaria o Mesozoico (225 a 65 millones de años).

La naturaleza geológica de la zona atrajo desde la antigüedad la atención de los prospectores de metales. Desde el comienzo de la era cristiana, fueron extraídos diferentes minerales de los filones situados bajo las laderas de Aiako Harria, tanto en la vertiente de Oiartzun como en la irunesa. Fruto de más de mil años de explotación minera, algunas zonas como Arditurri, Arlepo (Oiartzun) o Meazuri e Irugurutzeta (Irún), acusan hoy en día las consecuencias derivadas de la contaminación producida por las continuas labores mineras.

3. UNA VARIADA DIVERSIDAD BOTANICA

Debido a su situación geográfica localizada en las proximidades del mar y en la vertiente atlántica los territorios incluidos en el parque reciben constantes masas de aire procedentes del Golfo de Bizkaia, generando la acumulación de grandes niveles de humedad y produciéndose abundantes precipitaciones. La influencia de esta climatología de tipo atlántico posibilita el asentamiento de una vegetación característica, integrada por hayedos, robledales, castaños, abedules, marojales⁽¹⁾, brezales y argomales.

Debido a su variedad, la flora es uno de los elementos más característicos del parque. Podemos encontrar tanto especies de tipo boreal, como cantábrica e incluso mediterránea. Entre los bosques naturales más importantes, destacar el robledal - hayedo de Añarbe (Errenteria), el hayedo de Oianleku (Oiartzun) y el robledal - marojal de Endara (Irún).

Fruto de la constante intervención humana durante los últimos siglos, parte de masa boscosa original fue siendo reducida para así, crear pastos, zonas de labranza y áreas de población, algunas de ellas con gran densidad humana. La creciente industrialización desarrollada a partir de la Edad Media trajo consigo la desaparición de grandes áreas forestales, destinadas a suministrar materias primas a ferreñas, industrias navales, etc. Las últimas décadas supusieron también la introducción de especies forá-

(1) Marojos son hojas inertes y secas aprovechadas como alimento ganadero.

neas (*Pinus nigro*, *Pinus laricio*, *Quercus rubro* etc., etc.), unas destinadas a la industria papelera; otras, a la maderera.

4. FAUNA

Dentro de los límites del parque se ha estudiado la presencia de unas 170 especies de vertebrados, tanto de forma permanente como coincidiendo con las épocas de invernada o movimientos migratorios de muchas especies de aves al ser esta zona un área tradicional de paso de las mismas.

La mayor parte de la fauna existente es de carácter eurosiberiano (jabalí, ciervo, corzo, zorro, tejón, comadreja, nutria, visón, ardilla, conejo, etc., etc.) además de contar con una gran variedad de especies ornitológicas (aves). Debido a la suave climatología invernal reinante en la zona, conviven también otros animales de tipo mediterráneo, tanto mamíferos como aves.

La existencia de lugares agrestes y bastante inaccesibles como los roquedales de Aiako Harria, permiten la proliferación de especies rupícolas características como el buitre leonado, y distintos rapaces (águilas, halcones etc., etc.)

Las cuencas fluviales dan cobijo a distintas especies dulceacuícolas y salobres de tipo atlántico (trucha, barbo, salmón, sábalo, gobio, corcón, platusa,...).

También es de resaltar la gran variedad de otros animales invertebrados (insectos, etc.) que habitan las distintas zonas del parque natural.

La protección de esta importante biodiversidad va intrínsecamente unida a la conservación del hábitat donde animales y plantas conviven y se desarrollan, bien sea en los roquedales, áreas arboladas, prados, cauces fluviales, zonas húmedas de montaña, etc. etc.

5. RECURSOS HIDROLÓGICOS

Las condiciones hidrológicas de los territorios situados dentro del área del parque (terrenos poco permeables, abruptos desniveles, etc.) así como la alta densidad de precipitaciones que caracterizan la zona dan lugar a la existencia de tres grandes cuencas hidrológicas principales (Bidasoa, Oiartzun y Urumea), además de otras de menor entidad. Todas ellas dan lugar a captaciones destinadas a la industria y el abastecimiento humano. De entre estas últimas cabe destacar el embalse del Añarbe.

Por ello resulta de vital importancia mejorar y proteger las condiciones naturales de estas áreas ya que de ello depende nuestro futuro y nuestra calidad de vida.

6. EXPLOTACIÓN RACIONAL Y EQUILIBRADA DE LOS RECURSOS NATURALES

Los usos a los que tradicionalmente se vienen destinando los recursos naturales existentes en el parque, bien sean en terrenos de titularidad pública o por sus propietarios particulares se distribuyen en seis capítulos fundamentales:

- Explotación forestal: aprovechamiento de recursos madereros.
- Explotación agrícola: pastos, cultivos etc.
- Explotación ganadera: vacuno, equino y bovino.
- Caza: caza de aves migratorias y especies sedentarias, batidas controladas.
- Pesca: cuencas fluviales del Bidasoa, Oiartzun y Urumea y tributarios.
- Disfrute público: actividades lúdicas, culturales y deportivas.

7. PATRIMONIO CULTURAL A PROTEGER

La constancia de un ancestral poblamiento humano en el área geográfica del Parque de Aiako Harria es atestiguada siglos atrás; ya los primeros pobladores de la zona aprovecharon los múltiples recursos que la naturaleza les proporcionaba (caza, pesca, pastoreo, agricultura etc.). La existencia de numerosos vestigios arqueológicos, fundamentalmente monumentos megalíticos relacionados con la cultura pastoril de nuestros antepasados y que hoy en día podemos conocer en parajes como **Akola, Igoi, Saratzeta (Hernani)**, Oianleku, Errenga, Kausoro, Basate, Elorrita, Hirumugarrieta,... (Oiartzun) o en las inmediaciones de Aitzbitarte (Erreterria). Todos estos monumentos (cromlechs, dólmenes y túmulos) nos remontan hasta la Edad del Bronce (4000 a 2900 años) y nos hablan de la cultura pastoril existente en la zona en una época tan alejada de nuestros días...

Otros vestigios arqueológicos más recientes nos hablan de las enormes labores mineras que se realizaron desde época romana en las vertientes rocosas de Aiako Harria; en Arditurri (Oiartzun) y Meaka, en Irún.

Ferrerías como la de Aranzate (Irún), nos recrean la evolución de la industria metalúrgica hasta tiempos más cercanos a nuestros días, lo mismo que los hornos de reducción de mineral de Irugurutzeta o los escasos vestigios de las instalaciones mineras que perduran en Arditurri...

Todos estos elementos pertenecientes al patrimonio arqueológico industrial convierten al Parque Natural de Aiako Harria en un enclave de singular interés desde el punto de vista histórico e industrial, ligado a las actividades humanas de los últimos 20 siglos de nuestra historia. Un importante patrimonio que debemos conocer, proteger y divulgar a las futuras generaciones,



Dolmen Akolako Lepoa I.

8. LA IMPORTANCIA DE LOS ESPACIOS PROTEGIDOS

Como decíamos, en 1999 se pone en marcha un **Plan Rector de Uso y Gestión**, un instrumento consensuado entre los distintos agentes que intervienen en el Patronato del Parque (Diputación Foral de Gipuzkoa, ayuntamientos, grupos naturalistas, ecologistas, UPV, propietarios, sindicatos agrarios, Federación de Montaña, asociaciones de caza y pesca etc.).

En dicho plan se contienen las directrices y criterios de gestión a desarrollar los próximos 5 años. Sus objetivos son:

- Definir los normas de ordenación de los actividades económicas que se consideren necesarias para la protección de /os recursos naturales.
- Establecer directrices para desarrollar los objetivos del parque (protección, conservación, interpretación de los fenómenos naturales, educación ambiental, uso y disfrute del espacio natural, investigación y desarrollo socioeconómico de la población que vive en el parque y sus áreas de influencia).
- Establecer las directrices, criterios y pautas generales para lo gestión del parque.

Dicho plan recibió el pasado mes de abril luz verde por parte del Consejo Asesor para la Conservación de la Naturaleza (NATURZAINITZA); paso previo para su aprobación definitiva por el Consejo del Gobierno Vasco. Ello supondrá un paso importante, aunque no el último, hacia la mejora y conservación de nuestro patrimonio natural y cultural.



Aparraingo parkea.



Akolako parkea



2013

ITURMENDIKO JENTIL ZULOA

Felix Ugarte Elkarte
(HERNANI 2013)



Iturmendiko haitzuloa Antziola auzoan dago, Buskando eta Iturmendi baserrietatik hurbil.

Hernani aniztasun geologi handiko udala da; bere lurraldean, formazio eta haitz mota aipagarriekin, aro geologiko guztiak adierazten baitira. Aniztasun horrek, klima eta denbora pasatzearekin batera, gaurko paisaia sortu du, kontraste handiak erakutsiz: ahokatutako haranak, biribildutako muinoak, baita kareharri haitzetako paisaia (pasaia karstikoa), haitzuloak, leizeak, malkarrak, depresio itxiak eta beste berezitasun ugari.

Kareharrizko paisaia, Hernaniko hirigunetik oso hurbil daukagu, Santa Barbarako gandor harritsuak, antzinako harrobia inguratzen duten harkaiztiak, erreketako ura lurpean galtzen diren haran txikiak, gure eguneroko txangoetan begiesten ditugun mendi inguruneak dira, gainera leize eta haitzuloez inguratuak daude.

Gaur aurkeztea nahi dugun haitzuloa eta duela hilabete batzuk gure herrian arrakasta handia izan duena, **Iturmendiko jentil zuloa** da. Haitzulo hau Antziola auzoan dago, Buskando eta Iturmendi baserrietatik oso hurbil gainera.

Barrunbe honek okupazio-istorio luzea du; txanpinoiak ekoizteko erabili zenez, joan den mendearen hasieran, Serapio Mugikaren "Geografía de Guipúzcoa" liburuan aipatzen da. Gipuzkoako barrunbe nabarmenekin konparatuz ez du hain garrantzi handia izango, baina salbuespenezkoa da inguratzen duten fenomeno espeleologikoen artean, paseo motzean xehetasunez ikus daitezkeelako paisai karstikoaren agerpena, eremu hau potentzial pedagogiko eta kultural handikoa bihurtuz.



1.- XX. mendean, txanpinoiak ekoizteko erabili zen Iturmendiko haitzuloa.

2, 3, 4 .- Iturmendi jentil zuloko hiru irudiak.

Iturmendiko haitzuloak 200 bat metroko luzera du, barne erakargarriari bidea ematen dioten hiru sarbi-deekin, bi bertikal eta horizontala bestea, bolumen apaleko espazioekin eta formazio estalagmitikozko galeriekin. Txanpinoiaren laborantzarako ekoizpena bezala erabili zen, baina 100 urtetan zehar nekazaritzako elikagaien industria jarduerako hondarren-gatik, bere barneak zaborraz erabat beteta aurkitzen ziren. Udalaren haitzulo adierazgarriena denez, Felix Ugarte Elkartekoen artean errekonstruzio eta balioan jartzeko plana egitea proposatu zuen, bai haitzuloan baita inguratzen duen paisaian ere. Lanak hainbat hilabeteetan luzatu ziren, hogeitabat boluntarioen artean, hondakin desberdineko hogeita hamar tona baino gehiago kendu eta erretiratu. Nekea izugarria izan zen, baina pena merezi izan du emaitza bikaina lortzeko. Gaur egun, erabat berreskuratzeko haitzuloa begiets dezakegu eta gure ezusteko oso ondo mantenduta, mende batean zehar itxita egon baita, hirigune hurbileko haitzuloetan bereizten den bandalismoa saihestuz.

Errekonstruzio lanerako amaiera bezala festa bat ospatu genuen, txanpinoiak saltsan, txistorra eta sagardoarekin batera. Ehun bat hernaniarrek lehen eskutik ezagutu ahal izan zituzten: barrunbea, in-

gurunea eta errekonstruzio prozesua. Honela, Iturmendi-Buskando lur azpiko sistemaren balioan jartzeko lehen fasearekin amaitzen dugu.

Gune honek etorkizun pedagogiko handia du. Hiri-parke batekin parekatutako espazio txikian, paisai karstikoaren adibide guztiak aurki ditzakegula, hainbat isurbide, depresio karstikoak, iturriak, aipatzeko haitzulo fosila eta lur azpiko erreka bat, barrunbe aktibo batean zehar eskuragarria dena. Guzti honek, paisai modelo honen eboluzioa eta elementu mota ugariak ulertzea eta begiestea ahalbidetzen du. Bestalde, Iturmendiko kobazuloan, Aizkorri edo Aralar mendi nagusietan aurki daitezkeen haitzuloen parekoa da, baina kasu honetan sarbide erraz eta kilometro bat baino ibilbide motzagoan.

Aipatzeko ingurunean eragina izan duten geologia eta paisaia garrantzitsuak izateaz gain, ez dugu bere eduki kulturala ahaztu behar. Lur azpiko espazioa mito eta elezaharretako arrazoia izan da Euskal Herriko gizarte tradizionalentzat, sinesmen zaharrek jatorri telurikoa dutelako. Haitzuloko Jentil zuloaren izenak, Felix Ugarte Elkartek programatzeko barne ikerkuntzekin egiaztatu beharko diren, tradizio zaharrez hitz egiten dugu.



2003

MINAS DE ETXOLABERRI

Jon Estoba Pérez (FELIX UGARTE Elkarte)
(HERNANI 2003)



Etxolaberria

Hernani, y por extensión el Territorio Histórico de Gipuzkoa tiene una gran tradición de explotaciones mineras. Su particular y variada geología ha permitido la formación de filones de diferentes metales que han sido explotados a lo largo de la historia.

Esta variedad geológica y minera también la encontramos en Hernani. En el solar municipal se pueden encontrar rocas de todos los periodos geológicos desde el Carbonífero (paleozoico) hasta el Cretácico Superior (mesozoico) y una variada litología de pizarras, cuarzo, calizas, areniscas, margas, argilitas, etc.

La minería es reflejo de esa riqueza geológica, pudiendo encontrar en Hernani minas de Hierro, plomo, zinc, lignito e incluso plata (galena argentífera) que han sido explotadas desde antiguo e incrementando su presencia a partir del siglo XIX.

GEOLOGIA


Etxolaberri se encuentra situado en el macizo paleozoico de Cinco Villas, unidad geológica que abarca los periodos finales del Paleozoico e iniciales del Mesozoico y que se extiende por el nordeste de Gipuzkoa, noroeste de Nafarroa y sur de Lapurdi.

La roca predominante en la zona de Etxolaberri esta representada principalmente por pizarras, grauwacas y calizas, con tonalidades grises y negras. Estos materiales han sufrido las presiones y empujes de dos tectónicas (Herciniana y Alpina), por lo que se encuentran fuertemente plegados, con presencia de fallas, en una de las cuales se ha desarrollado el criadero de mineral que ha sido extraído de las minas.

La génesis de este tipo de yacimiento, al estar asociada a una fractura, inclina a considerarla como de origen hidrotermal, al rellenarse las fracturas producidas en la ultima fase de la orogernia hercinica.

UNIDAD DE SAN SEBASTIAN
DONOSTIA UNITATEA

BLOQUE DE EREÑOZU
EREÑOZU BLOKEA



- DOGGER
DOGGER
- 16 Calizas bioclásticas y calizas con sílex
Karari bioklastikoak eta silexdu karariak
- LIAS MARG.
LIAS MARG.
- 15 Margas grises, generalmente masivas
Marga grisak, normalean masiboak
- INFRALIAS
LIAS CALIZO
DOLOMITICO
- 14 Calizas grises y calizas margosas
Karari grisak eta karari-margatsuak
- 13 Calizas dolomíticas y calizas grises estratificadas
Karari dolomitikoak eta karari gris geruzatuak
- INFRALIAS
LIAS KARETSU
DOLOMITIKOIA
- 12 Corniolas
Karniolak
- 11 Rocas volcanoclásticas
Harri bolkanoklastikoak
- 10 Ofitas
Ofitoak
- 9 Conglomerados
Konglomeratuak
- 8 Areniscas cuarzo-feldespáticas y limolitas rojas
Harearri kuartzo-feldespatikoak eta limolita gorriak
- 7 Alternancia de areniscas y conglomerados. Areniscas dominantes
Harearri eta konglomeratuen txandaketa. Harearriak nagusi
- 6 Conglomerados silíceos
Konglomeratu silizetuak
- 5 Pizarras
Harbelak
- 4 Alternancia de pizarras y grauwacas. Grauwacas dominantes
Harbel eta grauwaken txandaketa. Grauwakak nagusi
- 3 Alternancia de pizarras y grauwacas. Pizarras dominantes
Harbel eta grauwaken txandaketa. Harbelak nagusi



- 2 Diques de diabasa
Diabasazko dikeak
- 1 Filón de cuarzo
Kuartzoazko zaina



Desde el punto de vista geomorfológico, la zona minera se encuentra situada en la cabecera de Etxola Erreka(regata de Urruzuno). Esta regata es de desarrollo típicamente fluvial excavada en terrenos impermeables como pizarras, con fuertes pendientes y valles muy encajados. El desarrollo de su red fluvial es de textura media alcanzando un nivel 4 de jerarquización (Strahler). Precisamente en la zona de minas existen varias cascadas debido a la existencia de varias fallas, las mismas que posibilitaron el filón de mineral.

ETXOLABERRI

El valle de Etxolaberri tiene un recorrido limitado, entre la cabecera que se forma al pie del cordal Zaburu-Azketa-Leuneta, con una cota máxima de 820m, y la desembocadura en el Urumea a la altura de Urruzuno, con 45 m.s.n.m. En apenas 7 kilómetros se salva un desnivel de casi 800m. Además, la litología del terreno ha propiciado la formación de



un cauce estrecho y abrupto, encajado entre los materiales pizarrosos y calcáneos.

Si las aguas de la regata han modelado un paisaje singular que brinda un tono personal al enclave, las iniciativas económicas que se han sucedido en el lugar durante los últimos siglos han ido añadiendo elementos característicos, resultando un espacio en el que los valores del medio físico y del medio humano se presentan bien equilibrados. La escala de la consideración es, ciertamente, local pero se cuenta con testimonios de interés más amplio que, por las vinculaciones asociadas, contribuyen a ampliar la estimación del conjunto.



Se conoce la existencia de minerales férricos y no férricos. Los primeros se entiende que fueron aprovechados en la instalación siderúrgica de Olaberri, situada en un pequeño recodo del río aguas abajo del foco principal de la explotación minera. La ferretería se sitúa rodeada de otras bocaminas y se conoce que estuvo en activo entre los siglos XVI-XVII, por lo que sus necesidades se limitarían a los óxidos e hidróxidos de hierro. Los carbonatos, sin embargo, se introdujeron mas adelante, en el siglo XIX, como consecuencia de la implantación de los altos hornos.

La metalurgia del hierro esta representada en Gipuzkoa desde el siglo IV antes de Cristo. La producción debió incrementarse en el periodo romano y, en torno al siglo XI conoce un desarrollo intenso de la mano de las haizeolas; entre los siglos XIII-XIX se extiende el dominio de las ferrerías hidráulicas, a las que puede considerarse los motores económicos que prepararon el terreno al desarrollo industrial reciente.

En lo que respecta a los minerales no férricos, destaca la galena argentífera de la que se obtenía principalmente el plomo y en menor medida, la plata. Atendiendo a la catalogación de dos posibles minas romanas y de un puente de factura romana, que sería el único de estas características en Gipuzkoa,

podría pensarse para Etxolaberri en un fenómeno similar al reconocido en Aiako Harria. Este fenómeno supone el beneficio de todos aquellos filones de plata de cierto interés coincidiendo con la colonización romana. Esta hipótesis de trabajo es la que esta marcando las investigaciones más recientes, habiéndose completado las primeras campañas de prospección arqueológica en la zona.

Las actividades mineras documentadas se iniciaron a mediados del siglo XIX, intensificándose las labores a principios del siglo XX. Consecuencia de ello es la existencia de importantes ruinas de la infraestructura que utilizaron. Destaca por sus dimensiones, los silos de carga y la edificación principal, conservándose parte de las fachadas, muros de contención y soleras. Es de destacar también los restos de presas, canales, piscinas de lavado de mineral, edificaciones de alojamiento de mineros y almacenes, así como las redes de canales y explanaciones para el transporte de mineral. En las ruinas del cargadero de mineral, podemos encontrar todavía galena argentífera y otros minerales como piritita y calcopiritita.

CONCLUSIONES

En el bienio 2001-2002, miembros de la Felix Ugarte Elkartea (grupo dedicado al estudio y defensa del medio subterráneo), con la ayuda del centro de estudios e investigaciones histórico-arqueológicas AR-





KEOLAN y el apoyo económico del departamento de Cultura del Ayuntamiento de Hernani, hemos llevado a cabo diferentes trabajos en la zona:

Inventario y cartografía de las galerías de minas.
Se han inventariado 14 minas muy cercanas entre

sí. En el análisis de sus galerías podemos encontrar diferentes técnicas de extracción, con reaprovechamiento de galerías, lo que nos indica la existencia de varios periodos de explotación. En algunas de las galerías, ETX-10 y un tramo de ETX-2, además de otra mina cercana al puente de factura romana lo-





calizada hace unos 15 años, la técnica es claramente diferente al resto, asemejándose a labores antiguas. Se han explorado mas de 1000m. de galerías, realizándose el plano de las más significativas.

Reconocimiento de las infraestructuras mineras existentes. Toda la infraestructura (silos de carga, canales, restos de presas, edificaciones, etc.) se encuentra en franco deterioro debido a las condiciones ambientales y a la exuberante vegetación. Hemos observado un importante aumento de la ruina en los edificios principales si comparamos con las fotografías y observaciones realizadas hace unos 15 años.

Estudio documental en la Delegación de Minas del Gobierno Vasco. Hay que precisar que los registros de las minas en nuestro territorio se llevan a cabo a partir de mediados del s. XIX. La primera concesión para mineral de plomo data de 1857, para la mina San Antonio, situada en Ececo-Azpia. Posteriormente, los trabajos respecto a la minería de plomo se debieron intensificar, ya que diversos particulares y compañías, como la “Sociedad Vascongada”, registraron minas los años 1872(mina San Eloy, lugar Mugatz-erreka), 1886(mina Dolores, lugar Icaceche), 1887(mina San Enrique, lugar entre Sagarretaco-erreka y Egurrolako-erreka), 1892(mina San Eloy Aumento, lugar Mugatz-erreka), 1905(mina Despe-



ñadero, lugar Echolaberri), 1907(mina Santa Cruz, lugar Francesen-possa), 1907(mina San José, lugar Francesen-possa).

Para finalizar decir que en Etxolaberri se pueden encontrar restos de actividad minera, conservándose ruinas de las infraestructuras, que gracias a la inaccesibilidad del lugar no han sido alteradas por posteriores actividades humanas. Podemos encontrar galerías de minas, restos de edificios, presas, canales y explanaciones, en un espacio reducido de gran valor patrimonial (patrimonio industrial) como ejemplo de una actividad minera del siglo XIX. Con este trabajo se ha pretendido dar a conocer parte del patrimonio histórico olvidado de Hernani, y que en otros lugares, con restos menos completos, se están revalorizando como alternativa al ocio cultural.

IN MEMORIAM

El 22 de enero de 2003, fallecía víctima de enfermedad, el espeleólogo Juan txo Esnal Kastresana, miembro de Felix Ugarte Elkartea y de la Unión de Espeleólogos Vascos. Amante de la montaña y sus grutas, colaboró activamente tanto en Etxolaberri como en otros proyectos.

Agur eta Ohore, Lagun.

BIBLIOGRAFIA

M.M. URTEAGA ARTIGAS. *El puente de Etxola Erreka. Munibe* 41 153-160. San Sebastian 1989
EVE. *Ente Vasco de la Energía. Planos geológicos* 1:200000; 1:100000; 1:25000



1994

ABERRIAREN AMETS EDER GALDUA

Xabier Lete
(HERNANI 1994)



Euskal Herrian, azken bolada honetan, erreakzio eta portaera uztartu ezinekin topatzen da bat. Adibidez, norbaiti “Abertzaletasuna” aipatzen badiozu, ze-harka eta irriño batekin begiratzen zaitu. Alderantziz, nazionalismoa kritikatzan baduzu, abertza-le txartzat zauzkate. Orduan, erreakzio horien aurrean, batek bere ondorioak ateratzen ditu. Lehenengoa haxe litzateke: jendeak abertzaletasuna eta nazionalismoa neurritz kanpo nahasten dituela. Bigarrena: abertzaletasunari legokiokoen izpiritu poetiko eta eraginkorra erabat galdua dugula. Esparru politikoan argi nabari den bezala, nazionalismo orori arrotzaren arbuiapena darraikio, batek nor izateko eta nortasunean tinkotzeko etsai edo

aurkako baten beharra balu bezala. Nazioaren eduki baikor eta gauzagai liratekeen zeinu propioen edertasunetik bizi beharrean, antagonistan arbuiapen eta gorroetatik elikatu eta bermatu beharra bagenu bezala.

Nazioa, “natio” hitz latindarretik dator eta, behin Julio Caro Baroja-ri entzun nion bezala, sorlekua esan nahi du berez, norbera jaio den tokia alegia. Horregatik esaten eta idazten omen zen, adibidez, Carlos I eta Felipe II inperatoreen espainiar Inperio garaietan, de nación vizcaíno, espainiarrik aztoratu gabe.

Begien bistakoa da, ordea, zertxobait begiratu eta pentsatuz gero, sorleku edo jaioleku horren hedagu-

nea beti erlatiboa izan daitekeela, kriterio eta parámetro desberdinen arabera.

Egia izango da ni Euskal Herrian jaioa naizela, entitate horren mugak “naturalizat” hartzen baditugu eta entitate beraren existentzia onartzen. Baina inork ezingo dit galerazi sentimentu eta ideiaz beste nonbaitekoa izatea, edo naizela imajinatzea, entitatearen mugak zabaldu ala estutuz. Batek, bere sorlekuaz mintzatzean, erabaki dezake Hernanikoa, hernaniarra izatea, eta ez besterik: beste batek, gipuzkoarra; edo, zergatik ez, espainola, europarra edo nahi duena. Nazioaren hedapenerako ez dago kriterio bakar eta zehatzik, “natio” hitza bere zentzu lehenean hartuz.

Baina guk, nazionalistok, nazioaren espazio naturala hizkuntzaren kriteriotik begiratzen dugu eta, are bereziago, hizkuntza minorizatuen ikuspuntutik: Euskal Herria, euskaldunon sorterri edo nazioa litzateke. Planteamendu hori aspaldikoa da, eta Herder eta beste erromantikoen pentsamoldearekin asko tinkotu zen. Egia da, bai, Herder eta besteek ez zutela hizkuntzaz bakarrik nazioa definitu, “volksgeist” deitu zuten herri-izpirituaren izatek baizik. Hala ere, hizkuntzaren baitan zetzan ezaugarri nagusia.

Arazo eta eztabaida hori oso aspaldikoa, beraz, nazioa izate natural bati ote dagokion ala ziudadaniaren konzeptu unibertsalagoari. Erromak probintzietakoei “ziudadania” eskaintzen zienean, ezin ukatu nazionalizatu egiten zituztela nolabait, baina ez inola ezaugarri konstitutibo propio batzuren kriteriotik, estatus juridiko-politiko baten kriteriotik baizik. Espainiak edo Frantziak euskaldun eta katalanekin egin izan duen bezala... identifikatze zeinu berriak ezarri, hala ere, eta ez beti indarrez; hizkuntza “unibertsalago” bat, imaginario edo “imago” bertajutuak, etabar.

Hizkuntza nazioaren ezaugarri nagusia da, baina ez bakarra eta ez beti erabakiorra. Batzutan, hizkuntzak nazioak baino zabalagoak direlako, horrela ingelesa, espainola edo errusiera; bestetan, aldiz, hizkuntza esparruak diminituak direlako, Amazonia, Afrika edo Ozeanian, adibidez.

Guzti horregatik, nik uste dut badagoela nazioa baino konzeptu zabal eta indartsuago bat pertenezia adierazteko, eta hori aberria litzatekeela. Aberria, patria, leku fisiko edo mental bat da, non kokatzen den norbera nortasun balioen bitartez izaera konpartituetara heltzeko.

Aberria izan daiteke fisikoa, lurralde bat; mentala, ideia eta sujestio intelektualen mundua; izpirituala, artistarentzat, sinestunarentzat, ederzalearentzat; planetarioa, kosmikoa, etabar. Eta gainera, aberri partikularrak leudeke. Sufrimendua, adibidez, ez al da aberri bat? Liburuak ez al dirá beste aberria? Edo

humanismo unibertsalista, ulermenaren eta pietatearen bitartez gizadia “aberkideen” esparru bakar izatera eraman lezakeena...

Aberkerien aurka argudio asko erabili da aplikagune sozial eta politikoetan. Baina aberkeria horien aberri-sujetoak mamu ideologikoak dira gehienetan. Aberkeria horiek nazionalismoa dira hain zuzen, zentzurik txarrenean. Egiazko aberria elkar aurkitzearen eta eraikitze poetikoen “lekua” da. Aberriak faszinazioa eta harriduraren bitartez bakarrik dira deskubritzen; edo, beste tesitura batetara etorri, atxikimendura garamatzaten balio-zeinuen bitartez: erlijiosoak, sentimentalak, kulturalak, etabar. Norbaitek esan izan du nazioa, sorlekua, jaiotzetik inposatzen zaigula eta, alderantziz, aberria geuk aukeratu genezakeela.

Aberria atxikimendu bat da, zenbat eta izpirituala goa orduan eta sakonagoa. Baina izpirituaren baliaguneak desberdinak, pluralak dira. Sentimenduaren bitartez ere hel gintezke izpirituaren egoitzara, eta agian nostalgiaren, ebokazioaren bitartez. Anaigo galdu baten nostalgia, agian, edo gure gaztaroa sentisibileki egituratu zuen paisaia batena. Urrun bizi direnek, beren haurtzaroko leku konkretuen oroitzapena gorde ohi dute: elizatzeta, jolaslekuak, udako erreka gardeneko zurrumbiloa.

Pio Barojak, bere ateraldi anti-bizkaitar batean, Euskadiren orde, Bidasoadi goraipatu zuen, aberri posible eta maitagarria izan zitekeelakoan, bestea baino zehatz eta egiazkoagoa. Hau da: Bidasoaren bi aldetako lurralde mugatuaren aberleku poetiko eta gizartekoia, paisaia batzuekin, lurralde garden batekin, hizkuntza, usadio eta bitxikeriekin ere.

Aberria, norbaitek galdetuko du, ez al da ba “arbasoen herria”? Hori da, nazioaren pareko. Bai, baina arbasoen herria nazio soila baino gehiago da hain zuzen, ezagutza eta birreraikuntza batetara garamatzalako. Espazio poetikoetan bakarrik gauza daiteke aberria, nazioak aldiz egitura hertsietara garamatzan bitartean.

Nik aberria egiaz une bakan eta harrigarrietan nabaritu izan dut: udako gau epel batean belar usai bat sentitzean; kanta xahar batzuk entzutean; baserritar adinduekin mintzatzean... edo, agian, urruneko hiri argitsu miresgarriaren irudia begizatzean.

Nere adiskide letradun batzuek, beren erudizioaren zabalak horretaturik, zera diote azkenaldi honetan: patriotismo politikoa ontzat eman genezakeela, adimenari irainik egin gabe, baina kulturala ez. Nik juxtu alderantzizkoa aldarrikatuko nuke. Zergatik? Politikaren arloan arazoak berdintsu planteatzen direlako mundu osoan. Dotriña beretsuak daude, baliapide berdintsuekin jokatzeko da

eta kontrajarrien dialektika berdintsuak erabiliz. Politikaren lehengotza, nortasuna gordetzeko lehenik garaipen politikoa guztiz beharrezkoa delakotik predikatzen da. Baina askotan ez d'ahori egia. Kulturaren gordelekuak bestelako hierarkiak dituzte; kultura baten erreferenteak botere lortuen gauzagunetan bermatzen direla sinestea litzateke nazionalista betentzat normala; abertzalearentzat, ordea, faszinaio mentalaren eta balio-zeinu sentimentalaren osagarriak leudeke, hain partikular, iheskor, poetiko eta arautu ezinak.

Kultura eta nortasuna defendatuko dituztela oihukatzen duten politikoek, beldur pixka bat sorrazten didate, batetik, eta irria bestetik. Egia izanen da badutela intentzio onik, baina askotan erabat okerturik aritzen dira lanean: kulturaren azalari eta formalizapen enblematikoei ematen baitiete garrantzia, eta ez eraginbalio sakonei.

Horregatik diot nazionalismo politikoa dela nerezat susmagarria eta desbideratua, eta ez kulturaren abertzaletasuna. Aberria beti partikularra da, kulturaren pautak guztiak une bakoitzean berrasmatzen eta estilizaten diren neurrian.

Kultura unibertsala deitzen dena, zientzia eta tekniken esparruan gauzatzen da erabat, eta hor ez dago berezitasun partikularretan finkatzerik. Baina gainerakoetan, kulturaren pautak, erreferenteak, lilurak, nahiko partikularrak dira.

Bai; nik uste dut aberriaren leku fisiko edo mental horretan kokatzen dela kultura. Horregatik, kulturalki nazionalista ez dugula izan behar gomendatzen digutenean, erantzun genezake nazionalista ez baina patriota bai izan behar dugula. Kultura, aurrerakoiek onartu nahi ez badute ere, itzultze bat baita.

“Luxia” izenburutzat daraman aldizkarian, orain hila labete batzuk oso lan aipagarri bat argitaratu zuten,

Ana Ugarte-ren itzulpenez, Bernardo Atxaga eta bere adiskideek: George Orwell-en lan kritiko bat nazionalismoei buruz. Nik ez dakit han nik gaur diodan berdina esaten zen, baina guztiz interesgarria irudituzitzaidan aberriaren amets ederra zenbateraino usteldu eta itzali dugun konturatzeko: nazionalismoek itzaltzen dutela abertzaletasuna, alegia.

Josep Pla katalandar idazleak hauxe esaten zuen: abertzaletasuna edo patriotismo egiazko bakarrak, gure esperientzia barneratuen jokalekuetan sortu izan direnak direla, sentipenaren eta atxikimenduen bitartez.

Gainerako guztia erretolika politikoa da. Beharrezkoa ala ez, ez dakit, baina erretolika politikoa. Aberriaren amets edor goxoa borroka politiko desbideratuen gogorkeria eta basakerietan galdu genuelako, eta orain abertzaletasunaren azala eta birautsa besterik ez den nazionalismora guztiz emanak gaudelako. Gaztetan abesten genuen gerla aurreko kanta batek hauxe zion: Nere aberri laztana / jausi zara herbestepean / hobia heriotza da.

Horra hor aberriaren ideia desbideratzea. Aberriak, izateko, herbestekoengandik jasaniko menpekotasuna beharrezko dela uste duenak, ez du inoiz nazionalismoa gaindituko. Nazionalistak aurkakoak behar ditu bere pasioa elikatzeko: arerioak, herbestekoak, arrotzak, menperatzaileak. Abertzaleak, aldiz, senideekin konparti dezakeen lurralde bat behar du. Nazionalismoa, etsaigoaren baitan funtsatzen da; abertzaletasuna, aldiz, solidaritatean eta norizate baten zentzu poetikoan.


Nola nahi dela, nazionalismo askoren bidegabeke-riak lotsarazten gaituen une hauetan, nik abertzale izaten jarraitu nahi dut. Zuek nahi izanez gero, han itxoinen dizuet aberkideen ametssezko lurralde ederean.



2011

XABIER LETE ETA HERNANI

Joxan Goikoetxea
(HERNANI 2011)



Argazkiak: <http://www.badok.info/artista>

Xabier Letek bizileku asko izan zituen. Batzuk fisikoak eta besteak espiritualak. Lehenengoetan bere bizipenek hartu zuten aterpe, eta bigarrenek haren mundu poetikoa eta berak sortutako kantuetako hitzak inspiratu zituzten. Katalunia, Iparralde, Italia edo Nafarroa izan ziren unibertso horietako batzuk. Hernaniko herriarekin ere harreman estua izan zuen, bizipenekin lotutako harremana izan zen gehiago, eta horretara hurbiltzea da artikulu honen asmoa.

2006ko ekainaren 17a. Hernanin urtero Sanjoanen aurretik egiten den jaietako iragarpen kontzertuan Xabier Leteren omenezko pieza bat interpretatu zen. Herriko abesbatzek, musika bandak eta txistulariek, denek elkarrekin, zortzi doinu osatutako pot-pourri hunkigarria eskaini zuten Adiskide bat bazen izenburupean. Ohore handia izan zen hernaniar guztiontzat. Xabierrek horrelako omenaldi eta errekonozimenduak asko maite ez bazituen ere, oraingo honetan lehenengo ilaratik ikusi eta entzun zuen emanaldia, eta hunkiturik erakutsi zuen haren eskerrena, bere alderik humanoena erakutsiz, dagoeneko oskol guztiak gainetik kenduta, berekiko mirespena erakusten zuten ikusleengana hurbildu nahi izan baitzuen bizitzako azken urteetan.

Mende erdi atzera egin beharko genuke Xabierrek Hernanirekiko zeukan lehen oroitzapenaren bila joateko. Haren betiko lagun Antton Valverdek esaten duenez, gazte garai hartako udaldiak Oiartzunen ematen zituen, familiaren etxean. Bien arteko adiskidetasuna 50eko hamarkadako lehen urteetan hasi zen. Gazte pentsakor bat gogoratzen du herriko sarrerako petrilean eserita, gogoetatsu. Xabierrek zioen Oiartzungo plazan bi trafikoko seinale zeudela. Batek zioen: Lesaka 30 km; besteak: Hernani 15 km. Bere umore eta ironia bereziarekin esaten zuen umetatik bigarren leku hori toki misteriotsu eta garrantzitsua begitantzen zitzaiola, eta erakarri egiten zuela.

Orduan ez zuen pentsatzen urte batzuk geroago, 1968an, ezkondu eta bizitzera, ez Hernanira, baina bai handik oso hurbil, Urnietara, Iriondotarren etxera, joango zenik. Agian ez zen izango berak imajinatatutako paisaia.

“Nik amesten dudana aberria, izan nahi nukeena, Iparralde bezalakoa da. Gizonaren neurrira egin dako lurraldea da: ez da handia, ezta txikia ere; herriak guk han behean dauzkagunak baino zainduagoak daude; eta bertako jendeak, guk baino izaera xamurragoa dauka”. Xabierrek Ipar Euskal herriko euskaldunek hizkuntzarekiko duten maitasuna miresten zuen: *“Hemen, Iparraldean, dotoreago hitz egiten da. Osasuna banu, pare bat urte emango nituzke bertan, frantses eta euskara gehiago ikasteko”*, esan zion behin Irulegi Irratiko kazetari bati.

Urte haietan, dagoeneko poesiaren uretan murgildurik, puri-purian zegoen *Ez dok amairu* taldearekin kolaboratzen hasi zen. Kolaboratzaile gisa kantuen hitzak egiten eta antolakuntza lanetan laguntzen hasi bazen ere, azkenerako bere konposizioak abestu ere abesten zituen. Urte batzuk geroago aitortu zuen abeslari gisa zeukan talentuaz konbentziturik zegoelako baino, gehiago egiten zuela Lourdesengandik hurbil egoteko.

Xabierrek 1966ko martxoan egin zuen lehen emanaldia *Ez dok amairu* taldearekin; ezin, beraz, haren



ahotsa entzun talde horrek Aitor antzokian urte horretako urtarilaren 9an Santa Barbara elkarteak antolatutako emandako kantaldian.

1971ko urrian izan zuten hernaniarrek Xabier Lete kantuan entzuteko aukera; Galarreta pilotalekuan izan zen, *Baga, biga, higa...* sentikarai ikuskizuna aurkeztu zutenean.



Aipatzekoak dira, halaber, Lourdes Iriondorekin batera Urumea Ikastolak antolatutako jaialdian egin zituen kolaborazioak. Lourdesek, azken kantaldia hain justu Galarretan 1978. urtean egin zuena, gorputz espresio eta antzerki eskolak ematen zituen gure ikastolan, gogo handiz eta dena emanda gainera; lan hori bereziki Urnietako Egape ikastolan egin zuen.

Urte haietan argitaratu zituen Xabierrek bere disko-lan garrantzitsuenak, eta, Antton Valverderekin batera, Bertso zaharrak eta Txiritaren bertsoak grabatu zituen, haren unibertsoak, ezinbestez, Hernanira hurbiltzen zuelarik. Nork ez ditu gogoratzin Arano eta Donostia artean dama harekin ibilitakoak, Andresek bere andregaiari izeneko bertsoan kontatzen direnak.

***Etxetik Hernanira joan giñan oinez,
birian hitz pottolo ederrak esanez,
Donostira tranbia noiz zeguen galdez
Frantzesarekin igual hasitzen zen ingles,
erderaz ere fuerte naiz bate jakin ez.***

***Hurrengo egunian jo degu Hernanin
tranbian mano-mano begira elkarri
han erosi nituen sehi pañuelo zuri
agua koloniatik beste botilla bi
orduan zapuztu zan nire birjiñ hori.***

Bai, Txirrita bertsolari handiarengan bazegoen zerbait Lete bereziki erakartzen zuena. Bere garaiko narratzaile eta kronista bikaina izaki, horrek bultzatu zuen Valverde eta Lekuonarekin batera proiektu hartan buru belarri sartzera; bertsolaritzari halako ekarpena egin zion, Biblia moduko bat bilakatuz.

Garai hartan, eguneroko erosketak eta enkarguak egitera etortzen zen Xabier Hernanira. Oso gustukoa zuen, eta bizitza osoan egiten jarraitu zuen. Lan horien artean, izeba bati laguntzeko ohitura zeukan, eta, goiz erdi aldera, biak elkarrekin Zinkoenea tabernara joaten ziren indarrak berritzera. Kafesnea edo salda hartzera, beti mahai berean esertzen ziren. Detail txiki horrek ez luke bestelako garrantzirik izango, baina kontua da Goizuetako autobus-korreoan noiz iristen zen jakinik, hamaiketako haietan goizuetarren tertuliekin bat egiteko ahalegina egiten zuela berak. Haien hizkera, esapideak, pasadizoak eta istorioak xehetasun osoz gordetzen zituen go-goan nahiz oroimenean.

Xabierrek ordurako erakutsia zuen poesiarako zeuzkan talentu eta kalitate ezin ukatuzkoak. Lehen lana 1968an argitaratu zuen, *Egunetik egunera orduen* gurpilean izenburupean. Lete sakon eta kritikoa agertu zen, herri urratu eta bortxatu batean, “dena ala ezer ez” politikaren aurrean bere lekua aurkitu nahian.

Orduantxe, Hernaniko Udalak literatur sari batzuk sortzea erabaki zuen. Lete aurkeztu eta Poesia Saria irabazi zuen 1970. urtean. Hona hemen sari horien inguruan sarrera gisa emandako testu bat, epaimahaiaren erabakia eta saritutako poesia haietako bat, gero 1971. urtean argitaratu zena.

“La última década ha sido, sin duda, la de mayor proliferación de premios literarios. Los unos, encubiertos: negocios editoriales montados bajo la tramoya de un lanzamiento u oportunidad a nuevos valores, con pingües beneficios a expensas de inteligentes campañas publicitarias; otros, los menos, de honrada ayuda al novel, con sacrificios de una organización, sin gran aparato social, cenas de gala ni oropeles de discursos huecos.

Estos últimos, y aun destacando el gran sentido altruista de su mecenazgo literario, carecen de la adecuada proyección en el tiempo; de la presencia física que toda obra necesita: su publicación.

Todo se reduce, pues, a una dotación en metálico, los comentarios propios entre un círculo de amigos, y una reseña en la prensa diaria.

Conscientes de esta carencia, la empresa Soldaduras y Productos Auxiliares, S.A., y el Ilustre Ayuntamiento de Hernani, han establecido estos premios literarios con una dotación en metálico, y la publicación de las obras galardonadas, cuyo volumen tenéis en este momento en vuestras manos bajo el título genérico «Premios Literarios Hernani».

Y este es, a mi juicio, su gran acierto; su verdadera ayuda a las Letras –castellanas y vernáculas– que, lamentablemente, no abunda en el País Vasco, tan dado, sin embargo, a otras manifestaciones artísticas.

Leed, pues, con cariño, la escondida emoción de los poemas de Xavier Lete, joven e indiscutible valor de la actual poesía euskérica.

Con ello, sinceramente, habremos hecho honor a esta publicación y al mecenazgo ejemplar de una empresa industrial, entre cuyas fabricaciones cuenta con productos, que, aunque no produzcan dividendos, sí se cotizan en la bolsa de valores del espíritu.”

Longinos G.Celeyro

Acta del fallo de los Premios Literarios - 1970.

En Hernani a veintitrés de enero de mil novecientos setenta y uno, reunido el jurado compuesto por D. Juan Mari Lecuona, D. Juan San Martín, D. Antonio Arrue, Padre Zabala, J. Ignacio Eizmendi (Basarri) para fallar el premio Poesía en Euskera, correspondiente al Concurso Premios literarios Hernani 1970, acuerdan por unanimidad conceder el 1º premio al trabajo presentado por Xabier Lete Bergaretxe titulado UDAZKENEA (irukoa). - A quien se le concederá el metálico previsto y publicación.

Para que conste se firma esta acta el día 21 de enero de 1970.

"Basarri"

En Hernani a veintitrés de enero de mil novecientos setenta y uno, reunido el jurado compuesto por Juan Mari Lecuona, Juan San Martín, Antonio Arrue, Padre Zabala y J. Ignacio Eizmendi (Basarri) para fallar el premio Poesía en Euskera, correspondiente al Concurso Premios literarios Hernani 1970, acuerdan por unanimidad conceder el primer

premio al trabajo presentado por Xabier Lete Bergaretxe titulado UDAZKENEA (irukoa), a quien se le concederá el metálico previsto y publicación.

Para que conste se firma esta acta...



Xabier Lete:
Udazkenean (irukoa)
Ernani Saria, 1970.
Itxaropena argitaldaria, Zarautz.

... eriotzari ...
... maitasunari ...
... gizon eroriari ...

GIZON ERORIA
(Martin Luther King zenaren oroimenez)

Nork zion:
«odolak ez dakar
odola besterik,
ez dut sekulan
indarkeriz jokatu»...?

Lurpean sisaren erreinuak agintzen du
eta otsoenak luraren gainean,
orain eta beti.


Indarrez bota zituen lurak
itxasoko urak
zeruen azpian tokia egiteko
eta indarrez dabil gizona
behar duen ogia
egunero jateko.

Armak ez diralako
bakearen bide,
baiñan oso gauza gutxi irixten da
itzen birtutez
armarik gabe.

Mundu hontako legeak
biolentzizko ordenaren
semeak
izanik,
biolentzizko maitasunak
ekarri lezake
ordena berri baten
justizia bakar hori.

Nork zion:
«odolak ez dakar
odola besterik,
ez dut sekulan
indarkeriz jokatu»...?

Ordaiña garextiegia zure bakearena
orain lurpean
ilotzik usteltzeko.



70eko hamarkada bukaeran eta 80koaren hasieran sorkuntza lana, bai musikakoa eta baita literaturakoa ere, aldi batez baztertu zuen. Antton Valverderekin kantaldiak egiteko bitartekorik ezak eta interes faltak, batetik, eta Urrats desbideratuak (1981) liburuaren argitalpenak, bestetik, aro berri bat irekita, politika munduan buru belarri sartzea erabaki zuen. 1980ko hamarkadan, Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendari nagusi izan zen lehenik, eta kontseilari gero; baina, osasun arazoak tarteko, jarduera publikotik betiko aldendu zen laster.


Ordura arteko azken literatur lan hartan, Nietzsche-ren ikuspegia zeukaten hausnarketa filosofiko berriak erakutsi zituen Letek. Esther Zarrauaren iritziz, “salbazio bakarra ihesaldian dago; baita dramatikoenean ere, heriotzean. Poeta mundu honetaz gogaitua dago, eta bertatik alde egin nahi du nola-bait ere”.

Ezin dugu ahaztu, politikan jardun zuen bitartean, ideologikoki nahiko banatua zegoen gizarte batekin desadostasun eta tirabira bat baino gehiago izan zuela. Zenbaitetan, oraindik ere ironia puntu batekin, Txirrita zaharraren bertsoak gogoratzen zituen, hernaniar baten baino gehiagoren ondotik pasatzerakoan sentitzen zuena maisuki adierazten baitzuten:

**«... Begiyak balak baldin balitu
tirako luke pozikan »**

Laurogeiko hamarkadaren bukaeran, Xabier Lete gaixotu egin zen; eritasun kronikoa eta progresiboa, azken egunera arte bidelagun izan zuena, eta bizi-modua erruz baldintzatu ziona. Artean Lourdes ere gaixorik zegoela, biak elkarrekin ekin zieten bizitzako azken hogeitazetaz, sorkuntza mailan askoz ere apalago, tartean etenaldiak eginez, eta gero berriz ere sorkuntza lanera itzuliz.

Itzulera horietako batean, 1993an, Xabier Letek bere azken emanaldia eskaini zuen Hernanin. 1993ko urriaren 29an eta 30ean, Biteri Kultur Etxeko erabilera anitzeko areto berriaren inaugurazioa zela eta, bi kantaldi antolatu ziren, bi egunetan, Biteri txiki geratu baitzen horrelako ikusmina piztu zuen ekitaldirako.



Argazkia: Hernaniko KRONIKA

Kantaldi horren antolakuntza polemikaz zipriztindurik egon zen, udal politikak eta Euskal Herri osoak bizi zuen egoera korapilatsuaren erdian. Urriaren 29an, ostirala, lehen kontzertuaren egunean, Julio Iglesias Zamora, 116 egunez bahituta egon ondoren, aske utzi zuteneko notizia iritsi zen.

Antton Adarragak, Leteren jarraitzaile sutsu eta leialak, lore sorta bat eman nahi izan zion Xabierri giro berezi hartan, gaixorik egonda ere, kontzertu hori emateko egin zuen lana eta ahalegina eskertzeko.

Hala ere, Xabierrek triste gogoratzen zuen orduko kapitulu hura, artean gatazkaren inguruko bere ikuspegi ilunenean gainezka egiten baitzioten. Urtebete geroago, urtekari honetarako artikulua idatzi zuen, Aberriaren amets eder galdua izenarekin. Aukeratu ditudan testuek argi erakusten dute zer pentsatzen zuen nazionalismoari eta abertzaletasunari buruz.

“Aberria izan daiteke fisikoa, lurralde bat; mentala, ideia eta sugestio intelektualen mundua; izpirituala, artistarentzat, sinestunarentzat, ederzalearentzat; planetarioa, kosmikoa, etabar. Eta gainera, aberri partikularrak leudeke. Sufrimendua, adibidez, ez al

da aberri bat? Liburuak ez al dira beste aberria? Edo humanismo unibertsala, ulermenaren eta pietatearen bitartez gizaldia 'aberkideen' esparru bakar iza-tera eraman lezakeena...".

*"Aberria atxikimendu bat da, zenbat eta izpirituala-
goa orduan eta sakonagoa".*

*"Nik askotan pentsatu izan dut aberria, nunbait bal-
din badago, ez dagoela ez ideologietan, ez politikoen
erranetan, aberria egiaz une bakan eta harrigarrie-
tan nabaritu izan dut: udako gau epel batean belar
usai bat sentitzean; kanta zahar batzuk entzutean;
baserritar adinduekin mintzatzean... edo, agian,
urruneko hiri argitsu miresgarriaren irudia begiz-
tatzean".*

1999ko irailean eman zuen zuzeneko azken emanal-
dia. Errenterian izan zen, Kilometroak-en ekitaldien
barruan. Kanturako indarrak ia agortuak zituelarik,
idaztearekin konformatu behar izan zuen gero. Eta
osasunez oso makal zegoela, Lourdes hiltzen ikus-
teko kolpe lazgarria jasan behar izan zuen. 2005eko
abenduan izan zen.

Beretzat ere azken kolpea izango zela bazirudien
ere, indarrak bildu eta bere literatur sorkuntzako
azken txanpari ekiteko adorea izan zuen.

Halaxe eskatu zion Lourdesek hil aurretik: "Bizi
zaitez, Xabier, bizi, baina izan dadila zerbait ederra
sortzeko..."

Lourdes hil eta hilabete gutxira, maiatzaren 13an,
kontzertu bat egin zen Agustindarren komentuan,
abenduan Urnietan antolatzekoa zen omenaldiaren
aurreko ekitaldi gisa. Bientzat hain kuttuna zen leku
horretan egon nahi izan zuen Xabierrek. "Errota za-
har maitea"ren negar zotina inoiz baino tristeago
izan zen egun hartan:

***Negar egiten dezu
alea txetzean.***

***Ni ere triste nabil
zutaz oroitzean.***

Artikuluaren hasierako datara itzuliko gara berriz:
2006ko ekainaren 17ra. Oholtza gainean zeuden
taldeak "Adiskide bat bazen" elkarrekin interpreta-
tzen ari zirela, ikusleak ere bat-batean kantuan hasi
ziren. Hunkigarria izan zen. Kontzertua bukatu ze-
nean, garbi dago zein izan zen nire galdera:

- Zer moduz, Xabier?

*- Aurrean entzun dudana oso ondo,
bai nan atzetik entzundakoa, hobeto...*

Lourdesek azken borondate gisa esandakoak bultza-
turik, bere poesia lanik sakonena eta emankorrena
bukatzea lortu zuen: *Egunsentiaren esku izoztuak*
(2008). Lan hori jende aurrean erakusteari erabat
lotu zitzaion, eta humanitatea, zintzotasuna eta
elkartasuna esku-beteka, hamabi emanaldi egin





zituen, han eta hemen, Euskal Herrian zehar. Horietako bat Hernanin eman zuen, 2009ko irailaren 18an, Biteri Kultur Etxean.

*Udazkenean, errainu bat itzaltzen da
oroitzapen lurraldean,
desagertuen zantzu esankorrek
errelatoen desziurrean,
hitz hunkituak haizetara
eta desegiten doazen irudiak
zorrino galduaren paisaia urrunetan,
izan zen, izan ginen
galdu genuen iraun nahiaren dema
eta desira izugarri hartan joan ziren
bizitza apalaren zatiak...
kontu ematearen azken orduak hots dagi
hots dagi eta dohainen liburua hutsik dago,
hutsik dago guretzat, zuretzat, ororentzat.*

Bizitzako azken urteetan, hilean behin Hernanin bazkaltzeko elkartzeari nahi izan zuen Xabierrek. Osasunez makal zegoen, eta ezin zuen gauza handirik jan, baina, mahaiaren inguruan tertulian egoten ginen tarte hura, ohitura kuttuna bilakatu zitzaigun. Bi jatetxetan jaso genuen batik bat tratatu berezia eta maitekorra. Horregatik aipatu nahiko nituzke, balore sakoneko pertsona bat ezagutzeko, tratatzeko eta disfrutatzeko aukera izan zuten beste pertsona, familia, izendun eta anonimo askoren izenean. Balore horien artean hauxe nabarmendu zuen bere azken

borondatean: pertsonen arteko adiskidetasuna, senidetasuna eta elkartasuna. Jatetxe horiek *Zumardi* eta *Sansonategi* dira. Arkaitzi astero gogorarazten zion jatetxe on bateko kartan beti egon behar duela zoparen bat, kataluniar adiskide on batek zioen moduan: “para *calafatear* el estómago”. Elkarrekin egin genuen azken bazkaria 2010eko udan izan zen, Sansonategi jatetxeko beirateak Akarregi gaineko kaxkotik eskaintzen zigun ikuspegi apartaz gozatuz. Horixe izango zen ziur aski Xabierrek hil aurretik jende aurrean egin zuen azken bazkaria, halabeharrez gure txokoari begira eta gure txokoaz mintzatuz eman genuena. Oiartzundik 15 kilometrora...

*Nola nahi dela, nazionalismo askoren bidegabekeriak
lotsarazten gaituen une hauetan, nik abertzale izaten
jarraitu nahi dut. Zuek nahi izanez gero, han itxoinen
dizuet aberkideen ametsezko lurralde ederrean.*



2016

GARAI BERRI BATEN HASIERA

1966AN, HERRIAN, SONA HANDIA
IZAN ZUEN KULTUR
EKITALDIA OSPATU ZEN AITOR ANTZOKIAN;
EZ DOK AMAIRUREN HITZAURRE IZAN ZEN JAIALDIA

Jon Odriozola - Joxan Goikoetxea
(HERNANI 2016)

Hirurogeigarren hamarkadan (1960-69), Gipuzkoan, herritarren ia %60ak industrian egiten zuen lan. Hamarkada bat lehenago izandako migrazioaren ondorioz, populazioa nabarmen ugartu zen. 1966an, bestalde, turismoak gorantz egin zuenez hizketarako bidea eman zuten orduko moda tendentzia berriek.

Urte hartan, Espainiako telebistak (TVE) bigarren katea –UHF– jarri zuen martxan; ETB jaiotzeko urteak falta ziren (1982). Musika alorrean, Donostiako Trinitate plazan Jazzaldiko lehen edizioa ospatu zen, eta ‘goakete’ askotan *Los Brincos* pop taldeko *Black is black* kanta entzun zitekeen. 1966ko abuztuan, bestalde, Donostiako Radio Popularreko zuzendaritzak, *The Beatles* taldeko partaide batek egindako ustezko adierazpen batzuegatik –Jainkoa baino famatuagoak gara– taldearen kantak irratian emateari utziko ziotela jakinarazi zuen.

Euskal Herria Francoren diktadurapean bizi zen. 1966an, ‘Fragaren Legea’k lehen urratsak eman zituen, hau da, Prentsa eta Inprenta legeak. Manuel Fraga Iribarne (1922-2012) eskuindar politikari galiziar ezaguna izan zena, 1962tik Informazio eta Turismo Ministerioko (MIT) burua zen. Legea, zenbaitzuek, liberalizat jo zuten. Aurretiazko zentsura ezabatzen bazen ere, liburu bat kaleratzeko prozesua kontrolpean izaten jarraitzen zuten espainiar agintariak.

Eta giro honetan, zein zen euskal kulturaren egoera?

Bertsolari txapelketa batzuek jokatzeari gain (1960, 1962, 1965 eta 1967), adibidez, 1962an, Auñamendi editoriala legeztatua izan zen. 1963an, *Zeruko Argia* aldizkaria astekari bihurtu zen euskal kazetaritzari bultzada emanez. 1964an, berriz, Donostian, *Jarrai* antzerki taldea jaio zen Iñaki Beobideren (Zumaia, 1934) eskutik. Taldeak antzerki berrizalea egin

zuen: euskal autore gazteen lanak ezagutarazteaz gain, Ameriketako eta Europako autore garaikideen obrak antzeztu zituen.

Jai-aldi berezia

Jarrai taldeko gidaria, Iñaki Beobide, antzerki munduan ezaguna zen, eta erlazio handia zuen Jesus Mari Olano hernaniarrarekin: “*Bere osaba, Juan Olano, Santa Barbara elkarteko presidentea zen. Hantxe egiten genituen bilerak. Beti zeuden biok laguntzeko prest, guk, Hernaniko Aitor antzokian antzeztu genezan*”, dio Beobidek.

